Horrez gain, jaiotze-tasen bilakaera (eskualdeko udalerriekin alderatuz) eta haurren eskolatzearen datuak ere aztertu ditugu eta horrekin batera prospekzio demografikoen eraginak ere aztertu ditugu; etorkizuneko agertokian Arrasateko hezkuntza-eskaintzan nola eragin dezaketen gogoeta egiteko.

Laburbilduz, atal edo dimentsio honen bidez, oro har, Arrasateko hezkuntza-mapa eta hezkuntza-eskaintza nolakoa den ezagutzea dugu helburu.

| 1. DATU OROKORRAK | 1.1. HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIMENTSIOA |
|---|---|
| | 1.2. JAIOTZE-TASAK ETA HAURREN ESKOLATZEA |
| | 1.3. PROSPEKZIO DEMOGRAFIKOAK |

## 2.1.1. Hezkuntza-sistemaren dimentsioa[1]

### 2.1.1.1. Arrasateko ikastetxeak, hezkuntza-etapa, sarea eta ikas-ereduaren arabera

Arrasateko hezkuntza-eskaintza askotarikoa eta zabala da: **7 ikastetxe** daude guztira, Helduen Hezkuntzarako ikastetxea ere barne hartuta. Hezkuntza ez unibertsitarioaren ibilbidea osoa eskaintzen da Arrasaten eta ikastetxe bakoitzak hezkuntza-etapa desberdinei erantzuten die, etapa guztietan ikastetxe publiko zein itunpekoen eskaintza eginez:

- **0-2 urteko eskaintza** 4 ikastetxetan dago. Eskaintza sare publikoan eta itunpekoan dago. Ereduari dagokionez, ikastetxe guztiek D eredua dute.
- **Haur Hezkuntzako eskaintza** duten 3 ikastetxe daude, 2 publiko eta itunpeko bat, eta azken honek hiru zentro ditu. Guztiek eskaintzen dute D eredua.
- **Lehen Hezkuntzako eskaintza** bi ikastetxetan eskaintzen da, erdibana publiko eta itunpekoen artean, baina azken honek bi zentro ditu. Denetan D eredua dute.
- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Zereginen Ikaskuntza** ere ikastetxe publiko batean eta itunpeko batean eskaintzen da, biek D eredua dute.
- **Oinarrizko eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa zikloak** eskaintzen dituen zentro bakarra dago, itunpekoa, eta D, A eta R ereduetan ematen du eskaintza hori.
- **Goi Mailako Lanbide Heziketa** bi ikastetxetan eskaintzen da, bata pribatua eta bestea itunpekoa. Lehenak D, A eta R ereduetan egiten du eskaintza; bigarrenak, aldiz, D eta A ereduetan.

[1] Datu-iturriak: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Arrasateko ikastetxeak.

**1. Taula.**

*Herriko ikastetxeak, hezkuntza-etapa, sare eta ikas-ereduaren arabera.*

| IKASTETXEA | IZENDAPEN OFIZIALA | EREDUA | Haurreskola (0-2 urte) | Haur Hezkuntza (3-6 urte) | LMH | DBH | BATX | ZI | OLH | ELH | GLH | HHE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| UDAL HAUR ESKOLA | EIMU ARRASATE/MONDRAGÓN UHE | D | | | | | | | | | | |
| HAURRESKOLA (PARTZUERGOA) | EIC ARRASATEKO HAURRESKOLA-BEDOÑABE PHE | D | | | | | | | | | | |
| | EIC ARRASATEKO HAURRESKOLA-MUSAKOLA PHE | D | | | | | | | | | | |
| ARRASATE HERRI ESKOLA | CEIP ARRASATE HERRI ESKOLA HLHI | D | | | | | | | | | | |
| IKASTOLA | CPEI UME-ZAINTZA IKASTOLA HHIP | D | | | | | | | | | | |
| | CPEIPS GAZTELUPE-ARIMAZUBI IKASTOLA HLBHIP | D | | | | | | | | | | |
| | CPEIPS SAN FRANTZISKO XABIER HLBHIP | D+A+R | | | | | | | | | | |
| ARRASATE BHI | IES ARRASATE BHI | D | | | | | | | | | | |
| MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA | CPIFP MONDRAGON GOI ESK.POLITEK.,J.M.A.,S.COOP LHI | D+A | | | | | | | | | | |
| HELDUEN HEZKUNTZA | CEPA ARRASATE HHE | A | | | | | | | | | | |

| | |
|---|---|
| Itunpekoak | |
| Publikoak | |
| Pribatua | |

| | |
|---|---|
| Haurreskola (0-2 urte) | Haur Hezkuntza lehen zikloa (0-2 urte) |
| Haur Hezkuntza (3-6 urte) | Haur Hezkuntza bigarren zikloa (3-6 urte) |
| LMH | Lehen Mailako Hezkuntza (6-12 urte) |
| DBH | Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte) |
| BATX | Batxilergoa (16-18 urte) |
| ZI | Zereginen Ikaskuntza |
| OLH | Oinarrizko Lanbide Heziketa |
| EMLH | Erdi Mailako Lanbide Heziketa |
| GMLH | Goi Mailako Lanbide Heziketa |
| HHE | Helduen Hezkuntza |

#### 2.1.1.2. Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko ikasleak sexu, sare eta etaparen arabera (azken 5 ikasturteetako bilakaera)

Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko ikasle guztiak kontuan hartuta, 2021-2022 ikasturtean 4.026 ikasle egon dira matrikulatuta ikastetxeetan. Bilakaerari erreparatuz gero, kopuruak beheranzko joera hartu dut azken bost urteetan eta, nahiko orekatuta bada ere, beti gehiago izan dira gizonezkoak emakumezkoak baino. Hain zuzen ere, 2021-2022 ikasturtean ikasleen %52,8 gizonezkoak ziren eta %47,2 emakumezkoak.

**1. Grafikoa.**
*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko ikasleak azken 5 ikasturteetan orotara eta sexuaren arabera (Abs)*



**2. Grafikoa.**

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko ikasleak azken 5 ikasturteetan orotara eta sexuaren arabera (%)*




Aurreko atalean aipatu diren etapei begiratuz gero, ikasle gehien Lehen Hezkuntzan (1190 ikasle) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (880 ikasle) biltzen da. Gertutik jarraitzen dute batxilergoak eta goi-mailako lanbide-heziketak eta hauetan matrikulazioetan gorakadatxoa egon da. Ikasle gutxien jasotzen duten etapak zereginen ikaskuntza eta oinarrizko lanbide heziketa dira, hurrenez hurren. Azken bost urteetako bilakaeran aldaketa nabarmenena Helduen Hezkuntzak izan duen beherakada da, 200 bat ikaslekoa.

**3. Grafikoa.**

*Arrasateko ikastetxeetako ikasle kopuruaren batez bestekoa, hezkuntza-etaparen arabera.*



**4. Grafikoa**.

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko ikasleak hezkuntza-etaparen arabera (Abs)*




| | HAURRESKOLA | HAUR-HEZKUNTZA | LEHEN MAILAKO HEZKUNTZA | DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA | BATXILERGOA | OINARRIZKO MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | ERDI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | HELDUEN HEZKUNTZA | ZEREGINEN IKASKUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 150 | 758 | 1245 | 866 | 236 | 53 | 91 | 278 | 518 | 10 |
| 2018-19 | 135 | 744 | 1216 | 918 | 280 | 52 | 109 | 271 | 522 | 11 |
| 2019-20 | 124 | 698 | 1207 | 902 | 336 | 53 | 122 | 282 | 551 | 10 |
| 2020-21 | 90 | 652 | 1199 | 885 | 346 | 52 | 129 | 305 | 393 | 11 |
| 2021-22 | 128 | 625 | 1190 | 880 | 361 | 53 | 135 | 334 | 309 | 11 |

Hezkuntza-etapen bilakaera zehatzago aztertuta, hainbat joera nabarmendu daitezke. Alde batetik, matrikulazioetan goranzko joera apala izan du azken hiru urteetan erdi mailako lanbide heziketak; goranzko joera nabarmenagoa izan da, berriz, batxilergoan eta goi-mailako lanbide heziketan. Aldiz, beheranzko joera dute haur hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza eta, nabarmen, helduen hezkuntza. Azkenik, oinarrizko lanbide heziketa eta zereginen ikaskuntzetako matrikulazioek maila bertsuan jarraitzen dute.

**5. Grafikoa**.

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko ikasleak hezkuntza-etaparen arabera (%).*




Ikastetxeei dagokienez, ikasle gehien jasotzen dituen ikastetxea ikastola da, alde handiarekin, kontuan izanda etapa guztiak dituen ikastetxe bakarra dela. Gainera, azken bost urteetako matrikulazioei begiratuta, ikasle kopuruetan gora egin duela ikusi daiteke eta 2021-2022 ikasturtean ikasleen %51,6a Ikastolan egon zen matrikulatuta. Herri Eskolako matrikulazioek apur bat behera egin dute eta ikasleen %15 izan zuten; Arrasate BHIko matrikulazioek pixka bat gora egin dute eta ikasleen %14,9 izan zuten 2021-2022 ikasturtean; Haurreskolako matrikulazioak antzeko jarraitzen dute azken urteetan kopuruei eutsiz (ikasleen %1,1); Udal Haurreskolakoek, berriz, behera egin dute (ikasleen %2,7) Mondragon Goi Eskola Politeknikoko matrikulazioek gora egin dute (ikasleen %7,1); eta, azkenik, beherakada nabarmena izan du Helduen Hezkuntzak (ikasleen %12,3 izatetik %7,7ra pasa da).

**6. Grafikoa**.

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko ikasleak, ikastetxearen (haurreskola, ikastola, eskola eta institutua) arabera (Abs).*




| | HERRI ESKOLA | HELDUEN HEZKUNTZA | IKASTOLA | MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA | HAURRESKOLA | UDAL HAURRESKOLA | ARRASATE BHI |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 736 | 518 | 2009 | 226 | 27 | 163 | 526 |
| 2018-19 | 697 | 522 | 2055 | 221 | 31 | 144 | 588 |
| 2019-20 | 646 | 551 | 2110 | 234 | 28 | 114 | 602 |
| 2020-21 | 625 | 393 | 2081 | 256 | 20 | 98 | 589 |
| 2021-22 | 602 | 309 | 2079 | 285 | 43 | 107 | 601 |

**7. Grafikoa.**

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko ikasleak, ikastetxearen (haurreskola, ikastola, eskola eta institutua) arabera (%).*




| | 2017-18 | 2018-19 | 2019-20 | 2020-21 | 2021-22 |
|---|---|---|---|---|---|
| HERRI ESKOLA | 17,5% | 16,4% | 15,1% | 15,4% | 15,0% |
| HELDUEN HEZKUNTZA | 12,3% | 12,3% | 12,9% | 9,7% | 7,7% |
| IKASTOLA | 47,8% | 48,3% | 49,2% | 51,2% | 51,6% |
| MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA | 5,4% | 5,2% | 5,5% | 6,3% | 7,1% |
| HAURRESKOLA | 0,6% | 0,7% | 0,7% | 0,5% | 1,1% |
| UDAL HAURRESKOLA | 3,9% | 3,4% | 2,7% | 2,4% | 2,7% |
| ARRASATE BHI | 12,5% | 13,8% | 14,0% | 14,5% | 14,9% |

### 2.1.1.3. Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak sexuaren, ikastetxearen, hezkuntza-etaparen eta jatorriaren arabera (azken 5 ikasturteetako bilakaera).

Arrasateko hezkuntza-sistema arautuan jatorri atzerritarreko familietako 629 ikasle egon ziren matrikulatuta 2021-2022 ikasturtean (ikasle guztien %15,62). Bilakaerari erreparatuz gero, 2019-2020 ikasturtera bitartean goranzko joera izan bazuen ere, 2020-2021 ikasturtean jaitsiera izan zen eta azken honetan berriz ere gora egin du apur batean. Ikasle talde honetan, emakume eta gizon

kopuruen artean ez dago alde handirik. 2021-2022 ikasturtean, emakumezkoak gehiago ziren (%52,3).

**8. Grafikoa.**

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak orotara eta sexuaren arabera (Abs)*




**9. Grafikoa.**

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak orotara eta sexuaren arabera (%)*




Jarraian ikusi daitekeen moduan, jatorri atzerritarreko familietako ikasleen banaketan aldeak daude ikastetxeen artean. Herri eskolan daude matrikulazio gehienak, guztira 242 ikasle, %38,47. Gainera, azken aldian gero eta altuagoa da matrikulazioa. Ikastolak ere jatorri atzerritarreko familietako ikasle gehiago jaso du azken urteotan, baina portzentaia txikiagoekin, %24,32 izan ziren 2021-2022 ikasturtean. Arrasate BHIk, ikasle gutxiago jasotzen duen arren, goranzko joera nabaria izan du azken ikasturtean eta, kontrara, Helduen Hezkuntzan jatorri atzerritarreko familietako gero eta ikasle gutxiago matrikulatzen da. Udal haurreskolan eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoan, berriz, oso presentzia txikia dute.

**10. Grafikoa.**

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak ikastetxearen arabera (Abs)*




| | HERRI ESKOLA | HELDUEN HEZKUNTZA | IKASTOLA | MONDRAGOI GOI ESKOLA POLITEKNIKOA | UDAL HAURRESKOLA | ARRASATE BHI |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 213 | 212 | 134 | 5 | | 49 |
| 2018-19 | 218 | 228 | 141 | 3 | | 56 |
| 2019-20 | 210 | 235 | 174 | 9 | 2 | 52 |
| 2020-21 | 227 | 189 | 147 | 4 | 1 | 48 |
| 2021-22 | 242 | 168 | 153 | 5 | | 61 |

**11. Grafikoa.**

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak ikastetxearen arabera (%)*




Hezkuntza etapari erreparatuta, Lehen Hezkuntzak (%33,2) eta Helduen Hezkuntzak (%26,7) jaso dituzte jatorri atzerritarreko familietako ikasle gehien, eta ostetik datoz Haur Hezkuntza (%16,1) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (%15,3). Oinarrizko Lanbide Heziketan, Erdi-mailako Lanbide Heziketan eta Batxilergoan presentzia txikia da eta are txikiagoa Goi-mailako Lanbide Heziketan, Zereginen Ikaskuntzan eta Haurreskoletan.

Bilakaerei begiratuta, nabarmenak dira azken 5 urtetan LHn eta Batxilergoan jatorri atzerritarreko familietako ikasleek izandako gorakada (%26,3tik %33,2ra, lehenak eta %1,1etik %2,1era,

bigarrenak) eta, kontrara, HHn eta Helduen Hezkuntzan izandako beherakada (%20,7tik %16,1era, lehenak eta %34,6tik %26,7ra, bigarrenak).

**12. Grafikoa.**

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak hezkuntza-etaparen arabera (Abs)*



| | HAURRESKOLA | HAUR-HEZKUNTZA | LEHEN MAILAKO HEZKUNTZA | DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA | ZEREGINEN IKASKUNTZA | BATXILERGOA | OINARRIZKO MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | ERDI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | HELDUEN HEZKUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | | 127 | 161 | 73 | 1 | 7 | 17 | 10 | 5 | 212 |
| 2018-19 | | 123 | 162 | 100 | 1 | 3 | 11 | 14 | 4 | 228 |
| 2019-20 | 1 | 114 | 184 | 104 | 1 | 2 | 15 | 15 | 11 | 235 |
| 2020-21 | 1 | 114 | 194 | 78 | 1 | 6 | 18 | 10 | 5 | 189 |
| 2021-22 | | 101 | 209 | 96 | 3 | 13 | 19 | 15 | 5 | 168 |

**13. Grafikoa.**

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak hezkuntza-etaparen arabera (%)*



| | 2017-18 | 2018-19 | 2019-20 | 2020-21 | 2021-22 |
|---|---|---|---|---|---|
| HELDUEN HEZKUNTZA | 34,6% | 35,3% | 34,5% | 30,7% | 26,7% |
| LEHEN MAILAKO HEZKUNTZA | 26,3% | 25,1% | 27,0% | 31,5% | 33,2% |
| HAUR-HEZKUNTZA | 20,7% | 19,0% | 16,7% | 18,5% | 16,1% |
| DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA | 11,9% | 15,5% | 15,2% | 12,7% | 15,3% |
| OINARRIZKO MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | 2,8% | 1,7% | 2,2% | 2,9% | 3,0% |
| ERDI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | 1,6% | 2,2% | 2,2% | 1,6% | 2,4% |
| BATXILERGOA | 1,1% | 0,5% | 0,3% | 1,0% | 2,1% |
| GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | 0,8% | 0,6% | 1,6% | 0,8% | 0,8% |
| ZEREGINEN IKASKUNTZA | 0,2% | 0,2% | 0,1% | 0,2% | 0,5% |
| HAURRESKOLA | 0,0% | 0,0% | 0,1% | 0,2% | 0,0% |

Guztira 43 herrialdetako ikasleak matrikulatu dira Arrasateko hezkuntza-sistema arautuan 2021-2022 ikasturtean. Ondorengo grafikoan 10 herrialde ohikoenen ikasle kopuruak eta bilakaera ikusi daitezke. Kultura-komunitate nagusiena marokoarra da (%36,47). Bigarrena pakistandarra, baina azken bost urteetan presentzia galdu du.

**14. Grafikoa**.

*Arrasateko hezkuntza-arautuko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak jatorrizko herrialdearen arabera.*




Azken 5 urteetako joerei erreparatuta, hazi egin dira marokoar, aljeriar eta nikaraguar jatorriko familietako ikasleak eta behera egin dute pakistandarrek. Gainontzekoak, tarteko gorabeherak medio, nahiko egonkor mantendu dira.

**15. Grafikoa.**

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak jatorrizko herrialdearen arabera (Abs).*




| | MAROKO | PAKISTAN | KOLONBIA | MENDEBALDEKO SAHARA | ALJERIA | HONDURAS | NIKARAGUA | BOLIVIA | DOMINIKAR ERREPUBLIKA | MAURITANIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 159 | 115 | 50 | 50 | 33 | 26 | 8 | 19 | 20 | 13 |
| 2018-19 | 169 | 94 | 60 | 59 | 35 | 28 | 17 | 12 | 15 | 13 |
| 2019-20 | 205 | 87 | 57 | 38 | 38 | 26 | 23 | 17 | 16 | 17 |
| 2020-21 | 167 | 86 | 62 | 48 | 40 | 29 | 27 | 16 | 13 | 14 |
| 2021-22 | 186 | 90 | 54 | 48 | 42 | 23 | 22 | 16 | 15 | 14 |

r

**16. Grafikoa.**

*Arrasateko hezkuntza-sistema arautuko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak jatorrizko herrialdearen arabera (%).*




| | 2017-18 | 2018-19 | 2019-20 | 2020-21 | 2021-22 |
|---|---|---|---|---|---|
| MAROKO | 32,25% | 33,67% | 39,12% | 33,27% | 36,47% |
| PAKISTAN | 23,33% | 18,73% | 16,60% | 17,13% | 17,65% |
| KOLONBIA | 10,14% | 11,95% | 10,88% | 12,35% | 10,59% |
| MENDEBALDEKO SAHARA | 10,14% | 11,75% | 7,25% | 9,56% | 9,41% |
| ALJERIA | 6,69% | 6,97% | 7,25% | 7,97% | 8,24% |
| HONDURAS | 5,27% | 5,58% | 4,96% | 5,78% | 4,51% |
| NIKARAGUA | 1,62% | 3,39% | 4,39% | 5,38% | 4,31% |
| BOLIVIA | 3,85% | 2,39% | 3,24% | 3,19% | 3,14% |
| DOMINIKAR ERREPUBLIKA | 4,06% | 2,99% | 3,05% | 2,59% | 2,94% |
| MAURITANIA | 2,64% | 2,59% | 3,24% | 2,79% | 2,75% |

### 2.1.1.4. Eskolatze Batzordeak kudeatutako ikasleen bilakaera hezkuntza etaparen eta ikastetxearen arabera.

Eskolatze Batzordeak azken bost ikasturteetan kudeatu dituen ikasleei dagokienez, LHkoak dira talderik handiena ikasturtero. Besteekiko aldea, gainera, handituz joan da azken ikasturteetan, 2021-2022 ikasturtean 26 izan zirelarik. DBH eta HHko adinetan dauden ikasleen artean gorabehera gehiago egon da, baina bataz beste kopuruak mantentzen direla dirudi, 15 bat ikasleren bueltan. Oro har, 2020-2021 ikasturtean Eskolatze Batzordeak kudeatutako ikasleen kopuruak nabarmen egin zuen behera eta hurrengo ikasturtean berriz ere aurreko kopuruetara itzuli zen.

**17. Grafikoa.**

*Eskolatze Batzordeak kudeatutako ikasleen bilakaera, hezkuntza-etaparen arabera*




Ikasleak zein ikastetxeetan egon diren begiratuta, berriz, Arizmendi Ikastola izan da Eskolatze Batzordeak kudeatutako ikasle gehien izan duen ikastetxea. 2019-2020 ikasturtean izan zuen ikasle gehien (34) eta 2021-2022 ikasturtean 27 izan zituen. Herri Eskolaren kasuan, datuak bildu diren azken ikasturtean gorakada izan du aurrekoekin alderatuta eta 18 ikasle izan ditu. Arrasate BHIn, berriz, 2018-2019tik 2020-2021ra beherakada nabarmena izan arren (14tik 1era), azkenengo ikasturtean 10 ikasle jaso ditu.

**18. Grafikoa.**

*Eskolatze Batzordeak kudeatutako ikasleen bilakaera, ikastetxearen arabera.*



### 2.1.1.5. Ikasle lekualdaketak, hezkuntza-etaparen arabera eta ikastetxearen arabera.

Ikasle lekualdaketak begiratuta, azken 5 ikasturteetan aldaketak egon direla ikus daiteke. Alde batetik, kopuruei erreparatuz gero, 2017-2018 ikasturtetik aurrera kopuru totalek behera egin dute urtez urte, baina 2021-2022an berriz ere gorakada egon da, lekuz aldatu diren 62 ikaslera heldu arte. Beherakada nabariena 2020-2021an gertatu zen. Hala, 5 urteko bilakaeran, lekualdatutako 55 ikasle egotetik 62 ikasle izatera pasa dira.

Etapen arteko aldeak ez dira oso nabariak. Orokorrean, LHko eta HHko ikasleak gehiago direla esan daiteke DBHkoak baino. HHko ikasleen kopuruak beheranzko joera izan du 2017-2018 ikasturtetik (22 ikasle) 2020-2021 ikasturtera (9 ikasle), baina kopuruak asko hazi dira 2021-2022 ikasturtean (24 ikasle). LHko ikasleak, bestetik, kopuruz dezente jaitsi ziren 2017-2018 ikasturtetik 2028-2019 ikasturtera bitartean (23 ikasletik 13 ikaslera), baina aurreko zenbakietara iritsi arte igoz joan dira urtez urte, azken ikasturtean 22 lekualdatzera arte. DBHkoak, azkenik, gorabeheratsuagoak izan dira eta kopuru totaletan gora egin dute bost urteko bilakaeran (10etik 16ra).

**19. Grafikoa.**

*Ikasle lekualdaketak, hezkuntza-etaparen arabera.*




Lekualdatutako ikasleak ikastetxeka sailkatuta, berriz, honako irudia ageri da. Arizmendik jasotzen ditu ikasle gehienak, baina gero eta gutxiago dira. 2017-2018 ikasturtetik 2019-2020 ikasturtera bitartean kopuruak jaisten joan ziren (33tik 16ra arte) eta azken bi ikasturteetan berriz ere gora egin dute, 28ra heldu arte. Herri Eskolaren kasuan, azken 5 ikasturteetako bilakaera gorabeheratsua izan da, baina 9 ikasle gehiago izatera iritsi da. Nabarmentzekoa da azken ikasturtean izandako gorakada, 2020-2021 ikasturtean 10 ikasle izatetik 2021-2022an 27 izatera pasa baita. Azkenik, Arrasate BHIk jasotzen du lekualdatutako ikasle gutxien eta 20218-2019 ikasturtetik beheranzko joera izan badu ere, azken urtean ikasle gehiago jaso du.

**20. Grafikoa.**

*Ikasle lekualdaketak, ikastetxearen arabera.*




### 2.1.1.6. Arrasateko ikasleen bizitokien mapa, kale eta auzoaren arabera[2]

Arrasateko ikasleak jarraian ageri diren auzo eta kaleetan daude banatuta, batik bat, hauek baitira 25 ikasle baino gehiago bizi diren tokiak.

**21. Grafikoa.**

*Arrasateko ikasleen bizitokiaren mapa, kale eta auzoaren arabera (orotara).*




Ikasle horiek matrikulatuta dauden ikastetxeetan banatuz gero, agerikoa da Txaeta kalean eta Errebuelta kalean izan ezik, Arizmendi Ikastolako ikasleak direla gehienak herriko 25 bizitoki ohikoenetan. Zerrajera kalean, Euskal Herria plazan, Legargain kalean, Martxoaren 8a kalean eta Iturriotz kalean bizi diren ikasleen %80tik gora Arizmendi Ikastolako ikasleak dira. Bestalde, Txaeta

[2] Datu iturria: Arrasateko ikastetxeak

kalean ez dira %30 izatera heltzen. Azken kale honetako ikasleen erdia baino gehiago Herri Eskolan daude matrikulatuta eta gainontzekoak Arrasate BHIn.

### 2.1.1.7. Arrasateko ikasleen bizitokiaren mapa, kale eta auzoaren arabera, ikastetxeka

Hurrengo grafikoetan ikasleen bizitokien mapak ikusi daitezke, kale eta auzoaren arabera banatuta, ikastetxeka. Lehen begirada batean deigarria da Txaeta kalean Herri Eskolak eta Arrasate BHI ikastetxeek duten ikasle kopuru altua, baina ez da berdin gertatzen Arizmendi Ikastolarekin. Azken honek, Erguin eta Zerrajera kaleetan zein Euskal Herria plazan du ikasle kopuru gehien, baina nahiko kantitate orekatuan jasotzen ditu beste kale zein auzoetako ikasleak ere. Herri Eskolaren kasuan, berriz, proportzioan alde handiz bizi dira ikasle gehienak Txaeta auzoan eta beste kaleen artean ez dago alde nabarmenik. Antzerako egoeran da Arrasate BHIrena, hain muturrekoa izan gabe.

**22. Grafikoa**

*Arrasateko ikasleen bizitokiaren mapa, kale eta auzoaren arabera, ikastetxeka: HERRI ESKOLA.*




**23. Grafikoa**

*Arrasateko ikasleen bizitokiaren mapa, kale eta auzoaren arabera, ikastetxeka: ARRASATE BHI*




***24. Grafikoa**.*

*Arrasateko ikasleen bizitokiaren mapa, kale eta auzoaren arabera, ikastetxeka: IKASTOLA*



Ikasleen bizitokiak mapan kokatuz gero, Herri Eskolako ikasle gehienak herriaren hegoaldetik eta mendebaldetik datozela ikusten da, hain zuzen ere, eskolaren inguruko kaleetatik, Txaeta kale ingurutik eta Araba etorbidearen alderditik (aipatzeko da hemen kokatzen dela Arrasateko Herri Eskolaren HH eta Haurreskola zerbitzuak eskaintzen dituen Bedoñabe zentroa).

Arrasate BHIko ikasle gehienak herriaren ekialdean bizi direla ikusten da grafikoan, zentroa bera kokatuta dagoen ingurutik, hain zuzen. Hala ere, badago Erguinen, Txaetan edo herriaren erdialdean bizi den ikaslerik ere

**1. Mapa**

*Arrasateko ikasleen bizitokiaren mapa, kale eta auzoaren arabera, ikastetxeka: HERRI ESKOLA.*



## 2. Mapa

*Arrasateko ikasleen bizitokiaren mapa, kale eta auzoaren arabera, ikastetxeka: ARRASATE BHI.*




Ikastolako ikasleen bizitokiaren kokapenari begiratuta, ez da tendentzia nabarmenik nabari. Agian, hutsuneetan arreta jarriz gero, herriaren ekialdean edo hegoaldean (Araba hiribidearen inguruan) bizi diren ikasleen falta sumatzen dela aipatu daiteke.

## 3. Mapa

*Arrasateko ikasleen bizitokiaren mapa, kale eta auzoaren arabera, ikastetxeka: IKASTOLA.*



### 4. Mapa

*Arrasateko ikasleen bizitokiaren mapa, kale eta auzoaren arabera, ikastetxeka.*




Azkenik, mapa guztiak gainjarrita, ikastetxeen arteko aldeak eta kointzidentziak ikusi daitezke aurreko mapan. Aipatzekoa da kointzidentziak egonda ere, ikastetxeek badituztela herrian eremu propioak, kolore urdin, berde eta grisak erakusten duten moduan.

Arrasatera ikastera beste herri batetik datozen ikasleak ere badira, eta hauek matrikulatuta dauden ikastetxeen arabera sailkatuz gero, gehienak bigarren hezkuntza egitera etortzen direla ikusi daiteke. Ikasleen gehiengoa Aretxabaletatik, Aramaiotik etortzen da, baita Eskoriatzatik  eta Bergaratik ere. Bestetik, 10 herri ohikoenen artean sartzen dira Oñati, Gasteiz, Elorrio, Elgeta, Urretxu eta Soraluze. Herri Eskolak inguruko herrietako ikasle batzuk jasotzen baditu ere, gehienak Arrasate BHI eta Ikastolara etortzen dira. Herrien urruntasunari erreparatuta, berriz, Ikastolak muga-herrietatik haratagoko ikasle gehiago jasotzen du.

**25. Grafikoa.**

*Ikasleen bizitokiaren mapa: Arrasatera ikastera beste herri batetik datozen ikasleen jatorri ohikoenak eta helburuko ikastetxea.*




## 2.1.2. Jaiotza-tasak eta haurren eskolatzea[3]

26. grafikoan ikusi daitekeenez, azken 20 urtetako jaiotza-tasa gordinak beheranzko joera erakusten du oro har, halakoxea baita EAE, Gipuzkoa, Debagoiena eta Arrasateko kasuetan. Datuei zehatzago begiratuz gero, azken 4-5 urteetan Debagoienako jaiotza-tasa gordinak EAEkoaren eta Gipuzkoakoaren azpitik egon direla ikusi daiteke. Eta, Arrasateri begiratuta, orokorrean bataz besteko denak baina zifra txikiagoetan ibili da. Hain zuzen ere, Arrasateko jaiotza-tasa 2,38 puntu jaitsi da azken 20 urteetan. 2019an eta 2020an lurraldean izandako beheranzkorik jasan ez bazuen ere, 2021eko datuetan berriz ere Gipuzkoako, EAEko eta Debagoieneko jaiotze-tasaren bataz bestekoa baino baxuagoa izan zuen Arrasatek, Gipuzkoakoa baino puntu bat baxuagoa.

27. grafikoan berriz, Arrasateko eta inguruko herrietako jaiotza-tasa gordinak ageri dira. Bertan ikusi daitekeen moduan, azken urte askoan Arrasate beste herrien azpitik ibili bada ere, azken 5 urteetan bataz bestekoan dabilela esan genezake. Hala ere, jaiotza-tasak behera egin du, beste herri askotan bezala, 6,52 puntutik 5,86 puntura arteko jaitsierarekin. Joera orokorren kontrara, azken bost urteetan Antzuola, Leintz-Gatzaga eta Eskoriatzan jaiotza-tasa igo egin da.

[3] Datu-iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, 2023.

**26. Grafikoa.**

*Jaiotza-tasa gordinaren bilakaera lurralde-eremuaren arabera (EAE, Gipuzkoa, Debagoiena eta Arrasate)*




| | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 8,69 | 9,21 | 9,33 | 9,34 | 9,44 | 9,63 | 9,89 | 9,66 | 9,74 | 9,73 | 9,42 | 8,79 | 8,92 | 8,68 | 8,39 | 7,84 | 7,37 | 7,03 | 6,71 | 6,51 |
| Gipuzkoa | 9,25 | 9,95 | 9,95 | 9,93 | 10,25 | 10,36 | 10,41 | 10,24 | 10,28 | 10,03 | 9,76 | 8,88 | 8,97 | 8,95 | 8,45 | 7,84 | 7,64 | 7,14 | 6,98 | 6,87 |
| Debagoiena | 8,21 | 8,66 | 9,02 | 8,95 | 9,48 | 9,57 | 9,71 | 9,9 | 10,65 | 10,01 | 9,57 | 9,37 | 9,04 | 9,32 | 7,88 | 7,06 | 7,21 | 6,8 | 6,4 | 6,44 |
| Arrasate/Mondragón | 8,24 | 7,99 | 8,02 | 7,86 | 8,81 | 8,33 | 8,66 | 7,73 | 9,13 | 8,58 | 7,27 | 8,49 | 7,62 | 8,35 | 8,42 | 6,75 | 6,52 | 7,02 | 6,94 | 5,86 |

**27. Grafikoa.**

*Jaiotza-tasa gordinaren bilakaera Arrasaten zein inguruko beste udalerri batzuetan*




| | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Arrasate/Mondragón | 8,24 | 7,99 | 8,02 | 7,86 | 8,81 | 8,33 | 8,66 | 7,73 | 9,13 | 8,58 | 7,27 | 8,49 | 7,62 | 8,35 | 8,42 | 6,75 | 6,52 | 7,02 | 6,94 | 5,86 |
| Antzuola | 9,76 | 10,62 | 8,59 | 8,55 | 17,53 | 15,08 | 13,97 | 18,01 | 18,75 | 14,06 | 15,77 | 12,07 | 13,38 | 11,64 | 7,66 | 6,77 | 4,52 | 3,65 | 4,16 | 5,6 |
| Aretxabaleta | 10,32 | 11,24 | 11,38 | 12,2 | 10,31 | 12,48 | 13,85 | 10,34 | 11,65 | 10,47 | 13,21 | 9,2 | 9,59 | 9,6 | 7,31 | 8,9 | 9,1 | 8,32 | 6,62 | 6,48 |
| Bergara | 7,5 | 7,74 | 9,4 | 7,89 | 8,16 | 8,73 | 8,68 | 10,25 | 10,05 | 9,25 | 9,62 | 8,95 | 9,01 | 8,71 | 6,75 | 7,07 | 7,47 | 5,06 | 6,23 | 6,91 |
| Elgeta | 7,25 | 9,11 | 6,99 | 16,02 | 8,94 | 12,76 | 9,68 | 7,61 | 13,06 | 12,81 | 15,29 | 14,35 | 8,15 | 15,44 | 16,96 | 9,65 | 12,28 | 10,57 | 10,66 | 3,6 |
| Eskoriatza | 9,98 | 11,31 | 7,97 | 10,25 | 9,44 | 11,78 | 9,15 | 10,63 | 12,09 | 11,82 | 8,32 | 6,08 | 7,29 | 11,21 | 6,1 | 5,13 | 4,66 | 6,61 | 4,62 | 5,55 |
| Leintz-Gatzaga | 12,82 | 8,44 | 12,5 | 12,1 | 8 | 15,81 | 3,85 | 15,38 | 11,36 | 0 | 3,72 | 7,6 | 11,86 | 12,1 | 0 | 8,13 | 4,02 | 4,13 | 0 | 4,48 |
| Oñati | 6,97 | 8,49 | 9,8 | 9,59 | 10,7 | 9,07 | 10,21 | 11,71 | 11,45 | 12,08 | 10,55 | 12,01 | 11,34 | 10,05 | 8,66 | 6,98 | 8,03 | 8,06 | 6,22 | 7,71 |

Azken 5 urteetan izandako jaiotzak eta 2 urteko gelan izandako eskolaratzeak parekatuta, kontrako bilakaera ikus dezakegu. Izan ere, jaiotzek behera egin badute ere, 2 urteko gelan gero eta haur gehiago eskolaratzen da, hau da, eskolaratze-tasak gora egin du. 2022 ikasturteko datua da nabarmenena, ia 20 puntu egin baitu gora 2 urteko eskolaratze-tasak. Gainera, joera hau bat batekoa izan da, 2018-2020 artean joera beheranzkoa baitzen.

**28. Grafikoa**.

*Eskolatutako 0-2 urteko umeen bilakaera: jaiotza-kopurua eta eskolaratuen ehunekoa.*




### 2.1.3. Prospekzio demografikoak[4]

Eustatek etorkizunean izango den biztanleriari buruzko kalkuluekin epe labur zein luzeko proiekzio demografikoak osatzen ditu. Atal honetan, EAEko eta lurralde historiko ezberdinetako zenbait bilakaera eta proiekzio erakutsiko dira, eszenatoki ezberdinen arabera. Agertoki hauek irudikatzeko, fenomeno demografikoek eskainitako ezagutzan oinarritzeaz gain, hilkortasun, ugalkortasun eta migrazio adierazleak erabiltzen dira.

2016-2061 aldirako EAEko eta bertako lurralde historikoetako biztanleria aztertzen duen Eustaten azkeneko azterketan (2018koa) etorkizunerako sei eszenatoki eraiki dira. Horretarako, 2061era arte luzatu dira proiekzio honetan aurreikusitako heriotza-tasak, ugalkortasunak eta migrazioek etorkizunean izango dituzten bilakaera-joerak, eta parametro bakoitzetik bi hipotesiren araberako eszenatoki eraiki dira:

- “Bat” eszenatokiak proiekzio ertainak egiten ditu parametro guztietan.
- “Bi” eszenatokiak migrazio hipotesi ertaina, ugalkortasun handiari buruzko hipotesi altua eta bizi-itxaropen txikienaren hipotesiak egiten ditu.
- “Hiru” eszenatokiak migrazio hipotesi ertaina, ugalkortasun txikieneko hipotesia eta bizi-itxaropen handieneko hipotesia egiten ditu.

[4] Datu-iturria: EUSTAT biztanleria proiekzioak, emaitzen analisia; eta EUSTAT eszenatoki demografikoak 2061, emaitzen analisia.

- "Lau" eszenatokiak ugalkortasunari eta heriotza-tasari buruzko hipotesi ertainak eta migrazio-saldoa aldatuta, migrazio-fluxu gehigarriekin (lan-partaidetzaren tasa altuekin, faktore demografikoak 1 milioi landun).
- "Bost" eszenatokiak ugalkortasunari eta heriotza-tasari buruzko hipotesi ertainak eta migrazio-saldoa aldatuta, migrazio-fluxu gehigarriekin (15 urtetik gorako langabe bakoitzeko landun bat).
- "Sei" eszenatoki instrumentala, heriotza-tasa eta ugalkortasunari buruzko hipotesi ertainak eta migraziorik gabeko ustezko kasua.

**29. Grafikoa.**

*EAEko biztanleriaren bilakaera eta proiekzioa eszenatoki demografiko desberdinen arabera, 1976-2061*




Biztanleriaren bilakaerari dagokionez, EAEn oraingo biztanleria-zifrak mantentzeko migrazioek biztanle asko ekarri behar dituztela ikus daiteke (28. grafikoa). Izan ere, eszenatoki guztien kasuan hazkunde begetatibo negatiboa ikusten da, murriztuz doana, urteko tarte guztietan. Hala, EAEko dinamika demografikoaren ezaugarri nagusia izango da hazkunde natural negatiboa, epe laburrean (29. grafikoa). Eszenatoki guztiek egiten dute behera, euskal biztanleriaren egitura demografikoa eta horrek etorkizunean heriotza-tasan eta jaiotza-tasan izango duen eragina direlako joeraren kausa.

**30. Grafikoa.**

*EAEko hazkunde naturalaren bilakaera eta proiekzioa eszenatoki demografiko desberdinen arabera, 1976-2061*




Biztanleriaren hazkundearen bilakaerari eta 2030erako egindako proiekzioei erreparatzen badiogu (30. grafikoa), egungo biztanleriaren zifrak mantentzeko migrazio-fluxuen saldoa behar-beharrezkoa dela ikusi dezakegu, hazkunde naturalaren baitako bilakaerak beheranzko joera baitu. Horrez gain, nabarmena da hazkunde totalak migrazio-saldoaren gorabeherei jarraitu izan diela azken urteetan.

**31. Grafikoa.**

*EAEko biztanleriaren hazkundearen osagaien bilakaera eta proiekzioa. 1991-2030*




Lurralde historikoetan jartzen badugu arreta, biztanleriak etorkizunean izango duen bilakaera EAE osorako deskribatutako bilakaeraren antzekoa da oro har, eszenatoki guztietan. Hala ere, berezitasunak daude biztanleriaren aldaketa-erritmoetan, eta baita adinaren araberako egituren aldaketa-prozesuaren intentsitatean ere. Lehenengo 3 eszenatoki arabera, eszenatoki demografiko hauetan, Arabaren eta Gipuzkoaren kasuan migrazioek ekarritako biztanle kopurua nahikoa izango litzateke jaiotza kopuruaren eta heriotza kopuruaren arteko aldeak eragindako galerak konpentsatzeko, baina Bizkaiaren kasuan ez litzateke nahikoa izango. Migrazioak biztanle berriak ekarriko balitu, “lau” eta “bost” eszenatokietan epe ertain eta luzerako aurreikusten den bezalaxe, Bizkaiko hazkunde naturalak ekarritako galerak konpentsatuko lirateke eta hala, Bizkaiko biztanleriaren beheranzko joera geldituko litzateke mendeko laugarren hamarkadatik aurrera. Hala ere, oraindik ere desberdintasunak egongo lirateke lurralde historiko bakoitzeko hazkunde-erritmoen artean.

**32. Grafikoa.**

*Lurralde historikoetako biztanleriak izandako aldaketa 2016an eta 2061ean, eszenatoki demografiko desberdinen arabera*




**33. Grafikoa.**

*Lurralde historikoetako biztanleriaren hazkundearen osagaien bilakaera eta proiekzioa. 2001-2035.*




Adin tarte gazteenei begiratuz gero, 0 eta 14 urte bitarteko biztanleriak bilakaera gorabeheratsua du. Epe labur eta ertainera biztanle talde hori murriztea aurreikusten da. Migraziorik gabeko eszenatokian ("sei") eta jaiotza-tasak baxua izaten jarraitzen duen eszenatokian ("hiru") joera horrek jarraitu egingo du epe luzera. Bestalde, "bat" eszenatokiko ugalkortasunarekin eta migrazioarekin egungo zifren

parekoak lortuko dira aztertutako denbora tartearen amaieran, hots, 300.000 pertsona. Ugalkortasun maila gehiago berreskuratu beharko litzateke ("bi") edo migrazioa handiagoa izan beharko litzateke ("bost") 2061ean, pasa den mendeko laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran izandako biztanle kopurura lortzeko, hau da, 345.000 pertsona.

Biztanleriaren bilakaeraren isla dira hezkuntza-zikloetako biztanleriaren zifrak ere. Hurrengo urteetan beheranzko joerari eutsiko zaio, baina ez dira maila berekoak izango ziklo guztietako gorabeherak. 0-2 eta 3-5 urteko biztanleriak datozen urteetan behera egingo badu ere, 2025etik aurrera gora egingo duela aurreikusten da, baina 3-5 urtekoen kasuan, 2021eko kopuruetara iritsi gabe. Bestetik, 6-11 urte bitarteko biztanleria murriztu egingo da %22 batean, 100:000 biztanle galduz. Azkenik, DBHko adin-tartean dauden ikasleek ere beheranzko joera izango dute, %24ko murrizpenarekin.

**34. Grafikoa.**

*EAEko biztanleen bilakaera eta proiekzioa 15 urtetik beherakoen adin taldea aintzat hartuta eta eszenatoki demografiko desberdinen arabera, 1976-2061*




Zifra hauek lan-merkatuan ere eragingo dute, lanerako adinean dauden 16-64 urteko biztanleen beherakada handia izango ez bada ere, lan egiteko adina duten biztanleen bataz besteko adina 44 urte inguruan mantenduko da, barne taldeen aldaketekin. Hain zuzen ere, gazteenen eta helduen hazkundea eta erdiko adinetakoen murrizketa jasango dira.

**35. Grafikoa.**

*Biztanleriaren garapena eta proiekzioa hezkuntza-zikloetan, 1982-2035*



## 2.2. Hezkuntza etapen ezaugarriak eta etapen arteko igarobideak[5]

Atal honen bidez hezkuntza-etapa bakoitzean ikastetxeek beraien hezkuntza-proiektua garatzeko eta beraien helburu orokorrak zein ikas-etapa bakoitzekoak lortzeko egunerokotasunean daukaten errealitatea zehatzago ezagutzea nahi dugu. Hori horrela, honako alderdietan jarri dugu arreta:

- Hezkuntza-etapa bakoitzeko ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexua, eredua eta jatorriaren arabera. Lanbide Heziketaren kasuan, baita ziklo eta espezialitatearen arabera ere eta baita helduen hezkuntza ere.
- Ikasle etorkinen matrikulazioaren bilakaera, sexua eta jatorriaren arabera.
- Eskolatze Batzordeak kudeatutako ikasleen bilakaera, jatorriaren arabera.
- Hezkuntza-etapa bakoitzeko ratioak eta irakasleak.
- Ikas-etapen arteko igarobideak.

Hona hemen dimentsioaren antolaketa:

| | |
|---|---|
| **D2. HEZKUNTZA-ETAPEN EZAUGARRIAK ETA ETAPEN ARTEKO IGAROBIDEAK** | 2.1. HAURRESKOLEN EZAUGARRIAK (0-2 urte) |
| | 2.2. HAUR HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK (3-6 urte) |
| | 2.3. LEHEN HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK |
| | 2.4. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK |
| | 2.5. BATXILERGOAREN EZAUGARRIAK |
| | 2.6. LANBIDE HEZIKETAKO EZAUGARRIAK |
| | 2.7. HELDUEN HEZKUNTZAKO EZAUGARRIAK (HHE) |
| | 2.8. IKAS-ETAPEN ARTEKO IGAROBIDEAK |

### 2.2.1. Haurreskolen ezaugarriak (0-2 urte)

#### 2.2.1.1. Haurreskoletako ikasleen matrikulazioaren bilakaera orotara eta sexuaren arabera

Ikasturtez ikasturte 0-2 tarteko umeen matrikulazioa jaisten joan da 2017-2018 ikasturteaz geroztik; 2017-2018 ikasturtetik 2019-2020ra, matrikulazioa % 17,3 (26 gutxiago) jaitsi da. Esan beharra dago, beherakada nabarmenena 2020-2021 ikasturtean ikusten dela, %60ko jaitsiera izan du matrikulazioak (60 ume gutxiago). Hurrengo ikasturtean, 2021-2022an, matrikulazioan errekuperazioa erakusten duela esan daiteke % 42koa, (38 gehiago).
Sexuaren araberako azterketa eginda, orotara matrikulatutako mutilen eta nesken arteko aldea 10 edo 11 haurretan dago; 2017-2018 eta 2020-2021 ikasturtetan, mutilen matrikulak goitik daude, aldiz,

[5] Datu-iturria: *: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. 2023*

2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan, neskak gehiago dira. Azken ikasturtean, matrikulak parekatu egiten dira, 64na daude. Nabarmentzekoa da matrikulazio-jaitsierak 2020-2021 ikasturteraino 30 matrikulako galera izan dutela bi sexuetan, nahiz eta nesken kasuan igoera txiki bat egon 2018-2019 ikasturtean. 2021-2022an errekuperazio gehiago izan dute nesken matrikulak (24 gehiago) mutilenak (14 gehiago) baino.

**36. Grafikoa**

*Haurreskoletako ikasleen matrikulazioa, sexuaren arabera. 2017-2018 eta 2021-2022 ikasturteen artean.*




**37. Grafikoa**.

*Haurreskoletako ikasleen matrikulazioa, sexuaren arabera (%) 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*



### 2.2.1.2. Haurreskoletako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, 0-1 eta 1-2 urteko gelen arabera, partzuergo eta ikastolaren arabera

**38. Grafikoa**.

*Haurreskoletako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, 0-1 eta 1-2 urteko gelen arabera, partzuergo eta ikastolaren arabera.*




**39. Grafikoa**.

*Haurreskolako ikasle kopuruaren batez bestekoa (%-tan), Partzuergoa, UHE eta ikastola eta 0-1 / 1-2 urteko gelen arabera.*




Eskolatutako 0-1 urteko umeen matrikulazioaren bilakaeran gorabeherak ikusten ditugu orokorrean. Ikastolan, 12 matrikulatatik 5era jaisten da 2018-2019 ikasturtean, ondoren 10era igotzeko. Azken bi ikasturtetan hasierako 5 matrikulatara bueltatzen da eta hor mantentzen da. Haurreskolan, aldiz, 5 eta 6 matrikulatan mugitu da 5 ikasturtetan zehar, nahiz eta 2020-2021 ikasturtean 2 matrikulatara

jaisten delarik (3 gutxiago). Udal Haur Eskola da matrikula gehien duen zentroa eta ikasturtez ikasturte matrikulazio jaitsiera nabarmena izan du, aipagarriena 2020-2021 ikasturtekoa izanik (18 gutxiago 2019-202020an baino). Azken ikasturtean, 2021-2022an, 11 matrikula gehiago daudela ikusten da.

1-2 adinari dagokionez, hiru zentrotan matrikula kopuruak nabarmen altuagoak dira 0-1 adinarekin alderatuz. Bost ikasturtetan zehar, ikastolako matrikulak 19 eta 26 tartean daudela ikusten dugu, igoera eta jaitsiera urteak daude. Azpimarragarriena 2020-2021 ikasturteko matrikula galera da, 7 gutxiago 2019-2020an baino eta jarraian, 2021-2022ko igoera (12 gehiago). Haurreskolan, berriz, matrikulak 18 eta 32 tartean daude, lehendabiziko hiru ikasturtetan matrikulak aldaketa nabarmenik izan ez duen arren 2020-2021ean 5 haur gutxiago izatera pasatzen da eta 2021-2022an, 19 haur gehiago daude. Udal Haur Eskolan, berriz, bost urteren buruan matrikulak ia erdira jaitsi dira. 2017-2018an, 60 matrikula daude, eta urtero 10 matrikula galtzen dira 2019-2020an 40 matrikula daudelarik. 2020-2021ean igoera txiki baten ostean (4 gehiago), berriz ere 2020-2021ean behera egiten du haur kopuruak (12 gutxiago).

### 2.2.1.3. Haurreskoletako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen arabera (partzuergoa eta ikastola) (%)

**40. Grafikoa.**

*Haurreskoletako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen arabera (partzuergoa eta ikastola) (%).*




Haurreskoletako matrikulazioaren ehunekoen bilakaeran hiru zentrotan gorabeherak ikus daitezke. Bilakaera positiboa nabarmenena Partzuergoko haurreskolak izan du, %15,6 igo da; ikastolak ia-ia %4 bat igo du matrikulazioa eta azkenik, Udal Haur Eskolak bilakaera negatiboa izan du, % 19 pasatxokoa.

#### 2.2.1.4. Haurreskolako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera

Haurreskoletako jatorri atzerritarreko familietako bilakaera aztertuz, Arrasateko haurreskolek, oro har, ez dute ikasle etorkinik izan, bi ikasturtetan zehar bakarra izan da, emakumezkoa.

0-1 eta 1-2 adinetako geletako datuak begiratuz, haur bakarra izan da bi ikasturtetan zehar 1-2 urteko gelan.

**41. Grafikoa.**

*Haurreskoletan jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera.*




**42. Grafikoa.**

*Haurreskoletako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, 0-1 eta 1-2 urteko gelen arabera (Abs).*




Bi ikasturtetan, 2019-2020 eta 2020-2021, ikasle bakarra egon da ikastolako haurreskolan. Ikus daitekeenez, ikasturte bakoitzean ikasle bana izateak ez du pisu erlatibo esanguratsurik adierazten.

Jatorriari dagokionez, 2 herrialdeetako ikasleak jaso dituzte ikastolako haurreskolan, bata Brasildarra eta bestea, Dominikar Errepublikakoa.

**43. Grafikoa.**

*Haurreskolako jatorri atzerritarreko familietako ikasleak, jatorrizko herrialdearen arabera.*



## 2.2.2. Haur Hezkuntzaren (3-6 urte) ezaugarriak

### 2.2.2.1. Haur Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera

Ikasturtez ikasturte 3-6 urte tarteko umeen matrikulazioa jaisten joan da eta hasierako ikasturtean hain kolpeko jaitsiera izan ez den arren (14 ume), hurrengo ikasturteetan jaitsierak handiagoak izan dira, 2017-2018 ikasturtearekin alderatuz guztira 133 ume gutxiago matrikulatuz 2021/22 ikasturtean. Orotara, 2017-2018 ikasturtearekiko % 17,5 jaitsi da matrikulazioa.

Sexuaren araberako azterketa eginda, ikasturte guztietan mutilen matrikula kopuruak altuagoak dira neskenak baino. Urtez urte aldea areagotu egin da, 17 izatetik 2017-2018an, 47ko aldea izatera 2021-2022an. Ia ikasturte guztietan mutilen matrikulazioaren ehunekoa igotzen joan da, aldiz, neskenak gora behera txikiak izan baditu ere, %2,7ko beherakada erakusten du 2017-2018 ikasturtearekiko.

**44. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera. 2017-2018 eta 2021-2022 ikasturte artean (Abs.)*




**45. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera (%), sexuaren arabera. 2017/2018-2021/2022 ikasturte artean.*



#### 2.2.2.2. Haur Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, 2-3, 3-4, 4-5 eta 5-6 urteko gelen arabera.

Azken bost urtetako matrikulazioaren bilakaerak beheranzko joera erakusten du adin guztietan. Haur Hezkuntzako (HH) matrikula gehien, 2021-2022 ikasturtean 5-6 urteko gelan dago. Beherakada nabarmenenak 3 eta 4 urteko geletan ikus daitezke, 2017-2018 ikasturtearekin alderatuta bietan 46 eta 45 matrikula gutxiago daude 2021-2022an, nahiz eta 3 urteko gelan azken ikasturtean 18 matrikulako errekuperazioa eta 4 urteko gelan, 2018-2019an, igoera txiki bat (12 gehiago) dagoen. 4-5 urteko gelan, orotara, 36 matrikulako galera ikusten dugu, nahiz eta, 2019-2020an 15 matrikulako igoera egon. 5-6 urteko gelan, jaitsiera apalagoa da (6 gutxiago). 2018-2019 eta 2020-2021 ikasturteetan, hurrenez hurren 19 eta 18 matrikulako igoera dago.

Ehuneko jaitsiera handienak 2-3 (% 5,9 gutxiago) eta 3-4 (% 5,33 gutxiago) geletan daude. Jarraian, % 3,9ko jaitsierarekin, 4-5 gela eta egonkorren antzematen da 5-6 gelako matrikulazioa.

**46. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, 2-3, 3-4, 4-5 eta 5-6 urteko gelen arabera (Abs) 2017/2018-2021/2022 ikasturte artean.*



**47. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, 2-3, 3-4, 4-5 eta 5-6 urteko gelen arabera (%)*




**48. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako ikasle kopuruaren bataz bestekoa, eskola eta ikastolaren arabera, 2-3, 3-4, 4-5 eta 5-6 urteko gelen arabera.*




| | HERRI ESKOLA | | | | IKASTOLA | | | | UDAL HAUR ESKOLA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 03 | 04 | 05 | 06 | 03 | 04 | 05 | 06 | 03 |
| 2017-18 | 16,0 | 21,3 | 18,0 | 19,3 | 13,8 | 20,5 | 22,1 | 21,4 | 14,2 |
| 2018-19 | 15,3 | 21,7 | 21,0 | 18,3 | 16,3 | 22,4 | 20,6 | 22,1 | 14,0 |
| 2019-20 | 16,7 | 16,7 | 15,8 | 19,0 | 14,0 | 19,7 | 22,7 | 20,6 | 12,3 |
| 2020-21 | 14,7 | 16,0 | 17,3 | 15,8 | 11,7 | 20,2 | 21,2 | 22,4 | 11,8 |
| 2021-22 | 14,0 | 17,3 | 16,0 | 17,3 | 16,3 | 17,3 | 18,9 | 21,0 | 13,3 |

### 2.2.2.3. Haur Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, eskola eta ikastolaren arabera

HHko matrikulazioan, ikastetxearen arabera kopuru altuenak ikastolan aurkitzen ditugu, jarraian herri eskolan eta azkenik, udal haur eskolan. Bost urteren buruan herri eskolan 64 matrikulako galera ikusi da, ia %25ekoa. Ikastolan, berriz, 51 matrikulako jaitsiera, ia %12ko galera eta udal haur eskolan, 18 matrikula gutxiago, hots, % 25,3ko beherakada.

Matrikula osoarekiko ehunekoetan, ikastolako portzentajeak erakusten du %4ko igoera, beste bi kasuetan ehunekoetan jaitsiera txiki bat dago, %3koa Herri Eskolaren kasuan, eta ia %1ekoa, Udal Haur Eskolan.

**49. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (eskola, ikastola eta UHE) arabera (Abs)*




**50. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (eskola eta ikastola) arabera (%)*



### 2.2.2.4. Haur Hezkuntzako ikasle kopuruaren batez bestekoa, eskola eta ikastolaren arabera eta 2-3, 3-4, 4-5 eta 5-6 urteko gelen arabera

Ikasle kopuruaren batez bestekoa eskolan eta ikastolan aztertuta, adinari dagokion geletan hurrenez hurren zera ikusten dugu:

- 2-3 urteko gelako ikasle kopuruaren batez bestekoa, herri eskolan % 16tik % 14ra jaitsi (2 gutxiago) da; aldiz, ikastolan, % 13,8tik % 16,3ra igo (2,5 gehiago) da. Udal haur eskolaren kasuan, jaitsiera 0,9koa da.
- 3-4 adinari dagokionez, bi ikastetxetan jaitsiera dago, herri eskolan 4 puntukoa eta ikastolan, 3,2koa.
- 4-5 gelara joanda, 2 puntuko galera dago herri eskolan; ikastolan, berriz, 3,2koa.
- 5-6 tartean, amaitzeko, 2 puntuko jaitsiera dago herri eskolan, eta 0,4koa ikastolan.

Laburbilduz, Haur Hezkuntzako adin tarte guztietan, bai herri eskolan eta baita ikastolan ere, matrikulen batez bestekoan jaitsiera dagoela ikusten da, ikastolako 2-3 adin tartean dagoen igoera salbuespena izanik.

**51. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako ikasle kopuruaren batez bestekoa, eskola eta ikastolaren arabera, 2-3, 3-4, 4-5 eta 5-6 urteko gelen arabera*




| | HERRI ESKOLA 03 | HERRI ESKOLA 04 | HERRI ESKOLA 05 | HERRI ESKOLA 06 | IKASTOLA 03 | IKASTOLA 04 | IKASTOLA 05 | IKASTOLA 06 | UDAL HAUR ESKOLA 03 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 16,0 | 21,3 | 18,0 | 19,3 | 13,8 | 20,5 | 22,1 | 21,4 | 14,2 |
| 2018-19 | 15,3 | 21,7 | 21,0 | 18,3 | 16,3 | 22,4 | 20,6 | 22,1 | 14,0 |
| 2019-20 | 16,7 | 16,7 | 15,8 | 19,0 | 14,0 | 19,7 | 22,7 | 20,6 | 12,3 |
| 2020-21 | 14,7 | 16,0 | 17,3 | 15,8 | 11,7 | 20,2 | 21,2 | 22,4 | 11,8 |
| 2021-22 | 14,0 | 17,3 | 16,0 | 17,3 | 16,3 | 17,3 | 18,9 | 21,0 | 13,3 |

### 2.2.2.5. Haur Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera

Ikasle etorkinen matrikulazioaren bilakaera-datuak aztertuta, ikasturte bakoitzean 100 ikasletik gorako kopurua mantentzen da, ibilbidean gorabeherak ikusten diren arren. 2017-2018arekiko alderatuz, % 20,5 jaitsi da jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioa (26 ikasle).

Sexuaren aldagaiari erreparatuta, ez dago alde handirik jatorri atzerritarreko familietako neska eta mutilen matrikulazioen artean. Bai neskengan zein mutilengan kopuru absolutuetan beherako joera

izan du matrikulazioak azken bost ikasturtetan. Ehunekoei erreparatuta puntu erdiko bariazioa izan du bi kasuetan.

**52. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera (Abs) 2017/2018-2021/2022 ikasturte artean*




**53. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera (%) 2017/2018-2021/22 ikasturte artean*



### 2.2.2.6. Haur Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera 2-3, 3-4, 4-5 eta 5-6 urteko gelen arabera

Haur Hezkuntzan jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuruak adin tarte bakoitzean gora behera ezberdinak izan ditu bost ikasturtetan zehar. 2-3 tartean, 2017-2018an, 30 ikasle izatetik erdira jaisten da kopurua ondorengo hiru ikasturtetan (17, 16 eta 15 ikasle); azken ikasturtean berriz igoera ikusten da (10 gehiago 2020-2021ean baino). Orotara, 5 ikasle gutxiago daude. 3-4 tarteari begiratuta, bost urtetan 26 ikasleko galera dago 2020-2021 ikasturtean izan ezik, 9 ikasleko igoera dago. 4-5 gelan, nahiz eta 2018-2019an 16 ikasleko igoera izan ondorengo ikasturteetan beheranzko joera ikusten da. 2017-2018arekiko 3 ikasle gehiago dago 2021-2022an. Portzentajeetan aipatzen den gorabehera horiek ikus daitezke.

**54. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, 2-3, 3-4, 4-5 eta 5-6 urteko gelen arabera (Abs)*




**55. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, 2-3, 3-4, 4-5 eta 5-6 urteko gelen arabera (%)*




| | 03 | 04 | 05 | 06 |
|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 23,62% | 32,28% | 20,47% | 23,62% |
| 2018-19 | 13,82% | 27,64% | 34,15% | 24,39% |
| 2019-20 | 14,04% | 17,54% | 32,46% | 35,96% |
| 2020-21 | 13,16% | 25,44% | 25,44% | 35,96% |
| 2021-22 | 24,75% | 18,81% | 28,71% | 27,72% |

### 2.2.2.7. Haur Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, eskola eta ikastolaren arabera eta pisu erlatiboa

Jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuruak ikastetxearen arabera aztertuta, kopuru altuenak bost ikasturtetan herri eskolak ditu. Herri eskolan jatorri atzerritarreko familietako 10 ikasletik 8 edo ia 8 daude, eta ikastolan bi.

Herri eskolako jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuruek beheranzko joera erakusten dute. 2017-2018tik 2021-2022ra, 25 ikasle gutxiago daude. Ikastolako kasuan, gorabeherak ikusten dira, baina kopuruak 20 eta 27 ikasleren artean mantentzen dira. Udal haur eskolan, 2019-2020 eta 2020-2021ean izan ditu ikasleak. 2021-2022 ikasturtetik aurrera, ez dago jatorri atzerritarreko familietako ikaslerik.

**56. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, eskola eta ikastolaren arabera (Abs)*




| | HERRI ESKOLA | UDAL HAUR ESKOLA | IKASTOLA |
|---|---|---|---|
| 2017-18 | 106 | | 21 |
| 2018-19 | 101 | | 22 |
| 2019-20 | 85 | 2 | 27 |
| 2020-21 | 90 | 1 | 23 |
| 2021-22 | 81 | | 20 |

**57. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, eskola eta ikastolaren arabera (%)*



### 2.2.2.8. Haur Hezkuntzako ikasle etorkinen pisu erlatiboaren bilakaera eta ikastetxearen arabera

Haur Hezkuntzako ikasle guztiekiko, % 16 dira jatorri atzerritarreko familietako ikasleak, bataz beste. Gora behera txikiak egon dira ikasturte bakoitzeko kopuruetan. Hala ere, balore absolutuetan, 5 ikasturteren buruan, 26 ikasle gutxiago dira.

Pisu erlatiboa ikastetxeka aztertuta, herri eskolan jatorri atzerritarreko familietako ikasleak ikasle guztiekiko, bataz beste, % 41,2 dira. Ikastolako pisu erlatiboak ikusi gero, oso bestelakoak dira portzentajeak, bataz beste, jatorri atzerritarreko ikasleak % 5,5 dira. Udal haur eskolako datuetan ikus dezakegu bi ikasturtetan zehar izan dutela presentzia, besterik ez.

**58. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako ikasle etorkinen pisu erlatiboaren bilakaera, orotara*




**59. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako ikasle etorkinen pisu erlatiboaren bilakaera, ikastetxearen arabera*



### 2.2.2.9. Haur Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleak jatorri-herrialdearen arabera.

Jatorriari dagokionez, Haur Hezkuntzako ikastetxeek ohiko 10 herrialderik esanguratsuenetatik jaso dituzte ikasleak, hurrenez hurren hauek dira: Maroko, Pakistan, Kolonbia, Mendebaldeko Sahara, Aljeria, Honduras, Mauritania, Bolivia, Dominikar Errepublika eta Nikaragua. Jatorri-herrialde bakoitzeko ikasle kopuruetan gorabeherak ikusten dira. Ikasle kopuru gehien Marokotik etorri dira. Ondoren, pakistandar, kolonbiar, saharar eta aljeriar jatorri-herrialdetakoak dira.

**60. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako ikasle etorkinen bilakaera, ikasle kopuru guztiarekiko (pisu erlatiboa), 2017/2018-2021/22 ikasturte artean*




### 2.2.2.10. Eskolatze Batzordeak kudeatutako Haur Hezkuntzako ikasle etorri berriak, ikastola eta eskolaren eta jatorri-herrialdearen arabera.

Azken bost ikasturtetan, Eskolatze Batzordeak bideratutako ikasle kopuruak gorabeherak izan dituzte bi ikastetxetan. Arizmendi ikastolak Herri Eskolak baino 4 ikasle gehiago jaso ditu lehen hiru ikasturtetan. 2020-2021 ikasturtetik aurrera, ikasle bateko aldea dago, ikasturte hau izanik ikasle etorri berri kopuru baxuena duena (2, Arizmendik; 1, Herri Eskolak). 2021-2022an, berriz, bi ikastetxetan ikasle gehiago jaso dituzte (7, Arizmendik; 6, Herri Eskolak), dagoen aldea mantenduz.

**61. Grafikoa**

*Eskolatze Batzordeak kudeatutako Haur Hezkuntzako ikasle etorri berriak, ikastola eta eskolaren arabera.*




### 2.2.2.11. Lekualdatutako Haur Hezkuntzako ikasleak ikastolaren eta eskolaren eta jatorri-herrialdearen arabera

2017-2018 eta 2028-2019 ikasturtetan lekualdatutako ikasle kopuruari begiratuz Arizmendi ikastolak 18 eta 12 ikasle jaso ditu, hurrenez hurren. Herri Eskolak, berriz, 4 ikasle. 2019-2020 ikasturtean lekualdaketa kopurua berbera da bi kasuetan, 6 ikasle. 2020-2021 ikasturtean, Arizmendik Herri Eskolak baino 5 ikasle gehiago jasotzen ditu. 2021-2022 ikasturtean, Herri Eskolako kopuruak dezente igotzen dira (13 ikasle) eta Arizmendikoak bi gutxiago dira (11).

**62. Grafikoa**

*Lekualdatutako Haur Hezkuntzako ikasleak, ikastola eta eskolaren arabera.*



#### 2.2.2.12. Haur Hezkuntzako maisu-maistrak eta hezkuntza-espezialistak, eskola eta ikastolaren arabera eta sexuaren arabera[6]

Ikastetxe bakoitzeko maisu-maistrak eta hezkuntza-espezialistak aztertzen baditugu, ikus dezakegu hezkuntza-espezialistak 3 daudela ikastolan, hiruak emakumeak; Herri eskolan ez dago batere ez. Azkenik, herri eskolan 15 maistra eta 10 maisu daude HHn, orotara, 25; aldiz, ikastolan 20, 19 maistra eta maisu bakarra. Bost irakasleko aldea dago ikastetxeen artean. Kasu guztietan emakumezko gehiago dago gizonezkoak baino.

**63. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako maisu-maistrak eta hezkuntza-espezialistak, eskola eta ikastolaren arabera eta sexuaren arabera*




## 2.2.3. Lehen Hezkuntzaren ezaugarriak (6-12 urte)

### 2.2.3.1. Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera.

Ikasturtez ikasturte 6-12 urte tarteko umeen matrikulazioa jaisten joan da. 2017-2018 ikasturtearekin alderatuz, guztira 55 ume gutxiago matrikulatu dira 2021-2022 ikasturtean. Orotara, 2017-2018 ikasturtearekiko %4,4 jaitsi da matrikulazioa. Jaitsierarik handiena 2018-2019an ematen da (29 gutxiago).

Sexuaren araberako azterketa eginda, mutilen kopuruak altuagoak dira ikasturte guztietan neskenak baino. Bi kasuetan ikasturtetik ikasturtera matrikulazioak jaisten joan dira eta mutilen kasuan, jaitsiera (29 gutxiago) zerbait handiagoa izan da neskena (26 gutxiago) baino.

[6] Datu iturria: Arrasateko ikastetxeak.

**64. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera. 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean*




**65. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera (%) sexuaren arabera. 2017/2018-2021/22 ikasturteen artean*




### 2.2.3.2. Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (eskola eta ikastola) arabera

Azken bost ikasturtetan matrikulazioan izan den joera ikastetxeka ikusita, orokorrean, Lehen Hezkuntzako matrikulazioak Herri eskolan % 4,1 jaitsiera izan duela, 70 ikasle orotara. Ikastolan, aldiz, goranzko joera erakusten duela, 15 ikasle gehiago (%4). 2021-2022 ikasturtean kokatuta, matrikulazio osoaren ia % 66 ikastolan matrikulatuta dago, eta % 34 pasatxo, berriz, Herri eskolan. Kopuru absolututan, ikastolak 782 ikasle ditu, eta Herri eskolak, 408.

**66. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (eskola eta ikastola) arabera (Abs), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




### 2.2.3.3. Lehen Hezkuntzako ikasle kopuruaren batez bestekoa, eskola eta ikastolaren arabera eta ikasmailaren arabera.

Lehen Hezkuntzako ikasle kopuruaren batez bestekoa eskola eta ikastolan aztertuta, ikasmaila guztietan ikusten dira igoera eta jaitsiera txikiak. Hurrenez hurren ikasmaila bakoitzari dagozkion datuak zera erakusten dute:

- 1. mailan, herri eskolan ikasturteko ikasle kopuruaren batez bestekoa, 24tik 21,7ra jaitsi (2,3 gutxiago) da; aldiz, ikastolan, 23,1etik 25,3ra igo (2,2 gehiago) da.
- 2. mailan, herri eskolan 1,8 puntuko jaitsiera egon da eta ikastolan, berriz, 0,7ko igoera.
- 3. mailan, bietan igoera apala dago: herri eskolan puntu erdiko igoera eta ikastolan, 0,4koa.
- 4. mailan, herri eskolan jaitsiera altuena izan duen ikasmaila izan da, 4 puntukoa; ikastolan, 2,5eko igoera.
- 5. mailan, ikastolak igoera nabarmenena izan du, 4,4 puntukoa; herri eskolan, aldiz, puntu bateko igoera.
- 6. mailan, amaitzeko, 1,8ko jaitsiera dago herri eskolan, eta 2,1eko igoera ikastolan.

**67. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (eskola eta ikastola) arabera (%), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean*




Laburbilduz, Lehen Hezkuntzan, herri eskolan ikasmaila guztietan ikasle kopuruaren batez bestekoan jaitsiera dago, 5. mailan izan ezik. Ikastolako kasuan, ikasmaila guztietan dago igoera, 5. mailan nabarmenena izanik.

**68. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako ikasle kopuruaren batez bestekoa, eskola eta ikastolaren eta ikasmailaren arabera*




| | 01 | 02 | 03 | 04 | 05 | 06 | 01 | 02 | 03 | 04 | 05 | 06 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | HERRI ESKOLA | | | | | | IKASTOLA | | | | | |
| 2017-18 | 24,0 | 20,5 | 20,3 | 23,0 | 20,8 | 22,8 | 23,1 | 23,6 | 21,5 | 22,5 | 19,4 | 21,5 |
| 2018-19 | 20,3 | 22,3 | 20,3 | 21,8 | 23,7 | 20,8 | 24,9 | 23,8 | 23,3 | 21,7 | 22,9 | 19,9 |
| 2019-20 | 23,7 | 20,0 | 20,7 | 21,5 | 20,0 | 22,3 | 21,9 | 25,9 | 23,3 | 23,0 | 21,6 | 22,8 |
| 2020-21 | 20,7 | 25,0 | 19,7 | 20,3 | 20,8 | 19,5 | 24,4 | 22,9 | 25,8 | 23,1 | 24,0 | 22,3 |
| 2021-22 | 21,7 | 18,7 | 20,8 | 19,0 | 21,0 | 21,0 | 25,3 | 24,3 | 21,9 | 25,0 | 23,0 | 23,6 |

### 2.2.3.4. Lehen Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera

Jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera-datuak aztertuta, oro har, ikasturtez ikasturte goranzko joera du kopuruak. 2017-2018 ikasturtetik 2021-2022ra, ia % 30eko

igoera egon da (48 ikasle gehiago). Horietatik 25 gizonezkoak dira eta 23 emakumezkoak. Nesken igoera nabarmenena, 2021-2022an izan da (13 gehiago) eta mutilena, 2019-2020an (15 gehiago).

Sexuaren aldagaiari erreparatuta, mutilen matrikulazioak goitik daude. Mutilen kasuan, matrikulazioak gorako joera izan du ikasturte guztietan eta nesken kasuan ere bai 2018-2019an izan ezik.

**69. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera (Abs).*




**70. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera (%).*



#### 2.2.3.1. Lehen Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (eskola eta ikastola) arabera

Jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuruak goranzko joera erakusten du Herri eskolaren kasuan, 54 ikasle gehiago (% 60,5eko igoera) 2017-2018 ikasturtearekiko. Ikastolako datuetan gora behera txikiak ikusten dira bost urtetan zehar; 2017-2018 ikasturtearekiko, 6 ikasle gutxiago daude (ia %13 gutxiago) 2021-2022an. Azken ikasturteari begiratuta, jatorri atzerritarreko familietako 10 ikasletik 7,7 Herri Eskolan matrikulatuta daude eta ikastolan 2,3.

**71. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (eskola eta ikastola) arabera (Abs).*




**72. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (eskola eta ikastola) arabera (%).*



#### 2.2.3.2. Lehen Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleak, jatorri-herrialdearen arabera.

Jatorriari dagokionez, ohikoenak diren 10 herrialdeak kontuan izanik, Lehen Hezkuntzako ikastetxeek, eta horietan herrialderik esanguratsuenak hauek dira, hurrenez hurren: Maroko, Pakistan, Kolonbia, Mendebaldeko Sahara, Aljeria, Honduras, Mauritania, Dominikar Errepublika, Nikaragua eta Venezuela. Jatorri-herrialde bakoitzeko ikasle kopuruetan gorabeherak ikusten dira, Marokoren kasuan izan ezik. Azken honen kasuan urtez urte gora egin du. Ikasle kopuru gehien Marokotik etorri dira. Ondoren, pakistandar, kolonbiar, saharar eta aljeriar jatorri-herrialdetakoak dira.

**73. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleak, jatorrizko herrialdearen arabera*




| | MAROKO | PAKISTAN | KOLONBIA | MENDEBALDEKO SAHARA | ALJERIA | HONDURAS | MAURITANIA | DOMINIKAR ERREPUBLIKA | NIKARAGUA | VENEZUELA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 38 | 23 | 19 | 13 | 12 | 7 | 6 | 5 | 2 | 1 |
| 2018-19 | 45 | 21 | 8 | 18 | 12 | 5 | 9 | 3 | 5 | 5 |
| 2019-20 | 47 | 21 | 16 | 20 | 11 | 4 | 5 | 6 | 5 | 7 |
| 2020-21 | 50 | 27 | 23 | 17 | 18 | 5 | 5 | 8 | 8 | 5 |
| 2021-22 | 53 | 34 | 21 | 22 | 18 | 7 | 4 | 6 | 6 | 6 |

#### 2.2.3.3. Lehen Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboaren bilakaera, eskola eta ikastolaren arabera

Lehen Hezkuntzako matrikulazio datu orokorrak hartuta eta 2021-2022 ikasturteari erreparatuta, ikasle guztiekiko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak % 22,8 dira. Ikasturtez ikasturte jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboa handituz joan da, 5 ikasturtean 8 puntuko igoera izanez.

**74. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako ikasle etorkinen pisu erlatiboaren bilakaera, orotara.*




Ikastetxeka pisu erlatiboaren bilakaerak erakusten du, herri eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleen % 22,4 (107 ikasle) jatorri atzerritarreko familietako ikasleak izatetik, % 39,5 (161 ikasle) izatera pasatu direla 2021-2022an; 17 puntuko igoera izan du. Ikastolaren kasuan, jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboak gorabeherak izan ditu bost urtetan zehar. 2017-2018an % 7 (54 ikasle) izatetik, 2021-2022an % 6,1 (48 ikasle) izatera igaro da, ia puntu bateko jaitsiera izanez.

**75. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako ikasle etorkinen pisu erlatiboaren bilakaera, ikastetxearen arabera.*




### 2.2.3.4. Eskolatze Batzordeak kudeatutako Lehen Hezkuntzako ikasle etorri berriak, ikastola eta eskolaren eta jatorri-herrialdearen arabera.

Lehen Hezkuntzako etapara iritsi diren ikasle etorri berriak urtez urte bariazioa izan dute, 2020-2021 ikasturtean ikasle gutxien jaso duten ikasturtea izan da.  Azken ikasturtean bi ikastetxetan igoera bertsua izan da, ikasle bateko aldearekin.

**76. Grafikoa**

*Eskolatze Batzordeak kudeatutako Lehen Hezkuntzako ikasle etorri berriak, ikastola eta eskolaren arabera.*




### 2.2.3.5. Lekualdatutako Lehen Hezkuntzako ikasleak ikastolaren eta eskolaren eta jatorri-herrialdearen arabera

Herri Eskola datuei begiratuz gero, 2017-2018an lekualdatutako 14 ikasle jaso ditu eta orduz gero, gorabeherak izan eta gero, 2021-2022an, kopuru berberera bueltatzen da. Arizmendiren kasuan, egoera bertsua da. 2017-2018 ikasturtean 9 ikasle jasotzetik, 8ra pasa da 5 urteren buruan.

**77. Grafikoa**

*Lekualdatutako Lehen Hezkuntzako ikasleak, ikastola eta eskolaren arabera.*



#### 2.2.3.6. Lehen Hezkuntzako maisu-maistrak eta hezkuntza-espezialistak, eskola eta ikastolaren arabera eta sexuaren arabera

Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakoitzeko maisu-maistrak eta hezkuntza-espezialistak aztertzen baditugu, ikus dezakegu 11 hezkuntza-espezialista daudela herri eskolan, sexuaren arabera alde txikiarekin (6 emakume, 5 gizon); ikastolan, berriz, bakarra dago, emakumea. PT edo laguntza irakasleak ez dago ez ikastolan ezta herri eskolan ere.

**78. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako maisu-maistrak eta hezkuntza-espezialistak, eskola eta ikastolaren arabera eta sexuaren arabera.*




Azkenik, herri eskolan 32 irakasle daude, 16 maistra eta 16 maisu. Ikastolan, orotara, 52 dira, 35 emakumea eta 17 gizon. 20 irakasleko aldea dago ikastetxeen artean.

## 2.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ezaugarriak (12-16 urte)

#### 2.2.4.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera.

2018-2019 ikasturteko igoeraren ondoren (52 ikasle gehiago), ikasturtez ikasturte 12-16 urte tarteko ikasleen matrikulazioak 2018-2019tik astiro-astiro behera egin duen arren, bost urteren buruan 2017-2018 ikasturtearekiko 14 ikasle gehiago daude (% 1,6ko igoera).

Sexuaren arabera begiratuta, 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan neska eta mutilen matrikulazioetan ez dago ia alderik, baina azken ondorengo bi ikasturtetan neskak gehiago dira (2019-2020an, 20 gehiago; 2020-2021ean, 17 gehiago) mutilak baino. Azken ikasturtean mutilak gehiago direla (18 gehiago) ikusten da. 2021-2022 ikasturteari erreparatuta, nesken matrikulazioa mantendu egin da eta mutilena igo (14 gehiago).

**79. Grafikoa**

*DBHko ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




**80. Grafikoa**

*DBHko ikasleen matrikulazioaren bilakaera (%) sexuaren arabera, 2017/2018-2021/22 ikasturteen artean.*




### 2.2.4.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera.

DBHko matrikulazioan bilakaera aztertuta, orokorrean, bi kasuetan igoera eta jaitsierak ikusten dira. Institutuaren kasuan, 2019-2020ko igoeraren (36 ikasle gehiago) ondoren, azken hiru ikasturtetan 55 ikasleko jaitsiera ikusten da. Ikastolaren kasuan, 2019-2020ko jaitsiera kenduta, gainerako ikasturteetan goranzko joera erakusten du. 2017-2018 ikasturtearekiko, 33 ikasle gehiago daude.

DBHko matrikulazio osoaren % 56,6 ikastolan matrikulatuta dago, eta % 43,4, berriz, institutuan. Kopuru absolututan, 2021-2022an, DBHn ikastolak 498 ikasle ditu eta institutuak 382.

**81. Grafikoa**

*DBHko ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera (Abs), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




### 2.2.4.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle kopuruaren batez bestekoa ikasmailaka, institutua eta ikastolaren arabera.

DBHko ikasle kopuruaren batez bestekoa ikastolan eta institutuan aztertuta, ikasmaila guztietan ikusten dira igoera eta jaitsiera txikiak. Hurrenez hurren, ikasmaila bakoitzari dagozkion datuak zera erakusten dute:

- 1. mailan, institutuan ikasturteko batez bestekoa 21,4tik 22,25era igo (0,85 gehiago) da; aldiz, ikastolan, 30,75etik 28ra jaitsi (2,75 gutxiago) da.
- 2. mailan, institutuan 0,6ko jaitsiera egon da eta ikastolan, berriz, 0,45eko igoera.
- 3. mailan, ikastolan puntu bateko igoera eta institutuan puntu bateko jaitsiera.
- 4. mailan, 2,5 puntuko igoera dago ikastolan, eta institutuan 1,65ekoa.

**82. Grafikoa**

*DBHko ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera (%), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean*



Laburbilduz, DBHn, bi ikastetxetan esanguratsuak izan ez arren, urtez urte gorabeherak daude. Ikastolan, 1. mailan izan ezik, beste guztietan igoera txikia dago; institutuan, aldiz, 1. eta 4. mailan antzematen da igoera txikia, eta 2. eta 3. mailetan jaitsiera.

**83. Grafikoa**

*DBHko ikasle kopuruaren batez bestekoa ikasmailaka, institutua eta ikastolaren arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




| | IKASTOLA 01 | IKASTOLA 02 | IKASTOLA 03 | IKASTOLA 04 | ARRASATE BHI 01 | ARRASATE BHI 02 | ARRASATE BHI 03 | ARRASATE BHI 04 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 30,75 | 26,75 | 26,2 | 26 | 21,4 | 23,6 | 23,25 | 20,75 |
| 2018-19 | 31,75 | 30,25 | 28,5 | 23,8 | 22,8 | 21,2 | 25 | 23 |
| 2019-20 | 29,25 | 31,25 | 30,75 | 22 | 24,5 | 23,6 | 19,2 | 23 |
| 2020-21 | 26,6 | 30,25 | 30 | 24,2 | 22 | 23 | 22,6 | 24,25 |
| 2021-22 | 28 | 27,2 | 27,2 | 28,5 | 22,25 | 23 | 22,25 | 22,4 |

### 2.2.4.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera

Jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera-datuak aztertuta, oro har, ibilbideak goranzko joera dauka, 2020-2021 ikasturtea salbu. Igoera esanguratsuena (27 gehiago) 2018-2019an ikusten da, hala ere, 2020-2021ean dagoen jaitsierarekin ia igoera beste galtzen da (22 gutxiago). Dena den, 2017-2018 ikasturtearekiko 23 ikasle gehiago daude 2021-2022an, % 30 igo da matrikulazioa.

Sexuaren aldagaiari erreparatuta, nesken matrikulazioa handiagoa izan da mutilena baino ikasturte guztietan, nahiz eta azkenengoan neska eta mutilen matrikulazioa nahiko parean dauden. Nesken kasuan, lehendabiziko ikasturtetan igoera ikusten da eta ondoren mantendu egiten da bi ikasturtetan. Mutilen matrikulazioak igoera eta jaitsierak izan dituzte 5 ikasturteko ibilbidean, azken ikasturtean igoera esanguratsuena izanik (18 gehiago).

**84. Grafikoa**

*DBHko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera (Abs), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




**85. Grafikoa**

*DBHko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera (%), 2017/2018 -2021/2022 ikasturteen artean*




### 2.2.4.5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera

Jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuruak gorabeherak ditu bai institutuan eta baita ikastolan ere. Institutuan, 2017-2018 ikasturtearekiko 4 ikasle gehiago (% 9,5eko igoera) dago. Ikastolako datuetan gora behera esanguratsuagoak dira; 2020-2021 ikasturteko 20 ikasleko jaitsiera izan ezik, gainerako ikasturteetan jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuruak gora egin du; igoera

esanguratsuenak 2018-2019an (17 gehiago) eta 2021-2022an (15 gehiago) izan dira. 2017-2018arekiko, 19 ikasle gehiago daude ikastolako DBHko etapan (% 61,3ko igoera).

**86. Grafikoa**

*DBHko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera (Abs), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




Azken ikasturteari begiratuta, jatorri atzerritarreko familietako 10 ikasletik 5,2 ikastolan matrikulatuta daude eta 4,8 institutuan.

**87. Grafikoa**

*DBHko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera (%), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*



#### 2.2.4.6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleak, jatorri-herrialdearen arabera.

Ohiko 10 jatorri-herrialdeei dagokionez, DBHko ikastetxeek, eta horietan herrialderik esanguratsuenak hauek dira, hurrenez hurren: Pakistan, Kolonbia, Maroko, Honduras, Nikaragua, Bolivia, Txina, Mendebaldeko Sahara, Peru eta Venezuela. Jatorri-herrialde bakoitzeko ikasle kopuruetan gorabeherak ikusten dira. 6 ikasle edo gehiago igo dituzten herrialdeak Kolonbia, Nikaragua, Txina eta Maroko dira. Maroko da igoera esanguratsuena (16 gehiago) izan duena.

**88. Grafikoa**

*DBHko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak, jatorrizko herrialdearen arabera. 2017/2018-2021/22 ikasturteen artean.*




| | PAKISTAN | KOLONBIA | MAROKO | HONDURAS | NIKARAGUA | BOLIVIA | TXINA | MENDEBALDEKO SAHARA | PERU | VENEZUELA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 13 | 9 | 2 | 11 | 1 | 6 | 2 | 5 | 1 | 3 |
| 2018-19 | 17 | 17 | 7 | 9 | 6 | 5 | 3 | 5 | 6 | 3 |
| 2019-20 | 17 | 13 | 13 | 11 | 7 | 5 | 5 | 2 | 5 | 4 |
| 2020-21 | 13 | 14 | 9 | 9 | 10 | 1 | 2 | 3 | 1 | 1 |
| 2021-22 | 12 | 15 | 18 | 7 | 7 | 4 | 8 | 4 | 4 | 4 |

#### 2.2.4.7. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboaren bilakaera, orotara eta ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera

DBHko matrikulazio datu orokorrak hartuta eta 2021-2022 ikasturteari erreparatuta, ikasle guztiekiko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak % 11,04 dira. Ikasturtez ikasturte jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboa, modu apalean bada ere, handituz joan da 5 ikasturtean 2,5 puntuko igoera izanez.

Ikastetxeka pisu erlatiboaren bilakaerak erakusten du, institutuan DBHko ikasleen % 10,5 (42 ikasle) jatorri atzerritarreko familietako ikasleak izatetik, % 12 (46 ikasle) izatera pasatu direla 2021-2022an; 1,5 puntuko igoera izan du. Ikastolaren kasuan, jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboak gorabeherak izan ditu bost urtetan zehar. 2017-2018an % 6,7 (31 ikasle) izatetik, 2021-2022an % 10 (50 ikasle) izatera igaro da, 3,3, puntuko igoera izanez.

**89. Grafikoa**

*DBHko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboaren bilakaera, orotara 2017/2018-2021/22 ikasturteen artean.*




**90. Grafikoa**

*DBHko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*



#### 2.2.4.8. Eskolatze Batzordeak kudeatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle etorri berriak, ikastola eta eskolaren eta jatorri-herrialdearen arabera.

Ikasle etorri berrien kopuruak aztertuta, bi ikastetxeetan jaso dituzten kopuruetan gorabeherak ikuste dira. Arrasate BHIren kasuan, 2018-2019 ikasturtean aurreko ikasturtean baino 8 ikasle gehiago jaso dituzte (14 ikasle), hala ere, ondorengo ikasturteetan beheranzko joera ikusten da 2020-2021 ikasturtean ikasle bakarra izateraino (13 gutxiago). Arizmendiren kasuan, ikasturtez ikasturte, beheranzko joera erakutsi du. 2017-2018an 10 ikasle jasotzetik, 6 ikasle izatera 2021-2022an.

**91. Grafikoa**

*Eskolatze Batzordeak kudeatutako DBHko ikasle etorri berriak, ikastola eta institutuaren arabera.*




#### 2.2.4.9. Lekualdatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak ikastolaren eta eskolaren eta jatorri-herrialdearen arabera

Lekualdatutako ikasle kopuruari begiratuz, Arrasate BHIn, 2018-2019 ikasturtean aurreko ikasturtean baino 10 ikasle gehiago jaso dituzte (14 ikasle). Ondorengo ikasturteetan beheranzko joera ikusten da, esaterako, 3 ikasle dira 2020-2021 ikasturtean (11 gutxiago). Arizmendiren kasuan, ikasturtez ikasturte, beheranzko joera erakutsi du 2017-2018arekiko 2021-2022an 3 ikasle gutxiago. 2021-2022an, bi kasuetan, igoera txiki bat ikusten da, 6 ikasle gehiago Arizmendik eta 4, Arrasate BHIk.

**92. Grafikoa**

*Lekualdatutako DBHko ikasleak, ikastola eta institutuaren arabera.*




### 2.2.4.10. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak eta hezkuntza-espezialistak, institutua eta ikastolaren arabera eta sexuaren arabera

DBHko ikastetxe bakoitzeko irakasleak eta hezkuntza-espezialistak aztertzen baditugu, ikus dezakegu 2 hezkuntza-espezialista daudela institutuan, biak emakumeak; ikastolan, berriz, ez dago. PT edo laguntza irakaslerik ez dago ikastolan eta 3 daude institutuan (2 emakume eta gizon 1).

Azkenik, irakasleei dagokionez, institutuan 79 irakasle daude (DBH eta Batxilergoa batera), 23 emakume eta 56 gizon. Ikastolan, 45 irakasle dira, 35 emakume eta 10 gizon. 34 irakasleko aldea dago ikastetxeen artean.

**93. Grafikoa**

*DBHko irakasleak eta hezkuntza-espezialistak, institutuaren eta ikastolaren arabera eta sexuaren arabera.*



## 2.2.5. Batxilergoaren ezaugarriak

### 2.2.5.1. Batxilergoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera.

Batxilergoan ikasturtez ikasturte matrikula kopuruak gora egiten du bost urteren buruan, igoera esanguratsuena 2019-2020an izanik (56 gehiago). 2017-2018 ikasturtearekiko 125 ikasle gehiago daude (% 52,9ko igoera).

Sexuaren arabera begiratuta, ikasturte guztietan nesken eta mutilen matrikula kopuruak gora egin dute, hala ere, nesken matrikula kopuruak nabarmen altuagoak dira, mutilenak baino. Azken ikasturteari erreparatuta, 10 ikasletik 6,3 neskak dira eta 3,7 mutilak.

**94. Grafikoa**

*Batxilergoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera (Abs), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




**95. Grafikoa**

*Batxilergoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera (%), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*



#### 2.2.5.2. Batxilergoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera.

Bilakaera aztertuta, institutuaren kasuan, urtez urte goranzko joera bat dago % 73,7koa (90 ikasle gehiago). Ikastolaren kasuan, 2017-2018tik 2019-2020ra, 51 ikasleko igoera dago, baina ondoren jaitsi egiten da (16 gutxiago). Ikastolan, azken ikasturtean 2017-2018arekiko % 30,7ko igoera bat ikusten da.

Batxilergoko matrikulazio osoaren % 58,7 institutuan matrikulatuta dago, eta % 41,3, berriz, ikastolan. Kopuru absolututan, 2021-2022an, ikastolak 149 ikasle ditu, eta institutuak, 212.

**96. Grafikoa**

*Batxilergoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera (Abs), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




**97. Grafikoa**

*Batxilergoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera (%), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*



### 2.2.5.3. Batxilergoko ikasle kopuruaren batez bestekoa, ibilbidearen arabera.

Batxilergoko ibilbideen eskaintzari erreparatuta, Arrasateko BHI-k hiru ibilbide eskaintzen ditu: arteak, giza eta gizarte zientziak, eta zientziak. Ikastolak, aldiz, arteetako ibilbidea izan ezik beste biak.

Azken bost ikasturtetako ikasleen batez bestekoan arreta jarriz, arteetako ibilbideak igoera nabarmena izan du, 4tik 30era igo da (%650).

Giza eta gizarte zientzietako kasuan, institutuan, gora behera txikiak izan ditu, nahiko egonkor mantendu da. Ikastolan ere gorabeherak izan ditu, eta 2017-2018arekiko 10 puntuko igoera dago. Azkenik, zientzietako ibilbideak urtez urte, bai institutuan eta baita ikastolan ere igoera izan du. Institutuaren kasuan, %108 (61 gehiago) igo da, eta ikastolaren kasuan, %43 (25 gehiago).

Laburbilduz, arteetako eta zientzietako ibilbideek igoera nabarmenena erakusten dute.

**98. Grafikoa**

*Batxilergoko ikasle kopuruaren batez bestekoa, ibilbidearen arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




| | IKASTOLA 2017-18 | IKASTOLA 2018-19 | IKASTOLA 2019-20 | IKASTOLA 2020-21 | IKASTOLA 2021-22 | ARRASATE BHI 2017-18 | ARRASATE BHI 2018-19 | ARRASATE BHI 2019-20 | ARRASATE BHI 2020-21 | ARRASATE BHI 2021-22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ARTEAK | | | | | | 4 | 11 | 24 | 31 | 30 |
| GIZA ZIENTZIAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK | 49 | 61 | 68 | 60 | 59 | 62 | 55 | 64 | 69 | 65 |
| ZIENTZIAK | 65 | 73 | 97 | 92 | 90 | 56 | 80 | 83 | 94 | 117 |

### 2.2.5.4. Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera

Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen kopurua absolutuak begiratuz gero, 2017-2018tik 2019-2020 ikasturtea jaitsiera esanguratsua egon dela ikus daiteke. 7 ikasletik 2 izatera pasatzen da (%71,4 jaitsiera). Ondorengo bi ikasturtetako igoera ere esanguratsua da, 2tik 13 izatera igarotzen da (%550). Igoera nabariena emakumezkoen kopuruan ikusten da.

Sexuaren arabera aztertuta, Batxilergoan 2017-2018an, 10etik 5,7 emakumeak eta 4,3 gizonezkoak izatetik, 2021-2022an, 10etik 9,2 emakumeak izatera pasa da, eta gizonezkoak, 0,8 izatera,. Oro har, 2019-2020 ikasturtean izan ezik, gainerako ikasturte guztietan emakumezkoen kopurua altuagoa da gizonezkoena baino. Aipagarriena, 2021-2022 ikasturtean dagoen aldea da, 12 emakumezko eta gizonezko 1.

**99. Grafikoa**

*Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera (Abs), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




**100. Grafikoa**

*Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera (%), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




### 2.2.5.5. Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera

Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen portzentajeak ikastetxeka aztertuta, 2017-2018 ikasturtean ikasleen ia % 86 (6 ikasle) institutuan matrikulatuta dagoela ikus daiteke; gainerako % 14a (ikasle 1), ikastolan. Ondorengo bi ikasturtetan, 2018-2019 eta 2019-2020, jatorri atzerritarreko familietako ikasleen % 100a (3 eta 2, hurrenez hurren) institutuan dago. 2020-2021ean, ikasle

kopurua baxua da. Ikastolan, 2 ikasle daude (% 33,3) eta institutuan, 4 ikasle (% 66,7). Azken ikasturtean, berriz, matrikulazioen ehunekoen banaketan aldea areagotzen da, ikastolan % 7,7a (ikasle 1) da jatorri atzerritarreko familietako ikaslea, eta institutuan, % 92,3 (12 ikasle).

**101. Grafikoa**

*Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera (%), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




**102. Grafikoa**

*Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera (%), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean*



### 2.2.5.6. Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak, jatorri-herrialdearen arabera.

Batxilergoan, ikasle kopuru apala izanik honako herrialde hauetako ikasleak matrikulatu dira azken bost urtetan zehar: Maroko, Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Dominikar Errepublika, Pakistan, Portugal, Erresuma Batua, AEB, Peru eta Mendebaldeko Sahara. Jatorri-herrialde bakoitzeko ikasle kopuruak oso apalak dira, gehienetan urtez urte ikaslerik ez dago eta dauden kasuetan ikasle 1 eta 3 artean zenbatu daitezke. 2021-2022an marokoar jatorriko 3 ikasleko kopurua da altuena.

**103. Grafikoa**

*Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak, jatorri-herrialdearen arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




| | MAROKO | KOLONBIA | BOLIVIA | EKUADOR | DOMINIKAR ERREPUBLIKA | PAKISTAN | PORTUGAL | ERRESUMA BATUA | SENEGAL | AMERIKETAKO ESTATU BATUAK | PERU | MENDEBALDEKO SAHARA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | 1 | | | | | | |
| 2018-19 | | 1 | | 1 | 1 | | | | | | | |
| 2019-20 | | | 1 | | | | 1 | | | | | |
| 2020-21 | 2 | | 2 | | | | 1 | 1 | | | | |
| 2021-22 | 3 | 2 | | 1 | 1 | 1 | | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |

### 2.2.5.7. Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboaren bilakaera, orotara eta ikastetxearen (institutua eta ikastola) arabera

Bilakaera-datuak aztertuta, Batxilergoko ikasle guztiekiko % 3,17 dira jatorri atzerritarreko familietako ikasleak, bataz beste, 2021-2022an. Ikasturtez ikasturte pisu erlatiboa 2017-2018an % 2,90 izatetik, % 0,58ra jaisten da; ondoren, berriz, igoera bat ikusten da azken bi ikasturtetan 3 puntukoa, Orotara, 13 ikasle dira.

Ikastetxearen arabera begiratzen badugu, institutuan 2017-2018arekiko, urtez urte jaisten joan da (3,7 puntu gutxiago) 2019-2020 ikasturtera arte jatorri atzerritarreko ikasleen pisu erlatiboa. Ondorengo bi urtetan gorakada bat egin du % 5,7ra iritsiz (4,5 puntu gehiago). Ikastolan aldiz, 2017-2018arekiko nahiko antzera mantendu da 2021-2022an.

**104. Grafikoa**

*Batxilergoko ikasle etorkinen pisu erlatiboaren bilakaera, orotara.*




**105. Grafikoa**

*Batxilergoko ikasle etorkinen pisu erlatiboaren bilakaera, ikastetxearen arabera.*




### 2.2.5.8. Batxilergoko irakasleak eta hezkuntza-espezialistak, institutua eta ikastolaren arabera eta sexuaren arabera

Ikastetxe bakoitzeko irakasleak eta hezkuntza-espezialistak aztertzen baditugu, ikus dezakegu 2 hezkuntza-espezialista daudela institutuan, biak emakumeak; ikastolan, berriz, ez dago. 3 PT edo laguntza irakasle daude institutuan (2 emakume eta gizon 1), ikastolan, berriz, ez dago.

Azkenik, irakasleei dagokionez, institutuan 79 irakasle daude (DBH eta Batxilergoa batera), 23 emakume eta 56 gizon. Ikastolan,  13 irakasle dira, 7 emakume eta 6 gizon. 34 irakasleko aldea dago ikastetxeen artean.

**106. Grafikoa**

*Batxilergoko irakasleak eta hezkuntza-espezialistak, institutuaren eta ikastolaren arabera eta sexuaren arabera.*



## 2.2.6. Lanbide Heziketaren ezaugarriak

### 2.2.6.1. Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera

Lanbide Heziketako matrikulazioaren bilakaerak goranzkoa joera erakusten du urtez urte. Kopuru absolututan, bost urteren buruan, 100 ikasle gehiago daude 2017-2018arekiko (% 27ko igoera).

Sexuaren araberako azterketa eginda, ikasturte guztietan, mutilen matrikulazioak nabarmen dira gehiago neskenak baino. Igoerak bai neskei eta baita mutilei ere eragiten die, baina mutilen kasuan igoera esanguratsuagoa da. Lanbide Heziketako 10 ikasletik ia 8, gizonezkoa da, eta 2, emakumezkoa.

**107. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera (abs), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean*



**108. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera (abs), 2017/2018-2021/22 ikasturteen artean*




### 2.2.6.2. Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera zikloaren arabera

Lanbide Heziketako erdi eta goi-milako zikloetan kokatzen bagara, azken bost urtetan izandako eskaintzari erreparatuz, erdi-mailako 3 titulazio eskaintzen dira eta 8 goi-mailako.

Erdi-mailako eskaintzetan egon den bilakaera aztertuz, Erizaintzako Laguntzaile titulazioa da 43-45 matrikulatan egonkor mantendu den bakarra; beste bi eskaintzetan gorazko joera ikusten da, % 162,5eko igoera Mikroinformatika-sistemak eta sareetan eta % 53,1ekoa, Osasun Larrialdiak titulazioan. Bestetik, goi-mailako zikloko eskaintzara joanda, Fabrikazio Mekanikoko produkziorako programazioak % 25,6ko beherakada izan du. Gorputz eta kirol-ekintzak eta Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak titulazioak 2019-2020 ikasturtetik aurrera ez dute ikaslerik. Bestalde, igoera izan duten gainerako titulazioak ditugu. Igoera esanguratsuenak izan dutenen artean Mekatronika industriala, 34 ikasle gehiago (% 40,5eko igoera), Automatizazioa eta robotika industriala, 32 ikasle gehiago (% 100eko igoera) eta Gizarte eta kirol animazioa, 24 ikasle gehiago (% 96ko igoera) daude.

**109. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera zikloaren arabera (abs), 2017/2018-2021/22 ikasturteen artean*




| | ERDI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | | | GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ERIZAINTZAREN LAGUNTZA | MIKROINFORMATIKA-SISTEMAK ETA SAREAK | OSASUN-LARRIALDIAK | AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA | FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA | FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOKO PROGRAMAZIOA | GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOA ETA IRAKASKUNTZA | GORPUTZ ETA KIROL-EKINTZAK SUSTATZEA | MEKATRONIKA INDUSTRIALA | SARE-INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA | SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK |
| 2017-18 | 43 | 16 | 32 | 30 | 25 | 43 | | 52 | 84 | 31 | 13 |
| 2018-19 | 45 | 31 | 33 | 39 | 20 | 41 | 25 | 25 | 93 | 27 | 1 |
| 2019-20 | 44 | 38 | 40 | 46 | 21 | 42 | 48 | | 90 | 35 | |
| 2020-21 | 44 | 42 | 43 | 58 | 30 | 37 | 49 | | 88 | 43 | |
| 2021-22 | 44 | 42 | 49 | 62 | 32 | 32 | 49 | | 118 | 41 | |

### 2.2.6.3. Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera

Lanbide Heziketan 2 hizkuntza eredu[7] ofizial eta ez-ofizial bat (R) dago. Arrasateko Lanbide Heziketan D eredua nabarmen nagusitzen da. 314 matrikula daude 2021-2022an eta 2017-2018arekiko hazkunde-indizea % 41,4koa izan du (92 ikasle gehiago). A eredua izango litzateke bigarren aukeratuena. 106 ikasle ditu 2021-2022an, igoera apalagoa izan delarik, 20 ikasle (% 23,2ko igoera) azken bost urtetan. Azkenik, presentzia gutxien duen R eredua da. 2017-2018an, 61 ikasle izatetik 49 ikasle izatera igaro da bost urteren buruan. Jaitsi den eredu bakarra da, 12 ikasle gutxiago (% 19,7).

[7] Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailaren 138/1983 Dekretua, hizkuntza ofizialen erabilera araupetzen du unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan.

**110. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




### 2.2.6.4. Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera ikastetxearen arabera (ikastola eta MGEP)

Bai ikastolak eta baita Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren (MGEP) eskaintzen dituzten Lanbide Heziketako titulazioetako ikasle kopurua, oro har, igotzen ari da bietan. Ikastolako eskaintzari begiratuz, 2021-2022an 184 ikasle daude. 2017-28arekiko, 59 ikasle gehiago daude (% 28,7ko igoera). Muren kasuan, 2021-2022an 285 ikasle daude, 2017-2018an baino 59 ikasle gehiago (% 26,1eko igoera).

**111. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera ikastetxearen arabera (ikastola eta MGEP), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean*



### 2.2.6.5. Lanbide Heziketako ikasle kopuruaren batez bestekoa, ikastetxearen eta zikloaren arabera

Lanbide Heziketako ikasle kopuruaren batez bestekoak ikastetxeka aztertzen baditugu, MGEPan, batez beste, % 10,6koa da. Ikastolako ikasle kopuruaren batez bestekoa % 7,8 tartean kokatzen da. Urtez urte, ikasle kopuruaren batez bestekoa nahiko egonkor mantendu da bi zentrotan.

Erdi-mailako heziketa-ziklora joz gero, hiru eskaintza daude. Hiru titulazioetan ikasleen batez bestekoak gora egin du 2017-2018arekiko alderatuta. Igoera altuena Osasun Larrialdiak ikasketetan dugu, 8,5 puntu gehiago, Mikroinformatika-sistemak eta sareetan 5 puntu gehiago, eta Erizaintzako laguntzan, puntu erdiko igoera.

Goi-mailan, 6 eskaintza daude 2021-2022 ikasturtera arte ikasleak izan dituztenak eta beste bi (Gorputz eta kirol-ekintzak eta Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak), 2019-2020 ikasturtetik aurrera desagertu egiten dira (ez dago matrikularik). Fabrikazio Mekanikoko produkziorako programazioak eta Gizarte eta Kirol animazio eta irakaskuntzaren ikasleen batez bestekoak beherakada izan dute, 5,5 eta 0,5 puntu, hurrenez hurren. Automatizazioa eta robotika industriala egonkor mantendu da bost urtetan zehar; eta azkenik, batez bestekoan igoera izaten duten titulazioak sare informatiko sistemen administrazioa (5 puntu gehiago), Mekatronika industriala (3,7 puntu gehiago) eta Fabrikazio mekanikoko diseinua (3,5 puntu gehiago).

**112. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako ikasle kopuruaren batez bestekoa, ikastetxearen arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean*



**113. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako ikasle kopuruaren batez bestekoa, zikloaren eta etaparen arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




| | ERDI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | | | GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ERIZAINTZAREN LAGUNTZA | MIKROINFORMATIKA-SISTEMAK ETA SAREAK | OSASUN-LARRIALDIAK | AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA | FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA | FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOKO PROGRAMAZIOA | GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOA ETA IRAKASKUNTZA | GORPUTZ ETA KIROL-EKINTZAK SUSTATZEA | MEKATRONIKA INDUSTRIALA | SARE-INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA | SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK |
| 2017-18 | 21,5 | 16,0 | 16,0 | 15,0 | 12,5 | 21,5 | | 26,0 | 21,0 | 15,5 | 13,0 |
| 2018-19 | 22,5 | 15,5 | 16,5 | 19,5 | 10,0 | 20,5 | 25,0 | 25,0 | 23,3 | 13,5 | 1,0 |
| 2019-20 | 22,0 | 19,0 | 20,0 | 16,3 | 10,5 | 21,0 | 24,0 | | 22,5 | 17,5 | |
| 2020-21 | 22,0 | 21,0 | 21,5 | 20,3 | 15,0 | 18,5 | 24,5 | | 22,0 | 21,5 | |
| 2021-22 | 22,0 | 21,0 | 24,5 | 15,5 | 16,0 | 16,0 | 24,5 | | 24,7 | 20,5 | |

### 2.2.6.6. Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera

Lanbide Heziketako ikasle etorkinen matrikulazioaren bilakaera-datuak aztertuta, ikasturtez ikasturte egoera ezberdina ikus daiteke. 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturtetan, nahiko kopuru antzekoa dago (15 eta 18, hurrenez hurren). 2019-2020an, aldiz, 8 ikasleko igoera dago. 2020-2021ean berriz, 11 ikasleko jaitsiera dago eta 2017-2018 ikasturteko kopurutara (15 ikasle) bueltatzen da. Azken ikasturtean, 5 matrikula gehiago errekuperatzen dira 20 izatera pasatuz.

Sexuaren aldagaiari erreparatuta, lehen bi ikasturtetan, jatorri atzerritarreko neska eta mutilen kopuruak nahiko antzekoak dira. Aldiz, ondorengo hiru urtetan ezberdintasunak ikusten dira, esaterako, 2020-2021ean, mutilak gehiago dira (4 gehiago); 2020-2021 eta 2021-2022an, nesken matrikulak altuagoak dira (7 eta 8, hurrenez hurren). Nesken matrikula kopuruak astiro-astiro gora egin du, baina mutilenak berriz, 2019-2020 ikasturtera arte izandako igoera apala jaitsi egiten da azken bi ikasturtetan.

Oro bat, 2017-2018an 10 ikasletik 4,7 mutila zen eta 5,3 neska; 2021-2022an, berriz, 10etik 7 da neska eta 3 mutilak dira.

**114. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera (Abs), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




**115. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera (%), 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




### 2.2.6.7. Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera ikastetxearen arabera

Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera-datuak ikastetxearen arabera aztertuta, kopuruetan aldea badago ere joerak antzekoak agertzen dira.

MGEPan, jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuru maximoa 9koa da eta minimoa, 3koa. Bost urteren ondoren, matrikula kopurua 2017-2018 urteko kopuru beretan mantentzen da (5 ikasle).

Tarteko ikasturteetan gorabeherak izan ditu, azpimarratzakoak izanik, 2019-2020ko igoera (6 ikasle gehiago) eta 2020-2021eko 5 ikasleko galera. Ikastolan, ikasle kopuru maximoa 17koa da (MGEPan baino 8 gehiago) eta minimoa, 10ekoa (MGEPan baino 7 gehiago). Matrikula bilakaera ikusita, 2021-2022an, 2017-2018an baino 5 ikasle gehiago dago. Tarteko urteetan, gorabeherak izan dira, 2018-2019 eta 2019-2020 urteetan igoera izan ondoren, 2020-2021ean jaitsiera ikusten da (6 gutxiago). Azken ikasturtean errekuperazio txiki bat dagoen arren, ez dira 2010-21eko kopuruak lortzen.

**116. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera ikastetxearen arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




### 2.2.6.8. Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera zikloaren eta sexuaren arabera

Zikloen arabera jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera begiratuta, erdi-mailako zikloan lehen hiru ikasturtetan 5 ikasle gehiago daude (% 50eko igoera) 2020-2021ean galtzen direnak eta 2021-2022an errekuperatu. 2017-2018arekiko 5 ikasle gehiago dago. 2021-2022an. Goi-mailako zikloari begiratuz, jatorri atzerritarreko ikasle kopuruak baxuagoak dira. 2019-2020 ikasturteko igoera (6 gehiago 2017-2018an baino) izan ezik, gainerako urteetan jaitsi (2020-2021ean 6 gutxiago) eta mantendu (2020-2021 eta 2021-2022) egin da ikasle kopurua.

Sexuaren aldagaiari erreparatuta, argi ikus daiteke erdi-mailako zikloetako presentzia nagusiki jatorri atzerritarreko emakumezkoena dela eta goi-mailako zikloetan, gizonezkoena. Erdi-mailan emakumeen kopuruak gora egiten du urtez urte, 8 neskatik 14ra igarotzen da (% 75eko igoera). Mutilak aldiz, igoera txiki baten ondoren, jaitsi egiten da, ikasle 1 izatera iritsiz. Goi-mailan, berriz, jatorri atzerritarreko gizonezkoen presentzia ia erabatekoa da. Hasierako bi ikasturtetan zein azken ikasturtean ez dago jatorri atzerritarreko emakumerik; 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan 2 dira. Jatorri atzerritarreko gizonezkoen kopuruak gorabeherak izan dituzte.

**117. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera zikloaren eta sexuaren arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




### 2.2.6.9. Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera

Jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera aztertzen badugu, ikusten da A ereduak indarra hartu duela 2018-2019 ikasturtetik aurrera. Matrikula kopuruak gora egin du, 2017-2018an 10 ikasle izatetik, 20 izatera igaroz 2021-2022an (% 100). R ereduaren kasuan, 2017-2018tik 2019-2020 ikasturtera ikasle apur batzuk izan ditu, baina ondoren ikasleek ez dute hautatu eta desagertu egin da. Azkenik, D ereduko ikasle kopurua da baxuena. 2020-2021 ikasturteko matrikula jaitsieraren ondoren, 2021-2022an desagertu egiten da.

**118. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean*




### 2.2.6.10. Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen bilakaera, jatorri-herrialdearen arabera

Jatorriari dagokionez, 18 herrialdeetako ikasleak jaso dituzte Lanbide Heziketako ikastetxeek, eta horietan herrialderik esanguratsuenak hauek dira, hurrenez hurren: Maroko, Nikaragua, Bolivia, Dominikar Errepublika, Portugal, Peru, Ekuador, Kolonbia, Bulgaria eta Venezuela, besteak beste.

**119. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen bilakaera, jatorri-herrialdearen arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




| | MAROKO | NIKARAGUA | BOLIVIA | DOMINIKAR ERREPUBLIKA | PORTUGAL | PERU | EKUADOR | KOLONBIA | BULGARIA | VENEZUELA | PAKISTAN | NEPAL | BRASIL | BOLIKOSTA | HONDURAS | ERRUMANIA | ALJERIA | HERBEHERETAR ANTILLAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 3 | 1 | 5 | 2 | | | 2 | 1 | | | | | | | | | | 1 |
| 2018-19 | 4 | 2 | 3 | 2 | 1 | | | 1 | 1 | | | | 1 | | 1 | 1 | | |
| 2019-20 | 4 | 4 | 1 | 2 | 3 | 1 | 2 | | 1 | | 1 | 1 | 1 | 1 | | 1 | | |
| 2020-21 | 2 | 2 | | | 1 | 2 | 1 | | 1 | 1 | | 1 | | 1 | | | 1 | |
| 2021-22 | 5 | 4 | | | 1 | 2 | | 2 | | 2 | 1 | | | | 1 | | 1 | |

### 2.2.6.11. Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboa, ikastetxearen arabera

Jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboa ikastetxearen arabera aztertuz gero, ikastolan, gorabeherak izan ondoren, 2021-2022an ikasle guztien % 5,6 dira (184 ikasletik 15). MGEParen kasuan ere gorabeherak daude, eta azken ikasturtean % 1,8 izatera pasatzen da (285 ikasletik 5). Bost urteren ostean, ikastolan atzerriko jatorriko ikasleen pisu erlatiboa antzera mantentzen da; MGEPan, 0,4 puntu jaisten da.

**120. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboa (%), ikastetxearen arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




### 2.2.6.12. Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboa, zikloaren arabera

Zikloaren arabera jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboa aztertuta, aldaketa esanguratsurik ez da ikusten. Erdi-mailako zikloan, ikasle guztien % 8,57 izatetik % 11,04 izatera pasatzen da urtez urte. 2021-2022an, 880 ikasletik, 96 dira atzerriko jatorrikoak. Goi-mailan, pisu erlatiboa oso modu apalean igo da: ikasle guztien % 10,99 izatetik, % 11,11 izatera pasatzen da bost urteren buruan. Oro bat, 2021-2022an, 135 ikasletik 15 dira jatorri atzerritarreko familietakoak.

**121. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboa (%), zikloaren arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean.*




### 2.2.6.13. Lanbide Heziketako irakasleak, zikloaren arabera, ikastetxearen arabera, eta sexuaren arabera

Lanbide Heziketako irakasleen kopuruak ziklo, ikastetxe eta sexuaren arabera begiratzen baditugu, ikastolan Erizaintzako titulazioan ditugu 4 irakasle, sexuaren arabera pareko banaketa dute. Ondorengo hiru titulazioetan, hiruna irakasle dituzte, eta sexuaren araberako banaketa GIKAIn (Gizarte eta Kirol animazioa) eta Mikroinformatikan gizonezko bat gehiago dago eta Osasun Larrialdietan, emakume bat gehiago.

**122. Grafikoa**

*Lanbide Heziketako irakasleak, zikloaren arabera, ikastetxearen arabera, sexuaren arabera, 2017/2018-2021/2022 ikasturteen artean*



### 2.2.6.14. Oinarrizko Lanbide Heziketako (OLH) ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera

OLHko ikasleen matrikulazioa azken sei ikasturtetan egonkor mantendu da 52-53 ikasleko kopuruan. Urtez urte, ikasle bakarreko aldea ikusten da. Aldiz, 2022-2023 ikasturteko matrikulazio datuetan 19 ikasleko jaitsiera ikusten da.

Sexuaren arabera begiratzen badugu, OLHn mutilen matrikulak dira kopuru altuenak, oro bat, 52 edo 53 ikasletik, 38tik gora dira mutilak. Matrikula kopuruak mutilen kasuan zertxobait gora (2017-2018arekiko, 2 gehiago) egin duen bitartean, neskenak behera (2017-2018arekiko, 3 gutxiago). Azken ikasturtean matrikula kopuruak baxuagoak diren moduan, mutilen eta nesken arteko aldeak ere bai, 7 mutil gehiago daude (13 neska eta 20 mutil).

Matrikulazioaren bilakaeran, mutilak % 73,6 izatetik, ia % 78,8 izatera pasatu da (5,2 puntu gehiago) 2022-2023an. Aldiz, neskak, % 26,4tik % 21,1era (5,3 puntu gutxiago). 2022-2023an, berriz, mutilak %60 dira, eta neskak, ia %40, Esan dezakegu, 2022-2023an, OLHn 10 ikasletik 7,9 mutilak direla eta 2,1 neskak, baina 2022-2023an, 10etik 6 direla mutilak, eta ia 4 neskak.

**123. Grafikoa**

*Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera (Abs), 2017/2018-2022/2023 ikasturteen artean*



**124. Grafikoa**

*Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera (%), 2017/2018-2023/2024 ikasturteen artean*




### 2.2.6.15. Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera zikloaren arabera

Arrasateko OLHko eskaintzan, lau ziklo daude. Ikasleen matrikluazio-datuak zikloaren arabera aztertzen baditugu, bi dira matrikularik izan ez eta desagertzen direnak: Elektrizitatea eta Elektronika 2018-2019 ikasturtean, eta Metalezko elementuak fabrikatzea-mekanizazioa, 2019-202020an. Gainerako bi titulazioetan, Etxebizitzak mantentzea-iturgintza-berokuntza eta Sukaldaritza eta jatetxe-arloa, 2019-2020 ikasturtetik aurrera marikula kopuru bertsuetan egon dira, 28 eta 25 artean, hurrenez hurren. Ondorengo hiru ikasturteetako bilakaeran, 2022-2023 arte, matrikula kopuru bera izatera pasatu dira bi eskaintzak. Aldiz, 2023-2024 ikasturtean bi kasuetan matrikula galera dago, 12 gutxiago Etxebizitzen mantentzean, eta 7 gutxiago Sukaldaritzako zikloan.

**125. Grafikoa**

*Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera zikloaren arabera, 2017/2018-2023/2024 ikasturteen artean*




### 2.2.6.16. Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera

Hizkuntza-eredu bakarra dago OLHn, A eredua. Matrikulazio-datuak aztertuta, ikasle guztiak A ereduan daude matrikulatuta ikasturte guztietan.

**126. Grafikoa**

*Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen matrikulazioaren bilakaera zikloaren arabera, 2017/2018-2023/2024 ikasturteen artean*



### 2.2.6.17. Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak EAEko zein udalerritan duten jatorria, zikloaren arabera (2022-2023 ikasturtean)

Azken ikasturte honetan, Arrasateko OLHko zentrora Debagoienako 4 udalerritatik datoz ikasleak. Aretxabaletatik 14 ikasle, Eskoriatzatik eta Oñatitik, 9na, Bergaratik 7, eta Arrasatekoak, 11.

Bi ziklo daude 2022-2023 ikasturtean: Etxebizitzen mantentzea eta Sukaldaritza eta jatetxe-arloa. Zikloaren arabera ikasle kopuruak honela banatzen dira: Etxebizitzak mantentzeko titulazioan, Aretxabaletako 7 ikasle, Arrasateko 6, Bergarako 3, Eskoriatzako 6 eta Oñatiko 4 daude. Sukaldaritza eta jatetxe-arloko titulazioan, 7 aretxabaletar, 5 arrasatear, 4 bergarar, 3 eskoriatzar eta 5 oñatiar.

2023-2024 ikasturtaeri begiratuz, Etxebizitzen mantentzea zkloan, Aretxabaleta eta Eskoriatzako ikasleen matrikula galerak ikus daitekz, 5 eta 6 gutxiago dira, hurrenez hurren. Gainerakoan antzeratsu mantendu dira. Sukaldaritza zikloan, berriz, ia udalerri guztietako ikasle kopuruan jaitsiera txiki bat izan da, Arrasateko udalerrikoan izan ezik (2 gehiago).

**127. Grafikoa**

*Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak EAEko zein udalerritan duten jatorria, zikloaren arabera (2022/2023-2023/2024 ikasturteen artean)*




### 2.2.6.18. Oinarrizko Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera

Jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera OLHn aztertuz gero, Hasierako ikasle kopuruaren jaitsieraren ondoren (6 ikasle gutxiago), 2018-2019 urteaz geroztik gorakada ikusten da ikasle kopuruan. Urtez urte 11 ikasle izatetik 19 izatera igaro da. Hazkunde-indizea % 72,7koa da.

Sexuari erreparatuta, hazkundea gizonezkoen matrikulan izan da; nesken matrikulazioak beherantz egin du, 20 puntuko jaitsiera. 2021-2022an, 10 ikasletik 8,4 mutilak dira: neskak, berriz, 1,6.

**128. Grafikoa**

*Oinarrizko Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera, sexuaren arabera, 2017/2018-2021-2022 bitartean.*




### 2.2.6.19. Oinarrizko Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera

OLHn eredu bakarri izanik, jatorri atzerritarreko familietako ikasle guztiak A ereduan matrikulatuta daude 2017-2018 ikasturtetik 2021-2022ra.

**129. Grafikoa**

*Oinarrizko Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera, 2017/2018-2021-2022 bitartean.*



### 2.2.6.20. Oinarrizko Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen bilakaera, jatorri-herrialdearen arabera

Jatorriari dagokionez, 16 herrialdeetako ikasleak jaso dituzte OLHko zentroan. 2021-2022 ikasturtean jatorri-herrialde hauetatik ez da ikaslerik izan: Honduras, Nikaragua, Portugal, Paraguai eta Errusia. Bestetik, herrialderik esanguratsuenak hauek dira, hurrenez hurren: Maroko, Dominikar Errepublika, Kolonbia, Aljeria, Pakistan, Bolivia, Venezuela, Mendebaldeko Sahara eta bigarren maila batean, Argentina, Errumania eta Mexiko.

**130. Grafikoa**

*Oinarrizko Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen bilakaera, jatorrizko herrialdearen arabera, 2017/2018-2021/2022 bitartean.*




| | MAROKO | DOMINIKAR ERREPUBLIKA | KOLONBIA | ALJERIA | PAKISTAN | BOLIVIA | VENEZUELA | HONDURAS | NIKARAGUA | MENDEBALDEKO SAHARA | PORTUGAL | PARAGUAI | ARGENTINA | ERRUSIA | ERRUMANIA | MEXIKO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 5 | 3 | 1 | 1 | 3 | 1 | | | | | 2 | | | | 1 | |
| 2018-19 | 1 | 3 | 1 | 2 | 1 | | | 2 | | | | | | 1 | | |
| 2019-20 | 3 | 2 | 2 | 2 | 1 | 1 | | 1 | 1 | | | 1 | | 1 | | |
| 2020-21 | 3 | 1 | 3 | 1 | 1 | 2 | 2 | | 2 | 1 | | 1 | 1 | | | |
| 2021-22 | 2 | 2 | 2 | 2 | 1 | 2 | 2 | | | 2 | | | 1 | | 1 | 1 |

### 2.2.6.21. Oinarrizko Lanbide Heziketako irakasleak, zikloaren arabera eta sexuaren arabera

OLHko ziklo eta programa osagarriko irakasle kopuruak aurkezten dira. Ziklo ezberdinetako irakasle kopurua baxua da, irakasle 1 edo 3 dira guztietan. Sexuaren araberako paisajea gizonezkoz osatzen da, hau da, OLB espzialistan eta Sukaldaritzan agertzen da emakume bana, besteetan ez.

**131. Grafikoa**

*Oinarrizko Lanbide Heziketako irakasleak, zikloaren arabera, ikastetxearen arabera, sexuaren arabera*



## 2.2.7. Helduen Hezkuntza (HHE) ezaugarriak

### 2.2.7.1. HHEko matrikulazioaren bilakaera prestakuntza motaren arabera

Helduen Hezkuntzak (HHE) oinarrizko prestakuntza eskaintzen du, nolabait alfabetatzetik Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzeraino doan prozesua. Horrez gain, goi-mailako heziketa-zikloetara eta unibertsitatera sartzeko probak prestatzekoak eta titulaziorik gabeko ikastaroak ere eskaintzen dira.

Arrasateko HHEko matrikulazio-datuak ikusita, urtez urte kopuru altuenak dituzten prestakuntza motak hauek dira, hurrenez hurren: DBHko titulua eskuratzeko, Unibertsitatera sartzeko proben prestakuntza eta atzerritarrentzako gaztelania dira. Hiru prestakuntza eskaintza huen matrikulazioan gorabeherak izan arren, joera beheranzkoa da. Hurrenez hurren, DBHko titulua eskuratzeko eskaintzan, % 11,7ko jaitsiera egon da (19 ikasle gutxiago), Unibertsitatera sartzeko prestakuntzan % 35,5eko beherakada (17 ikasle gutxiago) eta atzerritarrentzako gaztelania eskaintzan, jaitsiera esanguratsuena izan da, % 60koa (66 ikasle gutxiago). Matrikulazio-datu baxuagoak ikus daitezke hizkuntzen kasuan (euskara, frantsesa eta ingelesa). Azkenik, Informatika prestakuntza dago, 2018-2019tik ez duena matrikulaziorik eta tailerrak, 2019-2020tik.

Prestakuntza eskaintza bakoitzeko ikasleen batez bestekoari begiratuz, altuenak 2021-2022ari begiratuz, Unibertsitatera sartzeko proben prestakuntzan (% 37) eta ingeles ikastaroan (% 30) daude. Jarraian, atzerritarrentzako gaztelania (% 22), frantsesa (% 21), DBHko titulua lortzeko (% 20,4) eta Goi-mailako heziketa ziklora sartzeko (% 20). Portzentaje baxuena euskara ikastaroan legoke (% 14).

**132. Grafikoa**

*HHEko matrikulazioaren bilakaera prestakuntza motaren arabera (Abs), 2017/2018-2021/2022 bitartean.*




| | EUSKARA | FRANTSESA | GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT | INGELESA | TAILERRAK | UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBEN PRESTAKUNTZA | INFORMATIKA | GOI-MAILAKO HZ-ETARA SARTZEKO PROBEN PRESTAKUNTZA | DBHKO TITULUA LORTZEKO HEZKUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 21 | 24 | 110 | 78 | 16 | 54 | 23 | 30 | 162 |
| 2018-19 | 30 | 18 | 104 | 64 | 26 | 97 | | 32 | 151 |
| 2019-20 | 26 | 22 | 61 | 69 | | 142 | | 40 | 191 |
| 2020-21 | 26 | 18 | 56 | 23 | | 85 | | 23 | 162 |
| 2021-22 | 14 | 21 | 44 | 30 | | 37 | | 20 | 143 |

**133. Grafikoa**

*HHEko ikasle kopuruaren batez bestekoa (%) prestakuntza motaren arabera, 2017/2018-2021/2022 bitartean.*




| | DBHKO TITULUA LORTZEKO HEZKUNTZA | EUSKARA | FRANTSESA | GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT | GOI-MAILAKO HZ-ETARA SARTZEKO PROBEN PRESTAKUNTZA | INFORMATIKA | INGELESA | TAILERRAK | UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBEN PRESTAKUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 20,5 | 21,0 | 24,0 | 24,3 | 30,0 | 23,0 | 26,0 | 16,0 | 54,0 |
| 2018-19 | 16,6 | 30,0 | 18,0 | 21,3 | 32,0 | | 32,0 | 26,0 | 24,3 |
| 2019-20 | 22,3 | 26,0 | 22,0 | 30,5 | 13,3 | | 34,5 | | 28,4 |
| 2020-21 | 16,8 | 26,0 | 18,0 | 28,0 | 23,0 | | 23,0 | | 21,3 |
| 2021-22 | 20,4 | 14,0 | 21,0 | 22,0 | 20,0 | | 30,0 | | 37,0 |

### 2.2.7.2. HHEko matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera

Nahiz eta lehendabiziko hiru ikasturtetan igoera egon (33 ikasle gehiago 2019-2020an), ondorengo urteetan HHEko matrikulazioak beherakada nabarmena izan du, kopuru absolututan 2017-2018an baino 209 ikasle gutxiago daude 2021-2022an (% 40,3ko jaitsiera).

Sexuaren arabera aztertuta, ikasturte guztietan emakume gehiago dago gizonezkoak baino. Aldea, urtez urte txikitzen doala ikusten da, esaterako 2017-2018an, 114 emakume gehiago gizonak baino: 2021-2022an, berriz, 69 emakume gehiago dira.

Oro har, HHEko 10 ikasletik 6 emakumea da, eta 4, gizonezkoa.

**134. Grafikoa**

*HHEko matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera (Abs), 2017/2018-2021/2022 bitartean.*




**135. Grafikoa**

*HHIko matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera (%), 2017/2018-2021/2022 bitartean.*




### 2.2.7.3. HHEko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera

HHEan jatorri atzerritarreko ikasleen kopuruak esanguratsuak dira. 2017-2018 ikasturtetik 2019-2020ra bitartean, kopuru abosolutuetan 23 ikasle gehiago daude, ia % 11ko hazkunde-indizea. Aldiz, 2020-2021 ikasturtetik 2021-2022ra, 67 ikasleko galera dago, % 28,5eko galera.

Sexuaren arabera, neskak 2108-19 ikasturtean 138 dira (31 ikasle gehiago). 2019-2020tik aurrera beheranzko joera erakusten du, 39 ikasleko galera (% 28,3ko jaitsiera). Mutilen kasuan, 2019-2020ko igoera txikia izan ezik, gainerako ikasturtuten matrikulazioak behera egin du. 2017-2018arekiko 2021-2022an 36 mutil gutxiago daude (% 34,3ko jaitsiera).

**136. Grafikoa**

*HHEko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera sexuaren arabera, 2017/2018-2021/2022 bitartean.*




### 2.2.7.4. HHEko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera

HHEan, A hizkuntza-eredu bakarra da, ikasketak gazteleraz eskaintzen dira euskara ikasgaia izan ezik. Horrenbestez, jatorri atzerritarreko ikasle guztiak A ereduan daude.

**137. Grafikoa**

*HHEko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera*




### 2.2.7.5. HHEko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera jatorrizko herrialdearen arabera

Jatorriari erreparatuz, HHEko ikasleen 10 herrialde ohikoenak honako hauek dira, hurrenez hurren: Maroko (76), Pakistan (32), Mendebaldeko Sahara (7), Kolonbia (4), Aljeria (9), Honduras (4), Brasil (5), Siria (4), Nepal (2) eta Mauritania (3). Maroko eta Pakistaneko jatorria dutenak dira ugarienak eta ikasle kopurua igo egin da bost urteren buruan (12 gehiago). Aljeriakoak eta Mauritaniakoak igoera apalagoa (2 eta 1, hurrenez hurren) izan dute.

**138. Grafikoa**

*HHEko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera jatorri-herrialdearen arabera*




| | MAROKO | PAKISTAN | MENDEBALDEKO SAHARA | KOLONBIA | ALJERIA | HONDURAS | BRASIL | SIRIA | NEPAL | MAURITANIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017-18 | 64 | 57 | 20 | 5 | 7 | 5 | 7 | 4 | 6 | 2 |
| 2018-19 | 69 | 43 | 22 | 21 | 5 | 9 | 5 | 5 | 6 | 2 |
| 2019-20 | 86 | 37 | 15 | 19 | 12 | 7 | 5 | 1 | 4 | 7 |
| 2020-21 | 63 | 39 | 13 | 9 | 8 | 12 | 1 | 4 | | 4 |
| 2021-22 | 76 | 32 | 7 | 4 | 9 | 4 | 5 | 4 | 2 | 3 |

### 2.2.7.6. HHEko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren pisu erlatiboa

HHEn jatorri atzerritarreko ikasleen portzentajea ikasle guztiekiko igotzen joan da bost urteren buruan. % 13,5eko igoera izan da 2017-8tik (% 40,9) 2021-2022ra (% 54,4).

**139. Grafikoa**

*HHEko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren pisu erlatiboa*



## 2.2.8. Ikas-etapen arteko ikasleen igarobideak

### 2.2.8.1. Haur Hezkuntzako azken mailatik Lehen Hezkuntzako lehen mailara

Haur Hezkuntzako (3-6) azken mailatik Lehen Hezkuntzara pasatzen den ikasle kopuruaren bilakaera nahiko parekatua eta positiboa izan da 2017-2018tik 2019-2020ra bitarte. 3 ikasleko saldo positiboa izan da lehen bi urtetan eta 8 ikaslekoa hirugarren ikasturtean. Aldiz, 2021-2022 ikasturtean saldoa negatiboa izan da (3 ikasleko galera).

**140. Grafikoa**

*Haur Hezkuntzako azken mailatik Lehen Hezkuntzako lehen mailara, igarobideen bilakaera, 2017/2018-2020/2021 ikasturteen artean.*




### 2.2.8.2. Lehen Hezkuntzako azken mailatik DBHko lehen mailara

Lehen Hezkuntzako azken mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailara pasatzen den ikasle kopuruaren bilakaera nahiko parekatua eta positiboa izan da ikasturtez ikasturte. Ikasturte guztietan saldoa positiboa izan da, saldo altuena 2017-2018an (19 ikasle gehiago) eta 2019-2020an (20 ikasle gehiago) dago.

**141. Grafikoa**

*Lehen Hezkuntzako azken mailatik DBHko lehen mailara, igarobideen bilakaera, 2017/2018-2020/2021 ikasturteen artean.*




### 2.2.8.3. Bigarren Hezkuntzako azken mailatik Batxilergoko lehen mailara

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailatik Batxilergora pasatzen den ikasle kopuruaren bilakaera negatiboa da ikasturte guztietan. Saldo negatibo altuenak 2018-2019 (50 ikasleko galdera) eta 2019-2020an (46 ikasleko galera) daude.

**142. Grafikoa**

*Bigarren Hezkuntzako azken mailatik Batxilergoko lehen mailara, igarobideen bilakaera, 2017/2018-2020/2021 ikasturteen artean.*



### 2.2.8.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailatik Lanbide Heziketara

Bigarren Hezkuntzako azken mailatik Lanbide Heziketako lehen mailara igarotzen diren ikasle kopuruari begiratuta, saldoa negatiboagoa da igaro diren ikasle kopurua baino, ikasturte guztietan. Horrek adierazten du, ikasleek OLH ez den beste igarobide aukera batzuk hartzen dituztela.

**143. Grafikoa**

*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailatik Lanbide Heziketara, igarobideen bilakaera, 2017/2018-2020/2021 ikasturteen artean.*




### 2.2.8.5. DBH amaitu gabe OLHra doazen ikasleak

Oinarrizko Lanbide Heziketako lehen mailak jasotzen dituen ikasleen ikasmailari dagokionez, datuak hobeto interpretatzeko beharrezkoa litzateke ikasleen jatorrizko ikasmaila (DBHn egindako azken ikasmaila) ezagutzea. Horrez gain, ikusiko litzateke jatorrizko ikasmaila eta adin desberdintasunak. Horrenbestez, datuen interpretazioan bi daturi, batez ere, erreparatzea gomendatzen da: DBH 4. mailan matrikulatutakoak eta hurrengo urtean OLHko lehen mailan matrikulatutakoak.

**144. Grafikoa**

*DBH amaitu gabe OLHra doazen ikasleak 2017/2018-2020/2021 ikasturteen artean.*



## 2.3. Ekitatea

Dimentsio honen xede nagusia, hezkuntzaren herri-ikuspegian kalitatezko hezkuntzari dagokion ekitatearen ikuspegia integratzea da, nolabait ikasle guztien aukera-berdintasuna bermatu dezaketen baldintzei eta baliabideei erreparatuz.

Lau azpi-dimentsioz osatzen da: Ebaluazioa Diagnostikoaren emaitzak (2015, 2017 eta 2019), Hezkuntza Premia Bereziak eta HIPI programako ikasleak, eskola-segregazioarekin loturiko datu orokor batzuk eta Gizarte Larrialdietako laguntza (GLL) jaso duten familiak eta adin txikikoak zein babesgabetasun egoerak eta ezaugarriak jasotzen dira.

| | |
|---|---|
| **D3. EKITATEA** | 3.1. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA |
| | 3.2. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK (HPB) |
| | 3.3. ESKOLA SEGREGAZIOA |
| | 3.4. GIZARTE LARRIALDIETAKO LAGUNTZA JASO DUTEN FAMILIAK ETA ADIN TXIKIKOAK ETA BABESGABETASUN-EGOEREN EZAUGARRIAK |

### 2.3.1. Ebaluazio Diagnostikoa (ED)

Ebaluazioa Diagnostikoan (ED) Arrasateko ikastetxeetako ikasleen laginaren ezaugarri orokorrak azaltzen dira, ISEKaren arabera, konpetentzia ezberdinetako emaitzak eta tratu txarren datuak amaitzeko. Datu hauek sarea, eredua, sexua, jatorria, adin-egokitasuna, etxeko-hizkuntza eta hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera aurkezten dira.

Ikerketarako datuak 2015, 2017 eta 2019 urtean egindako Ebaluazio Diagnostikoetatik lortu dira. Froga diagnostiko horietan Euskal Autonomi Erkidegoko 4. LH eta 2. DBH mailetako ikasle guztiak parte hartu zuten, beraz, erabili den lagina Arrasateko udalerriko maila horietako ikasle guztiak izan dira. Arrasateko ikastetxeetako ikasleek alor ezberdinetan lortutako emaitzen bilakaera azken urteetan aurkezten da jarraian.

#### 2.3.1.1. 4. LH-ko ikastetxeetako laginaren datu orokorrak eta ikastetxeka

Arrasateko eta EAEko ikasle kopuru orokorretan Arrasateko lagina EAEko laginaren % 0,9 eta %1 artekoa da, batez beste.

4. LH-n, 2015eko ediziotik 2017ko ediziora igoera txiki bat dago (8 ikasle Arrasaten, 171 EAEn). 2019an, bi kasuetan, jaitsiera bat nabari da (Arrasate 27, EAEn 541).

**2. Taula**

*Arrasate eta EAEko 4. LH-ko populazioa hiru ediziotan.*

| | POPULAZIOA (LH_4) | | |
|---|---|---|---|
| | 2015 | 2017 | 2019 |
| ARRASATE | 196 | 204 | 177 |
| EUSKADI | 21167 | 21338 | 20797 |

Azken hiru EDetan, Arrasateko ikastetxeetako ikasle kopuruaren arabera izan duten bilakaera jasotzen da. Kopuru orokorretan ikusten da 2015etik 2017ra hiru ikastetxeetan igoera dagoela (28 ikasle gehiago) eta ondorengo edizioan, 2019an, izandako ikasle gorakada pixka bat jaisten da (8 ikasle gutxiago).

Ikastetxeka begiratuta, 2017ko edizioan, hiru ikastetxeen artetik igoera nabarmenena (%12,7) lehendabiziko ikastetxeak izan du (16 ikasle gehiago). 2019ko edizioan, aldiz, jaitsiera nabarmena (%15,3) hirugarren ikastetxeak (28 ikasle gutxiago).

**3. Taula**

*Arrasateko 4. LH-ko ikasleak (kopurua eta %) ikastetxeka, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasle % | Ikasle | Ikasle % | Ikasle | Ikasle % |
| 1 | 78 | 39,8 | 94 | 52,5 | 79 | 44,6 |
| 2 | 42 | 21,4 | 48 | 27,0 | 41 | 23,2 |
| 3 | 76 | 38,8 | 85 | 47,5 | 57 | 32,2 |
| Guztira | 176 | 100 | 204 | 100 | 196 | 100 |

#### 2.3.1.2. 4. LH-ko ikasle kopuruak sarea, sexua, jaioterri, adin-egokitasun, etxeko-hizkuntza eta hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera

Arrasateko ikastetxeetako ikasle kopuruen ehunekoak sarearen arabera aztertuz, sare publikoko ikasleen portzentaje orokorra %44,6 da eta itunpekoa %55,4 (10,8 puntu altuagoa). Ikasle kopuruak 2017an publikoan igo (12 ikasle gehiago) egin da eta itunpekoan zertxobait jaitsi (4 ikasle gutxiago). 2019an, aldiz, bi sareetan jaitsiera egon da.

**4. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleak (kopurua eta %) hiru ediziotan, sarearen arabera.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SAREA | Ikasleak | Ikasle % | Ikasle | Ikasle % | Ikasle | Ikasle % |
| PUBLIKOA | 78 | 39,8 | 90 | 44,1 | 79 | 44,6 |
| ITUNPEKOA | 118 | 60,2 | 114 | 55,9 | 98 | 55,4 |
| Guztira | 176 | 100 | 204 | 100 | 177 | 100 |

Ikasleak sexuaren araberako kopuru orokorrean ez dago alde esanguratsurik. 2017an, nesken kopuruak igoera izan du (12 neska), mutilena mantendu egin da. 2019an ordea, nesken kopuruan jaitsiera nabarmena da (27 neska gutxiago).

**5. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LHko ikasleak (kopurua eta %) hiru ediziotan, sexuaren arabera.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % |
| Neska | 100 | 51 | 106 | 52 | 79 | 44,6 |
| Mutila | 96 | 49 | 98 | 48 | 98 | 55,4 |
| Guztira | 196 | 100 | 204 | 100 | 177 | 100 |

Ikasleak jaioterriaren araberako bilakaera erreparatuta, bertako ikasleen kopuruan jaitsiera apal bat (13 ikasle gutxiago) antzematen da, 2017an, 8 eta 2019an, 5 ikasle gutxiago. Hiru edizioren buruan, atzerrian jatorria duten lehen belaunaldiko ikasleak 6 ikasletan mantendu dira. Bigarren belaunaldiko ikasleak, berriz, 2015arekiko 9 ikasle gehiago dira.

**6. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleak (kopurua eta %) hiru ediziotan, jaioterriaren arabera.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % |
| Bertakoak | 170 | 94 | 162 | 90 | 157 | 89,2 |
| Atzerritar jatorrikoak 1. generazioa | 6 | 3,6 | 3 | 1,67 | 6 | 3,4 |
| Atzerritar jatorrikoak 2. generazioa | 4 | 2,4 | 15 | 8,33 | 13 | 7,4 |
| Guztira | 180 | 100 | 180 | 100 | 176 | 100 |

Adin-egokitasunak ikasleak bere adinari dagokion ikasmailan dagoela adierazten du, beraz, ez badago bere adinari dagokion ikasmailan errepikatzailea dela esango dugu. Hiru edizioetan ikasle errepikatzaile kopurua jaitsi egin da edizioz edizio (10 ikasle gutxiago). 2017tik 2019ra, ikasle ez-errepikatzaile kopurua antzera mantendu da, 6 ikasle gutxiago izanik.

**7. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleak (kopurua eta %) hiru ediziotan, adin-egokitasunaren arabera*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % |
| ez egokiak | 22 | 11 | 15 | 7,4 | 12 | 6,8 |
| egokiak | 174 | 89 | 189 | 92,6 | 165 | 93,2 |
| Guztira | 196 | 100 | 204 | 100 | 177 | 100 |

Etxeko-hizkuntza euskara duten ikasle kopuruak gora egin du (22 ikasle gehiago). Beste hizkuntza bat duten ikasle kopurua, berriz, jaitsi egin da hiru ediziotan (26 ikasle gutxiago).

**8. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen emaitzak hiru ediziotan, etxeko-hizkuntzaren arabera*

| | 2015 | | 2017 | | 2019 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % |
| Beste bat | 84 | 47 | 85 | 47,2 | 58 | 33 |
| Euskara | 96 | 53 | 95 | 52,8 | 118 | 67 |
| Sistemak galdutakoak | 180 | 100 | 180 | 100 | 176 | 100 |

Ikasleek hiru urte bete arteko hizkuntza euskara dutenak eta beste bat duten ikasle kopuruak gora behera txikiak izan dituzte hiru ediziotan. 2017an, euskara dutenen kasuan, 8 ikasleko igoera izan dute eta 2019an, berriz, 14 ikasleko galera. Beste hizkuntza bat dutenen kasuan, 2017an, 7 ikasleko galera dago, eta 2019an, 8 ikasleko errekuperazioa. Orotara, 2019an, hiru urte bete arte euskara dutenak %57,5 dira eta beste bat dutenak, %42,5.

**9. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen emaitzak hiru ediziotan, hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera.*

| | 2015 | | 2017 | | 2019 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % |
| Euskara | 106 | 59 | 114 | 63,3 | 100 | 57,5 |
| Beste bat | 73 | 41 | 66 | 36,7 | 74 | 42,5 |
| Guztira | 179 | 100 | 180 | 100 | 174 | 100 |

### 2.3.1.3. 2. DBH-ko ikastetxeetako laginaren datu orokorrak eta ikastetxeka

Arrasateko eta EAEko ikasle kopuru orokorretan Arrasateko 2. DBH-ko lagina, EAEko laginaren % 0,9 eta %1 artekoa da, batez beste.

2. DBH-n, 2017an ikasleen igoera dago (60 ikasle Arrasaten, 2.341 EAEn). 2019an, bi kasuetan, jaitsiera bat nabari da (Arrasate 34, EAEn 815).

**10. Taula**

*Arrasate eta EAEko 2. DBH-ko populazioa hiru ediziotan.*

| | POPULAZIOA (DBH_2) | | |
|---|---|---|---|
| | 2015 | 2017 | 2019 |
| ARRASATE | 167 | 227 | 193 |
| EUSKADI | 19095 | 21436 | 20621 |

2015etik 2017ra, bi ikastetxeetako ikasleen kopuru orokorrak igo egin dira (batean, 53; bian, 7). Ondoren, 2019an, jaitsi (batean, 24; bian, 10).

**11. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleak (kopurua eta %) ikastetxeka, hiru ediziotan*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasle % | Ikasle | Ikasle % | Ikasle | Ikasle % |
| 1 | 78 | 46,7 | 131 | 57,7 | 107 | 55,4 |
| 2 | 89 | 53,3 | 96 | 42,3 | 86 | 44,6 |
| Guztira | 167 | 100 | 227 | 100 | 193 | 100 |

### 2.3.1.4. 2. DBH-ko ikastetxeetako ikasle kopuruak sarea, sexua, jaioterri, adin-egokitasun, etxeko-hizkuntza eta hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera

2. DBH-ko ikasle kopuruak sarearen arabera hiru ediziotan begiratuta, sare publikoko ikasleen portzentajeak behera egin du eta itunpekoak gora (9,3 puntu gora). Kopuru zehatzetara etorriz, publikoan 2017an, 7 ikasleko igoeraren ostean, 10 ikasleko galera dago; itunpekoan, ostera, 53 ikasleko igoeraren ondoren, 24ko galera dator.

**12. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako DBH2ko ikasleak (kopurua eta %) ikastetxeka, hiru ediziotan, sarearen arabera*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SAREA | Ikasleak | Ikasle % | Ikasle | Ikasle % | Ikasle | Ikasle % |
| PUBLIKOA | 89 | 53,3 | 96 | 42,3 | 86 | 44,6 |
| ITUNPEKOA | 78 | 46,7 | 131 | 57,7 | 107 | 55,4 |
| Guztira | 167 | 100 | 227 | 100 | 193 | 100 |

Oro har, 2. DBH-ko mutilen ehunekoa altuagoa izan da 2015 eta 2017 edizioetan. Bi kasuetan, 2017ko igoeraren ondotik, 2019an, jaitsiera dago bi kasuetan (9 neska gutxiago; 29 mutil gutxiago). 2019ko balantzeari begiratuta, mutilak kopuru bertsuan mantentzen dira eta neskak zertxobait igo (6 neska gehiago).

**13. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleak (kopurua eta %), hiru ediziotan, sexuaren arabera*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % |
| Neska | 71 | 42,5 | 104 | 45,8 | 99 | 51,3 |
| Mutila | 96 | 57,5 | 123 | 54,2 | 94 | 48,7 |
| Guztira | 167 | 100 | 227 | 100 | 193 | 100 |

Jaioterriaren arabera, 2019an, bertakoak %91,1 dira, lehen belaunaldikoak %7,3, eta bigarren belaunaldikoak, %1,6. Bilakaerari begiratuta, bertakoak igoera izan dute 2015etik 2017ra (27 ikasle gehiago) eta 2019an, 9 ikasleko galera. Bigarren belaunaldiko ikasleak, 6 ikasleko igoera izan du, eta bigarren belaunaldikoak, ikasle bakarra izatetik, 3 izatera pasa dira.

**14. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleak (kopurua eta %) hiru ediziotan, jaioterriaren arabera*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % |
| Bertakoak | 156 | 93,9 | 183 | 94,3 | 174 | 91,1 |
| Atzerritar jatorrikoak 1. generazioa | 9 | 5,5 | 9 | 4,6 | 14 | 7,3 |
| Atzerritar jatorrikoak 2. generazioa | 1 | 0,6 | 2 | 1,0 | 3 | 1,6 |
| Guztira | 166 | 100 | 194 | 100 | 191 | 100 |

Oro har, 2019an, errepikatzaileak % 8,9 dira eta ez-errepikatzaileak, %91,1. Ikasle kopuruaren bilakaerari erreparatuz, errepikatzaileak hiru ediziotan gorako joera erakutsi dute, 10 ikasle izatetik 2015ean, 17 izatera 2019an. 2017an, ez-errepikatzaileak 28 ikasleko gorakada izan ondoren, 2019an, 7 ikasleko galera ikusten da. Hala ere, 2019ko datuak 2015arekiko alderatuz, bi kasuetan igoera dago, 19 eta 7 ikasle hurrenez hurren.

**15. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleak (kopurua eta %) hiru ediziotan, adin-egokitasunaren arabera*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % |
| egokiak | 155 | 93,9 | 183 | 94,3 | 174 | 91,1 |
| ez egokiak | 10 | 6,1 | 11 | 5,7 | 17 | 8,9 |
| Guztira | 165 | 100 | 194 | 100 | 191 | 100 |

Etxeko-hizkuntza euskara duten ikasle kopuruak gora behera txikiak izan ditu hiru ediziotan. Beste hizkuntza bat duten ikasle kopurua igo egin da 2015etik 2019ra, 27 ikasle gehiago. 2019ko edizioan parte hartu duten ikasleen %61,8ak etxean euskara ez den beste hizkuntza bat dauka; %38,2ak, berriz, euskara.

**16. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako DBH2ko ikasleen emaitzak hiru ediziotan, etxeko-hizkuntzaren arabera*

| | 2015 | | 2017 | | 2019 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % |
| Euskara | 74 | 44,8 | 79 | 40,7 | 73 | 38,2 |
| Beste bat | 91 | 55,2 | 115 | 59,3 | 118 | 61,8 |
| Sistemak galdutakoak | 165 | 100 | 194 | 100 | 191 | 100 |

Hiru bete arteko hizkuntza euskara duten ikasle kopurua hiru ediziotan igo egin da (21 ikasle gehiago). Beste hizkuntza bat dutenen kopuruak gora behera txikiak izan ditu, hala ere, 2019an 2015arekiko 5 ikasle gehiago daude.

**17. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen emaitzak hiru ediziotan, hiru bete arteko hizkuntzaren arabera*

| | 2015 | | 2017 | | 2019 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % | Ikasleak | Ikasleen % |
| Euskara | 100 | 60,6 | 116 | 60,7 | 121 | 63,4 |
| Beste bat | 65 | 39,4 | 75 | 39,3 | 70 | 36,6 |
| Guztira | 165 | 100 | 191 | 100 | 191 | 100 |

### 2.3.1.5. 4. LH-ko ISEK aldagaiaren emaitza orokorrak eta aldagaien arabera (sexua, adin-egokitasuna, etxeko-hizkuntza eta hiru urte bete arteko hizkuntza)

Arrasateko ikasleek ISEK aldagaian lortutako datu orokorren urtez urteko konparaketa egiteko, kontuan izan behar da Euskadiko ISEK 0,00 (erdiko maila) dela ED guztietan. Honenbestez, ikusten da 4. LH-ko ikasleen ISEK maila igo eta EAEko batezbestekora hurbildu dela.

**18. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen ISEKa hiru ediziotan*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK |
| ARRASATE | 196 | -0,143 | 204 | -0,118 | 177 | -0,084 |

**145. Grafikoa**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen ISEKa hiru ediziotan.*




Sexuaren arabera aztertuz gero, nesken eta mutilen kasuetan gorabeherak ikusten dira. 2017an, nesken kasuan, indizea jaitsi egiten da eta mutilena igo. 2019an, berriz, bi kasuetan erdiko mailatik behera egon arren, mutilen ISEK indizea baxuagoa da.

**19. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen ISEKa sexuaren arabera, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK |
| Neska | 100 | -0,005 | 106 | -0,115 | 79 | -0,028 |
| Mutila | 96 | -0,296 | 98 | -0,122 | 98 | -0,132 |

**146. Grafikoa**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen ISEKa sexuaren arabera, hiru ediziotan.*




Adin-egokitasunari erreparatuta, errepikatzaileen ISEK maila EAEko batezbestekotik gero eta gehiago aldentzen joan da hiru ediziotan (0,387), ez-errepikatzaileen kasuan, berriz, EAEko batezbestekora hurbiltzen joan da hiru edizioren buruan.

**20. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen ISEKa adin-egokitasunaren arabera, hiru ediziotan*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK |
| Ez-egokia | 22 | -0,800 | 15 | -1,110 | 12 | -1,187 |
| Egokia | 174 | -0,083 | 189 | -0,072 | 165 | -0,008 |

**147. Grafikoa**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen ISEKa adin-egokitasunaren arabera, hiru ediziotan*




Etxeko-hizkuntza euskara duten ikasleen ISEK maila EAEko batezbestekotik gora dago eta hiru edizioren buruan igoera nabarmena izan du (0.344). Aldiz, beste hizkuntza bat dutenen ISEK indizeak gora behera txikiak izan ondotik, 2015ekoaren antzera mantendu da.

**21. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen ISEKa etxeko-hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK |
| **Euskara** | 84 | 0,143 | 85 | 0,2666 | 58 | 0,487 |
| **Beste bat** | 96 | -0,393 | 95 | -0,470 | 118 | -0,376 |

**148. Grafikoa**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen ISEKa etxeko-hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan*




Amaitzeko, hiru urte bete arteko hizkuntza euskara duten ikasleen ISEK maila EAEko batezbestekotik gora dago eta hiru edizioren buruan igoera nabarmena izan du (0,214). Aldiz, beste hizkuntza bat dutenen ISEK behera egin du urtez urte. 2015ekoarekiko (0,187).

**22. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen ISEKa hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK |
| **Euskara** | 106 | 0,031 | 114 | 0,178 | 100 | 0,245 |
| **Beste bat** | 73 | -0,427 | 66 | -0,646 | 74 | -0,614 |

**149. Grafikoa**

*Arrasateko ikastetxeetako 4. LH-ko ikasleen ISEKa hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan*



#### 2.3.1.6. 2. DBH-ko ISEK aldagairen emaitza orokorrak eta aldagaien arabera (sexua, adin-egokitasuna, etxeko-hizkuntza eta hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera)

Arrasateko ikasleek ISEK aldagaian lortutako datu orokorren urtez urteko konparaketa egiteko, kontuan izan behar da Euskadiko ISEK 0,00 (erdiko maila) dela ED guztietan. Honenbestez, ikusten da 2. DBH-ko ikasleen ISEK maila EAEko batezbestekotik behera egotetik zertxobait goitik egotera igaro da. EAEko erdiko mailara hurbildu da 2019an.

**23. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen ISEKa hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK |
| ARRASATE | 196 | -0,143 | 204 | -0,118 | 177 | -0,084 |

**150. Grafikoa**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen ISEKa hiru ediziotan*




Sexuaren arabera begiratuta, 2017ko edizioan bereziki ISEK indizean nabarmena den beherakada ikusten da bi kasuetan. 2019an, berriz, bi kasuetan gorakada ere nabarmena da, EAEko batezbestekotik gertu edo gora kokatuz.

**24. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen ISEKa sexuaren arabera, hiru ediziotan*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK |
| Neska | 71 | 0,016 | 104 | -0,255 | 99 | 0,064 |
| Mutila | 96 | -0,047 | 123 | -0,123 | 94 | 0,012 |

**151. Grafikoa**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen ISEKa sexuaren arabera, hiru ediziotan.*




Adin-egokitasuna aztertuta, errepikatzaileen ISEK maila EAEko batezbestekotik behera dago. Hiru edizioren buruan, gorabehera txikia izan ondotik, 2015eko mailan kokatzen da. Ez-errepikatzaileen kasuan, EAEko batezbestekotik hurbil dagoen arren, gorabehera txikiak izan ditu

**25. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen ISEKa adin-egokitasunaren arabera, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK |
| Ez-egokia | 41 | -0,761 | 52 | -1,077 | 20 | -0,778 |
| Egokia | 126 | 0,224 | 175 | -0,015 | 173 | 0,125 |

**152. Grafikoa**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen ISEKa adin-egokitasunaren arabera, hiru ediziotan.*



Etxeko-hizkuntza euskara duten ikasleen ISEK maila EAEko batezbestekotik gora dago. 2017an jaitsiera izan duen arren (0,296), 2019an, errekuperatu eta zertxobait igo egiten da ISEK maila. Beste hizkuntza bat dutenen ISEK indizea EAEkotik behera kokatzen da. Lehen bi ediziotan berdin mantendu ondoren, 2019an, gora egiten du (0,184).

**26. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen ISEKa etxeko-hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK |
| Euskara | 74 | 0,488 | 79 | 0,192 | 73 | 0,54 |
| Beste bat | 91 | -0,434 | 115 | -0,452 | 118 | -0,268 |

**153. Grafikoa**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen ISEKa etxeko-hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan*




Azkenik, hiru urte bete arteko hizkuntza euskara eta beste hizkuntza bat dutenen kasuan ISEK mailan gorabeherak izan dituzte hiru edizioren buruan, hala ere, 2017ko jaitsieraren ondoren, bi kasuetan 2015eko mailara bueltatu dira. Euskara dutenen kasuan EAEko batezbestekotik gora dago ISEK maila eta beste hizkuntza bat dutenena, behetik.

**27. Taula**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen ISEKa hiru urte bete aurreko hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK | ikasleak | ISEK |
| Euskara | 100 | 0,308 | 116 | 0,112 | 121 | 0,345 |
| Beste bat | 65 | -0,526 | 75 | -0,663 | 70 | -0,486 |

**154. Grafikoa**

*Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen ISEKa hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan*




### 2.3.1.7. 4. LH-ko konpetentzien emaitzak: euskara, gaztelera eta matematika.

#### *2.3.1.7.1.* Euskara konpetentziaren emaitza orokorrak, errendimendu-maila, sexua, adin-egokitasuna, etxeko-hizkuntza eta hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera

Arrasateko ikasleen euskarako emaitza orokorrak, edizioz edizio, gora behera txikia izan du. 2019an 2015arekiko, 3,4 puntuko gorago. Arrasateko emaitzak EAEko emaitzen batezbestekotik gora daude edizio guztietan, alde nabariena 2017koa da (14 puntuko aldea).

**28. Taula**

*Euskara konpetentzian, Arrasate eta EAEko LH4ko ikasleen emaitzak, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleak | Ikasleak |
| ARRASATE | 254,4 | 260,9 | 257,8 |
| EUSKADI | **248,3** | **246,9** | **252,4** |

Euskara konpetentziaren emaitza orokorrak errendimenduaren arabera aztertzerakoan, Arrasateko eta EAEko hasierako mailako ehunekoak beheranzko joera erakusten dute; maila aurreratuak, berriz, Arrasateko kasuan 2017an gora (5 puntu) eta 2019an behera (4,3 puntu) egiten du. EAEkoak, aldiz, 2017ko beherakada txikiaren (1,1 puntu) ondoren, igoera dago (6,4 puntu). Halaber, ikasle ehuneko altuenak erdiko mailan daude bi kasuetan.

**29. Taula**

*Euskara konpetentzian, Arrasate eta EAEko 4-LH-ko ikasleen errendimendu-mailak hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ARRASATE | EUSKADI | ARRASATE | EUSKADI | ARRASATE | EUSKADI |
| Hasierako Maila | 32,6 | **36,1** | 26,8 | **37,4** | 24,6 | **34,3** |
| Erdiko maila | 37,2 | **38,2** | 38,0 | **38,0** | 44,6 | **34,7** |
| Maila aurreratua | 30,2 | **25,7** | 35,2 | **24,6** | 30,9 | **31,0** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Sexuaren arabera, nesken emaitzak 14,2 puntu goitik daude 2015ean, eta 8,2 puntu, 2019an. Nesken eta mutilen emaitzak gora behera txikiak izan dituzte hiru ediziotan, bi kasuetan 2019an 2015arekiko puntuazioa zertxobait altuagoa izanik.

**30. Taula**

*Euskara konpetentzian, Arrasateko 4. LH-ko ikasleen emaitzak sexuaren arabera, hiru ediziotan*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | batezbestekoa | batezbestekoa | batezbestekoa |
| Neska | 261,2 | 256,4 | 262,3 |
| Mutila | 247,0 | 265,6 | 254,1 |

Sexua eta euskarako errendimendu-mailak gurutzatuta, nesken kasuan erdiko eta maila aurreratuak dira ehuneko altuenak dituztenak. Mutilen kasuan, hasierako mailan beheranzko joera ikusten da, erdiko mailaren mesedetan. Mutilen maila aurreratuan, 2017an, igoera nabarmena (13,2 puntu) izan ondoren, 2019an, jaitsi egiten da (14,9 puntu). Nesken kasuan, berriz, maila aurreratuan gora behera txikiak daude, 2017an igoera txiki bat (1,7 puntu) izan ondotik, 2019an, 8,5 puntu jaisten da. Gainerako bi mailetan, nesken emaitzen ehunekoak goranzko joera erakusten dute.

**31. Taula**

*Euskara konpetentzian, Arrasateko 4. LH-ko ikasleen errendimendu-mailak sexuaren arabera, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Neska | Mutila | Neska | Mutila | Neska | Mutila |
| Hasierako Maila | 25,8 | 39,8 | 27,5 | 26,1 | 19,0 | 29,2 |
| Erdiko maila | 41,6 | 32,5 | 42,9 | 33,0 | 44,3 | 44,8 |
| Maila aurreratua | 32,6 | 27,7 | 29,7 | 40,9 | 36,7 | 26,0 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Emaitzak adin-egokitasunaren arabera, ez-errepikatzaileen puntuazioak errepikatzaileenen gainetik daude. Hala ere, aldea murrizten doala ikusten da: 2015ean, 57 puntu; 2017an, 53,5 eta 2019an, 38,2 puntu.

**32. Taula**

*Euskara konpetentzian, Arrasateko 4. LH-ko ikasleen batezbestekoa adin-egokitasunaren arabera, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | batezbestekoa | batezbestekoa | batezbestekoa |
| Ez-egokia | 201,3 | 210,1 | 222,0 |
| Egokia | 258,3 | 263,6 | 260,2 |

Errendimendu-mailetan ere aldea nabarmena da. Errepikatzaileen hasierako mailako portzentajeak altuenak dira eta ez dago ikaslerik maila aurreratuan. Ez-errepikatzaileen kasuan, hasierako mailak beheranzko joera erakusten du, 2019an 2015ean baino %7,4 gutxiago. Erdiko maila zertxobait igo eta maila aurreratua mantendu egin da.

**33. Taula**

*Euskara konpetentzian, Arrasateko LH4ko ikasleen errendimendu-mailak adin-egokitasunaren arabera, hiru ediziotan*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ez-egokia | Egokia | Ez-egokia | Egokia | Ez-egokia | Egokia |
| Hasierako Maila | 66,7 | 30,0 | 77,8 | 24,1 | 54,5 | 22,6 |
| Erdiko maila | 33,3 | 37,5 | 22,2 | 38,8 | 45,5 | 44,5 |
| Maila aurreratua | 0,0 | 32,5 | 0,0 | 37,1 | 0,0 | 32,9 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Etxeko-hizkuntza euskara duten ikasleen emaitzak euskara konpetentzian altuagoak dira edizio guztietan, hala ere, aldea murrizten ari da: 2015ean, 28,7 puntuko aldea; 2017an, 27,1ekoa eta 2019an, 11,4koa.

**34. Taula**

*Euskara konpetentzian, Arrasateko 4. LH-ko ikasleen emaitzak etxeko-hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleak | Ikasleak |
| Euskara | 269,4 | 275,2 | 259,4 |
| Beste bat | 240,7 | 248,1 | 247,7 |

Errendimendu-mailetan, euskara etxeko-hizkuntza dutenen kasuan, 2019an 2015arekiko alderatua, 4,5 puntu igo da hasierako maila; erdiko mailak bariazio txikia izan du eta maila aurreratuan, 2017ko igoeraren (12,6 puntu) ondotik, jaitsi egiten da (18,3 puntu). Beste etxeko-hizkuntza bat dutenen kasuan, hasierako mailan jaitsiera (15,3 puntukoa) dago erdiko mailaren mesedetan. Maila aurreratua, berriz, mantendu egin da.

**35. Taula**

*Euskara konpetentzian, Arrasateko 4. LH-ko ikasleen errendimendu-mailak etxeko-hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat |
| Hasierako Maila | 18,1 | 45,5 | 19,0 | 32,6 | 22,6 | 30,2 |
| Erdiko maila | 43,4 | 31,8 | 29,8 | 46,7 | 44,5 | 48,3 |
| Maila aurreratua | 38,6 | 22,7 | 51,2 | 20,7 | 32,9 | 21,6 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Hiru urte egin arteko hizkuntza euskara dutenen emaitzak altuagoak dira beste bat dutenenak baino. Bi kasuetan, 2017ko edizioan, emaitzak 5,9 eta 4,5 puntu jaitsi dira, hurrenez hurren. Alde nabarmenena 2017ko edizioan aurki dezakegu (33,4 puntuko aldea).

**36. Taula**

*Euskara konpetentzian, Arrasateko 4. LH-ko ikasleen emaitzak hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleak | Ikasleak |
| Euskara | 266,9 | 272,8 | 268,7 |
| Beste bat | 235,2 | 239,4 | 241,9 |

Hiru urte egin arteko hizkuntza eta errendimendu-mailak begiratuta, euskara dutenen kasuan hasierako mailetako ehunekoak baxuenak dira, eta beste hizkuntza bat dutenen kasuan, altuenak. Halaber, beste hizkuntza bat dutenen kasuan hasierako mailan beheranzko joera ikus daiteke (9 puntu) erdiko mailaren mesedetan, eta modu oso apalean, maila aurreratuaren mesedetan. Euskara hizkuntza bezala dutenen erdiko mailak goranzko joera erakusten du, maila aurreratua mantenduz.

**37. Taula**

*Euskara konpetentzian, Arrasateko 4. LH-ko ikasleen errendimendu-mailak hiru urte arteko hizkuntzaren arabera, hiru ediziotan*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat |
| Hasierako Maila | 24,8 | 44,6 | 16,8 | 43,8 | 16,2 | 35,6 |
| Erdiko maila | 36,2 | 38,5 | 38,1 | 39,1 | 44,4 | 46,6 |
| Maila aurreratua | 39,0 | 16,9 | 45,1 | 17,2 | 39,4 | 17,8 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

### 2.3.1.7.2. Gaztelera konpetentziaren emaitza orokorrak, errendimendu-maila, sexua, adin-egokitasuna, etxeko-hizkuntza eta hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera

Arrasateko 4. LH-ko ikasleen eta EAEko gaztelerako emaitza orokorrak, 2017an izan ezik, pixka bat behetik daude (7,5 eta 6,2 puntu).

**38. Taula**

*Gaztelera konpetentzian, Arrasate eta EAEko 4. LH-ko ikasleen emaitzak, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Ikasleak | Ikasleak |
| ARRASATE | 248,4 | 258,0 | 243,1 |
| EUSKADI | 255,9 | 254,0 | 249,3 |

Gaztelera konpetentziaren emaitza orokorretan, maila aurreratuak Arrasaten eta EAEn igoera txikia izan du: Arrasaten, 3 puntu, eta 11,3 puntu, EAEn. Bi kasuetan, erdiko mailan dago ikasleen ehuneko altuena: Arrasaten %57 eta ia %68 tartean; EAEn, %61 eta %67 tartean. Maila aurreratuan, bi kasuetan, bariazioak daude.

**39. Taula**

*Gaztelera konpetentzian, Arrasate eta EAEko LH4ko ikasleen errendimendu-mailak, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ARRASATE | EUSKADI | ARRASATE | EUSKADI | ARRASATE | EUSKADI |
| Hasierako Maila | 15,3 | 6,9 | 18,2 | 15,3 | 6,9 | 18,2 |
| Erdiko maila | 57,6 | 66,9 | 61,8 | 57,6 | 66,9 | 61,8 |
| Maila aurreratua | 27,1 | 26,3 | 20,0 | 27,1 | 26,3 | 20,0 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Nesken emaitzak mutilenak baino altuagoak dira soilik 2015ean (10,7 puntu). Beraz, gainerako bi edizioetan mutilen puntuazioak altuagoak dira neskenak baino (2017an, 10,7 eta 2019an, 11,8).

**40. Taula**

*Gaztelera konpetentzian, Arrasateko 4. LH-ko ikasleen batezbestekoa sexuaren arabera, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | batezbestekoa | batezbestekoa | batezbestekoa |
| Neska | 251,9 | 252,8 | 236,7 |
| Mutila | 244,3 | 263,5 | 248,5 |

Sexua eta errendimendu-mailak kontuan izanik, nesken eta mutilen kasuan ehuneko altuenak erdiko mailan daude. Aipatzekoa da, 2019an 2015arekiko, nesken hasierako maila dezente igo dela (ia 13 puntu); mutilena, berriz, 6 puntu jaitsi da. Nesken eta mutilen kasuan erdiko mailak hazi dira (neskak, 6,7 puntu; mutilak, 11,8 puntu) eta maila aurreratua jaitsi (8,7 puntu) da. Mutilen kasuan, maila aurreratuan, 2017an, 8,5 puntu igo da, eta 2019an, berriz, 13, 5 puntuko jaitsiera.

**41. Taula**

*Gaztelera konpetentzian, Arrasateko 4. LH-ko ikasleen emaitzak errendimendu-mailen eta sexuaren arabera, hiru ediziotan*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Neska | Mutila | Neska | Mutila | Neska | Mutila |
Helduen jatorriaren inguruan esan daiteke gurasoen erdia gutxi gora behera Euskal Herrian eta espainiar estatuko komunitatea batean jaio dela. Beste erdiak migrazio prozesu bat bizi izan du, eta horietan ehuneko altuenak Hego Amerikarrak dira. Grafikoetan ikus daitekeenez, gizonezko migratu baino emakume migratu gehiago dago, portzentaia 11 puntu altuagoa delarik.

**165. Grafikoa**

*Familiako helduen jatorria*




### 2.3.4.2.2. Adin txikikoen ezaugarriak

Esku hartuta dauden adin txikikoen %69 nerabeak dira. 12-17 adin tartea 1-17 adinaren herena da, baina esku hartze gehien ikusten den populazioa da. Aurreko urtearekin alderatuta, nerabeen portzentaia 14 puntu igo da, %55etik %69ra.

**166. Grafikoa**

*Adin txikikoen adin tarteak*




Txostenak dioenez, adingabeen generoen arteko ezberdintasuna igo egin da. 2021ean %49 eta %51 izan zen.

**167. Grafikoa**

*Adin txikikoen generoa*




Adingabeen sorlekuari dagokionez, %62a espainiar estatuan jaioa da eta %4 estatu espainiarreko beste komunitate batean. Haur eta nerabeen ia %34ak migrazio internazional baten prozesua bizi izan du lehenengo pertsonan.

**168. Grafikoa**

*Adin txikikoen sorlekua*




### 2.3.4.2.3. Babesgabetasun-egoerak

Gehien detektatu diren babesgabetasun-egoerak axolagabekeria egoerak dira. Esaterako, “behar psikikoekiko zabarkeria: elkarreragina eta afektua” da gehien errepikatzen den babesgabetasun egoera, eta txostenaren arabera, 2021ean ere berdin gertatu zen.

Txartu txarren barruan, “tratu txar emozionala” eta “gatazketan instrumentalizazioa” dira gehien errepikatzen direnak. Azkenik, “adin txikikoaren jokabidea kontrolatzeko ezintasuna” eta “estimulazio falta” ere oso presente daude esku hartutako familietan.

**169. Grafikoa**

*Tipologia ohikoenak*




Familien artean, gaur egun ohikoenak izan eta seme-alabekiko harremanean nahitaez eragina duten zailtasunak identifikatu dira. Osasun mental arazoak, migrazio prozesuak, banaketa gatazkatsuak eta abandonu emozionala dira ohikoenak esku hartutako familietan. Horrez gain,

familia askoren artean zailtasunekiko kontzientzia maila mugatua arazo gehigarria da. Aurretik esan bezala, migrazioa zein genero biolentzia ere oso presente daude esku hartutako familietan, horrek dakartzan zailtasunekin.

**170. Grafikoa**

*Familien ohiko zailtasunak.*




Esku hartzean dauden emakumeen hirutik batek eta euren seme alabek genero biolentzia sufritu dute. Iazko datuekin alderatuta, 9 puntuko jaitsiera dago.

**171. Grafikoa**

*Genero biolentzia esku hartzeko familietan.*




Adin txikikoei dagokienez, babesgabetasun-egoeratik eratorritako lau sintoma dira gehien errepikatzen direnak: arreta arazoak, antsietatea/depresioa, isolamendua eta arazo sozialak. Generoaren araberako banaketa egin ezkero, desberdintasunak ez dira aurreko urteetan bezain ageriak. Honen inguruko hipotesiak ondorioen atalean jasoko dira.

**172. Grafikoa**

*Adin txikikoen sintoma ohikoenak (kalte psikikoa dutenak + hau pairatzeko arriskuan daudenak)*




Azkenik, ohiko sintomak generoaren arabera aztertuta, nesketan arreta arazoak, antsietatea/depresioa, isolamendua eta arazo sozialak dira.

**173. Grafikoa**

*Nesken sintoma ohikoenak*




Mutilen kasuan nesken kasuan agertzen diren sintomez gain, jokabide agresiboa ageriago dago jokabide delinkuentearekin batera.

**174. Grafikoa**

*Mutilen sintoma ohikoenak.*



## 2.4. Eskola orduz kanpoko jardueraetan parte-hartzea eta euskararen erabilera

Dimentsio honetan, hezkuntza ez formalari begiratzen zaio. Hezkuntzaren begirada integrala izateko asmoz, ikastetxeetan eta herrian haur eta gazteak beraien garapen integralari begira izan ditzaketen aukerak ezagutzea eta ekintza bakoitzaren konfigurazio soziala aztertzea da xedea.

Hiru azpi dimentsio ditu atalak: Ikastetxeetako jardueren eskaintza; udal zerbitzuak, udalak diruz lagundutako jarduerak eta udalaren diru-laguntzak; eta euskararen erabilera. Ikastetxeen eskaintzaren barnean jaso dira eskola kirola, ikastetxeek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, udako eskaintza irekiak, oporretako eskaintza eta zaintza zerbitzua. Udal zerbitzu eta diru-laguntzen artean, sail ezberdinetatik kudeatzen diren 0-18 adin tarteko haur, nerabe eta gazteei zuzendutako diru-laguntzak; hezkuntza-komunitateari zuzendutako zerbitzuak; udalak diruz lagundutako kultur/aisialdi, eta elkarteen jarduerak; eta hezkuntzako proiektuei zuzendutako diru-laguntzak txertatu dira.

| | |
|---|---|
| **4. ESKOLA ORDUZ KANPOKO JARDUERETAN PARTE-HARTZEA ETA EUSKARAREN ERABILERA** | 4.1. IKASTETXEETAKO JARDUERAK |
| | 4.2. UDAL-ZERBITZUAK, UDALAK DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK, HAUEN KOKAPENA HERRIAN ETA DIRU-LAGUNTZAK |
| | 4.3. EUSKARAREN ERABILERA |

### 2.4.1. Ikastetxeetako jarduerak

Atal honetan, eskola kirola, ikastetxeek antolatzen dituzten eskola orduz kanpoko jarduerak eta ikastetxeek antolatzen duten udako eskaintza, oporretako eskaintza eta zaintza zerbitzua azalduko dira. Horrez gain, eskola kirolean, ikastetxeen eskola orduz kanpoko jardueretan eta udako eskaintzan parte hartzeko udaletik diru-laguntzak jasotzen dituzten ikasleen datuak ere emango dira.

#### 2.4.1.1. Eskola Kirola[13]

##### 2.4.1.1.1. Eskola Kiroleko ikasleak sexuaren arabera

Azken 6 urteetan (2017-2022) eskola kirolean ibili diren ikasleen kopuru totalak gorabeherak izan dituen arren, nahiko egonkor mantendu da, 2022-2023an 653 ikaslerekin. 4 urte dira kopuru hauek sexuaren arabera ere bereizten direla eta agerian geratu da gizonezkoak askoz ere gehiago direla

[13] Datu iturria: Leintz Eskola Kirola

eskola kirolean, gero eta alde gehiagorekin. Azken ikasturtean, 653tik 424 gizonezko eta 229 emakumezko aritu dira eskola kirolean Arrasaten.

**175. Grafikoa**

*Eskola Kiroleko ikasleak sexuaren arabera.*




### 2.4.1.1.2. Eskola Kiroleko ikasleak ikastola, eskola eta institutuaren arabera

Eskola kirolean ari diren ikasleen artean, gehien-gehienak ikastolako ikasleak dira (%72,89). Herri Eskolan matrikulatuta daudenak %25,57 dira eta Arrasate BHIkoak %1,53.

**176. Grafikoa**

*Eskola Kiroleko ikasleak, ikastola, eskola eta institutuaren arabera.*



#### 2.4.1.1.3. Eskola kiroleko ikasleak zikloen arabera

Ikasleak zikloen arabera banatzen baditugu, berriz, 2022-2023 ikasturtean LH 5-6 eta LH 3-4 zikloetakoak dira ikasle gehienak, leheneko 417 ikasle eta bigarreneko 372 ikaslerekin. Azken hiru ikasturtetako bilakaerari begiratuz gero, eskola kirolean apuntatutako ikasle kopuru totala 2020-2021 ikasturtetik igo egin dela kontuan izanik, proportzioak mantendu egin direla esan daiteke. Edonola ere, kopuruen arteko alde nabarmenena LH 1-2 eta LH 5-6 zikloetan egon da. DBH 1-2ko ikasleei erreparatuz gero, ziklo honetara pasatzen den ikasle askok eskola kirola utzi egiten dutela ondorioztatu daiteke, LH 5-6 zikloko kopuruen aldean zenbakiak oso txikiak baitira.

**177. Grafikoa**

*Eskola Kiroleko ikasleak zikloen arabera.*




#### 2.4.1.1.4. Eskola kirolean parte hartzeko diru-laguntzak jasotzen dituzten ikasleen datuak: diru-laguntza jaso duten familia kopurua

Arrasateko Udalak Eskola Kiroleko kuotaren %90 ordaintzeko diru-laguntzak eskaintzen dizkie familiei haur bakoitzeko. Diru-laguntza dagokien eskatzaileei udalak Eskola Kiroleko kuotaren %90a ordaintzeko kopurua ematen die. Gainontzeko %10a LEK elkarteari ordaindu beharko diote familiek beren baliabideekin. Eskola Kirola egitarauan parte hartzeko aurtengo kuota orokorra 110 €-koa da. Hortaz, udalak 99 €-ko laguntza ematen die familiei programan parte hatzen duen haur bakoitzeko. Kirol egokituaren kasuan, kuota 115 €-koa da. Beraz, 103,50 €-ko laguntza ematen du udalak.

2022-2023 ikasturtean diru-laguntza hau jaso duten 39 familia egon dira. Familia horietatik 24k kuota orokorra ordaintzeko seme-alaba batentzako laguntza jaso dute, 12 familiek bi seme-alabentzakoa eta batek 3 seme-alabentzakoa. Horrez gain, 2 familiek kirol egokituaren kuota ordaintzeko seme-alaba banarentzako diru-laguntza jaso dute.

**178. Grafikoa**

*Eskola kirolean parte hartzeko diru-laguntzak jasotzen dituzten ikasleen datuak*



### 2.4.1.2. Ikastetxeek antolatzen dituzten eskola orduz kanpoko jarduerak[14]

**88. Taula**

*Ikastetxeek antolatzen dituzten eskola orduz kanpoko jarduerak.*

<table>
<tr><th colspan="5">Eskola orduz kanpoko eskaintza</th></tr>
<tr><th></th><th>Haur Hezkuntza</th><th>Lehen Hezkuntza</th><th>Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza</th><th>Batxilergoa</th></tr>
<tr><td>Ikastola</td><td>• Abesbatza<br>• Euskal Dantzak<br>• Pandero<br>• Patinajea<br>• Sukaldaritza<br>• Zunba</td><td>• Aire akrobaziak<br>• Antzerkia<br>• Areto futbol eskola<br>• Arizmendi Kirol Elkartea<br>• Boleibol eskola<br>• Chikung-meditazioa<br>• Gabonetako nesken futbol txapelketa<br>• Igeriketa eskola<br>• LEK eskola kirola<br>• Nesken futbol eskola<br>• Pilota<br>• Robotika<br>• Street Dance</td><td>• Abesbatza<br>• AKE<br>• Areto Futbola<br>• Boleibola<br>• Btt irteerak<br>• Chikung meditazioa<br>• Eski irteera<br>• Gabonetako nesken futbol txapelketa<br>• Igeriketa<br>• Kilometroak Erronka<br>• Nesken futbola<br>• Robotika<br>• Street dance<br>• Zura lantzea</td><td>• Abesbatza<br>• AKE<br>• Areto Futbola<br>• Boleibola<br>• Btt irteerak<br>• Chikung meditazioa<br>• Eski irteera<br>• Gabonetako nesken futbol txapelketa<br>• Igeriketa<br>• Kilometroak Erronka<br>• Monitore eskola<br>• Nesken futbola<br>• Robotika<br>• Street dance<br>• Zura lantzea</td></tr>
<tr><td>Arrasate BHI</td><td></td><td></td><td colspan="2">• Biologiako laborategi praktikak<br>• Bizikleten mekanika<br>• Eskalada<br>• First Lego League<br>• Fisika eta kimikako laborategi praktikak<br>• Gantxiloa<br>• Indartze saioak<br>• Irristaketa<br>• Ortografia tailerra<br>• Tertuliak<br>• Yoga</td></tr>
</table>

[14] Datu iturria: Arrasateko ikastetxeak.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Herri Eskola** | • HHrako ingelesez jolasten saioak. | • Bidelagun programa: euskara eta matematika errefortzuak.<br>• Judo<br>• Mekanografia<br>• Psikomotrizitatea | |

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, Ikastolak eskola orduz kanpoko jardueren eskaintza oso zabala du, HHtik hasi eta Batxilergoraino. Arrasate BHIk, ere zenbait tailer eskaintzen ditu DBH eta Batxilergoan. Institutuaren kasuan, 2022-2023 ikasturtean HEDATZE proiektuaren barruan hedatu diren eskola orduetan ematen dira saiook.

Ikastolaren, Herri Eskolaren eta Arrasate BHIren artean jarduera eskaintza zabala eskaintzen da Arrasateko ikasleentzat. Tailerrak hainbat motatakoak dira: ariketa fisikoa, kirola, kultura, dantza, zientzia eta teknologia, ongizatea, eskulanak, errefortzuak, hizkuntzak eta hezkuntza. Hiru ikastetxe hauetako tailerren izaerari erreparatuz gero, agerikoa da eskaintzen izaeren arteko aldea. Oro har, Ikastolak antolatzen dituen tailerretan kirolak presentzia handia du, LHtik Batxilergoraino. Institutuan, berriz, eskalada soilik eskaintzen da kirol arloan eta pisu handiagoa dute zientzia eta teknologiarekin edo errefortzuekin lotutako jarduerek. Herri Eskolan, berriz, nahiko anitza da eskaintza. Bestetik, Ikastolaren kirol eskaintzan nesken futbolari egiten zaion tokia ere deigarria da.

**89. Taula**

*Ikastolaren jarduera eskaintza*

| Ikastolaren eskaintza | | | |
|---|---|---|---|
| HH | LH | DBH | Batxilergoa |
| Ariketa fisikoa — Patinajea, Zunba<br>Kultura — Abesbatza, Euskal Dantzak, Panderoa<br>Bestelakoak — Sukaldaritza | Ariketa fisikoa — Aire akrobaziak<br>Kirola — Arizmendi kirol elkartea, LEK eskola kirola, Boleibol eskola, Igeriketa eskola, Areto futbol eskola, Nesken futbol eskola, Gabonetako nesken futbol txapelketa, Pilota<br>Dantza — Street dance<br>Zientzia/teknologia — robotika<br>Kultura — antzerkia<br>Ongizatea — Chikung meditazioa | Ariketa fisikoa — Zunba<br>Kirola — Areto futbola, Boleibola, Btt irteerak, Eski irteerak, Gabonetako nesken futbol txapelketa, Igeriketa, Nesken futbola<br>Zientzia/teknologia — Robotika<br>Kultura — Abesbatza<br>Eskulanak — Zura lantzea<br>Ongizatea — Chikung meditazioa | Ariketa fisikoa — Zunba<br>Kirola — Areto futbola, Boleibola, Btt irteerak, Eski irteerak, Gabonetako nesken futbol txapelketa, Igeriketa, Nesken futbola<br>Zientzia/teknologia — Robotika<br>Kultura — Abesbatza<br>Eskulanak — Zura lantzea<br>Ongizatea — Chikung meditazioa<br>Hezkuntza — Monitore eskola |

**90. Taula**

*Herri Eskolaren jarduera eskaintza*




**91. Taula**

*Arrasate BHIren jarduera eskaintza*




### 2.4.1.3. Ikastetxeek antolatzen duten udako eskaintza

Arizmendi Ikastolak udako eskaintza ere eskaintzen du. Multzo honetan sartzen dira udaleku itxiak (HH5etik DBH4rainoko ikasleentzat), Gabonetan eta pazko astean egiten den campus teknologikoa (LHko eta DBHko ikasleentzat) eta ikastolako komunitatearentzat (ikasle, guraso eta profesionalak) eskaintzen diren dantza garaikideko saioak.

| Udaleku itxiak | Kanpus teknologikoak | Dantza garaikidea |
|---|---|---|
| • Gares 1 (HH5-LH1)<br>• Gares 2 (LH2)<br>• Bera (LH3)<br>• Viana (LH4)<br>• Lekeitio (LH5)<br>• Otsagi (LH6)<br>• Belagua 1 (DBH1)<br>• Belagua 2 (DBH2)<br>• Ibiltaria 1 (DBH3)<br>• Ibiltaria 2 (DBH4) | • Gabonetan (LH1-DB4)<br>• Pazko astean (LH1-DBH4) | Ikastolako komunitatearentzat (ikasle, guraso eta profesionalak) |

### 2.4.1.2. Zaintza zerbitzua[15]

#### 2.4.1.2.1. Zaintza zerbitzua: ikasleak sexuaren arabera

Zaintza zerbitzuan parte hartzen duten ikasleak nahiko orekatuta daude sexuaren arabera. Gizonezkoak apur bat gehiago dira, %51, eta emakumezkoak %49.

**179. Grafikoa**

*Zaintza zerbitzua: ikasleak sexuaren arabera.*




#### 2.4.1.2.2. Zaintza zerbitzua: ikasleak adinaren, etaparen eta zikloen arabera.

Adinari erreparatzen badiogu, berriz, adin tarte txikienetakoek erabiltzen duten zerbitzua dela ikus daiteke. Hain zuzen ere, ikasle gehienak HHkoak dira eta LHkoak zikloan gora egin ahala gero eta gutxiago dira, LHko 3. zikloan 5 ikaslek bakarrik erabiltzen dute zaintza zerbitzua.

**180. Grafikoa**

*Zaintza zerbitzua: ikasleak etapa eta zikloaren arabera.*




[15] Datu iturria: Arrasateko ikastetxeak

### 2.4.1.2.3. Zaintza zerbitzua: ikasleak jatorri-herrialdearen arabera

Zaintza zerbitzua erabiltzen duten ikasleen artean ia denak bertako ikasleak (Estatuko jatorria dutenak) dira, 379etik 366 (%96,56). Bestetik, jatorri atzerritarreko familia duten 13 ikasleak jatorri ezberdinetakoak dira eta HH zein LH etapetan daude matrikulatuta. Denak dira Erdialdeko edo Hego Ameriketakoak eta jarraian agertzen den taulan ikus daitezke kopuruak eta jatorriak.

**181. Grafikoa**

*Zaintza zerbitzua: ikasleak jatorri-herrialdearen arabera, guztira.*




**182. Grafikoa**

*Zaintza zerbitzua: ikasleak jatorri-herrialdearen arabera.*




Etapei eta ikastetxeei dagokienean, zaintza zerbitzua erabiltzen duten jatorri atzerritarreko familietako ikasle gehienak HHn daude matrikulatuta. Bestetik, Herri Eskolaren eta Ikastolaren artean banatzen

dira, Herri Eskolan LHn presentzia gehiago dutelarik. Ikastolan, aldiz, HHkoak dira guztiak. Pisu erlatiboari erreparatuta, bietan duten pisua txikia bada ere, HH etapan txikiagoa da jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisua (%3,4) LHn baino (%4).

**183. Grafikoa**

*Zaintza zerbitzua: jatorri atzerritarreko familietako ikasleak etaparen eta ikastetxearen arabera*




| Ikastetxea | Etapa | Jatorri atzerritarreko ikasle kopurua | Jatorrizko herrialdea |
|---|---|---|---|
| Ikastola | HH | 1 | Nikaragua |
| | | 1 | Brasil |
| | | 2 | Brasil (1)<br>Kolonbia (1) |
| | | 3 | Nigeria (1)<br>Bolivia (2) |
| Herri Eskola | HH | 2 | Argentina eta Kolonbia |
| | LH | 4 | Ekuador, Brasil, Kolonbia eta Honduras |

**184. Grafikoa**

*Zaintza zerbitzua: jatorri atzerritarreko familietako ikasleak etaparen eta ikastetxearen arabera, pisu erlatiboa.*



## 2.4.2. Udal zerbitzuak, udalak diruz lagundutako jarduerak, hauen kokapena herrian eta diru-laguntzak[16]

### 2.4.2.1. Udal zerbitzuak eta diru-laguntzak. 0-18 adin tarteko haur, nerabe, gazteei zuzendutakoak[17]

Ataltxo honetan jasoko dira 0-18 bitarteko haur, nerabe eta gazteentzako udalak dituen zerbitzu eta diru-laguntzen datuak: kale heziketa zerbitzua, Txikitxoko zerbitzua, Ludoteka zerbitzua, Gaztelekua eta Gaztetxoko, Ingurumen Eskola, Hizkuntza errefortzu programa eta kirol jarduerak.

#### 2.4.2.1.1. Kale heziketa zerbitzuetako erabiltzaileak

***Zerbitzuaren egitekoak eta helburuak***

Gizarte-Heziketa Zerbitzua 2008an jarri zen martxan babesgabetasun edo bazterkeria arrisku egoeran egon daitezkeen aurrenerabe eta nerabeei garapen pertsonalean laguntzeko helburuarekin.

Zerbitzuko hezitzaileen lana da babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeek dituzten beharrak identifikatzea; eta haur eta nerabe horiek gizarteko errekurtso normalizatuetan parte hartu dezaten esku-hartzeak planifikatu eta aurrera eramatea. Funtsean, tresna hezitzaileak eskaintzea dute helburu, erabiltzaileek trebetasunak bereganatu ditzaten eta baliabide eta zerbitzu komunitarioetarako bidea zabaltzeko.

Esku-hartze horiek hainbat arlotan burutu ohi dituzte:

- Arlo pertsonalean, autoestimua, autonomia, emozioen kudeaketa… landu ohi dira.
- Harremanen arloan, berriz, haur eta nerabeek besteekin harremantzeko dituzten gaitasunak.
- Aisialdian, Arrasateko errekurtso normalizatuetan parte hartzeko tresnak eskaintzea eta bideak zabaltzea lantzen da.
- Eta, familia arloan, gurasoekin kontaktua mantentzen dute, familietan ere eragitea beharrezkoa baita.

Kasu batzuetan esku-hartze txikiak nahikoa izan ohi dira, gaztetxoek errekurtso normalizatuetan parte hartu dezaten. Beste batzuetan, berriz, familia-hezitzaileen, terapeuten, errekurtso psikiatrikoen… inplikazioa behar izaten da. Zerbitzuko arduradunak dira horiek koordinazio-lanak burutzen dituztenak.

Zerbitzuko arduradunei erabiltzaileen behar nagusienen inguruan galdeginda, gaur egun, honakoak aipatzen dituzte:

- Autoestimua, autonomia eta emozioen kudeaketan dituzten zailtasunak kudeatzeko tresnak behar dituzte.
- Familiako gatazkak eta horiek berengan duten eragina lantzeko baliabideak ere behar dituzte. Horregatik, nerabeekin eta gurasoekin egin ohi dituzte esku-hartzeak.
- Harremanak lantzea eta komunitatean integrazioa bermatzea behar dute, lagun taldeen artean eta ingurunean. Komunitatea gune seguru bat dela sentitu behar dute erabiltzaileek,

[16] Datu iturria: Arrasateko Udala.
[17] Datu iturria: Kale Heziketa Zerbitzua.

Arrasatekoak direla, parte direla eta aukerak eskura dituztela: jaietan parte hartzea, udalaren eta herriko antolatutako eragileen errekurtsoak ezagutzea, Txatxilipurdiren oporraldietako ekintzetan parte hartzea, gaztetxokoan sarbidea izatea, eskola kiroleko jardueretan parte hartzea… Horrek zabaltzen ditu ateak aisialdi euskaldun batetara, laguntzen du erabiltzaileak euskarara ekartzen eta ikusarazten du euskara ez dela zerbait akademikoa soilik, eskolan erabili dezaketen zerbait soilik, baita kirolean, aisialdian, jaietan… ere.

- Motibazio akademikoa ere bai.

Hala ere, zerbitzuko arduradunek aitortzen dute aurrenerabe eta nerabe horien beharrak asko aldatu direla oso denbora gutxian, batik bat, konfinamendutik aurrera: beren esanetan, gaur egun gero eta behar berri gehiago eta beharrak dituzten gero eta nerabe gehiago daude.

Beharrak areagotu izanaren arrazoi nagusiena, harremantzeko dinamikak asko aldatu izana da. Lehenago jendea kalean gehiago elkartzen zen, hainbat lagun-talde elkartzen ziren inguru komunetan. Orain, ordea, Internet bidezko harremanek, jokoen bidezkoek… hartu dute pisu gehiago. Aisialdiarekiko ikuskera ere, orokorrean, aldatu da. Nerabe askok ez dute ezertan parte hartzen, Internet bidezko eskaintzaz haratago.

Gauzak horrela, kuadrillak txikiagoak dira, kalean ez dira hainbeste elkartzen, bakoitza bere etxean geratzea gero eta ohikoagoa da edo, kalean badaude ere, bakoitza bere mugikorrarekin egon ohi da. Lehenago gune berdinean egon ohi ziren kuadrilla ezberdinak, adin ezberdinetakoak… Orain, berriz, bakoitzak bere ingurunea dauka.

Horrek guztiak esku-hartzeak egin ahal izatea zailago bihurtu du. Kale hezitzaileentzat konplexuagoa da orain interesa sortu dezakeen eskaintza bat egitea, kuadrilletara gerturatzea, nerabeekin konektatzea, helduengan konfiantza izatea…

Nerabeengana digitalizazioaren aro berri honetan nola heldu asmatzea da orain kale heziketa zerbitzuaren erronka nagusiena, hezitzaileen lana nola egokitu.

### *Generoa*

Oro har, azken urteotan emakume gehiagok erabili izan dute zerbitzu hau eta joera bera izan da azken lau urteetan, aldeak oso handiak ez badira ere (29 emakumezko eta 25 gizonezko 2022an). Horrez gain, aipatzekoa da kopuru totalak ere nahiko egonkor mantendu direla, nahiz eta azken urtean 4 erabiltzaile gehiago izan.

**185. Grafikoa**

*Kale heziketa zerbitzuko erabiltzaileak generoaren arabera.*



## *Adina*

Esku-hartzeak aurrenerabe eta nerabeen taldeetan egin ohi dituztenez, erabiltzaile indibidualen adina baino, taldeen kopurua eta horietan parte hartze duten erabiltzaileen adin-tartearen identifikazioa egin ohi dute zerbitzuko arduradunek. Historikoki bilakaera izan bada ere, gaur egun, gero eta ohikoagoa omen da taldeetan kinta bereko pertsonek parte hartzea. Gainera, dagoeneko ez dute 18tik gorako gazteekin esku-hartzerik egiten.

**186. Grafikoa**




## *Ikastetxea*

Zerbitzuko erabiltzaileen jatorrizko ikastetxearen inguruko daturik ez dute biltzen arduradunek eta, beren esanetan, ez dira bateko edo besteko ikasleak gehiago nabarmentzen erabiltzaileen artean, orokorrean, profil oso jakineko pertsonak direlako, bazterkeria arriskuan egonagatik beharrak dituztenak, hain zuzen ere. Hortaz, ez dute identifikatzen ikastetxe bateko edo besteko ikasleen artean prebalentzia berezirik.

## *Jatorria*

Kale heziketa zerbitzuko erabiltzaile gehienak EAEkoak dira, azken urtean erabiltzaile gorakada handia izan dute gainera, 15 izatetik 40 izatera pasa baitira.

Jatorri atzerritarreko erabiltzailerik ere badago, gehienak Hego Ameriketako jatorria duten familietakoak dira (12 erabiltzaile), baina badira Afrika, Asia eta Europar jatorriko familietakoak ere. Azken urteetako datuei begiratuta, 2018tik hona zerbitzuan jatorri atzerritarreko familietako parte-hartzaileen presentzia apaltzen ari dela ikus daiteke, erdia baino gehiago izatetik (%51,02) heren eskas izatera pasa baitira (%28,57). Hala ere, aldaera hori taldearen eta urtearen araberakoa dela aipatzen dute hezitzaileek eta ez errotzen ari den joera bat.

**187. Grafikoa**

*Kale heziketa zerbitzuko erabiltzaileak: jatorri-herrialdearen arabera.*




**188. Grafikoa**

*Kale heziketa zerbitzuko erabiltzaileak: jatorri atzerritarreko familietako erabiltzaileen pisu erlatiboa.*




Zerbitzuko arduradunen esanetan, identifikatuta dute atzerriko herrialderen batean jaio izana badela arrisku eragile determinante bat eta, hortaz, beren erreferentziazko erabiltzaileen artean, jatorria badela faktore esanguratsua.

Izan ere, etorkinak etortzen direnean, zailagoa da herrian integratzea, lana topatzea, etxebizitza bilatzea… Horren eragile dira hizkuntzaren ezezagutza, kultura eta ohitura ezberdintasuna… Horrek zailtasun egoerari “extra” bat gehitzen dio integrazio prozesuari eta horregatik da etorkinen kopurua zerbitzuan Arrasateko komunitate orokorrean baino apur bat altuagoa.

Integrazio prozesu horietan ere saiatzen dira kale heziketa zerbitzuko hezitzaileak laguntza eskaintzen eta laguntzen.

### *Hizkuntza*

Zerbitzuko arduradunen esanetan, zerbitzuko erabiltzaile diren Arrasateko nerabeen artean, gaur egun, komunikazioa gaztelaniaz izan ohi da: kalean, gazte txokoan… ez dute, orokorrean, euskaraz egiten, ez dute gertutasun berezirik sentitzen. Hobeto komunikatu ohi dira gazteleraz eta horregatik egiten dute hautu hori.

Erabiltzaile horiek euskara arlo akademikoari lotu ohi diote, ikastetxeari eta ikasi beharreko zerbaiti eta, horrek, zaildu egiten du hizkuntzaren normalizazioa. Euskara nahiko estigmatizatuta dutela aipatzen dute eta hori aisialdira eta gainerako sozializazio espazioetara estrapolatzen dutela. Egoera hori zerbitzuko arduradunentzat ere ez da kudeatzen erraza, esku-hartze bat egiterako garaian, nerabeengana gerturatzeko euskara erabili ahal izatea baldintzatzen baitu.

Migrazio prozesuak bizi dituzten gazteen kasuan, gainera, ez dute baliagarritzat hizkuntza eskuratzea, askok jatorrizko herrialdera itzultzeko nahia adierazten dutelako eta bertan hitz egiten ez den hizkuntza bat ikasteak zentzurik ez duela adierazten dutelako. Horrez gain, esanguratsua da migratu duten komunitateak, orokorrean, ez direla asko nahasten: jatorrizko hizkuntzan mintzatu ohi dira beren jatorrizko komunitateko kideekin harremantzen direnean.

*Harreman-guneak*

Kale hezitzaile zerbitzuko arduradunei beren erabiltzaileen sozializazio-espazioak zein diren galdeginda, honakoa adierazi dute:

- Astean zehar ez dago, orokorrean, gazterik kalean. Musakolan egon ohi dira batzuk, kiroldegia eta gaztetxokoa daudelako bertan. Baina, orokorrean, gazteak arratsaldetan eskolaz kanpoko jarduera askorekin oso beteta egon ohi dira, musika, ingelesa…
- Ostiraletan gehiago elkartu ohi dira kuadrillak, erdigunean, bereziki. Lehenago auzoetan elkartzeko ohitura bazegoen ere, pandemiak hori aldatu zuen.
- Gainerakoan, kuadrilla ezberdinek lasai egoteko tokiak bilatzen dituzte, zonaldeka banatuta, erdi ezkutuan eta taldeen artean asko harremandu gabe.

Hala ere, zerbitzuko arduradunek bereziki ghetifikatuta dagoen ingurune bat identifikatuta dute herrian: Txaeta, hain zuzen ere, ospitalearen ingurua. Behar bereziak dituzten pertsonak eta jatorri atzerritarra dutenak biltzen dira bertan bereziki, zerbitzuak ere hor daudelako (pisuak, ospitalea, udaltzainak, gizarte zerbitzuak, mankomunitatea, Lanbide …). Horrek, herri mailan zonalde hori oso estigmatizatuta egotea dakar.

Bertara joan ohi dira kale hezitzaileak, zerbitzua ezagutzera emateko eta esku-hartze bereziak egiteko, aurrenerabe eta nerabe asko ere kalean egon ohi direlako.

Komunitate horietako kideek egunerokotasunean kalean bizitza asko egin ohi dute, kalean asko egoten dira: familiak parkera irteten dira, haurrak jolasean, helduek mahaia ateratzen dute… Ordu asko egon ohi dira horrela, baita gauen ere, dantzan, abesten… Komunitate sena nabari da, nahiz batzuetan liskarrak ere egoten diren. Beren artean bat egiten dute, kanpotik sentitzen ez duten babesgabetasunari aurre egiteko bitarteko modura.

#### 2.4.2.1.2. Haurren Zerbitzua (Ludoteka)[18]

3-11 urte bitarteko haurren jolas eta gozamenerako guneak dira Haurren Zerbitzuak (Ludotekak), ondo pasatzeko, pertsonen artean harremanak sortzeko, auzoan eta herrian parte hartzeko, sormena eta emozioak azaltzeko… Ludoteken helburua da aisialdian heztea eta haurren garatze integrala bultzatzea, eta hiru zehar lerro jorratzen dira zerbitzu horietatik: berdintasuna, euskara eta inklusioa. Zerbitzu honek hiru egoitza ditu Arrasaten: Okendo, Usaetxe eta Santamaña.

[18] Datu iturria: Arrasateko Udala eta Txatxilipurdi Elkartea

**189. Grafikoa**

*Haurren Zerbitzuko (Ludoteka) erabiltzaileak sexuaren arabera*




**Asteko erabiltzaile kopuruaren bataz bestekoa*

Azken bi ikasturteetako erabiltzaile kopuruak alderatuta, Ludotekan parte hartzen duten erabiltzaileen asteko bataz besteko kopurua nabarmen hazi dela ikusi daiteke, 72tik 379raino, %526ko igoerarekin. Igoera hau pandemiaren osteko egoerari egotzi ahal zaiola ondorioztatu daiteke, 2021-2022 ikasturtean oraindik dena bere onera etorri gabe zegoen eta. Generoari erreparatuta, berriz, ludotekako erabiltzaileen artean gehiago dira gizonezkoak, alde handirik ez badago ere, eta aldea handitu egin da 21-22 ikasturtetik 22-23 ikasturtera. Azken honetan, 181 emakumezko eta 198 gizonezko izan dira ludotekako erabiltzaile, bataz beste.

Datu orokor hauek gehiago xehatu eta erabiltzaileen profila ezaugarritzeko, Ludoteka zerbitzua kudeatzen duten Txatxilipurdi Elkarteko kideekin elkarrizketa bat egin da. Jarraian, bertan jasotako informazioa azalduko da.

Ludoteka zerbitzua eskaintzen den hiru guneek berezko izaera dute, bakoitza kokatuta dagoen auzoko errealitatearen isla baitira.

### *Okendo (erdigunean)*

Ludoteka honek eskaintzen duen zerbitzua 0-12 urte bitarteko haur eta gazteentzako da, baina partaide gehienak 0-9/10 urte bitarteko haurrak dira. Sexuari dagokionean, mutil eta nesken kopuruak parekatuak dira. Bestetik, haur gehienak herri eskolako ikasleak dira.

Txaeta inguruan bizi diren familietako haurrak dira gehienak eta asko jatorri atzerritarra duten familietako kide dira. Hala, hizkuntza eta kultura aniztasun handiko taldea osatzen dute. Bestetik, erdigunean bizi diren familia euskaldun askotako haurrak Usaetxera joaten dira, Okendok estigma duelako.

Aniztasun handiko gunea izanda, euskararekiko jarrera positiboa dute bertako erabiltzaileek eta familiek zein haurrek balioan jartzen dute ludotekan euskararekiko egiten den lanketa.

### *Usaetxe (Uribarri-Erguinen)*

Auzoko familia euskaldun zein erdaldunetako haurrak joaten dira ludoteka honetara, baita erdiguneko familia euskaldunetako batzuk ere. Hori horrela, hizkuntza aniztasuna egon badagoen arren,

euskararekiko jarrera positiboa dela esan daiteke. Eskolei dagokienez, Herri Eskolako eta Ikastolako ikasleak dira, bietatik dago.

### *“Santamaña” (Santa Marina)*

Auzoko izaera handia duen zentroa da. Guztien artean euskararekiko erresistentzia handien dagoen ludoteka dela esan daiteke, gaztelania nagusitzen delarik. Bestelako hizkuntzak ere entzun daitezke, hizkuntza eta kultura aniztasuna badago eta.

### *Igandetako zerbitzua*

Igandetan ludoteka bat zabaltzen da eta begirale erreferente batekin batera, gurasoek ere parte hartzen duten dinamikak egiten dira. Ustez izaera berezi honek eraginda, batez ere bertako familiek hartzen dute parte eta jatorri atzerritarreko familien presentziarik ez da egoten apenas. Hori horrela, euskararen presentzia nabarmena izaten da.

#### 2.4.2.1.3. Gaztelekua eta Gaztetxokoa[19]

Gaztelekua eta Gaztetxokoa 12-17 urteko nerabeei zuzendutako zerbitzuak dira, ondo pasatzeko eta euren garapenean esanguratsuak diren arlo ugari lantzeko: pertsonen arteko harremanak, parte hartzea, sormena, autonomia, emozioak… Bertan, hiru zehar lerro jorratzen dira: berdintasuna, euskara eta inklusioa. Zerbitzua lau guneetan ematen da: San Andres, Erguin, Musakola eta tren geltokian.

Gaztetxokoetan parte hartzeko ez da izenik eman behar eta bertako hezitzaileek ez dute familiekin harremanik izaten, sarrera eta irteera libreko guneak baitira. Hori horrela, beheko datuak gutxi gorabeherako moduan ulertu behar dira.

**190. Grafikoa**

*Nerabeentzako zerbitzuko (Gazteleku eta Gaztetxokoa) erabiltzaileak sexuaren arabera.*




[19] Datu iturriak: Arrasateko Udala eta Txatxilipurdi Elkartea.

**Asteko erabiltzaile kopuruaren bataz bestekoa*

Nerabeentzako Zerbitzuaren datuek Ludotekakoaren antz handia dute. Alde batetik, igoera nabaria izan da asteko bataz besteko erabiltzaile kopuruaren artean, %564,58koa, 21-22 ikasturtetik 22-23ra, 48 erabiltzailetik 271ra pasatuz. Bestalde, zerbitzu honetan ere gehiago dira gizonezko erabiltzaileak emakumezkoak baino, azken ikasturtean 121 emakumezko eta 150 izan dira. Ez-bitarren kasuan, 21-22 ikasturtean ez zen batere egon eta 22-23an bi egon ziren.

Ludoteka zerbitzuarekin egin den moduan, datu orokorretatik haragoko informazioa jasotzeko zerbitzu hau kudeatzen duen Txatxilipurdi Elkarteko kideekin elkarrizketa egin da. Aipatu dute, orokorrean, zerbitzuetan parte hartze handiena duten nerabeak bestelako eskolaz kanpoko jarduerarik egiten ez dutenak direla.

### *Erguin*

Bertara gerturatzen diren gazte gehienak auzokoak dira, baina badira Txaetatik etortzen diren batzuk ere. Sexuari dagokionez, gehienak 9-12 urte bitarteko mutilak dira (%90+) eta jatorri atzerritarretako familietakoak. Beti izan da mutil gehiago jaso duen zentroa. Denak eskola publikoko ikasleak dira.

Bestetik, bada bertara joaten jarraitzen duen 17-18 urte bitarteko neska talde bat ere. Jatorri atzerritarreko familietakoak dira, auzoan bizi direnak, eta harreman pertsonalak tarteko, euren elkargunea da gazte txokoa.

Orokorrean, estigma handia duen zentroa dela esan daiteke, herriaren erdigunetik eta eskoletatik urrunen dagoen zentro hau.

Euskararekin “estu eta larri” ibiltzen dira. Euskara ia denek ulertzen duten arren, dinamikak euskaraz izanda ere euren artean gaztelaniaz edo euren hizkuntzetan hitz egiten dute.

### *San Andres*

Gune honetan parte hartzen duten gazteak hiru multzotan sailkatu daitezke:

- 12-14 urte bitarteko eta jatorri atzerritarreko familietakoak diren gazteek osatzen duten taldea. Erguin eta San Andres zentroen artean ibiltzen dira.
- 14-16 urte bitarteko institutuko neska eta ez-bitar talde bat. Hauek dira partaide zaharrenak.
- Ostiraletan joaten diren 14 urteko Arizmendiko mutil talde bat. Astean zehar eskolaz kanpoko jarduerak izaten dituzte eta horregatik ostiraletan soilik azaltzen dira. Aparte ibiltzen dira.

Oro har, euskara eta gaztelania entzuten dira zentro honetan, baina euskararen erabilera nagusiagoen artean ohikoagoa dela esan daiteke.

### *Musakola*

Zerbitzu hau behin behinekoz auzo alkatetzako lokalean kokatzen da orain eta toki aldaketa izan denetik parte-hartzea ere aldatu egin dela esan daiteke. Auzo izaera handia duen gunea da, gainera.

Lehen 30 bat kideko taldea ibiltzen zen gaztetxokoan, gehienak bertakoak. Aniztasun handiagoko taldea zen eta mutil gehiago zeuden tartean.

Egun, 14 urte eta gorako 8 bat gazteko talde bat gerturatzen da. Gehienak neskak edo ez-bitarrak dira, institutukoak, eta beti elkarrekin ibiltzen dira.

Hizkuntzei dagokionean, gaztelaniadun familietako kideak izanik, hori da gehien erabiltzen duten hizkuntza eta euskara eskolarekin lotzen dute zuzenean.

***Tren geltoki zaharra (asteburuetan)***

Asteburuetan irekitzen den zerbitzuak ere aldaketak izan ditu azken urteotan. Lehen erdigune zaharrean kokatzen zen, Pablo Urangan, gero auzoz auzo ibili zen eta azken urte eta erdian tren geltokian eskaintzen da. Leku aldaketa honek parte-hartzaileen profilean eragin handia izan du.

Lehen, asteburuetan zabaltzen zen bakarra erdigune zaharrean zegoenean, Arizmendiko gazteak izaten ziren nagusiki bertaratzen zirenak. Oso zaila izaten zen aste barruan beste guneetan ibiltzen ziren gazteak asteburuko zerbitzura erakartzea.

Orain, tren geltoki zaharrean kokatzen denetik, erdiguneko familietakoak (bertako jatorridunak) joateaz gain, Txaeta auzoko familietakoak (jatorri atzerritarrekoak) ere joaten hasi dira eta nahasketa sortu da. Gainera, hori ikusita, Musakola, Erguin eta San Andreseko aste barruko partaide batzuk ere hasi dira asteburuetan tren geltoki zaharrera gerturatzen.

Aldaketa honek tren geltokia elkargune bihurtzea eragin du, baina oraindik erronka handia da gazteak elkarrekin nahastea, toki fisikoa bakarrik partekatzen baitute. Izan ere, gazteak eskolako kuadriletan etortzen dira eta ez dira euren artean nahasten. Egon daitezkeen elkartzeak institutuko kuadrila ezberdinen artekoak dira, baina ez bi eskolen artekoak.

Elkarrizketatuek diotenez, tren geltokian gertatzen denak herrian Arizmendi eta Institutuaren artean dagoen banaketa islatzen du. Euren ustez, ez da hizkuntzarekin soilik zerikusia duen banaketa, Arizmendiko askok ere gazteleraz egiten baitute. Atzean egon daitezkeen arrazoiak eskolen arteko lehia, klase soziala edo jatorri ezberdintasunarekin lotutako aurreiritziak izan daitezkeela diote. Horrez gain, faktore hauek etxetik jasotzen diren aspektuak izan daitezkeela ere aipatu dute.

Gazteen bestelako ezaugarriei erreparatuta, 12-17 urte bitartekoak dira, neska eta mutil kopuruak orekatuak dira, baita institututik edo Arizmenditik datozenak ere. Jatorri aniztasuna ere handia da, danetik dago. Guztira, 40-50 gazte izaten dira, parte-hartzea aldakorragoa dela kontuan hartuta.

#### 2.4.2.1.4. Udaixe programa

Udaletik eskaintzen diren nerabeentzako zerbitzua da hau, Txatxilipurdik kudetzen duena. Gaztetxokoen zerbitzuak uztailean jarraitu egiten du Udaixe programarekin. Helburu nagusia nerabeentzako aisialdi eskaintza euskalduna eta baloreetan hezia ematen jarraitzea da. Eskaintza hau bi ataletan banatzen da:

- 6ak baietz!: bi astetan banatzen diren sei ekintza izaten dira.
- Gaztekonkis: 4 eguneko irteera.

Programa honetan parte hartzen duten gazteen perfila gaztetxokoetakoaren antzekoa izaten da, eskaintza hau udalak finantzatzen baitu. Hala, profil askotarikoa izan ohi da eta aurrez gaztetxokoei buruz aipatutakoa erreproduzitzen dela esan daiteke. Izan ere, udalekuen kasuan alderdi sozioekonomikoak pisu handia izan ohi du gazteen parte-hartzean.

### 2.4.2.1.5. Hizkuntza errefortzu programa

Udalak eskaintzen duen errefortzu programak gero eta erabiltzaile gehiago du. 2018-2019an 82 erabiltzaile izatetik, 2022-2023 ikasturtean 108 erabiltzaile izatera pasa da. Ikasturte honetan gizonezkoak emakumezkoak baino 4 gehiago diren arren, orekak batera eta bestera ibili dira.

**191. Grafikoa**

*Hizkuntza errefortzu programako erabiltzaileak sexuaren arabera.*




Erabiltzaileen adinari erreparatuz gero, 6-12 urte bitartekoak dira gehienak eta urtez urte gehiago dira proportzioan. Azken ikasturte honetan, 6-12 urteko 74 ikasle eta 12-16 urte bitarteko 34 ari dira zerbitzu honetan parte hartzen.

**192. Grafikoa**

*Hizkuntza errefortzu programako erabiltzaileak adinaren arabera.*




Arizmendi Ikastolan matrikulatutako ikasleak dira zerbitzu honetan parte hartzen duten gehienak, baina aipatzekoa da 2020-2021 ikasturteaz geroztik Herri Eskolako ikasleen kopuruen gorakada. Arrasate BHIko ikasleen parte-hartzea igo da, modu apalagoan. 2022-2023 ikasturtean ia Arizmendi Ikastolako ikasleak bezain beste izan dira Herri eskolakoak eta, kopuruak gehituta, gehiago dira ikastetxe publikoetakoak ikastolakoak baino.

**193. Grafikoa**

*Hizkuntza errefortzu programako erabiltzaileak ikastola, eskola eta institutuaren arabera.*



**194. Grafikoa**

*Hizkuntza errefortzu programako erabiltzaileak jatorri-herrialdearen arabera (15 jatorri ohikoenak).*




| | Kolonbia | Maroko | Nikaragua | Honduras | Sahara | Venezuela | Pakistan | Espainia | Dominikar errepublika | Euskal Herria | Peru | Txina | Errumania | Mauritania | Argelia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019-2020 | 12 | 15 | 9 | 7 | 6 | 4 | 10 | 6 | 5 | 4 | 3 | | 2 | | 1 |
| 2020-2021 | 3 | 13 | 11 | 3 | 3 | 12 | 2 | 4 | 2 | | | | 1 | 2 | 2 |
| 2021-2022 | 21 | 8 | 9 | 7 | 5 | 3 | 7 | 5 | 2 | 2 | 1 | 2 | | | |
| 2022-2023 | 28 | 14 | 8 | 17 | 14 | 5 | 2 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 1 | 2 | |

Hizkuntza errefortzuen zerbitzuko erabiltzaile gehienak jatorri atzerritarra duten familietakoak dira. Grafikoan ikusi daitekeen moduan, jatorri euskalduna duten 2 ikasle soilik daude 2022-2023 ikasturtean. Ordezkaritzarik handiena duten herrialdeak Kolonbia, Maroko, Nikaragua, Honduras, Sahara, Venezuela eta Pakistan dira. Bilakaerari begiratuta, nabarmentzekoa da Kolonbia, Honduras eta Saharako jatorrietako familietatik datozen erabiltzaileen gorakada azken 4 ikasturteetan: Kolonbiakoak 12tik 28ra igo dira; Honduraskoak 7tik 17ra; eta Saharakoak 6tik 14ra. Kontrako joera izan dute Pakistangoek, 10etik 2ra jaitsi baitira. Espainiar jatorriko erabiltzaileak ere beherakada handia jasan dute azken ikasturtean, aurten erabiltzaile bakarra dago.

### 2.4.2.2. Udalak diruz lagundutako jarduerak. Kultur/aisialdi jarduerak

#### 2.4.2.2.1. TTAK! taldea

AED elkartearen helburu eta lan ildoetan kokatzen da TTAK! taldearen jarduera, Arrasateko euskararen aldeko jarrerak eta erabilera bultzatzeko esparruan. Helburua hori izanik, ekimen guztiak euskara hutsean egiten dira.

Antolatzen dituzten ekintza batzuk dagoeneko ibilbide luzea dute, hala nola, ikastetxeekin egiten diren motibazio saioak, Ttak! eguna edota herriko txosna batzordean eragitea. Beste batzuk, aldiz, puntualak izaten dira, momentuko beharren eta motibazioen arabera sortzen direnak. Horrez gain, beste eragile batzuekin ere lankidetzan dihardu taldeak bestelako ekimenen antolaketan; esate baterako, Euskaraldia, Gaba Baltza, Ausortu sormen laborategiak edo AEDtik antolatzen den Dragoi jana.

Taldearen izaerari dagokionean, taldeko kide gehien-gehienak emakumezkoak dira, hamarretik bederatzi eta denak dira 15-18 urte bitartekoak, DBHko 4. mailan hasi eta Batxilergoa amaitu bitarte izaten baitira kide. Ikastetxeen artean ez da ezberdintasun nabarmenik izaten, urterik urte aldatzen baitira orekak. Izan ere, askotan lagun taldean sartzen dira ikasleak eta, kuadrillaren arabera, Institutuko edo Arizmendiko ikasle gehiago izaten da. Azkenik, jatorriei erreparatuta, kide guztiak euskal jatorrikoak izaten dira, familia euskaldunetako seme-alabak, nagusiki.

#### 2.4.2.3. Udalak diruz lagundutako jarduerak. Herriko elkarteen jarduerak

##### 2.4.2.3.1. Txatxilipurdiren udalekuak[20]

Txatxilipurdi Elkarteak udaleku irekiak eta itxiak antolatzen ditu udan adin guztietako haur eta nerabeentzat.

*Udaleku irekiak*

Ludotekako adin-tartera bideratutako eskaintza izaten da (3-12 urte). Goizez zein arratsaldez egiteko aukera ematen den arren, goizetakoa soilik ateratzen da. Hala, 10:00-13:00 bitarteko iraupena izaten dute eta aukera egoten da 9:00-10:00 artean zaintza zerbitzua erabiltzeko.

Zerbitzua Arrasaten eskaintzen da, hiru gune ezberdinetan: erdigunea, San Andres eta Musakola. Guztietan zerbitzu bera eskaintzen da, adin tarte guztientzat.

Haurren profilari dagokionez, auzoko familietakoak izaten dira gehienak, askok praktikotasunari begiratzen baitiote udaleku irekietan izena ematerako garaian. Hori horrela, eskolako lagun taldeak ere izaten du eragina behin gunean bertan. Bi eskoletako haurrak izaten dira.

Profila oso anitza dela esan daiteke, baina zerbitzuak kostu ekonomiko bat duenez, askoren parte-hartzea diru-laguntzen araberakoa izaten da. Bestetik, zerbitzuak irauten duen 3 asteetan Arizmendiren astebeteko udalekua ere egoten denez, bertako ikasle asko hara joaten dira eta euren falta sumatzen da.

*Udaleku itxiak*

Txatxilipurdik bi udaleku itxi antolatzen ditu uda garaian: Garaion eta Kosta ala kosta udaleku ibiltaria. Udaleku itxien kostua tarteko, aniztasun askoz ere gutxiagoko taldeak izan ohi dira, familia askoren aukeretatik kanpo geratzen baitira, diru-laguntzak egon arren ere. Hori horrela, historikoki udaleku itxietan parte hartu duten haur eta nerabeen artean indarra izan du Arizmendiko profilak, baina euren udaleku itxiak antolatzen dituztenetik gutxiago izaten dira, eurenak lehenesten baitituzte.

Garaion

Ludotekako eta gaztetxokoetako adin-tartean nahasten dituen 7 eguneko udalekua da, 9-14 urte bitartekoentzako eskaintza izaten baita. Lehen talde ezberdinak egiten ziren, baina Covidak eragindа batu egin behar izan zituztenetik, ondo baloratu da adin nahasketa egotea eta horrela jarraitzea erabaki dute.

Eskola guztietako haur eta gazteak joaten dira, baina Arizmendiren udaleku itxi propioek eragin handia izaten dute, bertako ikasle askok udaleku horiek lehenesten baitituzte. Horrez gain, Arrasatetik kanpoko askok ere parte hartzen dute.

Hizkuntzei dagokienez, euskarak pisu handia hartzen du, Txatxilipurdiren izaeraren parte handi bat baita aspektu hori jorratzea. Hala, nahiko udaleku euskalduna dela esan daiteke.

---

[20] Datu iturria: Txatxilipurdi Elkartearekin izandako elkarrizketa.

*Kosta ala kosta udaleku ibiltaria*

DBH 3 eta 4ko nerabeentzat antolatzen den 10 eguneko udalekua da. Covidaren aurretik izugarrizko arrakasta izaten zuen, baina pare bat urtez ez da egin. Iaz berriz egin zuten, talde txikiagoarekin. Arrasateko nerabeen artean, Arizmendi eta institutuko gazteak hartu zuten parte azken edizioan, denak neskak.

#### 2.4.2.4. Hezkuntzako proiektuei diru-laguntzak[21]

Arrasateko Udalak irakaskuntza arautuan irabazi asmorik gabe dihardutean ikastetxeek egindako jarduera eta proiektuetarako diru-laguntzak ematen ditu. 2023 urteko diru-laguntza deialdien oinarrietan adierazten zen moduan, hurrengo ezaugarriak izan behar dituzte jarduerok:

1. Ikastetxeek egindako hezkuntza, kultura eta kirol arloko jarduerak; eskolako hezkuntza proiektuak; berritzailetzat jotzen den material didaktiko berezia.
2. Eskola komunitatean euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta programak.
3. Ikastetxeek hezkuntza arautuan bertsolaritza sustatzeko eginiko jarduerak, bere baitan hartuz bertsolaritza elkarteak emandako hezkuntza zerbitzuaren kostua eta baita eskolek jarduera garatzeko erabilitako material didaktikoa ere.
4. Hezkuntza zabaltzeko jarduerak edo programak, komunitatean hezkuntza garatzeko programak, eta baita garapen iraunkorrarekin, hezkidetzarekin, berdintasunarekin eta bizikidetzarekin lotuta ikastetxeek lantzen dituzten eskola programak ere.
5. Irakaskuntzaren kalitatea sustatu eta eskola kudeaketa hobetzeko proiektuak edo programak.
6. Irakasleria prestatzeko jarduerak eta programak.
7. Prestakuntza eta berrikuntza proiektuak, zein eskola curriculuma aberasteko proiektuak.

Horrez gain, ikastetxeek honako baldintza hauek bete behar dituzte onuradun izan ahal izateko:

1. Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeak izatea eta ikastetxe horietan aipatutako etapetako ikasleekin diru-laguntza eskaerari lotutako jarduerak, proiektuak eta abar lantzea.
2. Ikastetxeak Arrasateko udalerrian jardutea.
3. Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek egindakoak edo haientzat eginda izan behar dira.

Gainera, udalak ikastetxeek aurkeztutako proiektuen baremazioa egiten du

Ikastetxe bakoitzak jasoko duen gehienezko diru-laguntza ikastetxe horretan etapa bakoitzean dagoen ikasle kopuruaren araberakoa izango da, udalak esleitzen duen diru kopuru globala Arrasateko LH eta DBHko ikasleen artean banatzen baita. Behin kalkulu hori eginda, Udalak ikastetxeek aurkeztutako eskaerak aztertu eta diruz lagunduko dituen proiektuak, jarduerak eta elementuak aukeratzen ditu, ondorengo irizpide baremo eta puntuazioen arabera, aukeratuak izateko gutxienez 50 puntu lortu behar dituela kontuan hartuta:

1. Programaren edo jardueraren oihartzuna, eta udalerriaren garapenari zer ekarpen egiten dion. Gehienez 20 puntu.
    a. Programaren edo jardueraren hezkuntza eta gizarte errentagarritasuna
    b. Programaren edo jardueraren kultur errentagarritasuna

[21] Datu-iturria: Arrasateko Udala.

2. Ikastetxearen beraren hezkuntza proiektu globalarekiko osagarritasuna. Gehienez 20 puntu.
3. Jarduerari esker, eskola komunitatearen eremu guztietan (fisikoak eta gizarte eragileak), euskara normalizatzeko egiten den sustapena. Gehienez 15 puntu.
4. Aurkeztutako proiektuen berrikuntza eta kalitate pedagogiko nahiz teknologikoa. Gehienez 20 puntu.
5. Eskatzaileak beste finantzabide batzuetara jotzeko izan duen zailtasunaren egiaztapena, eta eskatu den diru-laguntzaren proportzioa, entitate eskatzailearen berezko baliabideekiko. Gehienez 25 puntu.

Irizpide hauetan ikusi daiteke udalak herriaren garapenari eta euskararen normalizazioari lotutako berritzaileak eta kalitatezkoak diren proiektu eta jardunbideak sustatu eta lagundu nahi dituela.

Hori horrela, eta urte bakoitzeko diru-laguntza oinarrietan aldaketak egon daitezkeela kontuan izanda, jarraian txertatu diren grafikoek, Arrasateko Udalak herriko hezkuntza proiektuei emandako diru-laguntzei buruzko informazioa jasotzen dute. Bertan, hartzaileen informazioa jasotzen da, ez ordea diruz lagundutako proiektuen izaera.

**195. Grafikoa**

*Ikastetxeei emandako diru-laguntzak: azken 5 urteetako datuak ikastetxeka.*




| | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| Arizmendi ikastola | 82007,00 € | 81443,00 € | 90871,94 € | 98893,28 € | 88315,52 € |
| Arrasate Herri Eskola | 31075,00 € | 29424,00 € | 33402,38 € | 36085,30 € | 37264,00 € |
| Institutua | 26918,00 € | 25417,46 € | 22716,00 € | 19335,76 € | 23462,50 € |

**196. Grafikoa**

*Ikasleen Guraso elkarteei (IGE) diru-laguntzak: azken 5 urteetan emandako diru-laguntza datuak ikastetxeka.*




| | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| AHEko IGE | | 2075,10 € | 2111,98 € | 2085,05 € | 2405,81 € |
| Arizmendi ikastolako IGE | 2887,00 € | 2748,50 € | 2909,39 € | 2958,43 € | 3994,19 € |
| Institutuko IGE | 1294,00 € | 1176,40 € | 1378,63 € | 1356,52 € | |

**197. Grafikoa**

*HHIri emandako diru-laguntzak: azken 5 urteetako diru-laguntzak*



**198. Grafikoa**

*Lanbide Hastapenari emandako diru-laguntzak: azken 5 urteetan emandako diru-laguntza datuak ikastetxeka.*




## 2.4.3. Euskararen erabilera

Atal honetan, Arrasateko euskararen erabilerari buruzko datuak emango dira, kale erabilera, lehenengo, eta eskola giroko erabilera, ondoren. Azkenik, Arrasateko kirol-kluben jarduera-hizkuntzaren inguruan Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketaren emaitzak ere emango dira.

Azken kale-neurketa, 2021ekoa, Soziolinguistika Klusterrak lagunduta egin da eta berrikuntzak izan ditu aurreko 30 urteetako neurketekin alderatuta: ibilbide bat gehiago erantsi zitzaion (Zerrajera) eta neurketa-orduak areagotu egin ziren (6 ordutik 12 ordutara). Horrenbestez, laginak handitu egin dira eta nekez konpara daitezke 2016ko datuekin. Hala ere, badaude antzemateko moduko joera batzuk.

### 2.4.3.1. Kale-erabilera adin tarteka[22]

Soziolinguistika Klusterrak 2021ean argitaratutako Hizkuntzen erabileraren kale neurketaren arabera, haur eta gazteek heldu eta adinekoek baina euskara gehiago erabiltzen dute Arrasaten, hau da, adinean aurrera egin ahala, gero eta euskara gutxiago erabiltzen da. 2-14 urteko haurrak dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak (%40,4), baina gaztarora heltzean euskara erabiltzeari uzten diote, %19,9ra jaisten dira zenbakiak. Edonola ere, erabilera berreskuratu egiten da hurrengo adin tartean, %37,4ra arte. Adinekoak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak (%13).

Beste hizkuntzen erabilerari erreparatuta, heldu gazteak eta gazteak dira erabiltzaile nagusiak (%5,5 eta %4,2). Haurren artean ere badaude beste hizkuntzetan aritzen direnak (%3,3) eta, aldiz, oso gutxi dira adinekoak (%0,5).

[22] Datu iturria: Hizkuntzen erabileraren kale neurketa (SLK) eta Arrasateko udaleko euskara zerbitzuak 2021eko kale-erabileraren neurketatik ateratako ondorioak.

**199. Grafikoa**

*Euskararen kale-erabilera adinka Arrasaten 2021ean.*




| | Haurrak (2-14 urte) | Gazteak (15-24 urte) | Heldu gazteak (25-44 urte) | Heldu nagusiak (45-64 urte) | Adinekoak (>64 urte) |
|---|---|---|---|---|---|
| Euskaraz | 40,4 | 19,9 | 37,4 | 21,5 | 13,0 |
| Gaztelaniaz | 56,3 | 75,7 | 57,2 | 76,2 | 86,3 |
| Frantsesez | 0,0 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 0,3 |
| Beste hizkuntzetan | 3,3 | 4,2 | 5,5 | 2,2 | 0,5 |
| GUZTIRA | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| *Lagina* | *1.617* | *850* | *1.285* | *2.361* | *1.500* |
| Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ARRASATE 2021. | | | | | |

2016ko datuekin alderatuta, tendentzia errepikatzen dela ondorioztatu daiteke: haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%40,4) eta adinekoak gutxien (%13). Bilakaeraz ezer gutxi gehiago esan daiteke, lagina handitzeaz gain, 2021eko neurketan helduen adin-tartea xehatu egin baita *heldu gazte (25-44)* eta *heldu nagusi (45-46)* azpiataletan.

**200. Grafikoa**

*Euskararen kale-erabileraren bilakaera adinka Arrasaten 2016 eta 2021 artean.*




| Adin-taldea | 2016 | 2021 |
|---|---|---|
| 2-14 urte | 40,3 | 40,4 |
| *Lagina* | *762* | *1617* |
| 15-24 urte | 33,3 | 19,9 |
| *Lagina* | *447* | *850* |
| 25-64 urte | 26,4 | 27,1 |
| *Lagina* | *1911* | *3.646* |
| >64 urte | 11,0 | 13,0 |
| *Lagina* | *655* | *1500* |
| Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ARRASATE 2021. | | |

### 2.4.3.2. Kale-erabilera zonaldeka[23]

Arrasate zonaldeka banatuta, euskararen eta bestelako hizkuntzen kale-erabileran aldeak nabari daitezke. Erdigunea da euskara gehien entzuten den zonaldea (%32) eta gertutik jarraitzen diote Santamarina, Zerrajera eta Ulibarri-Erguinek, denak %28-29ko erabileraren inguruan. Bestetik, Zigarrola eta San Andresko kaleetan euskara gutxiago entzuten da, %22,7 eta %17,2 hurrenez hurren.

Gaztelaniaren erabilerak, berriz, alderantzizko irudia erakusten du: San Andres eta Zigarrolan entzuten da gehien (%72,2 eta %80,9, hurrenez hurren). Frantsesak oso presentzia apala du Arrasateko kaleetan, %0,3ko kale-erabilera jaso da Santamarina eta Zerrajera zonaldeetan. Bestelako hizkuntzak, berriz, ugariagoak dira, Ulibarri-Erguin (%5,2) eta Zerrajera (%4,1) auzoetan batez ere. Gainontzeko auzo guztietan ere badago bestelako hizkuntzen presentzia, kopuru txikiagoetan. Gutxien erdigunean entzuten dira.

[23] Datu iturriak: Hizkuntzen erabileraren kale neurketa, ARRASATE 2021(SLK) eta Arrasateko udaleko euskara zerbitzuak 2021eko kale-erabileraren neurketatik ateratako ondorioak.

**201. Grafikoa**

*Euskararen kaleko erabilera zonaldeka Arrasaten 2021ean*




*2021 (%)*

| | Erdigunea | Santamarina | Zerrajera | Ulibarri-Erguin | Zigarrola | San Andres |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Euskaraz** | 32,0 | 29,5 | 28,7 | 28,1 | 22,7 | 17,2 |
| **Gaztelaniaz** | 66,6 | 67,6 | 66,9 | 66,7 | 74,4 | 80,9 |
| **Frantsesez** | 0,0 | 0,3 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Beste hizkuntzetan** | 1,4 | 2,6 | 4,1 | 5,2 | 2,9 | 1,9 |
| **GUZTIRA** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| ***Lagina*** | *1.681* | *772* | *1.409* | *1071* | *1317* | *1.363* |
| **Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ARRASATE 2021.** | | | | | | |

2016ko datuekin alderatuta, esan daiteke Santamarinan eta Ulibarri-Erguinen joera mantendu egin dela eta beherantz egin duela Erdigunean eta San Andresen, nahiz eta Erdigunea oraindik ere erabilera altuen duen gunea izan. Bestelako alderaketak nekez egin daitezke, lagin ezberdintasunagatik.

**202. Grafikoa**

*Euskararen kaleko erabileraren bilakaera zonaldeka Arrasaten 2016tik 2021era.*




| Ibilbidea | 2016 | 2021 |
|---|---|---|
| **Erdigunea** | 41,2 | 32,0 |
| *Lagina* | *1443* | *1681* |
| **San Andres** | 18,7 | 17,2 |
| *Lagina* | *943* | *1.363* |
| **Santamarina** | 8,0 | 29,5 |
| *Lagina* | *212* | *772* |
| **Ulibarri-Erguin** | 19,8 | 28,1 |
| *Lagina* | *556* | *1071* |
| **Zerrajera** | - | 28,7 |
| *Lagina* | - | 1409 |
| **Zigarrola** | 21,7 | 22,7 |
| *Lagina* | *621* | *1.317* |
| **Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ARRASATE 2021.** | | |

### 2.4.3.3. Eskola giroko erabilera orokorra eta egoeraren araberakoa[24]

Atal honen helburua LH4ko eta DBH2ko ikasleen ikastetxe barruko hizkuntzaren erabileran sakontzea da. Horretarako datu orokorrez gain, Arrueren lau egoera desberdinetako adierazleen emaitzak biltzen dira:

- Arrue_1: Ikasleak beraien arteko hizkuntz ohiturak gela barruan.
- Arrue_2: Ikasleek beraien arteko hizkuntz ohiturak jolaslekuan.
- Arrue_3: Ikasleek irakasleekiko hizkuntz ohiturak gela barruan.
- Arrue_4: Ikasleek irakasleekiko hizkuntz ohiturak gelatik kanpo.

[24] Datu iturria: ISEI-IVEI

#### 2.4.3.3.1. LH4ko datu orokorrak

Ikasleen euskara erabilera orokorrean edizioz edizio jaitsiera antzematen da, bai Arrasaten eta baita EAEn ere: 18,6 eta 6,7 puntu, hurrenez hurren. Arrasateko jaitsiera nabarmenagoa da EAEko bataz bestekoaren aldean.

**92. Taula**

*LH4ko Arrasateko eta EAEko ikasleen euskararen erabilera orokorra, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | erabilera orokorra | erabilera orokorra | erabilera orokorra |
| ARRASATE | 84,8 | 82,8 | 66,2 |
| EUSKADI | 60,3 | 58,6 | 53,6 |

Datu orokor horiek eskola testuinguruko erabileraren 4 egoera ezberdinetako emaitzetatik eratortzen dira; eta, egoerak banaka aztertuz gero, honako irudia ikus dezakegu. Orokorrean, EAEko bataz bestekotik gora dago Arrasateko eskola giroko erabilera, baina xehetasunei erreparatuta, erabileraren jaitsiera handiagoa gertatu dela ikusi daiteke.

**93. Taula**

*LH4ko Arrasateko eta EAEko eskola giroko euskararen erabilera lau egoera ezberdinetan, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ARRASATE | EUSKADI | ARRASATE | EUSKADI | ARRASATE | EUSKADI |
| Arrue_1_Ikasle-gelan | 84,9 | 68,7 | 85,3 | 66,5 | 69,9 | 61,0 |
| Arrue_2_Ikasle-Patioan | 70,7 | 41,0 | 69,4 | 40,9 | 53,4 | 38,2 |
| Arrue_3_Irakasle_gelan | 93,2 | 80,8 | 93,3 | 78,2 | 79,6 | 68,1 |
| Arrue_4_Irakasle-kanpoan | 89,8 | 67,7 | 83,3 | 66,2 | 76,6 | 63,0 |

Gela barruko erabilera bi egoeretan banatu daiteke:

- **Ikasleen arteko erabilera gela barruan**. Erabilerak behera egin du hiru ediziotan EAE mailan (%68,7tik %61era) eta Arrasaten, 2015 eta 2017 artean apur bat igo bazen ere, asko jaitsi da 2019an (%85,3tik %69,9ra). Aldea nabarmena da bi datuen artean.
- **Irakasle eta ikasleen artekoa gela barruan**. Erabilera altuena harreman hauetan gertatzen bada ere, edizioz edizio jaitsi egin da Arrasaten zein Euskadin. Arrasaten, 2015ean %90etik gorakoa izatetik %76,6 izatera pasa da (13,6 puntuko aldea). Erabilerak jaitsiera handiagoa izan du 2017 eta 2019 edizioen artean.

Gelatik kanpoko erabilerei dagokionean, berriz, hurrengoak dira egoerak:

- **Ikasleen arteko erabilera patioan.** Hau da kasu guztietan erabilerarik baxuena duen egoera, alde handiarekin. 3 edizioen artean jaitsiera handia izan du gainera, Arrasaten EAEn baino gehiago. Izan ere, 2015ean patioko ikasleen arteko erabilera %70,7 izatetik ia ez zen jaitsi 2017ra (%69,4), baina beherakada handia izan du 2019an (%53,4ra). EAEn ere beheranzko joera izan du, baina askoz ere apalagoa, 3 puntukoa.

- **Irakasle eta ikasleen artekoa kanpoan.** Hemen ere beheranzko joera izan du erabilerak bi kasuetan, baina Arrasateko jaitsiera handiagoa izan da (31,2 puntukoa) EAEkoaren aldean (4,6 puntu).

#### 2.4.3.3.2. LH4ko erabilera ikaslearen sexuaren arabera

Arrasateko ikasleen euskararen erabilera orokorra sexuaren arabera banatuz gero, neskek mutilek baino euskara gehiago erabiltzen dutela ikusi daiteke eta, bietan jaitsiera izan bada ere, mutiletan are nabariagoa izan da beherakada: 13,6 puntukoa nesketan eta 21,6 puntukoa mutilen artean. Jaitsieran alde handiena 2017 eta 2019 edizioen artean dago.

**94. Taula**

*LH4ko sexuaren araberako euskararen erabilera orokorra, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | erabilera orokorra | erabilera orokorra | erabilera orokorra |
| Neska | 87,2 | 86,1 | 73,6 |
| Mutila | 81,9 | 79,6 | 60,3 |

Erabilera orokorra eskola giroko lau egoeretan banatuta, honakoa da irudia:

**95. Taula**

*LH4ko sexuaren araberako euskararen erabilera lau egoera ezberdinetan, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Neska | Mutila | Neska | Mutila | Neska | Mutila |
| Arrue_1_Ikasle-gelan | 88,6 | 80,7 | 88,2 | 82,3 | 78,2 | 63,1 |
| Arrue_2_Ikasle-Patioan | 74,2 | 66,7 | 76,1 | 62,6 | 62,8 | 45,9 |
| Arrue_3_Irakasle_gelan | 93,9 | 92,3 | 93,7 | 93,0 | 85,3 | 75,0 |
| Arrue_4_Irakasle-kanpoan | 91,8 | 87,3 | 86,3 | 80,3 | 79,2 | 74,5 |

Gela barruko euskararen erabilera:

- **Ikasleen arteko erabilera:** mutilen zein nesken erabilera jaitsi egin da edizioz edizio. Nabarmentzekoa da azken edizioan nesken (%78,2) eta mutilen (%63,1) arteko aldea nabarmen hazi dela, mutilen erabileraren jaitsiera handiagoa izan baita.
- **Irakasleen eta ikasleen arteko erabilera.** 2015 eta 2017 edizioetan bi sexuen kasuan erabilera nahiko altu mantendu bada ere (%93ren bueltan), azken edizioan jaitsiera nabarmena egon da, mutilen kasuan batez ere (%85,3 neskak eta %75 mutilak).

Gelatik kanpoko euskararen erabilera:

- **Ikasleen arteko erabilera patioan.** Erabilera daturik baxuena izanda, hemen ere mutilen erabilera apalagoa da neskena baino eta apaltzeko joera izan du azken urteetan. Mutilen erabilera erditik behera kokatzen da (%66,7 - %62,6 - %45,9) eta emakumeenak hasieran gora egin bazuen ere, gero nabarmen jaitsi da (%74,2 - %76,1 - %62,8).
- **Irakasle eta ikasleen artekoa kanpoan.** Aurrekoen antzeko joerak eta ezberdintasunak ageri dira, zenbakiak altuagoak badira ere irakasleekin dituzten harremanetan. Neskak (%91,8 -

%86,3 - %79,2) eta mutilak (%87,3 - %80,3 - %74,5). Bien kasuan %80ko erabileraren langa pasatu dute.

##### 2.4.3.3.3. LH4ko erabilera adin-egokitasunaren arabera

Ikasleen euskararen erabilera adin-egokitasunaren arabera aztertzen badugu, berriz, erabileraren galera handiagoa izan dela ikusiko dugu errepikatzaileena (24,5 puntuko galera) ez-errepikatzaileena baino (18,2 puntuko galera).

**96. Taula**

*LH4ko adin-egokitasunaren araberako erabilera orokorra, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | erabilera orokorra | erabilera orokorra | erabilera orokorra |
| Ez-egokia | 77,9 | 77,5 | 53,4 |
| Egokia | 85,4 | 83,2 | 67,2 |

Egoera bakoitzari erreparatuta, berriz, ikusi daiteke alde nabariak daudela errepikatzaile eta ez-errepikatzaileen artean, irakasleekin dituzten harremanetan, batez ere.

**97. Taula.**

*LH4ko adin-egokitasunaren araberako erabilera lau egoera ezberdinetan, hiru ediziotan*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ez-egokia | Egokia | Ez-egokia | Egokia | Ez-egokia | Egokia |
| Arrue_1_Ikasle-gelan | 71,4 | 86,0 | 72,5 | 86,0 | 60,4 | 70,6 |
| Arrue_2_Ikasle-Patioan | 61,7 | 71,5 | 70,0 | 69,4 | 43,8 | 54,1 |
| Arrue_3_Irakasle_gelan | 95,0 | 93,0 | 87,5 | 93,7 | 66,7 | 80,5 |
| Arrue_4_Irakasle-kanpoan | 81,7 | 90,5 | 80,0 | 83,5 | 50,0 | 78,5 |

Fokua gela barruko harremanetan jartzen badugu, honakoa ageri da:

- **Ikasleen arteko erabilera:** bi kasutan erabilerak eutsi egin zion bi ediziotan, baina nabarmen egin du behera 2019an. Errepikatzaileek euskara gutxiago erabiltzen dute (%60,4) errepikatzaileek baino (%70,6), baina azken hauek erabileran izandako jaitsiera handiagoa da (15,6 puntu) errepikatzaileena baino (11 puntu).
- **Irakasle eta ikasleen arteko erabilera:** daturik altuenak izanda ere, azken edizioan jaitsiera handia izan du. Hasiera batean ez zegoen alde nabarmenik errepikatzaile eta ez-errepikatzaileen kasuan, baina handitzen joan da edizioz edizio. Gainera, hasieran errepikatzaileek euskara gehiago erabiltzen bazuten ere irakaslearekin, datuak irauli egin dira guztiz. Errepikatzaileek euskara gutxiago egiten dute irakasleekin ez-errepikatzaileek baino eta askoz euskara gutxiago egiten dute duela urte batzuk baino (%95 - %87,5 - %66,7). Ez-errepikatzaileen kasuan ere jaitsiera egon da (%93tik %80,5era).

Gela kanpoko harremanei dagokienean, berriz:

- **Ikasleen arteko erabilera patioan.** Hemen ere joerak eta ezberdintasunak errepikatu egiten dira. Errepikatzaileek (%43,8) euskara gutxiago erabiltzen dute ez-errepikatzaileek (%54,1) baino, eta biek 17 puntu inguruko jaitsiera izan dute azken 3 edizioak kontuan hartuta.

- **Irakasle eta ikasleen artekoa kanpoan.** Deigarria da errepikatzaileen erabileran jasandako beherakada azken bi ediziotan (%80tik %50era). Horrek bi ikasle taldeen arteko ezberdintasunak oso handiak izatea eragin du, errepikatzaileek %78,5ean egiten baitute euskaraz irakasleekin kanpoan.

#### 2.4.3.3.4. LH4ko erabilera etxeko hizkuntzaren arabera

Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen erabilera apur bat jaitsi bada ere, kopuruei eusten die. Beste hizkuntza bat dutenen kasuan, berriz, erabilera apalagoa da eta nabarmen egin du behera azken hiru edizioetan (24 puntu).

**98. Taula**

*LH4ko etxeko hizkuntzaren araberako erabilera orokorra, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | erabilera orokorra | erabilera orokorra | erabilera orokorra |
| Euskara | 90,7 | 89,6 | 87,9 |
| Beste bat | 79,5 | 76,8 | 55,5 |

Egoera ezberdinetako datuak begiratuta, hantzeko irudia ikusten da:

**99. Taula**

*LH4ko etxeko hizkuntzaren araberako erabilera lau egoera ezberdinetan, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat |
| Arrue_1_Ikasle-gelan | 91,4 | 79,0 | 89,7 | 81,3 | 89,2 | 60,3 |
| Arrue_2_Ikasle-Patioan | 81,0 | 61,6 | 83,2 | 57,1 | 81,0 | 39,7 |
| Arrue_3_Irakasle_gelan | 94,9 | 91,6 | 95,9 | 91,1 | 94,4 | 72,2 |
| Arrue_4_Irakasle-kanpoan | 95,5 | 85,1 | 89,7 | 77,6 | 95,3 | 67,3 |

Gela barruko harremanak aztertuta:

- **Ikasleen arteko erabilera:** Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek euskaraz egiten dute gehien-gehienetan eta joerari eusten diote azken ediziotan, jaitsiera txiki batekin (%91,4tik %89,2ra). Bestelako hizkuntzak dituztenek berriz, ez dute lehen bezain beste euskara erabiltzen (%79tik %60,3ra).
- **Irakasle eta ikasleen arteko erabilera:** erabilera datuak oso altuak dira orokorrean, azken edizioko etxe erdaldunetako ikasleenak salbu, nabarmen egin baitu euren erabilerak behera (19,4 puntu).

Gela kanpoko harremanei dagokienean, berriz:

- **Ikasleen arteko erabilera patioan.** Alde handiak daude etxe euskaldunetako eta erdaldunetako ikasleen artean. Euskaldunetakoak erabilerari eusten diote, 2017an izandako igoera galduta (%81), baina etxe erdaldunetakoen erabilerak jaitsiera handia jasan du, azken edizioan batez ere (%61,6 - %57,1 - %39,7).

- **Irakasle eta ikasleen artekoa kanpoan.** Etxe euskaldunetakoek hemen ere euskararen erabilera altuari eutsi diote, inolako galerarik izan gabe (%95,3an mantendu dira), baina etxe erdaldunetako ikasleen erabilerak nabarmen egin du behera (%17,8 puntu).

#### 2.4.3.3.5. LH4ko erabilera hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera

Aurreko atalean bezala, hiru urte bete arteko hizkuntza euskara dutenen kasuan euskararen erabilera datuak altuagoak direla ikusten da. Beheranzko joera ere handiagoa izan dute euskara ez dutenek.

**100. Taula**

*LH4ko hiru urte arteko hizkuntzaren araberako erabilera orokorra, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | erabilera orokorra | erabilera orokorra | erabilera orokorra |
| **Euskara** | 89,3 | 87,7 | 74,5 |
| **Beste bat** | 78,1 | 74,4 | 54,0 |

Datuok egoeraren arabera banatuta, ondorengoa da irudia:

**101. Taula**

*LH4ko hiru urte arteko hizkuntzaren araberako erabilera egoeraren ezberdinetan, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat |
| **Arrue_1_Ikasle-gelan** | 90,0 | 77,4 | 88,4 | 79,9 | 75,3 | 61,6 |
| **Arrue_2_Ikasle-Patioan** | 77,8 | 60,3 | 78,5 | 53,8 | 64,5 | 37,0 |
| **Arrue_3_Irakasle_gelan** | 95,0 | 90,4 | 94,1 | 92,0 | 86,8 | 69,2 |
| **Arrue_4_Irakasle-kanpoan** | 94,1 | 83,9 | 89,9 | 72,0 | 83,8 | 66,4 |

Gela barruko harremanetan:

- **Ikasleen arteko erabilera:** euskara duten ikasleen euskara erabilera nahiko mantendu zen lehen edizioan, baina behera egin du nabari azken edizioan (%90etik %75,3ra). Hala ere, euskara ez dutenen datuak baino hobeak dira, hauek ere beherakada jasanda, azken edizioan %61,6koa baitzen erabilera.
- **Irakasle eta ikasleen arteko erabilera:** lehen bi ediziotan ikasle guztiek euskaraz egiten zuten irakasleekin %90-etik gorako kasuetan. Azken edizioan, berriz, beherakada egon da, euskara ez dutenen kasuan batez ere (%69,2raino).

Gela kanpoko harremanei dagokienean, berriz:

- **Ikasleen arteko erabilera patioan:** oro har, beste egoerekin alderatuta zifrarik baxuenak ikusten dira honetan. Euskara dutenen kasuan, %78aren bueltan egon zen erabilera lehen bi edizioetan, baina %64,5era jaitsi da azkenengoan. Euskararik ez dutenen kasuan, berriz, beherakada nabariagoa izan da, %60,3tik %37ra hiru ediziotan.
- **Irakasle eta ikasleen artekoa kanpoan.** Euskara dutenek balio altuei eusten badiete ere, jaitsi egin da erabilera 3 edizioen buruan (%94,1etik %83,8ra), baina euskararik ez dutenenak beherakada nabaria jasan du (%83,9tik %66,4ra).

#### 2.4.3.3.6. DBH2ko datu orokorrak

Arrasateko ikasleek EAEko bataz bestekoak baino gehiago erabiltzen dute euskara, baina bi kasuetan erabilerak nabarmen egin du behera azken edizioetan, Arrasaten batez ere. Arrasaten, %68,3tik %49,1era jaitsi da (19,2 puntu); EAEren kasuan, berriz, %42,3tik %35,9ra (6,4 puntu).

**102. Taula**

*DBH2ko Arrasateko eta EAEko ikasleen euskararen erabilera orokorra, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | erabilera orokorra | erabilera orokorra | erabilera orokorra |
| ARRASATE | 68,3 | 59,1 | 49,1 |
| EUSKADI | 42,3 | 40,7 | 35,9 |

Egoera ezberdinetan banatuz gero, honakoak dira datuak:

**103. Taula**

*DBH2ko Arrasateko eta EAEko ikasleen euskararen erabilera lau egoera ezberdinetan, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ARRASATE | EUSKADI | ARRASATE | EUSKADI | ARRASATE | EUSKADI |
| Arrue_1_Ikasle-gelan | 58,3 | 38,3 | 45,5 | 37,3 | 43,8 | 31,6 |
| Arrue_2_Ikasle-Patioan | 49,8 | 23,6 | 34,7 | 21,8 | 33,7 | 20,3 |
| Arrue_3_Irakasle_gelan | 83,8 | 70,0 | 79,4 | 67,9 | 71,5 | 60,0 |
| Arrue_4_Irakasle-kanpoan | 81,2 | 61,9 | 76,9 | 60,3 | 68,7 | 52,9 |

Gela barruko harremanetan:

- **Ikasleen arteko erabilera:** bai Arrasaten eta bai EAEn, gero eta euskara gutxiago erabiltzen dute ikasleek euren artean. Arrasateko datuak altuagoak dira, baina azken bi edizioetan %50a baino gutxiagokoa da datua eta jaitsiera handiagoa izan da. Arrasaten hiru ediziotan 14,5 puntuko jaitsiera egon da eta EAEn 6,7koa.
- **Irakasle eta ikasleen arteko erabilera:** datuak altuagoak badira ere, joera orokorrak aurrekoen oso antzekoak dira. Bi eremuetan beheranzko joera ikusten da: Arrasaten 12,3 puntuko jaitsiera (%71,5era arte) eta EAEn 10 puntukoa (%60ra arte).

Gela kanpoko harremanei dagokienean, berriz:

- **Ikasleen arteko erabilera patioan:** oso kopuru apalak dira Arrasatekoak zein EAEkoak. EAEn hasieratik zen baxua kopurua eta apur bat egin du behera azken edizioetan (%23,6 - %21,8 - %20,3), baina Arrasaten, datuak hobexeagoak badira ere, jaitsiera nabarmenagoa izan da, ia erdia izatetik (%49,8) herena izatera pasa baita (%33,7).
- **Irakasle eta ikasleen artekoa kanpoan:** egoera berdintsua errepikatzen da hemen ere, erabilerak oro har Arrasaten hobeak badira ere, beheranzko joera handiagoa da EAEkoa baino. Arrasaten %81,2tik %68,7ra jaitsi da erabilera; EAEn %61,9tik %52,9ra.

#### 2.4.3.3.7. DBH2ko erabilera ikaslearen sexuaren arabera

DBHko ikasleen artean, eskola eremuan neskek euskara gehiago erabiltzen dute egun, nahiz eta datuak aldakorrak izan diren azken ediziotan. 2015ean mutilek euskara gehiago egiten zuten (%69,5 vs. %66,6), baina gero jaitsiera nabarmena izan zuten, emakumeek ez bezala (%55,7 vs. %63,1). 2019ko edizioan, berriz, bi sexuen arteko erabilerak gerturatu egin dira, neskena apur bat altuago mantendu bada ere (%48,4 vs. %49,7).

**104. Taula**

*DBH2ko Sexuaren araberako euskararen erabilera orokorra, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | erabilera orokorra | erabilera orokorra | erabilera orokorra |
| Neska | 66,6 | 63,1 | 49,7 |
| Mutila | 69,5 | 55,7 | 48,4 |

Arrueren lau egoeren arabera xehetasun gehiago ikusten dira.

**105. Taula**

*DBH2ko sexuaren araberako euskararen erabilera lau egoera ezberdinetan, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Neska | Mutila | Neska | Mutila | Neska | Mutila |
| Arrue_1_Ikasle-gelan | 56,1 | 60,0 | 49,4 | 42,1 | 44,1 | 43,5 |
| Arrue_2_Ikasle-Patioan | 46,1 | 52,6 | 44,9 | 26,0 | 34,5 | 32,8 |
| Arrue_3_Irakasle_gelan | 83,6 | 84,0 | 80,3 | 78,6 | 71,4 | 71,5 |
| Arrue_4_Irakasle-kanpoan | 80,7 | 81,6 | 77,8 | 76,2 | 70,2 | 67,2 |

Gela barruko harremanetan:

- **Ikasleen arteko erabilera:** hasieran mutilen erabilera (%60) neskena (%56,1) baino altuagoa bazen ere, egoerak buelta eman du eta orain apur bat txikiagoa da (%44,1 eta %43,5). Hain zuzen ere, nesken erabilera modu jarraian jaitsi da, baina mutilenak jaitsiera handia izan zuen 2015-2017 edizioen artean (17,9 puntu) eta gero apur bat igo zen.
- **Irakasle eta ikasleen arteko erabilera:** beheranzko joera antzekoa izan da bi sexuen kasuan. Neskek apur bat eutsi bazioten ere, biak jaitsi dira 12 puntu inguru hiru ediziotan.

Gela kanpoko harremanei dagokienean, berriz:

- **Ikasleen arteko erabilera patioan:** hemen ere, hasiera batean mutilek euskara gehiago erabiltzen bazuten ere, gaur egun alderantzizkoa da egoera. Nesken erabilerak beheranzko joera izan du beti, nahiz eta 2017-2019 edizioen arteko jaitsiera askoz ere nabarmenagoa izan (11,6 puntukoa). Mutilek, aldiz, jaitsiera nabaria izan zuten 2015-2017 artean (26,6 puntu) eta apur bat errekuperatu da gero (6,8 puntu).
- **Irakasle eta ikasleen artekoa kanpoan:** bi sexuetan egon da beherakada. Nesketan %80,7tik %70,2ra eta mutiletan %81,6tik %67,2ra.

#### 2.4.3.3.8. DBH2ko erabilera adin-egokitasunaren arabera

Alde handia dago DBH2ko ikasle errepikatzaile eta ez-errepikatzaileen euskararen erabilera mailetan. Bietan errepikatzen dena, hala ere, beheranzko joera da. Ez-errepikatzaileek 23 puntu egin dute behera eta errepikatzaileek 26,6 puntu. Aipatzekoa da ez-errepikatzaileen erabilera errepikatzaileen bikoitza baino gehiagokoa dela.

**106. Taula**

*DBH2ko adin-egokitasunaren araberako erabilera orokorra, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | erabilera orokorra | erabilera orokorra | erabilera orokorra |
| **Ez-egokia** | 47,0 | 43,8 | 20,4 |
| **Egokia** | 75,4 | 62,2 | 52,4 |

Egoera ezberdinetan banatuta ere, bi multzoen arteko aldeak nabariak dira.

**107. Taula**

*DBH2ko adin-egokitasunaren araberako erabilera lau egoera ezberdinetan, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ez-egokia | Egokia | Ez-egokia | Egokia | Ez-egokia | Egokia |
| **Arrue_1_Ikasle-gelan** | 40,9 | 64,1 | 27,3 | 49,1 | 18,8 | 46,8 |
| **Arrue_2_Ikasle-Patioan** | 29,3 | 56,7 | 19,5 | 37,7 | 6,3 | 36,9 |
| **Arrue_3_Irakasle_gelan** | 61,6 | 91,1 | 66,4 | 81,9 | 38,8 | 75,3 |
| **Arrue_4_Irakasle-kanpoan** | 56,1 | 89,5 | 61,7 | 79,9 | 36,3 | 72,5 |

Gela barruko harremanetan:

- **Ikasleen arteko erabilera:** errepikatzaileen erabilera erdira jaitsi da azken hiru ediziotan (%40,9tik %18,8ra). Ez-errepikatzaileena, berriz, %64,1etik %46,8ra.
- **Irakasle eta ikasleen arteko erabilera:** Errepikatzaileen erabilerak gora egin zuen 4,8 puntu baina gero 27,6 puntu jaitsi da, %38,8ra arte. Aldiz, ez-errepikatzaileek beheranzko joera jarraitua izan dute (%91,1 - %81,9 - %75,3).

Gela kanpoko harremanei dagokienean, berriz:

- **Ikasleen arteko erabilera patioan:** daturik apalenak dira hauek. Errepikatzaileen ia herenak euskara erabiltzetik, egun ez dira %10era heltzen (%6,3). Ez-errepikatzaileek ere 15,8 puntuko jaitsiera izan dute, %36,9ra arte.
- **Irakasle eta ikasleen artekoa kanpoan:** datuek behera egin dute hiru ediziotan, 17 puntu ez-errepikatzaileen kasuan eta 19,8 errepikatzaileenean.

### 2.4.3.3.9. DBH2ko erabilera etxeko hizkuntzaren arabera

Ikasleen euskararen erabilera etxeko hizkuntzaren arabera sailkatuz gero, euskara etxetik jasotzen dutenen erabilera nabarmen altuagoa dela ikusi daiteke, edizio edizio. Hala ere, bi kasuetan beherakada izan du, %15ekoa etxe euskaldunetakoak eta %19,2koa erdaldunetakoak.

**108. Taula**

*DBH2ko etxeko hizkuntzaren araberako erabilera orokorra, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | erabilera orokorra | erabilera orokorra | erabilera orokorra |
| **Euskara** | 81,9 | 71,0 | 66,9 |
| **Beste bat** | 57,2 | 50,9 | 38,0 |

Datuak egoeraren arabera banatuta, ikasle guztiek irakasleekin euren artean baino euskara gehiago egiten dutela ikus daiteke.

**109. Taula**

*DBH2ko etxeko hizkuntzaren araberako erabilera lau egoera ezberdinetan, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat |
| **Arrue_1_Ikasle-gelan** | 70,3 | 48,6 | 56,3 | 38,0 | 60,6 | 33,5 |
| **Arrue_2_Ikasle-Patioan** | 69,3 | 34,1 | 49,4 | 24,6 | 55,8 | 19,9 |
| **Arrue_3_Irakasle_gelan** | 94,9 | 74,7 | 88,0 | 73,5 | 83,2 | 64,2 |
| **Arrue_4_Irakasle-kanpoan** | 93,2 | 71,4 | 90,5 | 67,6 | 84,9 | 58,7 |

Gela barruko harremanetan:

- **Ikasleen arteko erabilera:** erabilerak behera egin du azken hiru edizioetan kasu guztietan, baina gehiago etxeko hizkuntza euskara ez dutenen artean (9,7 puntu eta 15,1 puntu).
- **Irakasle eta ikasleen arteko erabilera:** euskara gehien erabiltzen den egoera izanda ere, nabarmen egin dute zifrek behera. 2015eko edizioan etxe euskaldunetakoek ia beti euskara erabiltzetik (%94,9), 2019 edizioan %84,9an erabiltzera pasa dira. Beste hizkuntzetakoak, berriz, %74,7tik %64,2ra.

Gela kanpoko harremanei dagokienean, berriz:

- **Ikasleen arteko erabilera patioan:** euskara gutxien erabiltzen den egoera da honakoa eta beherakada nabaria izan du azken edizioetan. Etxe euskaldunetakoek %60,6an egiten dute euskaraz euren artean patioan eta besteek %33,5ean.
- **Irakasle eta ikasleen artekoa kanpoan:** datuak antzekoak badira ere, irakasleekin euskara gutxiago erabiltzen da patioan, gelan baino. Gainera, erabilera honek ere behera egin du azken ediziotan, etxeko bestelako hizkuntzak dituztenen artean, batez ere (%71,4tik %58,7ra).

### 2.4.3.3.10. DBH2ko erabilera hiru urte bete arteko hizkuntzaren arabera

Etxeko hizkuntzaren araberako erabileraren joerak errepikatzen dira, baina erabilera portzentaiak zertxobait baxuagoak dira kasu guztietan. Hau da, hiru urte bete arteko hizkuntza euskara izan dutenek euskara gehiago erabiltzen dute besteek baino, baina erabilerak behera egin du azken hiru edizioetan. Are gehiago bestelako hizkuntzak dituztenen kasuan (22,9 puntu eta 18,7 puntu).

**110. Taula**

*DBH2ko hiru urte bete arteko hizkuntzaren araberako erabilera orokorra, hiru ediziotan.*

| | ED15 | ED17 | ED19 |
|---|---|---|---|
| | erabilera orokorra | erabilera orokorra | erabilera orokorra |
| Euskara | 78,1 | 65,1 | 59,4 |
| Beste bat | 53,3 | 50,8 | 30,9 |

Datuak egoeraren arabera banatuta ere irudia oso parekoa dela ikusi daiteke, kopuru total baxuagoekin hemen ere.

**111. Taula**

*DBH2ko hiru urte bete arteko hizkuntzaren araberako erabilera lau egoera ezberdinetan, hiru ediziotan.*

| | ED15 | | ED17 | | ED19 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat | Euskara | Beste bat |
| Arrue_1_Ikasle-gelan | 66,5 | 45,8 | 51,5 | 37,0 | 53,1 | 27,9 |
| Arrue_2_Ikasle-Patioan | 64,0 | 28,1 | 42,0 | 24,0 | 44,6 | 14,5 |
| Arrue_3_Irakasle_gelan | 91,3 | 72,3 | 82,3 | 75,7 | 81,4 | 54,3 |
| Arrue_4_Irakasle-kanpoan | 90,5 | 66,9 | 84,5 | 66,3 | 80,0 | 49,3 |

Gela barruko harremanetan:

- **Ikasleen arteko erabilera:** tendentzia orokorrei jarraiki, euskara izan dutenek euskara gehiago erabiltzen dute euren artean gelan. 2015 ediziotik 2017ra beherakada nabarmena egon zen arren (15 puntu), hurrengo ediziora igoera txiki bat egon da (1,6 puntu). Bestelako hizkuntzak dituztenen kasuan, berriz, beherakada jarraitua izan da, %45,8tik %27,9ra.
- **Irakasle eta ikasleen arteko erabilera:** euskara gehien erabiltzen den egoera izanda, asko jaitsi da bi kasuetan (10,1 puntu euskara dutenen artean eta 18 puntu besteetan).

Gela kanpoko harremanei dagokienean, berriz:

- **Ikasleen arteko erabilera patioan:** zenbaki apalenak dituen egoera da eta bi taldeen kasuan erabilera erditik beherakoa da, azken edizioan euskaradunenak apur bat gora egin badu ere. %44,6an erabiltzen dute euskara izan dutenek eta %14,5 besteek.
- **Irakasle eta ikasleen artekoa kanpoan:** joera orokorrari jarraitzen dio egoera honek ere. Azken hiru ediziotan 10,5 puntu egin du behera euskara izan dutenen erabilerak, %80ra arte, eta 17,6 puntu besteek.

### 2.4.3.4. Kirol jarduеretako hizkuntzen erabilera

Soziolinguistika Klusterrak 2020an egindako azterketaren arabera, Arrasateko kirol jardueretan %62,4an egiten da euskaraz eta %36,9an gazteleraz. Gainerako %0,7an beste hizkuntza batzuetan egiten da. Euskara gehien erabiltzen den kirol jarduerak gimnasia (%88,6) eta errugbia (%87,3) dira eta, kontrara, erabilera apalena dutenak futbola (%54,2) eta saskibaloia (%55,4). Hala ere, esan beharra dago hau kiroletan euskararen erabilera gaztelerarena baina altuagoa dela. Saskibaloian soilik jaso ziren beste hizkuntzen presentzia adierazten zuten datuak (%1,9).

**203. Grafikoa**

*Arrasateko kirol jardueretako hizkuntzen erabilera, datu orokorrak.*




| | Behatutako solaskideak | (%) |
|---|---|---|
| Euskaraz | 3.670 | 62,4 |
| Gazteleraz | 2.173 | 36,9 |
| Beste hizkuntzetan | 41 | 0,7 |
| | 5.884 | 100,0 |

**204. Grafikoa**

*Arrasateko kirol jardueretako hizkuntzen erabilera, kirol ezberdinetan banatuta.*




| KIROL-JARDUERAK | Behatutako solaskideak | Euskaraz (%) | Gaztelaniaz (%) | Beste hizkuntzak (%) |
|---|---|---|---|---|
| ERRUGBIA | 565 | 87,3 (493) | 12,7 (72,0) | |
| FUTBOLA | 2.358 | 54,2 (1.278) | 45,8 (1.080) | |
| GIMNASIA | 781 | 88,6 (692) | 11,4 (89,0) | |
| SASKIBALOIA | 2.180 | 55,4 (1207) | 42,8 (932) | 1,9 (41) |

# 3. ONDORIOAK

Ondorioen atal honetan, lau dimentsiotan antolaturik aurkezten dira. Dimentsio bakoitzaren baita, azpi dimentsioak agertuko dira jarraian, kasuan kasuko datu esanguratsuenak azpimarratuz.

## 3.1. Datu orokorrak

### 3.1.1. Hezkuntza-sistemaren dimentsioa

- Arrasateko **ikastetxeen hezkuntza-eskaintza askotarikoa eta zabala** da. Hezkuntza ez unibertsitarioaren ibilbide osoa eskaintzen da Arrasaten eta hezkuntza-etapa gehienetan sare publiko zein itunpekoan dago eskaintza. Eskaintza itunpekoa bakarrik da oinarrizko eta erdi mailako Lanbide Heziketetan, publikoa soilik Helduen Hezkuntzan, eta Goi Mailako Lanbide Heziketak eskaintza pribatua ere badu.

- Guztira **7 ikastetxe** daude Arrasaten eta ikastetxe bakoitzak hezkuntza-etapa desberdinei erantzuten die:

    - 0-2 urteko eskaintza 3 ikastetxek eskaintzen dute.
    - Haur Hezkuntza (2-6 urte) 3 ikastetxek eskaintzen dute.
    - Lehen Hezkuntza (6-12 urte) 2 ikastetxek eskaintzen dute.
    - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte) 2 ikastetxek eskaintzen dute.
    - Batxilergoa (16-18 urte) 2 ikastetxek eskaintzen dute.
    - Zereginen ikaskuntza 2 ikastetxek eskaintzen dute.
    - Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Erdi mailakoa ikastetxe batek eskaintzen du eta, Goi Mailakoa 2 ikastetxek.
    - Helduen Hezkuntzako zentro bakarra dago.

- 2021/2022 ikasturteko datuen arabera, guztira **4.026 ikasle** egon dira matrikulatuta Arrasateko ikastetxeetan (%52,8 gizonezko eta %47,2 emakumezko).

    - Ikasleen **%66,57 Haur Hezkuntzan eta derrigorrezko hezkuntza etapetan** dago matrikulatuta (%15,15 Haur Hezkuntzan, %29,56 Lehen Hezkuntzan eta %21,86 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan). Batxilergoan %8,97, %12,97 Lanbide Heziketan, %3,18 Haurreskolan, %7,68 Helduen Hezkuntzan eta %0,27 Zereginen Ikaskuntzan.
    - **Ikastolak jasotzen ditu Arrasateko ikasle gehienak (%51,6),** Herri eskolak %15, Arrasate BHIk %14,9, Helduen Hezkuntzak %7,7, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak %7,1, Udal Haurreskolak %2,7 eta Haurreskolak %1,1.

- 2021/2022 ikasturteko datuen arabera, **guztira jatorri atzerritarreko familietako 629 ikasle** egon ziren Arrasateko ikastetxeetan, **matrikulatutako ikasle guztiekiko %15,62** (horietatik %52,3 dira emakumezkoak eta %47,7 gizonezkoak).

    - Herri eskolan dago matrikulatuta jatorri atzerritarreko familietako ikasle gehien (%38,47). Helduen Hezkuntzan %26,71, Ikastolan %24,32, Arrasate BHIn %9,7 eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoan %0,79.
    - Jatorri atzerritarreko familietako ikasle gehienak **Lehen Mailako Hezkuntzan (%33,2)** eta **Helduen Hezkuntzan (%26,7)** daude matrikulatuta. **Haur Hezkuntzan %16,1** dago matrikulatuta eta **DBHn %15,3**. Kopuruak askoz apalagoak dira Oinarrizko Lanbide

Heziketan (%3), Erdi Mailako Lanbide Heziketan (%2,4), Batxilergoan (%2,1), Goi-Mailako Lanbide Heziketan (%0,8), Zereginen Ikaskuntzan (%0,5) eta Haurreskolan (%0,0).

- Guztira **43 herrialde desberdinetako ikasleak** matrikulatu dira 2021/2022 ikasturtean Arrasateko ikastetxeetan. Horien artean marokoarra (%36,47) eta pakistandarra (%17,65) dira kultura komunitate nagusienak.

- **Eskolatze batzordeak 55 ikasle kudeatu ditu** guztira 2021-2022 ikasturtean. Azken 5 ikasturteetako bilakaerari dagokionez, Covid ikasturteko beherakada kenduta, 2018tik kopuruak antzekoak izan dira.

    - Ikasleen **erdiak LHkoak** dira (26) eta gainontzekoak modu orekatuan banatzen dira HH eta DBHren artean (13 eta 16). Banaketa oso antzekoa izan da azken hiru ikasturteetan. 2018-2019an, aldiz, DBH eta HH arteko aldea handiagoa izan zen (20 eta 8).
    - **Ikasle gehien jasotzen duen ikastetxea Arizmendi** da. Hala ere, azken ikasturtean Arizmendik aurrekoetan baino ikasle gutxiago jaso du (27) **eta Herri Eskolak (18) eta Institutuak (10) jasotako ikasle kopuruak gora egin du.**

- 2021-2022 ikasturtean **62 ikasle lekualdaketa egon dira** guztira Arrasaten. Covid ikasturtea salbu, kopuru totalek gora egin dute azken lau ikasturteetan.

    - **HH eta LHko ikasleak dira gehienak**, baina aldeak ez dira oso nabarmenak (HH:24, LH:22, DBH:16). Kontrara, joera ezberdina izan dute azken bost ikasturteetan: 2018-2021 artean HH eta DBHko lekualdaketek behera egin zuten, baina asko hazi dira 2021-2022an. Aldiz, LHko lekualdaketak modu jarraituan egin dute gora 2018tik.
    - **Arizmendik (28) eta Herri Eskolak (27) jasotzen du** lekualdatutako ikasle gehien (Institutuak 7). Baina, azken ikasturtean Herri Eskolak izan duen gorakada nabarmenagoa izan da.

- Arrasateko ikasleak bizitokiaren arabera sailkatuta, Herri Eskolako eta Arrasate BHIko ikasleen artean gehien errepikatzen den kalea Txaeta kalea da. Arizmendi Ikastolaren kasuan, berriz, Erguin eta Zerrajera kaleak eta Euskal Herria plaza.

- Beste herri batetik Arrasatera ikastera ikastera datozen ikasleen artean, **Aretxabaleta, Aramaio, Eskoriatza eta Bergara dira jatorri ohikoenak**. Gainera, ikasle horiek **Ikastolara eta Arrasate BHIra** etortzen dira, nagusiki.

### 3.1.2. Jaiotza-tasak eta haurren eskolaratzea

- 20 urtetan **2,38 puntu jaitsi da Arrasateko jaiotza-tasa**, Debagoiena, Gipuzkoa eta EAEko bataz bestekoak baina gehiago.

- **0-2 urteko umeen eskolaratze-tasak, aldiz, gora egin du** nabarmen azken 5 urtetan, 8 puntutik gorako aldearekin, eta %78,6koa izan da 2021/2022 ikasturtean.

### 3.1.3. Prospekzio demografikoak

- 2016-2061 aldirako EAEko eta bertako lurralde historikoetako biztanleria aztertzen duen Eustaten azkeneko azterketan (2018koa) etorkizunerako sei eszenario eraiki dira. 2061era arte luzatu dira proiekzio honetan aurreikusitako heriotza-tasak, ugalkortasunak eta migrazioek etorkizunean izango dituzten bilakaera-joerak. Eta alderdi bakoitzetik bi hipotesiren araberako eszenatokiak eraiki dira.

- Biztanleriaren bilakaerari dagokionez, **oraingo biztanleria-zifrak mantentzeko migrazioek biztanle asko ekarri behar dituztela ikus daiteke**. Izan ere, eszenario guztien kasuan hazkunde begetatibo negatiboa ikusten da, murriztuz doana, urteko tarte guztietan.

- 2030erako egindako prospekzioaren bide bertsutik egiten dira 2061erako aurreikuspenak ere. Laburbilduz, aipagarria da **hazkunde naturalak geroz eta hazkunde negatiboagoa** erakutsiko duela (heriotzak hazi eta jaiotzak gutxitu) eta hau **konpentsatzeko aukera erreal gisa ikusten dela migrazio-saldoa handitzea**.

- Lurralde historikoetako biztanleriak etorkizunean izango duen bilakaera eszenario bakoitzean EAE osorako deskribatutako bilakaeraren antzekoa da oro har. Hala ere, berezitasunak daude biztanleriaren aldaketa-erritmoetan, eta baita adinaren araberako egituren aldaketa-prozesuaren intentsitatean ere.

- Lurralde historikoetan jartzen badugu arreta, lehenengo 3 eszenatokien arabera, eszenario demografiko hauetan, Arabaren eta Gipuzkoaren kasuan migrazioek ekarritako biztanle kopurua nahikoa izango litzateke jaiotza kopuruaren eta heriotza kopuruaren arteko aldeak eragindako galerak konpentsatzeko, baina Bizkaiaren kasuan ez litzateke nahikoa izango. Beste modu batera esanda, Lurralde historikoaren arabera, Araba eta Gipuzkoako biztanleriak Bizkaikoak baino erritmo azkarragoan jasango du errekuperazioa.

- **0 eta 14 urte bitarteko biztanleriak** bilakaera gorabeheratsua du. Epe labur eta ertainera **biztanle talde hori murriztea** aurreikusten da.

## 3.2. Hezkuntza-etapen ezaugarriak eta etapen arteko igarobideak

### 3.2.1. Haurreskolen ezaugarriak (0-2 urte):

- **Haurreskoletako 0-2 urteko matrikulazioa** 2017-2018 ikasturtetik 2019-2020ra, % 17,3 (26 gutxiago) jaitsi da. Nabarmentzekoa da 2020-2021eko beherakada, **60 ume gutxiago** (% 60ko beherakada) matrikulazio-datuetan. 2021-2022an, **38 ikasleko errekuperazioa** ikusten da.

- **Mutilen eta nesken** arteko aldea 10 edo 11 artekoa da. 2021-2022an nesken eta mutilen **matrikulak parekatu** egiten dira, 64na daude. 2020-2021 ikasturterainoko **matrikulazio-jaitsierak** 30 ikasleko galera izan dute bi sexuetan eta 2021-2022an, **errekuperazio gehiago** izan dute nesken matrikulak (10 neska gehiago, mutilak baino).

- Arrasateko haurreskoletan **adinen araberako geletan** gorabeherak ikusten dira.

- 0-1 adinean, ikastolan eta Haurreskola partzuergoan matrikula kopuruak jaitsi egin dira. Ikastolan, azken bi ikasturtetan hasierako 5 matrikulatara bueltatzen da eta hor mantentzen da. Haurreskolan, aldiz, 5 eta 6 matrikulatan mugitu da 5 ikasturtetan zehar, nahiz eta 2020-2021 ikasturtean 2 matrikulatara jaisten den (3 gutxiago). Udal Haur Eskola da matrikula gehien duen zentroa eta ikasturtez ikasturte matrikulazio jaitsiera nabarmenena izan duena da. Gizarte politikek (amatasun eta aitatasun baimenekin loturikoak) izan dezakete datu hauetan eragina.
- 1-2 adinari dagokionez, **hiru zentrotan** matrikula kopuruak **nabarmen altuagoak** dira 0-1 adinarekin alderatuz. Adin tarte bietako 2021-2022ko datuak alderatuz, Udal haur eskolan pareko daude, ikastolan, % 8ko aldea eta partzuergoan, % 21,5 gehiago. Bost ikasturtetan zehar, ikastolako matrikulak 19 eta 26 tartean daudela ikusten dugu, igoera eta jaitsiera urteak daude. Haurreskolan, berriz, matrikulak 18 eta 32 tartean daude, lehendabiziko hiru ikasturtetan matrikulak aldaketa nabarmenik izan ez duen arren 2020-2021ean 5 haur gutxiago izatera pasatzen da. Udal Haur Eskolan, berriz, bost urteren buruan **matrikulak ia erdira jaitsi dira**. 2017-2018an, 60 matrikula daude, eta urtero 10 matrikula galtzen dira.

- Arrasateko haurreskoletan **jatorri atzerritarreko familietako umerik ez dute**. Bi ikasturtetan zehar bakarra izan da, emakumezkoa. 0-1 eta 1-2 adinetako geletan **ume bakarra** izan da bi ikasturtetan zehar 1-2 urteko gelan.

- **Jatorri atzerritarreko familietako umeen jatorri-herrialdeak** Brasil eta Dominikar Errepublika dira. Ikasle bana izan dira.

### 3.2.2. Haur Hezkuntzaren ezaugarriak (3-6 urte):

- Ikasturtez ikasturte **Haur Hezkuntzako (3-6 urte)** umeen matrikulazioak hain kolpeko jaitsiera izan ez arren, jaisten joan da (14 ume). Hala ere, 2021/22 ikasturtean 2017/2018 ikasturtearekiko, **matrikulazioa % 17,5 jaitsi da** (133 ume gutxiago). Ikasturte guztietan **mutilen matrikula kopuruak altuagoak** dira neskenak baino. Ia ikasturte guztietan mutilen matrikulazioaren ehunekoa igotzen joan da eta neskena jaisten.

- **Haur Hezkuntzako ikasgelakako** errealitatean, **matrikulazioaren bilakaerak beheranzko** joera erakusten du adin guztietan. 2021-2022an, matrikula kopuru altuenak 5-6 urteko gelan daude. Azken bost urtetako **beherakada nabarmenena** 3-4 eta 4-5 urteko geletan ikusten da.

- HHan **ikastetxeen araberako** matrikulazioan kopuru altuenak ikastolan aurkitzen ditugu, jarraian herri eskolan eta azkenik, udal haur eskolan. Bost urteren buruan **matrikulazioa jaitsiera** herri eskolan 64koa izan da (ia %25), ikastolan, 51 matrikulatakoa (ia %12) eta udal haur eskolan, 18koa (% 25,3).

- **Arrasateko Haur Hezkuntzako ikasle etorkinen** matrikulazioaren bilakaeran ikasturte bakoitzean **100 ikasletik gora**ko kopurua mantentzen da. 2017-2018tik 2021-2022ra **% 20,5 jaitsiera** dago jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioan (26 ikasle). Sexuaren arabera, ez dago alde handirik jatorri atzerritarreko familietako neska eta mutilen matrikulazioen artean. **Haur Hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuruak adin tarte** bakoitzean gorabehera ezberdinak izan ditu bost ikasturtetan zehar.

- **Jatorri atzerritarreko familietako ikasle** kopurua altuenak herri eskolak ditu. **Herri eskolan** jatorri atzerritarreko familietako **10 ikasletik 8 edo ia 8 daude, eta ikastolan bi.** Herri eskolako jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuruak beheranzko joera erakusten du: 2017-2018tik 2021-2022ra, **25 ikasle gutxiago** daude. Ikastolako kasuan, gorabeherak ikusten dira, baina kopuruak 20 eta 27 ikasleren artean mantentzen dira. Udal haur eskolan, 2021-2022 ikasturtetik aurrera, ez dago jatorri atzerritarreko familietako ikaslerik.

- **Haur Hezkuntzako** ikasle guztiekiko **% 16** dira **jatorri atzerritarreko familietako ikasleak,** bataz beste. **Herri eskolan** ikasle guztiekiko, bataz beste, **% 41,2** dira. **Ikastolan**, bataz beste, **% 5,5** dira. **Udal haur eskolan** bi ikasturtetan zehar izan dute soilik presentzia, besterik ez. Haur hezkuntzako jatorri atzerritarreko familietako 10 ikasletik **8 edo ia 8 herri eskolan** daude, eta **ikastolan 2.**

- **Jatorriari** dagokionez, Haur Hezkuntzako ikastetxeek ohiko 10 herrialderik esanguratsuenetatik jaso dituzte ikasleak. Gehien jaso dutenetik gutxien jaso dutenen hurrenkera honako hau da: Maroko, Pakistan, Kolonbia, Mendebaldeko Sahara, Aljeria, Honduras, Mauritania, Bolivia, Dominikar Errepublika eta Nikaragua.

- **Eskolatze Batzordeak** bideratutako ikasle kopuruak gorabeherak izan dituzte bi ikastetxetan. Arizmendik, Herri Eskolak baino 4 ikasle gehiago hasiera hiru ikasturtetan, ondoren, 2020-2021ean jaitsiera nabarmena dago. **Lekualdaketak** Arizmendin beherakada izan dute 2019-2020an (7 gutxiago). 2021-2022an, bi ikastetxetan igoera antzematen da (11 gehiago Herri Eskolan; 4 gehiago, Arizmendin).

- Ikastetxe bakoitzeko **maisu-maistrak** eta hezkuntza-espezialistei dagokionez, hezkuntza-espezialistak 3 dira ikastolan, hiruak emakumeak; Herri Eskolan ez dago batere ez. Herri eskolan, HHn, 25 maisu-maistra daude; aldiz, ikastolan 20. Kasu guztietan **emakumezko gehiago** dago gizonezkoak baino.

### 3.2.3. Lehen Hezkuntzaren ezaugarriak (6-12 urte):

- Ikasturtez ikasturte, **Lehen Hezkuntzako matrikulazioa % 4,4 jaitsi** da. 2017/2018 ikasturtearekin alderatuz, guztira 55 ume gutxiago matrikulatu dira 2021/22an. Matrikulazioaren jaitsierak bai neskengan (26 gutxiago) mutilengan baino (29 gutxiago) zerbait gehiago eragin du.

- **Matrikulazioaren bilakaera ikastetxeka** ikusita, Lehen Hezkuntzako matrikulazioak **herri eskolan % 4,1 jaitsi** dira (70 gutxiago). **Ikastolan**, aldiz, **goranzko** joera dago, % 1,9koa (15 gehiago). 2021-2022 ikasturtean kokatuta, Lehen Hezkuntzako **matrikulazio osoaren ia % 66 ikastolan** (782 ikasle) matrikulatuta dago, eta **% 34 pasatxo**, berriz, **herri eskolan** (408 ikasle).

- **Lehen Hezkuntzako ikasmailetako matrikulazioan** gorabeherak daude ikasmailetan. Herri eskolan ia ikasmaila guztietan ikasle kopuruaren batez bestekoa jaitsi (%1 eta %2,3 tartean) egiten da, 3. eta 5. mailan izan ezik (% 0,5 eta % 1eko igoera). Ikastolan, ikasmaila guztietan dago igoera (% 0,4 eta % 4,4 tartean), 5. mailan nabarmenena izanik (% 4,4 gora).

- **Jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioak,** ikasturtez ikasturte, **goranzko joera du**. 2017-2018 ikasturtetik 2021-2022ra, **ia % 30eko igoera** egon da (48 ikasle gehiago). Horietatik 25 gizonezkoak dira, eta 23, emakumezkoak.

- **Jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuruak ikastetxeka** begiratuta, **herri eskolan goranzko joera** ikusten da, 54 ikasle gehiago 2021-2022an (% 60,5eko igoera). Ikastolako datuetan gora behera txikiak ikusten dira. 2021-2022an, 6 ikasle gutxiago daude (ia %13 gutxiago). 2021-2022ko datuei erreparatuta, jatorri atzerritarreko familietako 10 ikasletik **7,7 herri eskolan** matrikulatuta daude, eta **ikastolan, 2,3** ikasle.

- Ikasle etorkinen jatorriari dagokionez**, 37 herrialdetako ikasleak** dira eta herrialderik esanguratsuenak hauek dira: Nigeria (% 12), Errumania (% 12), Maroko (% 12), Bolivia (% 11), Kolonbia (% 7), eta Ghana (% 6).

- **Jatorriari dagokionez,** Lehen Hezkuntzako ikastetxeek, batez ere, Maroko, Pakistan, Kolonbia, Mendebaldeko Sahara eta Aljeriatik jaso dituzte ikasleak. Jatorri-herrialde bakoitzeko ikasle kopuruetan gorabeherak ikusten dira, Marokoren kasuan hazi egin da ikasle kopurua (15 gehiago) bost urtetan.

- **Lehen Hezkuntzako matrikulazio osoa** kontuan hartuta, **jatorri atzerritarreko familietako ikasleak % 22,8** dira. Ikasturtez ikasturte pisu erlatiboa hazi egin da, 5 ikasturteren buruan, **8 puntuko igoera** izanez. Ikastetxeka pisu erlatiboaren bilakaerak erakusten du, **herri eskolan** 2017-2018an ikasleen % 22,4 (107 ikasle) jatorri atzerritarreko familietako ikasleak izatetik, **% 39,5 (161 ikasle)** izatera pasatu direla 2021-2022an (17 puntuko igoera). **Ikastolan**, jatorri atzerritarreko familietako ikasleen pisu erlatiboak gorabeherak izan ditu bost urtetan, 2017-2018an % 7 (54 ikasle) izatetik, 2021-2022an **% 6,1 (48 ikasle)** izatera igaro da, **ia puntu bateko jaitsiera** izanez.

- **Eskolatze Batzordetik** LHra iritsi diren ikasle etorri berriak urtez urte bariazioa izan dute. 2020-2021 ikasturtean ikasle gutxien jaso duten ikasturtea izan da. Azken ikasturtean bi ikastetxetan igoera bertsua izan da. Herri Eskolan eta Arizmendin 2017-2018an **lekualdaketa** eskatu duten ikasle kopuru bera edo ia bera izan dute 2021-2022an.

- Ikastetxe bakoitzeko **maisu-maistrak** eta hezkuntza-espezialistei dagokionez, herri eskolan 32 irakasle daude, ikastolan baino **20 gutxiago** (50 maisu-maistra). Sexuaren arabera begiratuta, herri eskolan kopuruak parekoak dira, aldiz, ikastolan, 35 maistra dira eta 17 maisu. Hezkuntza-espezialistarik ez dago ikastolan, eta herri eskolan, berriz, 11 daude (6 emakume, 5 gizon).

### 3.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte):

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako matrikulazioan** 2018-2019 ikasturteko igoeraren ondoren (52 ikasle gehiago), **bost urteren buruan behera** (38 ikasle) egin du. Halere, 2017-2018 ikasturtearekiko 14 ikasle gehiago daude (% 1,6ko igoera). 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan neska eta mutilen matrikulazioetan ez dago ia alderik. 2021-2022 ikasturteari erreparatuta, nesken matrikulazioa **mantendu** egin da eta mutilena **igo** (14 gehiago).

- **DBHko matrikulazioan bilakaeran** ikastetxeka ikusita, bi ikastetxetan igoerak eta jaitsierak ikusten dira. **Institutuan**, 2019-2020ko **igoeraren** (36 ikasle gehiago) ondoren, **55 ikasleko jaitsiera** dago. **Ikastolan**, 2019-2020ko jaitsiera kenduta (6 ikasle), gainerako ikasturteetan goranzko joera erakusten du. 2017-2018 ikasturtearekiko, **33 ikasle gehiago** daude. DBHko matrikulazio osoaren **% 56,6 ikastolan** matrikulatuta dago (498 ikasle), eta **% 43,4**, berriz, **institutuan** (382).

- DBHko ikasmailetan, urtez urte, esanguratsuak ez izan arren, gorabeherak daude bi ikastetxetan. **Ikastolan**, 1. mailan izan ezik, beste guztietan **igoera txikia** dago; **institutuan**, aldiz, **1. eta 4. mailan** antzematen da **igoera** txikia, eta **2. eta 3. mailetan jaitsiera**.

- Jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera-datua **% 30 igo da (23 ikasle).** 2020-2021ean dagoen jaitsierak ia ordura arte izandako igoera beste galtzen da **(22 gutxiago).** Jatorri atzerritarreko nesken matrikulazioa handiagoa izan da mutilena baino ikasturte guztietan, nahiz eta azkenengoan neska eta mutilen matrikulazioa nahiko parean dauden.

- Jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuruak gorabeherak ditu bai institutuan eta baita ikastolan ere. **Institutuan**, 2017-2018 ikasturtearekiko **4 ikasle gehiago** (% 9,5eko igoera) dago. **Ikastolako** datuetan gorabehera esanguratsuagoak dira; 2020-2021 ikasturteko 20 ikasleko jaitsiera izan ezik, gainerako ikasturteetan jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuruak gora egin du. 2017-2018arekiko, **19 ikasle gehiago** daude ikastolan (% 61,3ko igoera). Azken ikasturteari begiratuta, jatorri atzerritarreko familietako 10 ikasletik **5,2 ikastolan** matrikulatuta daude eta **4,8 institutuan**.

- Ohiko 10 jatorri-herrialde esanguratsuenak hauek dira, hurrenez hurren: Pakistan, Kolonbia, Maroko, Honduras, Nikaragua, Bolivia, Txina, Mendebaldeko Sahara, Peru eta Venezuela. **Maroko** da igoera esanguratsuena (16 gehiago) izan duena.

- DBHko matrikula osoarekiko jatorri atzerritarreko familietako ikasleak **% 11,04** dira. Ikasturtez ikasturte pisu erlatiboa, modu apalean bada ere, **2,5 puntu hazi** da. Ikastetxeka pisu erlatiboaren bilakaerak dio, **institutuan** 2017-2018an % 10,5 (42 ikasle) jatorri atzerritarreko familietako ikasleak izatetik, **% 12 (46 ikasle)** izatera pasatu direla 2021-2022an; 1,5 puntuko igoera izan du. **Ikastolan**, gorabeherak izan ditu bost urtetan zehar. 2017-2018an % 6,7 (31 ikasle) izatetik, 2021-2022an **% 10 (50 ikasle)** izatera igaro da, 3,3, puntuko igoera izanez.

- EBak bideratutako ikasle etorri berrien kopuruak bi ikastetxeetan jaso dituzten kopuruetan **gorabeherak** ikusten dira. Arrasate BHIn, 2018-2019an 8 ikasle gehiago (14 ikasle) jaso ondotik, 2020-2021 ikasturtean ikasle bakarra izateraino (13 gutxiago) pasa dira. Arizmendin, ikasturtez ikasturte, **beheranzko** joera ikusten da: 2017-2018an 10 ikasle jasotzetik, 6 ikasle izatera 2021-2022an. Lekualdatutako ikasle kopuruari begiratuz, bi kasuetan beheranzko joera ikusten da. 2021-2022an, igoera txiki bat ikusten da, 6 ikasle gehiago Arizmendik eta 4, Arrasate BHIk.

- DBHko irakasleak eta hezkuntza-espezialistak aztertuta, **institutuan** 2 hezkuntza-espezialista daude, **biak emakumeak; ikastolan**, berriz, ez dago. PT edo laguntza irakaslerik **ez dago ikastolan** eta **3 daude institutuan** (2 emakume eta gizon 1).

### 3.2.5. Batxilergoaren ezaugarriak:

- Batxilergoan ikasturtez ikasturte matrikula kopuruak gora egin du. Igoera esanguratsuena 2019-2020an izan (56 gehiago) da. 2017-2018 ikasturtearekiko **125 ikasle** gehiago daude **(% 52,9ko igoera).** Ikasturte guztietan nesken eta mutilen matrikula kopuruak **gora** egin du. Nesken matrikula kopuruak **nabarmen altuagoak** dira, mutilenak baino; 10 ikasletik **6,3 neskak** dira eta **3,7 mutilak**.

- Bilakaera aztertuta, institutuan, **goranzko** joera dago **% 73,7koa (90 gehiago). Ikastolan**, 2017-2018arekiko **% 30,7ko** igoera bat dago. Batxilergoko matrikulazio osoaren **% 58,7 institutuan** (212 ikasle) matrikulatuta dago, eta **% 41,3,** berriz, **ikastolan** (149 ikasle).

- **Batxilergoko ibilbideetan**, Arrasateko BHI-k hiru ibilbide eskaintzen ditu: arteak, giza eta gizarte zientziak, eta zientziak. Ikastolak, aldiz, arteetako ibilbidea izan ezik beste biak. **Arteetako** ibilbideak **igoera** nabarmena izan du, **4tik 30era** igo da (% 650). **Giza eta gizarte zientziek**, institutuan, gora behera txikiak izan ditu, nahiko egonkor mantendu da. Ikastolan ere gorabeherak izan ditu, eta 2017-2018arekiko 10 puntuko igoera dago. Azkenik, **zientzietako** ibilbideak **igoera** izan du: institutuan **% 108 (61 gehiago)**, eta ikastolan, **% 43 (25 gehiago).**

- **Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen** matrikula kopurua 2017-2018tik 2019-2020ra, **7 ikasletik 2ra** pasatzen da (% 71,4 jaitsiera). Ondorengo bi ikasturtetan, **2 ikasletik 13ra** igarotzen da **(% 550 igoera).** Hazkunde nabariena emakumezkoen kopuruan ikusten da, 12 emakumezko eta gizonezko 1.

- **Batxilergoko jatorri atzerritarreko familietako ikasleen portzentajeak** ikastetxeka aztertuta, ikasle kopurua baxua da eta gorabeherak ditu bi ikastetxetan. Dena den, 2021-2022an bi ikastetxetako portzentajearen aldea areagotzen da, **ikastolan % 7,7a (ikasle 1)** da jatorri atzerritarreko familietako ikaslea, eta **institutuan**, **% 92,3 (12 ikasle).**

- Batxilergoan, **jatorri- herrialde** hauetako ikasleak matrikulatu dira azken bost urtetan zehar: Maroko, Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Dominikar Errepublika, Pakistan, Portugal, Erresuma Batua, AEB, Peru eta Mendebaldeko Sahara. 2021-2022an **marokoar jatorriko** 3 ikasleko kopurua da altuena eta beste zenbait jatorritako ikaslerik ez dago jada.

- Batxilergoan, **ikasle guztiekiko % 3,17** dira **jatorri atzerritarreko familietako ikasleak**. Ikastetxearen arabera, **institutuan** urtez urte **jaisten** joan da (3,7 puntu) 2019-2020 ikasturtera arte. Ondorengo bi urtetan goraka egin du **% 5,7ra** iritsiz (4,5 puntu gehiago). **Ikastolan** aldiz, 2017-2018arekiko (% 0,9) nahiko antzera **mantendu** da 2021-2022an (0,7).

- Batxilergoko **irakaslea** kopurua institutuan 79 irakasle daude, 23 emakume eta 56 gizon. Ikastolan, 13 irakasle dira, 7 emakume eta 6 gizon. **34 irakasleko aldea** dago ikastetxeen artean. 2 hezkuntza-espezialista daude institutuan, biak emakumeak eta 3 PT edo laguntza-irakasle (2 emakume eta gizon 1); ikastolan, berriz, **ez dago** ez espezialistarik ezta PTrik ere.

### 3.2.6. Lanbide Heziketako ezaugarriak:

- **Lanbide Heziketako matrikulazioaren bilakaeran** goranzkoa joera ikusten da, **100 ikasle gehiago** daude 2017-2018an baino **(% 27ko igoera).** Ikasturte guztietan, mutilen matrikulazioak nabarmen dira gehiago neskenak baino. Lanbide Heziketako 10 ikasletik ia **8, gizonezkoa** da, eta **2, emakumezkoa.**

- **Lanbide Heziketako erdi eta goi-milako zikloetako eskaintzari** erreparatuta**,** erdi-mailako 3 titulazio eskaintzen dira eta 8 goi-mailako.
    - Erdi-mailako eskaintzan, Erizaintzako Laguntzaile titulazioa **43-45 matrikulatan egonkor** mantendu da; beste bi eskaintzetan goranzko joera ikusten da, **% 162,5eko igoera** Mikroinformatika-sistemak eta sareetan, eta **% 53,1ekoa,** Osasun Larrialdiak titulazioan.

  - Goi-mailako ziklotan, Fabrikazio Mekanikoko produkziorako programazioak **% 25,6ko beherakada** izan du. Gorputz eta kirol-ekintzak eta Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak titulazioak 2019-2020 ikasturtetik aurrera **ez dute ikaslerik**. Igoera esanguratsua izan dutenak: Mekatronika industriala, **34 ikasle gehiago (% 40,5eko igoera),** Automatizazioa eta robotika industriala, **32 gehiago (% 100eko igoera),** eta Gizarte eta kirol animazioa, **24 ikasle gehiago (% 96ko igoera)**.

- **Arrasateko Lanbide Heziketan** **D eredua nabarmen nagusitzen** da. D ereduan, 314 matrikula daude 2021-2022an, izandako hazkunde-indizea **% 41,4koa** da (92 ikasle gehiago). A ereduan, 106 ikasle daude 2021-2022an, **igoera apalagoa** izan du, **20 ikasle** (% 23,2ko igoera). Presentzia gutxien duen R ereduan, **12 ikasle gutxiago** (% 19,7) daude.

- **Lanbide Heziketa ikastetxeka matrikulak** aztertuta, ikastolan eta baita Mondragon Goi Eskola Politeknikoan (MGEP) **igotzen** ari da bietan. Ikastolako eskaintzari begiratuz, 2021-2022an 59 ikasle gehiago daude (% 28,7ko igoera). MGEPan, 59 ikasle gehiago (% 26,1eko igoera).

- Lanbide Heziketan, MGEPan, batez beste, ikasle guztien % 10,6 dago. Ikastolako ikasle kopuruaren batez bestekoa % 7,8 tartean kokatzen da. Urtez urte, ikasle kopuruaren batez bestekoa nahiko egonkor mantendu da bi zentrotan. Erdi-mailako heziketa-ziklotan hiru eskaintzatan daude ikasleen batez bestekoak **gora** egin du. Igoera altuena Osasun Larrialdiak ikasketetan dago, 8,5 puntukoa. Goi-mailan, 6 eskaintza daude 2021-2022 ikasturtera arte ikasleak izan dituztenak; beste bi (Gorputz eta kirol-ekintzak eta Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak) 2019-2020 ikasturtetik aurrera **desagertu** egiten dira (ez dago matrikularik). Fabrikazio Mekanikoko produkziorako programazioak eta Gizarte eta Kirol animazio eta irakaskuntzak **beherakada** izan dute, 5,5 eta 0,5 puntu, hurrenez hurren. Igoera izaten dute Sare informatiko sistemen administrazioak (5 puntu gehiago), Mekatronika industrialak (3,7 puntu gehiago) eta Fabrikazio mekanikoko diseinuak (3,5 puntu gehiago).

- **Lanbide Heziketako ikasle etorkinen matrikulazioaren bilakaera-datuak** aztertuta, lehen hiru urtetan igoera ikusten da, 15 ikasletik 26ra (% 42,3ko igoera). 2021-2022an, 20 ikaslera jaisten da (% 23ko jaitsiera). Lehen bi ikasturtetan, jatorri atzerritarreko neska eta mutilen kopuruak nahiko antzekoak dira. Aldiz, ondorengo hiru urtetan ezberdintasunak da. Nesken matrikula kopuruak astiro-astiro gora egin du, mutilena jaitsi egiten da azken bi ikasturtetan. Oro bat, **2017-2018an** 10 ikasletik 4,7 mutila zen eta 5,3 neska; **2021-2022an**, berriz, 10etik 7 da neska eta 3 mutilak dira.

- **Lanbide Heziketako jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioaren bilakaera ikastetxe** bietako kopuruetan aldea badago ere, **joerak antzekoak** dira. MGEPan, jatorri atzerritarreko familietako ikasle kopuru **maximoa 9koa** da eta **minimoa, 3koa**. Bost urteren ondoren, matrikula kopurua 2017-2018 urteko kopuru beretan mantentzen da (5 ikasle). Ikastolan, ikasle kopuru **maximoa 17koa** da (MGEPan baino 8 gehiago) eta **minimoa, 10ekoa** (MGEPan baino 7 gehiago). Matrikula bilakaera ikusita, 2021-2022an, 2017-2018an baino 5 ikasle gehiago dago.

- **Zikloen arabera jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioa** erdi-mailako zikloan lehen hiru ikasturtetan 5 ikasle gehiago dago (% 50eko igoera), 2020-2021ean galtzen direnak eta 2021-2022an errekuperatu (15 ikasle daude). Goi-mailako zikloan, jatorri atzerritarreko ikasle **kopuruak baxuagoak** dira. 2019-2020 ikasturtean 6 ikasle gehiago daude (guztira 11), ondorengo urteetan **jaitsi** egiten da, 5 ikaslera. Argi ikus daiteke erdi-mailako zikloetako

presentzia nagusiki jatorri atzerritarreko emakumezkoena dela, 8 neskatik 14ra igarotzen da (% 75eko igoera). Goi-mailan, berriz, jatorri atzerritarreko gizonezkoen presentzia ia erabatekoa da. 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan 2 emakume daude soilik.

- **Hizkuntza-ereduan,** jatorri atzerritarreko familietako ikasleen matrikulazioan 10 ikasle izatetik, 20 izatera igaro da **A eredua (% 100eko igoera).** R ereduaren kasuan, ikasle gutxi izatetik **matrikularik ez izatera** pasatu da. D ereduko ikasle kopurua da baxuena, 2021-2022an **desagertu egiten da.**

- 18 **herrialdeetako** ikasleak jaso dituzte Lanbide Heziketako ikastetxeek, eta herrialderik esanguratsuenak dira, hurrenez hurren: Maroko, Nikaragua, Bolivia, Dominikar Errepublika, Portugal, Peru, Ekuador, Kolonbia, Bulgaria eta Venezuela, besteak beste.

- **Ikastolan**, jatorri atzerritarreko familietako ikasleen **pisu erlatiboa** %5,6 da (184 ikasletik, 15). **MGEPan** %1,8 da (285 ikasletik, 5). Bost urteren ostean, ikastolan atzerriko jatorriko ikasleen pisu erlatiboa antzera **mantendu** da; MGEPan, **0,4 puntu jaitsi** da. Erdi-mailako zikloan, ikasle guztien %11,04 dira jatorri atzerritarrekoak; goi-mailan, %11,11 (135 ikasletik, 15).

- **Lanbide Heziketako irakasleen** kopuruak Erizaintzako titulazioan 4 dira. Sexuaren arabera banaketa parekatua dago. GIKAIn (Gizarte eta Kirol animazioa) 3 gizonezko, Mikroinformatikan gizonezko bat eta bi emakume, eta Osasun Larrialdietan, 2 emakume eta gizonezko bat.

- **Oinarrizko Lanbide Heziketako matrikulazioak** ikasleen matrikulazioa egonkor mantendu da 52-53 ikasletan, baina 2022-2023an jaitsiera ikusten da (33 ikasle). OLHn mutilen matrikulak dira kopuru altuenak ikasturte guztietan. Matrikulazioaren bilakaeran, mutilak % 78,8 dira (5,2 puntuko igoera). Neskak, % 21,1 dira (5,3 puntu gutxiago), baina 2022-2023ko matrikula jaitsierak eraginda, 2022-2023an, mutilak %60 dira eta neskak, % 40. Esan dezakegu, OLHn 2022-2023 ikasturte arte, 10 ikasletik 7,9 mutilak direla eta 2,1 neskak, baina hortik aurrera, 10etik 6 mutilak, eta ia 4 neskak izatera pasatzen direla.

- **OLHko ikasleen matrikulazio-datuak zikloka ikusita,** Elektrizitatea eta Elektronika 2018-2019 ikasturtean eta Metalezko elementuak fabrikatzea-mekanizazioa 2019-2020an matrikularik izan ez, eta desagertu egin dira. Etxebizitzak mantentzea-iturgintza-berokuntza eta Sukaldaritza eta jatetxe-arloa matrikula kopuru bera mantendu dute (26 matrikula, 2022-2023an).

- **Hizkuntza-eredu** bakarra dago OLHn, A eredua. Ikasle guztiak **A ereduan** daude matrikulatuta 2017-2018tik 2022-2023ra. Jatorri atzerritarreko familietako **ikasle guztiak A ereduan** matrikulatuta daude.

- **Arrasateko OLHko zentrora** Debagoienako 4 **udalerritatik** datoz ikasleak: Aretxabaletatik 14; Eskoriatzatik eta Oñatitik, 9; Bergaratik, 7 eta Arrasatekoak, 11.

- **OLHn jatorri atzerritarreko familietako ikasleen** matrikulazioa 2018-2019 urteaz geroztik **% 72,7 hazi da,** 11 ikasletik 19ra igaro da. Hazkundea gizonezkoen matrikulan egon da; **neskenean** beherantz egin du, 20 puntu. 2021-2022an, 10 ikasletik 8,4 mutilak dira: neskak, berriz, 1,6.

- **16 herrialdeetako** ikasleak jaso dituzte OLHko zentroan. Ohiko jatorriak Maroko, Dominikar Errepublika, Kolonbia, Aljeria, Pakistan, Bolivia, Venezuela, Mendebaldeko Sahara eta bigarren maila batean, Argentina, Errumania eta Mexiko daude.

- **OLHko ziklo eta programa osagarriko irakasle** kopurua baxua da. Irakasle 1 edo 3 dira guztietan. Sexuaren arabera, paisajea **maskulinoa** da.

### 3.2.7. Helduen Hezkuntza (HHE) ezaugarriak:

- **Arrasateko HHEko matrikulazio-datu** altuenak dituzten prestakuntzak, hurrenez hurren, hauek dira: DBHko titulua eskuratzeko, Unibertsitatera sartzeko proben prestakuntza eta atzerritarrentzako gaztelania dira. Hiru prestakuntza eskaintza huen matrikulazioan gorabeherak izan arren, joera beheranzkoa da. Jaitsiera egin da, DBHko titulua eskuratzeko eskaintzan, % 11,7ko jaitsiera (19 ikasle gutxiago), Unibertsitatera sartzeko prestakuntzan % 35,5ekoa (17 ikasle gutxiago) eta atzerritarrentzako gaztelania eskaintzan, % 60koa (66 ikasle gutxiago). Matrikulazio-datu baxuagoak daude hizkuntzen kasuan (euskara, frantsesa eta ingelesa). Azkenik, Informatika prestakuntza eta tailerrak, matrikulaziorik izan ez, eta, desagertu direnak.

- **HHEko matrikulazioak % 40,3ko beherakada** nabarmena izan du **(209 ikasle gutxiago).** Ikasturte guztietan emakume gehiago dago gizonezkoak baino. Oro har, HHEko 10 ikasletik 6 emakumea da, eta 4, gizonezkoa.

- **Ikasleen batez besteko** altuenak Unibertsitatera sartzeko proben prestakuntzan (% 37) eta ingeles ikastaroan (% 30) daude. Jarraian, atzerritarrentzako gaztelania (% 22), frantsesa (% 21), DBHko titulua lortzeko (% 20,4) eta Goi-mailako heziketa ziklora sartzeko (% 20). Portzentaje baxuena euskara ikastaroan legoke (% 14).

- **HHEan jatorri atzerritarreko ikasleen kopuruak** esanguratsuak dira. 2017-2018tik 2019-2020ra, ia % 11ko hazkunde-indizea dago (23 ikasle gehiago). Aldiz, 2020-2021tik 2021-2022ra, % 28,5eko **galera** dago (67 ikasle). Neskak 2019-2020tik aurrera **beheranzko** joera du, 39 ikasleko galera (% 28,3ko jaitsiera). Mutilen kasuan, 2021-2022an 36 mutil **gutxiago** daude (% 34,3ko jaitsiera).

- HHEan A **hizkuntza-eredu** bakarra da, jatorri atzerritarreko **ikasle guztiak A ereduan** daude.

- **Jatorri-herrialdeAri** erreparatuz, 10 herrialde ohikoenak honako hauek dira, Maroko (76), Pakistan (32), Mendebaldeko Sahara (7), Kolonbia (4), Aljeria (9), Honduras (4), Brasil (5), Siria (4), Nepal (2) eta Mauritania (3). Maroko eta Pakistaneko jatorria dutenak dira ugarienak eta ikasle kopurua igo egin da bost urteren buruan (12 gehiago).

- **HHEn jatorri atzerritarreko ikasleen portzentajea** ikasle guztiekiko % 13,5 hazi egin da.

### 3.2.8. Ikas-etapen arteko igarobideak:

- Ikas-etapa batetik besterako ikasleen igarobideei dagokienez, Haur Hezkuntzako azken mailatik Lehen Hezkuntzara igaro direla adierazten digute eskuartean ditugun datuak, 2018-2019tik 2019-2020ra bitarte. 3 eta 8 ikasleko saldo **positiboa** izan da. Aldiz, 2021-2022 ikasturtean, saldoa **negatiboa** izan da, 3 ikasleko galera dago.

- Lehen Hezkuntzako azken mailatik DBHko lehen mailara pasatzen den ikasle kopuruaren bilakaera nahiko **parekatua eta positiboa** izan da ikasturtez ikasturte. Ikasturte guztietan saldoa positiboa izan da, 11-20 tartekoa.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailatik Batxilergora pasatzen den ikasle kopuruaren bilakaera **negatiboa** da ikasturte guztietan. Saldo negatiboa 22-50 artekoa da.

- Bigarren Hezkuntzako azken mailatik Lanbide Heziketako lehen mailara igarotzen den ikasle kopuruari begiratuz, **saldoa negatiboa** da. Horrek adierazten du, ikasleek igarobide aukera ezberdinak dituztela eta irakurketa osatuagoa egiteko datuak beste era batera aztertu daitezkeela.

- Oinarrizko Lanbide Heziketako lehen mailak jasotzen dituen ikasleen ikasmailari dagokionez, datuak hobeto interpretatzeko beharrezkoa litzateke ikasleen jatorrizko ikasmaila (DBHn egindako azken ikasmaila) ezagutzea. Horrez gain, ikusiko litzateke OLHn dauden ikasleen jatorrizko ikasmaila eta eskaintzak biltzen duen adin desberdintasuna.

## 3.3. Ekitatea

### 3.3.1. Ebaluazioa Diagnostikoan (ED)

#### 3.3.1.1. LH-4 ikasmailako laginaren ezaugarriak:

- Azken hiru edizioetan, Arrasateko 4. LH-ko **lagina**, EAEko laginaren % 0,9-1 artekoa da.

- Arrasateko eta EAEko ikasleen **kopuru orokorretan** joera bera ikusi da: 2015etik 2017ra igoera txiki bat dagoen arren, 2019an jaitsiera nabari da (Arrasaten, 27 ikasle eta EAEn, 541).

- **Ikastetxeka**, 2015etik 2017ra, Arrasaten 28 ikasleko igoera egon da (%12,7). Igoera nabariena bat ikastetxean izan da (16 ikasle gehiago). 2019an, %15,3ko jaitsiera nabarmena dago hiru ikastetxetan (28 ikasle).

- **4. LH-ko lagina** kontuan izanik, 10 ikasletik 4,5 publikokoa da eta 5,5 itunpekoa da.

- Ikasleen **sexuaren** araberako osaera begiratuta, 10etik 5,5 mutilak dira eta neskak 4,5.

- **Jaioterriaren** arabera, hiru edizioren buruan, lehen belaunaldiko ikasle kopurua mantendu egin da 6 ikasletan; bigarren belaunaldikoak, berriz, 4 izatetik, 13 izatera igaro dira (9 gehiago). Bertako ikasleak %5 jaitsi dira (13 ikasle).

- **Adin-egokitasunari** begiratuta, errepikatzaile kopuruan jaitsiera txikia dago (10 ikasle gutxiago); ez-errepikatzaileak kopuru bertsuan mantendu dira, 6 ikasle jaitsiz.

- **Etxeko-hizkuntza** euskara duten ikasle kopuruak gora egin du (22 ikasle gehiago). Beste hizkuntza bat duten ikasle kopurua, berriz, jaitsi egin da hiru ediziotan (26 ikasle gutxiago).

- **3 urte bete arteko hizkuntza** euskara duten ikasleak %57,5 dira. Beste hizkuntza bat dutenak %42,5. Bi kasuetan gorabeherak izan dituzte.

### 3.3.1.2. LH-4 ikasmaila, ISEK aldagaiaren arabera:

- Arrasateko ikasleek ISEK aldagaian 4. LH-ko ikasleen **ISEK maila** igo da eta EAEko batezbestekora hurbildu.

- **Sexuaren** arabera, neska eta mutilen indizeak erdi mailatik behera mantentzen diren arren, gora behereak daude: 2017an parekatzera iristen dira; 2019an, berriz, mutilen eta nesken ISEK indizea aldentzen da, hau da, mutilena jaitsi eta neskena igo egiten da.

- **Alderantzizko** joera ikusten da errepikatzaileen eta ez-errepikatzaileen ISEK indizeari begiratuz: **Errepikatzaileen** ISEK maila EAEko batezbestekotik gero eta gehiago aldentzen joan da hiru ediziotan (0,387). Ez-errepikatzaileen kasuan, EAEko batezbestekora hurbiltzen joan da hiru edizioren buruan.

- **Etxeko-hizkuntza** eta **hiru urte bete arteko hizkuntza euskara** ez den beste hizkuntza bat duten ikasleen ISEK maila EAEtik dezente aldentzen da. Bi aldagaien kasuan, aldea areagotu egin da hiru edizioren ostean: etxeko hizkuntza edo hiru urte bete arteko hizkuntza euskara ez ISEK mailak behera egiten duen heinean, euskara dutenen kasuan gora egiten du.

### 3.3.1.3. LH4 ikasmailako konpetentzietako emaitzak:

Arrasateko ikastetxeetako LH4-ko ikasleen bost konpetentzien emaitzak aztertu dira: hizkuntzak (euskara, gaztelera) eta matematika. Emaitzok herri-mailako begirada bat eskuratzeko lagungarriak gerta daitezke.

- Arrasateko **euskara** konpetentziako **emaitza orokorrak** gora behera txikia izan du, eta 2019an, 3,4 puntu gorago dago. Arrasateko emaitzak EAEko emaitzen batezbestekotik gora daude edizio guztietan, alde nabariena 2017koa da (14 puntuko aldea).
    - Ikasleak nagusiki, erdiko **errendimendu-mailan** kokatzen dira Arrasaten eta EAEn.
    - **Sexuaren** arabera, emaitzen batezbestekoa altuagoa da nesketan mutiletan baino bereziki 2015ean. Nesken emaitzak antzera mantendu dira; mutilenak, aldiz, gorabeheratsu.
    - **Ez-errepikatzaileen** puntuazioak errepikatzaileen gainetik daude. Aldea, baina, murrizten doa 57 puntutik 38,2 puntura jaitsiz.
    - **Etxeko-hizkuntza** euskara duten ikasleen emaitzak altuagoak dira edizio guztietan, hala ere, aldea murrizten ari da: 28,7 puntutik 11,4ra igaro da.
    - **Hiru urte bete arteko hizkuntza** euskara dutenen emaitzak altuagoak dira beste bat dutenenak baino. Bi kasuetan, gora behera txikiak daude.

- **Gazteleran,** Arrasateko emaitzak EAEren parean daude.
    - **Errendimendu-mailetan** maila aurreratuak Arrasaten eta EAEn igoera txikia izan du: Arrasaten, 3 puntu, eta 11,3 puntu, EAEn. Bi kasuetan, erdiko mailan dago ikasleen ehuneko altuena: Arrasaten %57 eta ia %68 tartean; EAEn, %61 eta %67 tartean.
    - **Sexuaren arabera,** mutilen puntuazioak altuagoak dira neskenak baino 2017an, 10,7 puntu goitik, eta 2019an, 11,8.
    - **Ez-errepikatzaileen** batezbesteko puntuazioak **errepikatzaileenak** altuagoak dira hiru ediziotan, aldeak areagotzen joan dira: 30,1 puntuko aldetik, 35,2ko aldera.

  - **Etxeko-hizkuntza** euskara duten ikasleen emaitzak hiru ediziotan altuagoak dira. Alde nabarmenena 2019an, 13,2 puntu.
  - Euskara **hiru urte arteko hizkuntza** izan dutenen emaitzak hiru ediziotan altuagoak dira beste hizkuntza bat dutenenak baino. Alde nabarmenena 2019an, 16,7 puntu.

- Arrasateko ikasleen **matematikako** emaitza orokorrak EAEko emaitzen bertsuak dira, bariazio txikiekin.

  - Arrasateko eta EAEko **errendimendu-mailetako** portzentajeak oso antzekoak dira. 2019an, hasierako eta erdiko maila igotzen dira modua apalean.
  - **Neska eta mutilen** arteko matematikako puntuazio orokorretan aldeak ez dira nabariak. 2019an, bi sexuetan jaitsiera dago: neskak, 8,3 puntu; mutilak, 5,9 puntu.
  - **Ez-errepikatzaileen** puntuazioak altuagoak dira errepikatzaileenak baino. Hiru ediziotan aldea murrizten doa: 47,8 puntuko aldea izatetik, 31,2 izatera igaro da.
  - Euskara **etxeko-hizkuntza** dutenen emaitzak altuagoak dira edizio guztietan (21,6, 25,5 eta 23,7). Bi kasuetan beheranzko joera ikusten da.
  - Euskara **hiru urte arteko hizkuntza** dutenen emaitzak edizio guztietan altuagoak dira beste hizkuntza bat dutenekin alderatuz (26, 28,7 eta 27,4). Bi kasuetan beheranzko joera ikusten da.

#### 3.3.1.4. 2. DBHko laginaren ezaugarriak:

- Ikasle **kopuru orokorretan** 2017an igoera dago: 60 ikasle Arrasaten, eta 2.341, EAEn. 2019an, berriz, bi kasuetan, jaitsiera nabari da (Arrasate 34, EAEn 815).

- **Ikastetxeka**, 2015etik 2017ra, bat ikastetxean dago egoera esanguratsua (53 ikasle). Ikastetxe biek ikasle galera txiki bat izan dute, 2019an, bat ikastetxean, 24 eta bi ikastetxean, 10.

- **Ikastetxeka**, 10 ikasletik 5,5 itunpeko ikastetxean dago, eta 4,5 publikoan.

- Ikasleen **sexuaren** araberako osaera begiratuta, hiru edizioetan parekoa da, 2019an, %51 neskak eta %49, mutila da.

- **Jaioterriaren arabera,** 2019an bertakoak %91,1 dira, lehen belaunaldikoak %7,3 eta bigarren belaunaldikoak, %1,6. Hiru kasuetan esanguratsuak ez diren gorabeherak izan dituzte. Lehen eta Bigarren belaunaldiko ikasle kopuru igoera ez da esanguratsua izan.

- **Adin-egokitasunari** erreparatuz, 2019an errepikatzaile kopurua zertxobait igo da (7 ikasle), eta ez-errepikatzaileak, 19 gehiago.

- **Etxeko-hizkuntza** euskara ez den beste hizkuntza bat dutenak %61,8 dira. Euskara dutenak, berriz, %38,2. Bi kasuetan gora behera txikiak izan dituzte.

- **3 urte bete arteko hizkuntzaren** kasuan, 2019an, bietan igo egin da kopurua: euskara dutenak 21 ikasle gehiago dira, eta beste bat dutenak, 5 ikasle.

#### 3.3.1.5. DBH-2 ikasmaila, ISEK aldagaiaren arabera:

- Arrasateko 2. DBH-ko ikasleen ISEK maila EAEko batezbestekotik behera egotetik zertxobait goitik egotera igaro da.

- **Sexuaren** arabera, 2017ko edizioan bereziki ISEK indizean beherakada nabarmena dago bi kasuetan. 2019an, berriz, bi kasuetan gorakada nabarmena da, EAEko batezbestekotik gertu edo gora kokatuz.

- **Adin-egokitasuna** aztertuta, errepikatzaileen ISEK maila EAEko batezbestekotik behera dago. Hiru edizioren buruan, 2015eko mailan kokatzen da. Ez-errepikatzaileen kasuan, EAEko batezbestekotik hurbil dagoen arren, gorabehera txikiak izan ditu.

- **Etxeko-hizkuntza** euskara duten ikasleen ISEK maila EAEko batezbestekotik gora dago. 2017an jaitsiera izan duen arren (0,296), 2019an, errekuperatu eta zertxobait igo egiten du. Beste hizkuntza bat dutenen ISEK indizea EAEkotik behera kokatzen da. Lehen bi ediziotan berdin mantendu ondoren, 2019an, gora egiten du (0,184).

- **3 urte bete arteko hizkuntzaren** ISEK mailan gorabeherak izan dituzte hiru edizioren buruan, hala ere, 2017ko jaitsieraren ondoren, bi kasuetan 2015eko mailara bueltatu dira. Euskara dutenen kasuan EAEko batezbestekotik gora dago ISEK maila, eta beste hizkuntza bat dutenena, behetik.

#### 3.3.1.6. DBH2 ikasmailako konpetentzietako emaitzak:

Arrasateko ikastetxeetako 2. DBH-ko ikasleen hiru konpetentzien emaitzak aztertu dira: hizkuntzak (euskara, gaztelera) eta matematika. Emaitzok herri-mailako begirada bat eskuratzeko lagungarriak gerta daitezke.

- Arrasateko **euskara** konpetentziako emaitzetan gorakada txikia izan da (9,1 puntu), EAEn mantendu egin da. 2019an, jaitsiera txikia dago bi kasuetan.

    - **Sexuaren** arabera, 2017 eta 2019an, nesken emaitzak mutilenak baino altuagoak dira (17,3 eta 19,1 puntuko aldea). 2019an, bietan jaitsiera apala dago.
    - **Ez-errepikatzaile** eta **errepikatzaileen** arteko aldea areagotzen joan da hiru edizioren buruan: 38 puntukotik, 59,4 puntura igaro da.
    - **Etxeko-hizkuntza** euskara duten ikasleen emaitzak hiru ediziotan altuagoak dira (24 puntutik gorako aldea). Alde nabarmenena 2019koa da, 28,9 puntu.
    - **3 urte bete arteko hizkuntza** euskara dutenen emaitzak altuagoak dira beste bat dutenenak baino hiru ediziotan. Alde nabarmenena 2019koa da, 32,4 puntu.

- **Gazteleran** Arrasateko emaitzak EAEkoen azpitik daude Arrasateko 2. DBH-ko ikasleen gaztelerako emaitza orokorrak EAEko emaitzen azpitik daude edizio guztietan.

    - **Sexuaren** arabera neskena emaitzak mutilenak baino zertxobait altuagoak dira (2017an, 3,7 altuagoa; 2019an, 6,7).
    - **Ez-errepikatzaileen** batezbestekoa altuagoa da errepikatzaileena baino edizio guztietan. Aldea, hiru ediziotan, 34 puntutik gorakoa da.
    - **Etxeko-hizkuntza** euskara dutenen emaitzak altuagoak dira 2015 eta 2019an (bi kasuetan, 12,8ko aldea). 2017an, berriz, emaitzak ia parekoak dira.
    - **3 urte bete arteko hizkuntza** euskara dutenen emaitzak altuagoak dira hiru ediziotan. 2019an dago alde handiena, 15,7 puntutakoa.

- Arrasateko ikasleen **matematikako** emaitza orokorrak, hiru ediziotan, aldea esanguratsua izan gabe. Aldea murriztuz doala ikus daiteke (5,3 puntu aldetik, 3,4ra).

- Arrasateko eta EAEko erdiko **errendimendu-mailetako** ehunekoak dira bi kasuetan altuenak eta jaitsiera apala dauka maila aurreratuaren mesedetan.
- **Neska** eta mutilen matematikako puntuazio orokorretan aldea ez da esanguratsua.
- **Ez-errepikatzaileen** batezbesteko puntuazioak altuagoak dira errepikatzaileenak baino. Hiru ediziotan aldeak areagotzen joan dira: 44,7 puntuko aldetik, 59,1era.
- Euskara **etxeko-hizkuntza** dutenen emaitzak altuagoak dira beste hizkuntza bat dutenenak baino, edizio guztietan. Aldea murrizten ari da: 27,8 puntuko aldetik, 20,7ra.
- **Hiru urte bete arteko** hizkuntza euskara izan dutenen kasuan, matematikako emaitzak altuagoak dira hiru ediziotan: 2015ean, 20,8; 2017an, 21,5 eta 2019an, 22,3.

### 3.3.1.7. Tratu txarrak Arrasateko ikastetxeetan:

#### 3.3.1.7.1. LH4ko ikasmaila:

- Arrasateko portzentajea EAEkoaren gainetik dago soilik 2015ean, (7,2 puntu). 2019an, %33,9ak tratu txarrak izan ditu. Beherakada apala ikusten da Arrasateko kasuan.

- Arrasateko ikastetxeetako tratu txar portzentajeetan **aldagai ezberdinen arabera**, honako hau ikusten da:

  - **Sexuaren** arabera, bi kasuetan bariazioak izan ondoren, 2019an, neskak, 12,1 puntu jaitsi dute eta mutilek, 10,1 puntu igo.
  - Ikasle **errepikatzaileen** tratu txar portzentajeak, hiru ediziotan zehar, beherakada nabarmena izan du, 41,7 puntu. Ez-errepikatzaileen kasuan, 2019an, 6,5 puntuko igoera izan du.
  - **Etxeko-hizkuntza** euskara duten kasuan, tratu txar portzentajea 2017an nabarmen jaisten da (32,4 puntu. Beste hizkuntza bat dutenen kasuan, edizioz edizio, igoera apala dauka (5,9 puntu).
  - **Hiru urte bete arteko hizkuntza** euskara duten kasuan, tratu txar portzentajea 2017an nabarmen jaisten da (16,3 puntu). Beste hizkuntza bat dutenen kasuan, edizioz edizio, jaitsiera apala dauka (1,4 puntu).

#### 3.3.1.7.2. DBH2ko ikasmaila:

- DBH2-ko tratu txarren ehunekoari begiratuta, Arrasateko eta EAEko portzentajeak antzekoak dira 2015ean izan ezik. Edizio horretan 10 puntu goitik ageri da Arrasateko tratu txarren portzentajea. Hiru edizioen buruan beherakada txikia ikusten da, %5ekoa.

- Arrasateko ikastetxeetako tratu txar portzentajeetan **aldagai ezberdinen arabera**, honako hau ikusten da:

- **Sexuaren** arabera, nesken kasuan oso ehuneko baxuak izan arren, 12,2 puntuko igoera dago hiru edizioren buruan. Mutilen kasuan, %40 izatetik, %23,5 izatera pasa da (16,5 puntu behera).

  - **Errepikatzaileen** eta **ez-errepikatzaileen** kasuan tratu txar portzentajean gorabeherak izan dira. 2019an, errepikatzaileen kasuan, 18 puntuko igoera dago eta ez-errepikatzaileen kasuan, aldiz, 10 puntu igo.
  - **Etxeko-hizkuntza** euskara dutenen kasuan, tratu txarren portzentajea, 2019an, 13,5 puntu igo da. Beste hizkuntza bat dutenen kasuan, 2019an, 8 puntu igotzen da.

- **Hiru urte bete arteko hizkuntza** euskara dutenen kasuan eta ez dutenen kasuan, igoera dago: euskara dutenen kasuan 4 puntu, eta beste hizkuntza bat dutenen kasuan, 14 puntu.

### 3.3.2. Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) eta Hizkuntza Indartzeko Proiektuak (HIPI)

- **HPBak** dituzten ikasle kopuru altuena Arizmendi ikastolan daude, 46 ikasle; bigarren kopuru altuena, Arrasate BHIn dago, 29 ikasle.

- **HPBen mapan egon gabe,** ikastetxe bakoitzak hezkuntza-laguntza behar duen ikasle **zerrenda propioan** dauden ikasle kopuruak aztertuta, Arizmendik 33 ikasle eta institutuak, 9 ditu (24 ikasleko aldea).

- **Hizkuntza Indartzeko Programan (HIPI),** ikastetxeka, Arizmendin 62 ikasle daude, eta 27 ikasle Arrasate BHIn (35 ikasleko aldea).

- Etapaka eta ikastetxeka, zer esan daiteke:

  - **HPBk** dituzten ikasleak etapaka aztertuta, Herri Eskolan dago HPBak dituen ikasle gehiago. HHko etapan, 3 gehiago eta 4, LHn. DBH-ko etapara etorrita, Arrasate BHIn, 27 ikasle daude, Arizmendin baino 18 ikasle gehiago. Batxilergoan azkenik, institutuan mapako 2 ikasle daude, eta institutuko zerrenda propioan, 6 ikasle.
  - Mapako ikasleez gain, ikastetxeen **zerrenda propioetan** 3 ikasle daude institutuan, eta 9 ikastolan (6ko aldea).
  - **HIPIko** ikasleak, LHko etapan, Arizmendin 37 daude. Arizmendin eta Arrasate BHIn, DBHko etapan, HIPI programan parte hartzen duten ikasle kopuru antzekoa dago (2 ikasleko aldea dago).

### 3.3.3. Eskola segregazioa: Hezkuntza-zaurgarritasuna, desberdintasun sozioespaziala eta udalerriko ikastetxeetako zaurgarritasun indizea

- **Hezkuntza-zaurgarritasunari** begira, **ikasle atzerritarren** kontzentrazio altua dago Arrasaten, % 17 eta % 41 tartekoa da Haur eta Lehen hezkuntzan. Bigarren hezkuntzan, baxuagoa da % 10 eta % 12 tartekoa. Arrasate inguruko udalerrietako kontzentrazioa HHn eta LHn baxuagoa da (% 13-% 17 tartekoa); eta baita Bigarren Hezkuntzan ere (% 6,5-% 10).

- **ISEK maila baxuko** ikasleen kontzentrazio maila altuagoak dira, Arrasaten. **ISEK maila baxuko** ikasleen proportzioa **LHn, % 14 eta % 20** tartean dago. Bigarren Hezkuntzan, Arrasateko kontzentrazioa **% 11 eta % 15** tarteko da. Arrasaten inguruko ia udalerri gehienetan HH eta LHn bertsua da, eta BHn baxuagoa Aretxabaletan izan ezik altuagoa dela hiru etapetan. **ISEK maila altuko** ikasleen proportzioa **LHn, % 11 eta % 18** tartean dago. Bigarren Hezkuntzan, altuagoa da, **% 16 eta % 44** tartekoa. Arrasate inguruko udalerrietan ISEK maila altuko ikasleen

proportzioa berdina da Lehen Hezkuntzan, aldiz, BHn baxuagoa (% 0 eta % 11) da inguruko herrietan.

- Arrasaten, egoera zaurgarrian dauden **ikasleen banaketa orekatua** izateko ikasleak ezberdin banatu beharko lirateke (desberdintasun indizea):

    - LHn, **ikasle atzerritarren** % 24 eta % 35 tartean ikastetxez aldatu beharko litzateke; DBHn, berriz, % 0 eta % 16 tartean.
    - **HBLP** duten LHko ikasleen % 14 eta % 22 tartean ere aldatu beharko litzateke; DBHn, berriz, Ikasleen % 0 eta % 9,9 tartean.
    - **DBHko 1. mailako ISEK maila baxuko** ikasleen % 23 eta % 37 artean ikastetxez aldatu beharko litzateke banaketa orekatua lortzeko.

- ISEK maila bakoitzak haren taldearekin eta gainerako taldearekin **elkarrekintza** izateko duen **probabilitatea** adierazten du esposizio-tasak. EAEn, ISEK maila baxuko ikasle batek ISEK maila altuko ikasle batekin **interakzioa** izateko duen **probabilitatea % 12koa da.** Itunpekoetan, ISEK maila baxuko ikasle batek ISEK maila altuko ikasle batekin interakzioa izateko duen **probabilitatea % 24koa** da. Sare publikoan esposizio-tasa modu ekitatiboagoan banatzen da ISEK maila hazten doan heinean.

- Zaurgarritasun Indizearen bidez, Arrasateko ikastetxe guztiak euren eragin-eremuko indizera hurbildu beharko lirateke 3 ikasturtetan, Haur Hezkuntzan. 2023-2024an, Arrasateko 2 urteko matrikulazioa kontuan izanik, ikastetxeak erreferentziazko indizera hurbildu beharko lirateke ondorengo **2 matrikulazio prozesuren buruan.** Arizmendiren kasuan, Gaztelupe guneko zaurgarritasun **indizeak gora** egin beharko luke 12,37 puntutan. Aldiz, **kontrako norabidean**, San Frantzisko Xabier gunearen indizeak **11,52 puntu jaitsi** beharko luke. Arrasate BHIren kasuan ere, indizeak **11,16 puntu jaitsi** beharko litzateke.

### 3.3.4. Gizarte Larrialdietako Laguntzak eta babesgabetasun-egoerak: ezaugarriak, familiak eta adin txikikoak

#### 3.3.4.1. Gizarte Larrialdietako Laguntzak jasotzen dituzten familiak eta bizitokia:

- **Espediente** kopuru igoera egon da 2022tik 2023ra.

- Azken 5 urtetan, Txaeta auzoan babes ofizialeko etxebizitzak egin dira, Alokabidek kudeatzen dituenak. Txaeta auzoan dute bizitokia familiek, alokairu sozialean bizi dira eta familien %90 Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileak dira, eta zehazki, GLLetako programako eskatzaileak.

- Hirigintza planeamenduak Txaeta auzoari izaera propioa eman dio eta ghetto bihurtu dela esan daiteke. Bertako bizilagunak jatorri-herrialde askotakoak dira, zaurgarritasun ekonomikoan daude eta herriarekiko lotura gutxi dute.

#### 3.3.4.2. Babesgabetasun egoerak, familiak eta adin txikikoak:

- **Artatutakoen** eta itxitako kasuen artean, **aldea nabaria** da. Kasuak ixteko egon daitezkeen zailtasunak mahai gainean uzten dute kopuruek.

- **Familia** gehienak **3 edo 4 kidez** osatuta daude: guraso bat edo bi eta bi seme alaba.Hiru familiatik batek bakarrik du familia tradizionalaren eredua. Banandutako familiak gailentzen dira, bananduak eta berreratuak.

- Familien %75en **diru-sarrera bakarra** euren kideen lanaren ondorio da. Diru-laguntzetatik soilik bizi diren familiak %7 dira.

- Babesgabetasun-egoerak ez daude **auzo** bakarrean, **barreiatua** dago Arrasaten. Portzentajeetan nabarmendu daitezke zentroa eta Santa Marina-Santa Teresa.

- Familietako helduen **jatorriari** dagokionez, gurasoen erdia gutxi gora behera Euskal Herrian eta espainiar estatuko komunitatea batean jaio dela. Beste erdiak migrazio prozesu bat bizi izan du, eta horietan ehuneko altuenak Hego Amerikarrak dira. **Emakume migratu gehiago** dago, portzentaia 11 puntu altuagoa delarik.

- Esku hartuta dauden **adin txikikoen** %69 **nerabeak** dira. 12-17 adin tartea 1-17 adinaren herena da, baina esku hartze gehien ikusten den populazioa da. Aurreko urtearekin alderatuta, nerabeen portzentaia 14 puntu igo da, %55etik %69ra. Detekzio goiztiarragoa egiteko beharra nabarmen agerian uzten dute datuek.

- Adingabeen **sorlekuari** dagokionez, %62a Euskal Herrian jaioa da eta %4 estatu espainiarreko komunitate batean. Haur eta nerabeen ia %34ak migrazio internazional baten prozesua bizi izan du lehenengo pertsonan.

- Gehien detektatu diren babesgabetasun-egoerak **axolagabekeria** egoerak dira. Esaterako, “behar psikikoekiko zabarkeria: elkarreragina eta afektua” da gehien errepikatzen den babesgabetasun egoera, eta txostenaren arabera, 2021ean ere berdin gertatu zen. **Tratu txarren** barruan, “tratu txar emozionala” eta “gatazketan instrumentalizazioa” dira gehien errepikatzen direnak.

- Familien artean, gaur egun ohikoenak diren **zailtasunak** osasun mental arazoak, migrazio prozesuak, banaketa gatazkatsuak eta abandonu emozionala dira. Horrez gain, familia askoren artean zailtasunekiko kontzientzia maila mugatua arazo gehigarria da.

- Adin txikikoetan ohikoenak diren lau **sintomak** arreta arazoak, antsietatea/depresioa, isolamendua eta arazo sozialak dira. Sexuaren arabera, **mutiletan** jokabide agresiboa presenteago dago, jokabide delinkuentearekin batera.

## 3.4. Eskola orduz kanpoko jardueretan parte-hartzea eta euskararen erabilera

### 3.4.1. Ikastetxeetako jarduerak

#### 3.4.1.1. Eskola kirola

- Eskola kiroleko **parte-hartzaile kopuruak ez du gorabehera handirik izan** azken 6 urteetan eta, azken 4 urteetako datuen arabera, **askoz ere gehiago dira gizonezkoak** emakumezkoak baino: azken ikasturtean 424 gizonezko eta 229 emakumezko aritu dira eskola kirolean Arrasaten. Aldeak, gainera, goranzko joera erakusten du.

- Eskola kirolean izena emandako ikasleen **gehienak Ikastolan matrikulatutakoak dira**, alde handiarekin (%72,89). Herri eskolan matrikulatutakoak %25,57 dira eta Institutukoak %1,53.

- **LHko ikasleek hartzen dute parte eskola kirolean batez ere**. 2022-2023 ikasturtean LH 5-6ko 417 ikasle, LH 3-4ko 372 ikasle eta LH 1-2ko 285 ikasle aritu ziren. Azken hiru urteei begiratuta, 2020-2021z geroztik gora egin dute partaideek eta azken urtean **apur bat apaldu edo mantendu egin dira**. DBH 1-2ra igarotzean, kopuruak nabarmen egiten dute behera, azken hiru urteetan igoera txiki bat izan den arren. Aurreko ikasturtean 76 izan ziren eskola kirolean parte hartu zuten DBHko ikasleak.

- 2022-2023 ikasturtean **diru-laguntza jaso duten 39 familia egon dira**. Familia horietatik 24k kuota orokorra ordaintzeko seme-alaba batentzako laguntza jaso dute, 12 familiek bi seme-alabentzakoa eta batek 3 seme-alabentzakoa. Horrez gain, 2 familiek kirol egokituaren kuota ordaintzeko seme-alaba banarentzako diru-laguntza jaso dute.

#### 3.4.1.2. Ikastetxeek antolatzen dituzten eskola orduz kanpoko jardueretako ikasleak ikastola, eskola eta institutuaren arabera.

- **Arrasateko ikastetxeek antolatzen dituzten orduz kanpoko jarduera eskaintza zabala da**. Ikastolak HHtik hasi eta batxilergora arte, Herri Eskolak HH eta LHrako eta Institutuak DBH eta batxilergorako.

- Tailerrak **izaera ezberdinetakoak** dira: ariketa fisikoa, kirola, kultura, dantza, zientzia eta teknologia, ongizatea, eskulanak, errefortzuak eta hezkuntza. Ikastolaren kasuan, kirol tailerrek dute presentzia gehiena, nahiz eta bestelako eskaintza ere izan. Institutuaren ta Herri Eskolaren kasuan, berriz, zientzia eta teknologia eta errefortzu tailerrek dute toki gehiago.

#### 3.4.1.3. Zaintza zerbitzua

- Zaintza zerbitzuan parte hartzen duten ikasleen artean **ez dago alde nabarmenik sexuari dagokionean**, %51 gizonekoak dira eta %49 emakumezkoak.

- Zerbitzua adin tarte txikienetan erabiltzen da batez ere: **1-5 urte bitarteko haurrak dira gehienak**, nahiz eta 11 urte bitartekoak aurkitu daitezkeen.

- Zaintza zerbitzua erabiltzen duten ikasleen **ia denek Estatuko jatorria dute**, 379tik 366 (%96,57). Jatorri atzerritarreko familietakoak diren 13 ikasleak jatorri ezberdinetakoak dira, denak **Erdialdeko edo Hego Amerikakoak**.

## 3.4.2. Udal zerbitzuak, udalak diruz lagundutako jarduerak, hauek kokapena herrian eta diru-laguntzak

### 3.4.2.1. Udal zerbitzuak eta diru-laguntzak. 0-18 adin tarteko haur, nerabe eta gazteei zuzendutakoak.

#### 3.4.2.1.1. Kale heziketa zerbitzua

- Oro har, azken 4 urteetan **erabiltzaile kopurua mantendu** egin da, 50en bueltan, baina goranzko joera hartu du azken urtean, 54 ikaslerekin. Urtero **apur bat gehiago izaten dira emakumeak gizonezkoak baino**.

- Esku-hartzeak taldeka egiten direnez, zaila da norbanakoen adinaren identifikazioa ez da erraza. Gaur egun, **gero eta ohikoagoa da taldeetan kinta bereko pertsonek parte hartzea**.

- Erabiltzaileen artean **ez da nabarmentzen ikastetxe bateko edo besteko prebalentziarik**.

- Erabiltzaile **gehienak EAEko jatorrikoak** dira eta multzo honek goranzko joera handia izan du gainera azken ikasturtean, 15 izatetik 40 izatera pasa dira. Jatorri atzerritarreko ikasleen artean, **gehienak Hego Ameriketako jatorria** dute (azken urtean goranzko joerarekin) eta beste jatorrietakoak gutxi dira, beheranzko joerarekin: Afrika, Asia eta Europa, hurrenez hurren. Guztira, **beheranzko joera nabarmena izan du jatorri atzerritarreko ikasleen pisuak** zerbitzu honetan: 2018an %51,02 izatetik, 2022an %28,57 izatera pasatu dira. Hala ere, joera hau ez da errotzen ari den joera bat, urtez urte eta taldez talde aldatu egiten baita. Oro har, atzerriko herrialderen batean jaio izana bada arrisku eragile determinante bat eta zerbitzu honetako **erreferentziazko erabiltzaileen artean jatorria bada faktore esanguratsua**.

- **Arrasatekoak diren erabiltzaileek gaztelania erabiltzen dute** eta ez dute euskaraz egiten euren aisialdian. Gaztelaniaz hobeto egiten dute eta ez dute euskararekiko gertutasun berezirik sentitzen. **Euskara arlo akademikoarekin lotzen dute** eta nahiko estigmatizatuta dute. **Migrazio prozesuak bizi izan dituztenek, berriz, ez diote euskarari baliorik ikusten,** askok euren herrialdera itzultzeko nahia adierazten baitute. Euren artean, gainera, komunitate ezberdinetako kideak ez dira asko nahasten eta **jatorrizko hizkuntzan hitz egin ohi dute.**

- **Astean zehar ez da gazterik ageri kalean**, eskolaz kanpoko jardueretan ibiltzen direlako. **Gazteak erdigunean elkartzeko ohitura hartu dute** pandemiaz geroztik, lehen auzoetan egoten baziren ere. Normalean, **kuadrillen artean ez da nahasketarik egoten** eta bakoitzak bere txokoa bilatzen du**. Txaeta auzoak izaera berezia du, segregatutako ingurunea** bilakatu da, jatorri atzerritarreko eta behar bereziak dituzten herritarrak pilatu baitira bertan, zerbitzuak han kokatzen direnez. Auzo honetan kalean bizitza asko egiten da eta adin guztietako pertsonak egoten dira kalean.

#### 3.4.2.1.2. Haurren zerbitzua (ludoteka)

- Azken bi ikasturtetan **izugarri hazi da Ludotekaren asteko erabiltzaile kopuruaren bataz bestekoa:** 72tik 379raino. Pandemia izan daiteke arrazoietako bat.

- Generoari erreparatuta, **gizonezkoak apur bat gehiago** dira (198) emakumezkoak baino (181).

- **Hiru egoitza** ditu zerbitzuak Arrasaten: Okendo, Usaetxe eta Santamaña.

    - **Okendo**: haur gehienak 0-10 urte bitarteko auzoko familietakoak dira. Mutil eta neska kopuru parekatua da eta gehienak Herri Eskolako ikasleak dira. Auzoko familia euskaldunetako familia askok euren haurrak Usaetxera bidaltzen dituzte, estigma hartu baitu azken urteotan. Aniztasun handiko gunea da, baina euskararekiko jarrera positiboa dute.
    - **Usaetxe**: familia euskaldun eta erdaldunetako haurrak joaten dira eta euskararekiko jarrera positiboa dutela esan daiteke. Herri Eskolako eta Arizmendiko ikasleak dira, bietatik dago.
    - **Santamaña**: auzo izaera handia duen gunea da eta, hizkuntza aniztasuna badagoen arren, gaztelania nagusitzen da.

- **Igandetako zerbitzua**: gurasoak parte hartzen duten dinamikak egiten dira eta horrek familien parte hartzea handitzen du. Ez da jatorri atzerritarretako familien presentziarik izaten eta euskara gailentzen da.

#### 3.4.2.1.3. Gaztelekua eta Gaztetxokoa

- Azken bi ikasturtetan **izugarri hazi da zerbitzu hauetan asteko erabiltzaile kopuruaren bataz bestekoa:** 48tik 271raino. Pandemia izan daiteke arrazoietako bat.

- Generoari erreparatuta, **gizonezkoak dira gehienak** (150), emakumezkoak (121) eta bi ez-bitar ere izan dira azken ikasturtean.

- **Lau gunetan** ematen da zerbitzua: San Andres, Erguin, Musakola eta tren geltokian.

    - **Erguin:** partaide gehienak auzoko 9-12 urte arteko mutilak dira, jatorri atzerritarretako familietakoak. Denak Herri Eskolako ikasleak dira. Bestetik, auzoko 17-18 urteko jatorri atzerritarretako familietako neska taldetxo bat ere joaten da. Euskara ia denek ulertzen duten arren, gaztelaniaz edo euren hizkuntzetan aritzen dira.
    - **San Andres:** jatorri, adin eta eskolaren araberako hiru talde ezberdindu joaten dira (12-14 urteko jatorri atzerritarreko familietakoak, 14-16 urteko institutuko neska eta ez-bitarrak, eta 14 urteko Arizmendiko mutilak). Euskara eta gaztelania entzun daitezke.
    - **Musakola:** gune berrian daudenetik asko aldatu da parte-hartzaile kopurua eta profila. Egun 14 urteko institutuko neska eta ez-bitar talde bat egoten da. Gaztelaniadun familietako gazteak izanda, gaztelaniaz egiten dute euren artean eta euskara eskolarekin lotzen dute.
    - **Tren geltokia (asteburuetan):** astean zehar beste guneetan egoten diren nerabeak bertara joaten diren arren, bakoitza bere kuadrillarekin edota eskolako jendearekin egoten da. Banaketa honen arrazoiak sozioekonomikoak eta kulturalak izan daitezkeela uste da, linguistikoak baino.

##### 3.4.2.1.4. Hizkuntza errefortzu programa

- Azken 5 ikasturteetan **gora egin du errefortzu programan parte hartzen duten ikasleen kopuruak**. 2018-2019 ikasturtean 82 erabiltzaile izatetik, pasa den ikasturtean 108 izan ziren.
- **Gizon eta emakumeen arteko orekak alde batera eta bestera** ibili izan dira azken 5 ikasturteetan. Azkenengoan, 4 gizonezko gehiago egon dira.
- Proportzioan, **gehiago dira 6-12 urteko ikasleak**, 12-16koak baino. Gainera, proportzioa handituz doa urtez urte.
- Ikasle **gehienak Arizmendi Ikastolan** matrikulatuta egon arren (48 ikasle 2022-2023an), azken urteetan **Herri Eskolako ikasleen presentziak gora egin du nabarmen**, ia Arizmendikoak adina izateraino (43 ikasle). **Institututik datozen ikasleen kopurua ere igo egin da** azken ikasturteetan (17 ikasle).
- **Jatorri atzerritarreko familietakoak dira ikasle gehienak** (jatorri euskalduneko 2 bakarrik egon dira pasa den ikasturtean).
- Ordezkaritzarik handiena duten herrialdeak **Kolonbia, Maroko, Nikaragua, Honduras, Sahara, Venezuela eta Pakistan** dira. Bilakaerari begiratuta, nabarmentzekoa da Kolonbia, Honduras eta Saharako jatorrietako familietatik datozen erabiltzaileen gorakada azken 4 ikasturteetan.

#### 3.4.2.2. Udalak diruz lagundutako jarduerak. Kultur/aisialdi jarduerak.

##### 3.4.2.2.1. TTAK! taldea

- Taldeko **gehien gehienak emakumezkoak** dira, hamarretik bederatzi.
- Kide **guztiak dira 15-18** urte bitartekoak.
- **Ez dago ikastetxeen arteko desberdintasun nabarmenik**, normalean taldean apuntatzen direnez, kuadrillaren jatorriaren araberakoa izaten baita.
- Kide guztiak **jatorri euskaldunekoak** dira, familia euskaldunetakoak, nagusiki.

##### 3.4.2.2.2. Udalekuak (Udaixe programa)

- Programak bi atal ditu: 6ak baietz!, bi astetan banatutako ekintza sorta, eta Gaztekonkis, 4 eguneko irteera.
- Gaztetxokoetako profil antzekoa duten nerabeek hartzen dute parte udalekuetan ere. **Profil anitzetako** nerabeak biltzen ditu, udalak finantzatutakoa izanda familia gehiagoren eskura dagoen eskaintza baita.

### 3.4.2.3. Udalak diruz lagundutako jarduerak. Herriko elkarte eta kluben jarduerak.

#### 3.4.2.3.1. Txatxilipurdiren udalekuak

***Udaleku irekiak***

- Askotariko umeek hartzen dute parte: **bi ikastetxeetakoak eta jatorri anitzetakoak.** Hala ere, askoren parte-hartzea diru-laguntzen araberakoa izan ohi da.

- **Hiru gunetan** eskaintzen da zerbitzua (erdigunea, San Andres eta Musakola) eta auzoko familietako haurrak joaten dira batik bat.

- **Arizmendik antolatzen dituen udalekuen eragina** sumatzen dute, bertako ikasleak udaleku horietara joaten baitira.

***Udaleku itxiak***

- Gazteen **aniztasuna txikiagoa** da udaleku itxietan, kostu ekonomiko altuagoa dutelako.

- **Ikastetxe guztietako** nerabe eta gazteak joaten dira, baita beste herrietakoak ere.

- **Euskara** izaten da hizkuntza nagusia.

- **Arizmendiren udaleku itxien eragina** nabaritzen dute izen-emateetan, bertako ikasleen lehen aukera izaten baita normalean.

### 3.4.2.4. Hezkuntzako proiektuei diru-laguntzak

- Arrasateko Udalak ondorengo ezaugarriak dituzten irakaskuntza arautuan irabazi asmorik gabe diharduten ikastetxeek egindako jarduera eta proiektuentzako diru-laguntzak ematen ditu: hezkuntza, kultura eta kirol arloko jarduerak; eskolako hezkuntza proiektuak; berritzailetzat jotzen den material didaktiko berezia; eskola komunitatean euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta programak; Ikastetxeek hezkuntza arautuan bertsolaritza sustatzeko eginiko jarduerak; hezkuntza zabaltzeko jarduerak edo programak, komunitatean hezkuntza garatzeko programak, eta baita garapen iraunkorrarekin, hezkidetzarekin, berdintasunarekin eta bizikidetzarekin lotuta ikastetxeek lantzen dituzten eskola programak ere; irakaskuntzaren kalitatea sustatu eta eskola kudeaketa hobetzeko proiektuak edo programak; irakasleria prestatzeko jarduerak eta programak; eta Prestakuntza eta berrikuntza proiektuak, zein eskola curriculuma aberasteko proiektuak.

- Horrez gain, ikastetxe onuradunak LH eta DBHn ematen duten ikastetxeak izan behar dute, Arrasaten jardun behar dute eta LH zein DBHrako eskainitako jardunbideak izan behar dira.

- Ikastetxe bakoitzak LH eta DBHko duen ikasle kopuruaren arabera egiten da jasoko duen diru-laguntza kopuru totalaren kalkulua. Ondoren, aurkeztutako proiektuen baremazioa egiten da zenbait irizpideren arabera, esleituko zaion diru-laguntzaren kalkulua egiteko. **Herriaren garapenari eta euskararen normalizazioari lotutako proiektu berritzaile eta kalitatezkoak sustatzeko nahia** erakusten dute irizpideok.

## 3.4.3. Euskararen erabilera

### 3.4.3.1. Euskararen kale-erabilera adin tarteka

- 2021eko kale neurketaren arabera, **2-14 urteko haurrak dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak (%40,4)**, baina gaztarora heltzean euskara erabiltzeari uzten diote, %19,9ra jaisten dira zenbakiak. Edonola ere, erabilera berreskuratu egiten da hurrengo adin tartean, %37,4ra arte. **Adinekoak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak (%13).**

- Beste hizkuntzen erabilerari erreparatuta, **heldu gazteak eta gazteak dira erabiltzaile nagusiak (%5,5 eta %4,2).** Haurren artean ere badaude beste hizkuntzetan aritzen direnak (%3,3) eta, aldiz, oso gutxi dira adinekoak (%0,5).

- Bilakaerei erreparatuta, **joerak mantendu egiten dira**: haurrek jarraitzen dute euskara gehien erabiltzen eta adinekoek gutxien.

### 3.4.3.2. Euskararen kale-erabilera zonaldeka

- **Erdigunea da euskara gehien entzuten den zonaldea** (%32) eta gertutik jarraitzen diote Santamarina, Zerrajera eta Ulibarri-Erguinek (denak %28-29 erabileraren inguruan).

- **San Andres eta Zigarrola dira gaztelania gehien entzuten den zonaldeak** (%72,2 eta %80,9).

- **Bestelako hizkuntzek presentzia** dute Ulibarri-Erguinen (%5,2) eta Zerrajeran (%4,1) batez ere. Beste zonaldeetan entzuten dira kopuru apalagoetan, gutxien erdigunean.

- 2016-2021 artean euskararen kale-erabilerak **beheranzko joera** izan du erdigunean eta San Andres uzoan.

### 3.4.3.3. Eskola giroko erabilera orokorra eta egoeraren araberakoa

#### 3.4.3.3.1. LH4ko datuak

- **Euskararen erabilerak behera egin du** orokorrean azken 3 edizioetan, bai Euskadin (6,7 puntu) eta baita Arrasaten ere (18,6 puntu). Arrasaten EAEko bataz bestekotik gora kokatzen bada ere, jaitsiera handiagoa izan du azken urteotan. Egoera antzekoa da Arrueren lau egoeretan.

- **Neskek euskara gehiago erabiltzen dute** (%73,6) mutilek baino (%60,3). Azken edizioetan bietan jaitsiera egon bada ere, nabarmenagoa izan da mutilena (11,6 puntu). Hemen ere egoera antzekoa da Arrueren 4 egoeretan.

- Euskararen erabileran **galera handiagoa izan da errepikatzaileena** (24,5 puntu), ez-errepikatzaileena baino (18,2 puntu). Hala ere, ikasleen arteko gelako harremanetan beherakada handiagoa izan da ez-errepikatzaileena. Bestetik, errepikatzaileek askoz euskara gutxiago egiten dute irakasleekin gelan (%66,7) ez-errepikatzaileek baino (%80,5) eta beheranzko joera nabarmena izan da azken edizioetan. Antzekoa da egoera gelaz kanpoko harremanetan ere.

- **Etxeko hizkuntza euskara dutenek erabileran galera txiki bat izan dute, baina eusten diote** (%90,7tik %87,9ra azken 3 edizioetan). Bestelako hizkuntzak dituztenen erabilerak, berriz,

nabarmen egin du behera (%79,5etik %55,5era). Egoera guztietan aldea nabaria da bi taldeen artean, ikasleen arteko patioko erabileran, batez ere.

- **Hiru urte arteko hizkuntza euskara dutenek euskara gehiago** erabiltzen dute, baina **beheranzko joera** nabaria izan dute azken hiru edizioetan. Egoera guztietan joera berdintsua egon da.

##### 3.4.3.3.2. DBH2ko datuak

- **Arrasateko ikasleek EAEko bataz bestekoak baino** gehiago erabiltzen dute euskara, baina bi kasuetan **erabilerak nabarmen egin du behera** azken edizioetan, Arrasaten batez ere. Arrasaten, %68,3tik %49,1era jaitsi da (19,2 puntu); EAEren kasuan, berriz, %42,3tik %35,9ra (6,4 puntu). Lau egoeretan tendentziak antzekoak dira. Ikasleek irakasleekin euskara gehiago erabiltzen dute euren artean baino, eta gela barruan patioan baino gehiago.

- **Lehen mutilek neskek baino euskara gehiago egiten bazuten ere, azken edizioan bi sexuen arteko erabilerak gerturatu egin dira** (neskek %49,7 eta mutilek %48,4). Lau egoeretan erabileran dauden aldeak oso antzekoak dira. Oro har, mutilen erabileran izandako beherakada nabariagoagatik, lehen gehiago erabiltzen zuten arren, orain berdinduta dabiltza.

- **Errepikatzaileek askoz euskara gutxiago erabiltzen dute (%20,4) ez-errepikatzaileek baino (%52,4) eta beheranzko joera handiagoa izan dute** azken hiru edizioetan. Joera berbera da Arrueren lau egoeretan.

- **Aipatutako beheranzko joerak joera, etxe euskaldunetako gazteek euskara gehiago erabiltzen dute** (%66,9) ez-euskaldunetakoek baino (%38). Beherakada handiagoa izan dute azken hauek azken edizioetan (%19,2koa eta euskaldunetakoak %15ekoa). Tendentzia errepikatu egiten da lau egoeretan.

- **Hiru urte bete arteko hizkuntza euskara izan dutenen euskararen erabilera datuak hobeak dira besteen aldean**, baina etxeko hizkuntzarena baino kopuru baxuagoetan. Hemen ere behera egin du erabilerak, euskara izan ez dutenen kasuan, batez ere (18,7 puntu euskaradunek eta 22,4 besteek). Ikasleen arteko harremanetan, gelan zein patioan, euskara izan dutenen erabileran apur bat gora egin bazuen ere, hiru edizioak kontuan hartuta behera egin du. Euskararik izan ez dutenen kasuan beherakada jarraitua izan da.

##### 3.4.3.3.3. Kirol jardueretako hizkuntzen erabilera

- Soziolinguistika Klusterrak 2020an egindako azterketaren arabera, Arrasateko kirol jardueretan **%62,4an egiten da euskaraz eta %36,9an gazteleraz**. Gainerako %0,7an beste hizkuntza batzuetan egiten da. **Euskara gehien erabiltzen den kirol jarduerak gimnasia (%88,6) eta errugbia (%87,3)** dira eta, kontrara, erabilera apalena dutenak futbola (%54,2) eta saskibaloia (%55,4). Hala ere, esan beharra dago kiroletan euskararen erabilera gaztelerarena baina altuagoa dela. Saskibaloian soilik jaso ziren beste hizkuntzen presentzia adierazten zuten datuak (%1,9).

# 4. ONDORIO PARTEKATUAK eta ERRONKEN IDENTIFIKAZIOA

Hiru ardatzetan antolatu dira diagnostikoaren irakurketatik ateratako ondorio partekatuak. Ardatzez ardatz, deskribapen labur baten ostean, erronka ezberdinak identifikatu dira, baita bakoitzean dauden egungo hutsune edo beharrak ere. Azkenik, orain arteko prozesuan proposatutako ekintzak ere jaso dira.

## 4.1. Euskara

Euskararen erabilera, euskara ikasteko aukerak eta euskararekiko pertzepzioak.

Ez dakitenek hizkuntza ikastea ezinbesteko urratsa da hizkuntza komunitate baten biziraupenerako, baita dakitenek erabiltzen jarraitzea ere. Gainera, hizkuntza horren ezagutza, erabilera eta motibazioa estuki lotutako hiru faktore dira, izan ere, hizkuntza bat ikasten hasteko motibatuta egon behar da; erabiltzeko oinarrizko jakintza bat izan behar da; eta erabilgarritasunak motibazioan eragiten du zuzenean.

### *4.1.1. Erronka: gazteen euskara erabilera areagotzeko testuinguru seguru, erakargarri eta biziak sortzea, eskola eremutik haratago.*

Gazteak euskarara erakartzeko eta euren arteko erabilera areagotzeko euskaraz bizitzeko testuinguruak eta tresnak eskaini behar zaizkie. Eskolaz haratago, lagunartean eta eremu informaletan ere euskara erabili ahal izateko, beste erregistro batzuetan gaitu eta eroso sentitu daitezen, espazio seguruak sortu behar dira, afektibitatea ere kontuan hartuko dutenak. Hala, bizitzako esparru guztietan euskaraz aritzeko gai diren haur eta gazteak izatea izango da helburua, euskararen erabilera

*Arazoak/hutsuneak/beharrak*

Gazteekin lan egiten duten eragileetako ordezkariek adierazi dutenez, gazte askok euskara eskolarekin lotzen dute eta zenbaitek erresistentzia ere adierazi dute hizkuntzarekiko. Gainera, jatorri atzerritarreko familietako zenbait gaztek ez diote baliorik ikusten euskara ikasteari. Bizipen hauek zuzenean eragiten dute gazteen euskararen erabileran eta, hain zuzen ere, adin-tarte honetan behera egiten du euskararen kale-erabilerak. Horrez gain, eskola giroan ere bilakaerak beheranzko joera nabarmena izan du eremu guztietan.

- Kale erabilera datuen arabera, gazteena da euskara gutxien erabiltzen duen adin-tartea (%19,9) eta bilakaeran ez da hobekuntzarik ikusten.
- Erdigunean (%32) entzuten da euskara gehien eta gertutik jarraitzen diote Santamarina, Zerrejera eta Ulibarri-Erguinek, denak %28-29ko erabileraren inguruan. Zigarrola (%22,7) eta San Andres (%17,2) dira gaztelania gehien entzuten den zonaldeak.
- Eskola giroko erabileran behera egin dute LH4 eta DBH2ko datuek, eremu guztietan.
- Mutilen erabileraren beherakada nabarmenagoa izan da azken edizioetan.
- Etxeko hizkuntza euskara dutenek eusten diote erabilerari, galera txiki batekin. Bestelako hizkuntzak dituztenen erabilerak nabarmen egin du behera (%79,5etik %55,5era).

Aipatzekoa da eskolaz kanpoko jardueretan hizkuntzaren edo hizkuntza komunitateen araberako taldekatzeak sortzen direla eta bakoitza erosoen dagoen hizkuntzan aritzen dela. Hala, testuinguru

euskaldunagoetakoak dira euskara erabiltzen dutenak, baina hauen erabilera ere beherantz doa. Hori horrela, euskaratik urrunago dauden haur eta gazteek ez dute aukerarik modu natural eta bizigarrian euskara erabiltzeko eta, hortaz, ezta eremu informaleko erregistroak ikasi eta euskara gertu sentitzeko ere.

*Proposamenak*

- Hezkuntza ez-formaleko eragileekin elkarlanean euskararen erabilera eta ikasketa ludikoa sustatzeko ekimen bateratuen beharra: familiak, aisialdiko eragileak, kirola, eskolak, gazteen erreferenteak…

### *4.1.2. Erronka: Arrasaten euskara ikasteko aukerak zabaldu eta irisgarri egitea, gazte zein helduentzat eta euskalduntzeko baliabide gehiago jartzea.*

Eskolan eta eskolaz kanpo euskara ikasteko aukerak eta baliabideak izan behar dituzte haur eta gazteek, euskara ikastearen garrantziaz jabetuta. Horrez gain, euskara ez dakiten helduentzat ere aukerak zabaldu beharra dago. Ikasketa prozesu honek aurreko erronkan aipatutako testuinguruekin lotura izan behar luke, euskararen ikasketa ez dadin eskolara edo eremu formalera soilik lotu.

Euskara dakiten ikasleek emaitza hobeak lortzen dituztela kontuan hartuta, aukera berdintasuna bermatzeko beste urrats bat da euskararen ezagutzan aurrera pausuak ematea.

*Arazoak/hutsuneak/beharrak*

Euskara irakasteko eta ikasteko baliabide falta dagoela adierazi da (HIPIak, Eusle programa…). Gainera, ebaluazio diagnostikoek erakusten dute etxeko hizkuntza edo hiru urte bete arteko hizkuntza euskara duten ikasleek emaitza hobeak lortzen dituztela neurtzen diren arlo guztietan, bai LH4n, bai DBH2n. Hortaz, arlo akademikoan ere berebiziko garrantzia du euskararen ezagutzak.

Errefortzu programetan parte-hartze kopuruek gora egin dute azken urteetan eta gehiago dira 6-12 urteko ikasleak 12-16koak baino.  Ezberdintasuna nabariagoa da urtez urte. Parte-hartzaileen gehiengoa jatorri atzerritarreko familietakoa dela esan behar da.

Euskararen ezagutza mailak eragina du batxilergoko eta lanbide heziketako matrikulazioetan. Izan ere, aldaketa nabariak daude ikaste-maila ezberdinen artean: batxilergoa eta erdi zein goi mailako lanbide heziketa zikloetan D eredua da nagusi eta, oinarrizko lanbide heziketan, aldiz, A eredua. Helduen Hezkuntzan ere A ereduan daude matrikulatuta ikasle guztiak.

- Lanbide Heziketan 314 ikasle D ereduan, 106 ikasle A ereduan eta R ereduan 49 ikasle. D ereduak goranzko joera nabaria du, A eredua apur bat hazi da eta R ereduak gero eta matrikula gutxiago du.
- Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikula guztiak A eredukoak dira.

Familiak euskarara gerturatzeko faktore garrantzitsua izan daiteke gurasoek euskara ikastea. Horrez gain, seme-alaben hezkuntzan ere parte aktiboago izateko tresna gakoa da, ikasle guztiek D ereduan egiten baitituzte euren ikasketak. Hala ere, azken urteetan euskara ikasteko aukerak murriztu egin direla esan daiteke, Helduen Hezkuntzan egin diren matrikulazioek behera egin baitute nabarmen eta ez baita bestelako aukerarik zabaldu herrian.

Bestetik, ezin da ahaztu datozen urte eta hamarkadetarako prospekzio demografikoek diotena: hazkunde naturalaren datuek geroz eta hazkunde negatiboagoa erakutsiko dute eta migrazioak ekarritako biztanleekin konpentsatuko da. Beraz, espero izatekoa da etorkizun hurbilean euskara (eta gaztelania, akaso) ezagutzen ez duten biztanleak iritsiko direla Arrasatera eta hauek edota hauen seme-alabak euskalduntzeko beharra egongo dela.

- Helduen Hezkuntzan eskaintzen diren ikastaroetako matrikuletan beherakada egon da azken urteetan eta egun ikasle gutxien duen ikastaroa da (14 ikasle).
- Herrian ez da helduek euskara ikasteko bestelako eskaintzarik zabaldu. Euskara ikasten jende gutxiago dagoela esan daiteke, hortaz

*Proposamenak*

- Euskara ikasteak emaitza akademikoetan eragina duela komunikatu eta motibazio mezu gisa erabiltzea ikasle zein familiekin.
- Euskara ikasteko eskaintza herri mailatik aztertu eta pentsatzea, abian diren ekimenez gain (HIPI programa, errefortzu saioak, ZUAZ programa…), bestelako berriak ere abian jarrita (irakasle jubilatuekin lanketak, adibidez).

### *4.1.3. Erronka: matrikulazio garaietan euskal hiztunek bestelako hiztunekin nahasteko dituzten mugak gainditu eta desorekak ekiditea.*

Euskal hiztun diren familiek beste hiztun mota batzuekin nahasteko dituzten erresistentziak gainditu eta eremu askotarikoak sortzea beharrezkoa izango da herritar guztiek euskarara gerturatzeko aukerak izan ditzaten. Baina, hizkuntza gutxitua den heinean, euskararentzako arnasgune izango diren eta euskaldunak erdaldunduko ez dituzten testuinguruak izatea ere bermatu behar da. Hala, lehen eta hirugarren erronken arteko oreka bat bilatzea izango da gakoa.

*Arazo/hutsune/behar*

Zenbait familiek ikastola hautematen dute euskalduntzea posible egiteko ikastetxe modura eta honek matrikulazioan desorekak eragiten ditu. Horrez gain, eskolaz kanpoko jardueretan ere, ludoteken aukeraketan antzeko joerak nabaritu dira: familia euskaldun batzuek haurrak auzotik mugitzeko joera dute, gune euskaldunagoetara eramateko. Etxe euskaldunetako haurren euskalduntzeari mesede egin badiezaieke ere, mugimendu hauek segregatzaileak izan daitezke eta gainontzekoei testuinguru euskaldunak izatea galarazi.

Gainera, aisialdiko eskaintzan lan egiten duten hezitzaileek adierazi dute gazteek antzerako bereizketak sortzen dituztela, eta irizpide nagusiak hizkuntza komunitateak eta arrazoi sozioekonomiko edo kulturalak izaten direla. Hala, gazteen artean ohikoena kuadrillan edo eskola bereko taldeetan ibiltzea da.

## 4.2. Inklusioa

Arrasate, ertzetan dauden pertsonekiko inklusiboagoa egin.

Inklusioak, arreta jartzen du bereziki, egiturazkoak diren desparekotasunak sortzen dituen bazterketa, diskriminazio edo eskola-porrot egoeran egon daitezkeen pertsona edo giza taldetan.

Inklusioak, herritarren hezkuntzarako zein aisialdirako eskubideak benetan egikaritzea eragozten duten oztopoak identifikatu eta ezabatzea eskatzen du, eta etengabeko hobekuntzara bideratu. Inklusioak, pertsona guztien presentzia, parte-hartzea eta arrakasta bilatu behar ditu. Hemen, arrakasta, guztientzat bizitza bizigarriak eta duinak ziurtatzean datza. Partaidetza lotzen da, herriko, eskolako edo aisialdiko esperientzien pertinentziarekin, ahotsa edo iritzia ematearekin eta norbere ongizate pertsonal eta kolektiboaren balorazioarekin. Esandakoak esan, inklusiorako beharrezkoak dira, tokian toki etengabe hausnarketa kolektiboak eta hortik abiatuta garatu daitezkeen komunitate mailako esku hartzeak eta gizarte-eta hezkuntza-politikak martxan jartzea.

### *4.2.1. Erronka: Jatorri atzerritarreko familietako haur eta gazteen migrazio prozesuak duten eraginen lanketa eta herri-harrera abegitsua egiteko urratsak egitea*

Migrazio-prozesuak bizi izan dituzten familien eta haur eta gazteen dolu-prozesua egoki bizitzeko harrera duina:

Dolu migratzailea egin beharra dute familiek eta haien seme-alabek. Migratu beharra izan duten pertsonei, orokorrean, ez zaie aukerarik ematen dolu emozionala burutzeko, migratu duten pertsonen kultura balioan jartzeko espaziorik ere ez zaie eskaintzen, eta gainera, ez da atentzio berezirik jartzen tankerako prozesu bat bizi izanak dakarren traumari.

*Arazoak/beharrak/hutsuneak:*

Arrasatera datozen pertsonek bizitako migrazio prozesuen ondorioz izan ditzaketen behar emozional eta materialei (etxebizitza eskubidea bermatzea, udal zerbitzuak ezagutaraztea, bestelako eskubideen jabekuntza...) lekua egiteko espazio eta laguntzen beharra edo hutsunea dago. Familiei zein haur eta gazteei begirakoa izatea garrantzitsua da. Horrez gain, migrazio prozesuak bizitako pertsonen egoerari ere toki bat egin beharra (esperientziak, hizkuntzak, ohiturak…) dago harrera-herriko inklusio prozesuan.

Bestetik, Arrasatera datozen pertsona migratuei harrera egiteko dauden tresna edo prozedurak zein egiteko moduei erreparatzeko beharra ikusi da. Tresna edo protokolo hauei balioa aitortu behar zaie. Udalean harrera-protokoloa badago eta interesgarritzat jotzen da ikastetxeetan ere lantzea eta aplikatzea.

*Proposamenak*

- Dolu migratzailea burutzeko espazio eta programak pentsatzea.
- Inklusiorako aukerak eman ditzakeen harrera abegitsua egiteko estrategiak pentsatu.
- Harrera-protokolo ezberdinak aztertu (Udalean, ikastetxeetan, elkarteetan…) eta baloratu.
- Harrera-protokoloan ikasleen parte-hartzea ezinbestekoa dela ikusten da.

### *4.2.2. Erronka: Inklusiorako eta herri-kohesiorako oztopoen kontzientzia herrian zabaltzea: Jatorri atzerritarreko familietako haur eta gazteen presentzia desorekatua ikastetxeetan*

Matrikulazio sistemaren mugak herri-kohesioan duen eragina gainbegiratu eta herritarrak sentsibilizatu.

Matrikulazio sistema mugatua da eta ez da beti eraginkorra, ez baitu herriaren errealitatea kontuan hartzen. Udal-eskumenak hezkuntza esparruan mugatuak dira. Orain arte hartu diren neurriak ez dira nahikoa izan Arrasateko ikastetxeetan dagoen segregazio egoera aldatzeko.

Matrikulazio prozesuak berak sortu duen desorekak kezka berezia sortzen du. Eskolatze Batzordeak ezin du orekatu matrikula biziarekin ikastetxeetan dagoen jatorri eta maila sozio-ekonomikoaren araberako desoreka. Horrez gain, matrikulazioa prozedura berriak 2 urteko matrikulazioan eragindako lekualdaketak ere ez. Algoritmo baten bidez bideratzen dira matrikulak eta ez Arrasateko errealitatean oinarrituta. Eskola-plangintza herriko errealitatea eta beharrak ezagututa planifikatu behar da. Familiek egiten duten eskola-hautua ere kontuan hartu behar da desorekaz hitz egiterakoan.

Ikastetxeetako ikasleen jatorria eta ISEK mailak eskola emaitzetan daukan eraginean arreta jartzea beharrezkoa ikusi da. Ebaluazio diagnostikoaren emaitzak aztertuta ere, nabarmena da ISEK mailaren zein etxeko-hizkuntza edo adin-egokitasunaren arabera emaitzetan dauden ezberdintasunak. Testuinguru honetan balizko harreman bat ikusten da Batxilergoko eta OLH-ko ikasle profilarekin.

Orain artekoa aldatu egin behar da herri-kohesiorako beharrezkoa delako. Muga hauen aurrean, eta soluzioa hezkuntzatik soilik ez dela etorriko baloratuta, erronkaren norabidean zera planteatu da gogoetagai bezala:

- Zer egin daiteke herri mailan, sistemaren mugak gainditzeko?
- Eragin al dezakegu eskumen banaketa aldatzeko?
- Nola eragin dezakegu herri-kohesioan?

*Arazoak/hutsuneak/beharrak*

Ikastetxeen arteko matrikulazioan dagoen desoreka, ikasleen jatorriaren eta maila sozio-ekonomikoaren araberakoak dira. **Desoreka bereziki HH eta LHn etapetan antzematen da**. Herri eskolan dago jatorri atzerritarreko ikasle gehien. DBHren kasuan orekatuagoa dagoela ikusten da institutuan eta ikastolan; halaber, aipatu da, ikastolak LH-5etik gora jatorri atzerritarreko familietako ikasle heldu berri gehiago jasotzen dituelako izan daitekeela.

**Hezkuntza-zaurgarritasunari** begira, **ikasle atzerritarren** kontzentrazio altua dago Arrasaten, % 17 eta % 41 tartekoa da Haur eta Lehen hezkuntzan. Bigarren hezkuntzan, baxuagoa da % 10 eta % 12 tartekoa. Arrasate inguruko udalerrietako kontzentrazioa HHn eta LHn baxuagoa da (% 13-% 17 tartekoa); eta baita Bigarren Hezkuntzan ere (% 6,5-% 10).

**ISEK maila baxuko** ikasleen kontzentrazio maila altuagoak dira, Arrasaten, **ISEK maila baxuko** ikasleen proportzioa **LHn, % 14 eta % 20** tartean dago. Bigarren Hezkuntzan, Arrasateko kontzentrazioa **% 11 eta % 15** tarteko da. Arrasaten inguruko ia udalerri gehienetan HH eta LHn bertsua da, eta BHn baxuagoa Aretxabaletan izan ezik altuagoa dela hiru etapetan. **ISEK maila altuko** ikasleen proportzioa **LHn, % 11 eta % 18** tartean dago. Bigarren Hezkuntzan, altuagoa da, **% 16 eta % 44** tartekoa. Arrasate inguruko udalerrietan ISEK maila altuko ikasleen proportzioa berdina da Lehen Hezkuntzan, aldiz, BHn baxuagoa (% 0 eta % 11) da inguruko herrietan.

Eskolatze Batzordeak ezin du orekatu matrikula biziarekin ikastetxeetan dagoen jatorri eta maila sozio-ekonomikoaren araberako desoreka. Horrez gain, 2 urteko matrikulazioa prozedurak zaurgarritasun indizearen arabera eragindako lekualdaketek ere ez dute aldaketa nabaririk ekarri.

Zaurgarritasun Indizearen bidez, Arrasateko ikastetxe guztiak euren eragin-eremuko indizera hurbildu beharko lirateke 3 ikasturtetan, Haur Hezkuntzan. 2023-2024an, Arrasateko 2 urteko matrikulazioa kontuan izanik, ikastetxeak erreferentziazko indizera hurbildu beharko lirateke ondorengo **2 matrikulazio prozesuren buruan.** Arizmendiren kasuan, Gaztelupe guneko zaurgarritasun indizeak gora egin beharko luke 12,37 puntutan. Aldiz, kontrako norabidean, San Frantzisko Xabier gunearen indizeak **11,52 puntu jaitsi** beharko luke. Arrasate BHIren kasuan ere, indizeak **11,16 puntu jaitsi** beharko litzateke.

**Ebaluazio Diagnostikoaren** analisi eta proben inplikazioen jakitun izanik ere, zenbait datu aztertzea erabaki da izan ditzakeen eraginez hausnartzeko. Emaitzetan nabarmena da ISEK mailaren eta jatorriaren arabera emaitzetan ezberdintasunak.

LH 4

- **Errepikatzaileen** ISEK maila EAEko batezbestekotik gero eta gehiago aldentzen joan da hiru ediziotan (0,387). Ez-errepikatzaileen kasuan, EAEko batezbestekora hurbiltzen joan da hiru edizioren buruan.
- **Etxeko-hizkuntza** eta **hiru urte bete arteko hizkuntza euskara** ez den beste hizkuntza bat duten ikasleen ISEK maila EAEtik dezente aldentzen da. Bi aldagaien kasuan, aldea areagotu egin da hiru edizioren ostean: etxeko hizkuntza edo hiru urte bete arteko hizkuntza euskara ez ISEK mailak behera egiten duen heinean, euskara dutenen kasuan gora egiten du

DBH 2

- **Jaioterriaren arabera,** 2019an bertakoak %91,1 dira, lehen belaunaldikoak %7,3 eta bigarren belaunaldikoak, %1,6. Hiru kasuetan esanguratsuak ez diren gorabeherak izan dituzte. Lehen eta Bigarren belaunaldiko ikasle kopuruaren igoera ez da esanguratsua izan.
- **Adin-egokitasunari** erreparatuz, 2019an errepikatzaile kopurua zertxobait igo da (7 ikasle, eta ez-errepikatzaileak, 19 gehiago.
- **Etxeko-hizkuntza** euskara ez den beste hizkuntza bat dutenak %61,8 dira. Euskara dutenak, berriz, %38,2. Bi kasuetan gora behera txikiak izan dituzte.

Konpetentzien LH4ko eta DBH2ko ikasleen emaitzetan, errepikatzailea izan edo ez, euskara etxeko-hizkuntza izan edo ez, eta hiru urte arteko hizkuntza euskara izan edo ez aldagaiak modu esanguratsuan eragiten dute emaitzetan. Hortik abiatuz, nolabaiteko balizko harremana ikusten da Batxilergoko eta OLH-ko ikasle profilarekin.

LH 4

Euskara konpetentzia:

- **Ez-errepikatzaileen** puntuazioak errepikatzaileen **gainetik** daude. Aldea, baina, murrizten doa 57 puntutik 38,2 puntura jaitsiz.
- **Etxeko-hizkuntza** euskara duten ikasleen emaitzak **altuagoak** dira edizio guztietan, hala ere, aldea murrizten ari da: 28,7 puntutik 11,4ra igaro da.
- **Hiru urte bete arteko hizkuntza** euskara dutenen
- emaitzak **altuagoak** dira beste bat dutenenak baino. Bi kasuetan, gora behera txikiak daude.

Gaztelera konpetentzia:

- **Ez-errepikatzaileen** batezbesteko puntuazioak errepikatzaileenak altuagoak dira hiru ediziotan, aldeak areagotzen joan dira: 30,1 puntuko aldetik, 35,2 aldera.
- **Etxeko-hizkuntza** euskara duten ikasleen emaitzak hiru ediziotan altuagoak dira. Alde nabarmenena 2019an, 13,2 puntu.
- Euskara **hiru urte arteko hizkuntza** izan dutenen emaitzak hiru ediziotan altuagoak dira beste hizkuntza bat dutenenak baino. Alde nabarmenena 2019an, 16,7 puntu.

Matematika konpetentzia:

- **Ez-errepikatzaileen** puntuazioak altuagoak dira errepikatzaileenak baino. Hiru ediziotan aldea murrizten doa: 47,8 puntuko aldea izatetik, 31,2 izatera igaro da.
- Euskara **etxeko-hizkuntza** dutenen emaitzak altuagoak dira edizio guztietan (21,6, 25,5 eta 23,7). Bi kasuetan beheranzko joera ikusten da.
- Euskara **hiru urte arteko hizkuntza** dutenen emaitzak edizio guztietan altuagoak dira beste hizkuntza bat dutenekin alderatuz (26, 28,7 eta 27,4). Bi kasuetan beheranzko joera ikusten da.

DBH 2

Euskara konpetentzia:

- **Ez-errepikatzaile** eta **errepikatzaileen** arteko aldea areagotzen joan da hiru edizioren buruan: 38 puntukotik, 59,4 puntura igaro da.
- **Etxeko-hizkuntza** euskara duten ikasleen emaitzak hiru ediziotan altuagoak dira (24 puntutik gorako aldea). Alde nabarmenena 2019koa da, 28,9 puntu.
- **3 urte bete arteko hizkuntza** euskara dutenen emaitzak altuagoak dira beste bat dutenenak baino hiru ediziotan. Alde nabarmenena 2019koa da, 32,4 puntu.

Gaztelera konpetentzia:

- **Ez-errepikatzaileen** batezbestekoa altuagoa da errepikatzaileena baino edizio guztietan. Aldea, hiru ediziotan, 34 puntutik gorakoa da.
- **Etxeko-hizkuntza** euskara dutenen emaitzak altuagoak dira 2015 eta 2019an (bi kasuetan, 12,8ko aldea). 2017an, berriz, emaitzak ia parekoak dira.
- **3 urte bete arteko hizkuntza** euskara dutenen emaitzak altuagoak dira hiru ediziotan. 2019an dago alde handiena, 15,7 puntutakoa.

Matematika konpetentzia:

- **Ez-errepikatzaileen** batezbesteko puntuazioak altuagoak dira errepikatzaileenak baino. Hiru ediziotan aldeak areagotzen joan dira: 44,7 puntuko aldetik, 59,1era.
- Euskara **etxeko-hizkuntza** dutenen emaitzak altuagoak dira beste hizkuntza bat dutenenak baino, edizio guztietan. Aldea murrizten ari da: 27,8 puntuko aldetik, 20,7ra.
- **Hiru urte bete arteko** hizkuntza euskara izan dutenen kasuan, matematikako emaitzak altuagoak dira hiru ediziotan: 2015ean, 20,8; 2017an, 21,5 eta 2019an, 22,3.

*Proposamenak:*

- *Arrasatek hezi* berreskuratzea.
- Udalerrian, Udal Hezkuntza Kontseiluaren aukerak eta mugak aztertzea.
- Beharrezkoa eta garrantzitsua da herri edo mankomunitate mailarako hezkuntza-eskumen gehiago eskatzea. Hezkuntza-lege berriaren testuinguruari erreparatuz, Udal Hezkuntza Kontseilu bat izan eta herri-onurarako eskumenak emanez gero, zerbait egin daiteke eskola-segregazioa iraultzeko. Hala ere, Udal Hezkuntza Kontseiluak ez dira derrigorrezkoak legez. Bestetik, Herria, halere, ez dago prest aldaketa horretarako.

### *4.2.3. Erronka: Aniztasunaren balioa hedatu eta herritarrak sentsibilizatu.*

Arrasaten aniztasunean bizitzeak daukan balioa zabaldu eta sentsibilizazioa egitea kontzientzia sortzeko.

Arrasaten talde sozialen banaketa desorekatua dagoela ikusten da. Hirigintza planeamenduaren eraginez Txaeta auzoak ghetto izaera hartu du, auzoa segregatua geratu da. Auzoko familien ezaugarri sozial, ekonomiko eta demografiko homogeneoek ezaugarritzen dutela auzoa. Alokairu sozialetan daude familiak eta %90 Gizarte Zerbitzuetako laguntzen hartzailea da.

Arrasaten nabarmena da jatorri atzerritarreko familiek egoera zaurgarriagoa bizi dutela eta hiriko espazioaren banaketan ez dagoela banaketa orekaturik. Hiri-antolamenduak hori eragin badu ere, pertsonen kontzientzia faltak ere (ezberdinen arteko zubiak eta harremanak eraikitzeko interes falta) zeresana duela antzematen da.

Orobat, herritarrek eskola-segregazioari zein Txaetan antzematen den bizitoki-segregazioaren gainean izan dezaketen kontzientzia lantzea ere beharrezkoa dela ikusten da. Arrazakeria, xenofobia eta aporofobia gizarteetan errotuta dauden gaitzak dira eta gurean gehiago zabaldu ez daitezen lan egiteko erantzukidetasuna eta konpromisoa hartzea dagokigu. Aniztasunean bizitzeak bizikidetzan eta herri-kohesioan duen zeresana funtsezkoa da. Horrez gain, Udalak ikastetxeekin elkarlanen abiatu ditzakeen urrats eta proposamen berriei begirako estrategia ere izan daiteke.

*Arazoak/hutsuneak/beharrak:*

Bizitoki-segregazioa Txaeta auzoan. Txaeta auzoak ghetto izaera hartu du, auzoa segregatua geratu da. Familien ezaugarri sozial, ekonomiko eta demografiko homogeneoek ezaugarritzen dute auzoa. Herrian, aniztasunarekiko pertsonen kontzientzia maila eta jarrerak kezka puntua jartzen dute. Herriari dagokio justizia sozialaren izenean aniztasuna kulturartekotasuna bilakatzea.

- Gizarte Larrialdietako Laguntza (GLL) eskaera kopuru igoera egon da 2022tik 2023ra.
- Azken 5 urtetan, Txaeta auzoan babes ofizialeko etxebizitzak egin dira. Eusko Jaurlaritzako Etxebidek kudeatzen ditu Alokabideko etxebizitza hauek. Txaeta auzoan dute bizitokia familiek, alokairu sozialean bizi dira eta familien %90 Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileak dira, eta zehazki, GLLetako programako eskatzaileak.
- Hirigintza planeamenduak Txaeta auzoari izaera propioa eman dio eta ghetto bihurtu dela esan daiteke. Bertako bizilagunak jatorri-herrialde askotakoak dira, zaurgarritasun ekonomikoan daude eta herriarekiko lotura gutxi dute.

*Proposamenak:*

- Aniztasunarekiko eta herri-kohesiorako ekimenek harrera egokia izateko sentsibilizazio ekintzak egin.

## 4.3. Bizikidetza eta herri-kohesioa

Komunitate bezala zer egin elkarrekin bizitzeko herritar guztiak.

Bizikidetza ezberdintasunarekin bizitzen ikastea da ezberdintasuna aberasgarritasun moduan ulertu eta elkarrengaindiko eraldaketa potentzialaz jabetu eta, aldi berean, herri bezala, aniztasunean bizitzearen abantailez baliatzea pertsona eta komunitate bizigarri eta justuago bat izateko.

Herri-kohesioa, orokorrean, desberdinkeriaren aurka lan egitearekin lotu dezakegu. Beharrezkoa da komunitate ezberdinetan identitate ezberdinen hierarkizazioaren ondorioz sortzen diren zatiketak eta desparekotasunak gainditzea. Honi aurre egiteko, herri-kohesioa indartzea, talde-pertenentzia izatea, komunitateko kideekin parte hartzea eta balio zein errespetua partekatzea izan ditzake osagaiak.

Herri-kohesionatzeak onura komuna sortzen duten arloetara (hezkuntza, osasuna, zerbitzuak, etxebizitza, garraioa…) bideratutako estrategia eta politikak sustatzea eskatzen du, eta esperientzia inklusiboak komunitatean, esaterako, ikastetxe ezberdinetako ikasleentzako bizikidetza-eremu bera partekatzeko programak edota eskolaz kanpoko elkarrekintza sustatzeko jarduera pizgarriak.

### *4.3.1. Erronka: Eskolaz kanpoko eskaintza (EKE): eskola kirola eta parte hartzea kohesio aukera bihurtzeko erronka.*

Haur eta gazteen aisialdiko parte hartze ezaugarriak kontuan izanik, baina arreta berezia eskola kirolean jarriz, parte hartzeko aukera berdintasuna bermatu behar da Arrasaten. Eskola kiroleko parte hartzearen ezaugarrietan desorekak daudela ikusi da. Batetik, emakume eta gizonezkoan parte hartzean dago aldea; bestetik, ikastetxeen araberako aldeak murriztu beharko lirateke kohesiorako aukerak areagotu ahal izateko. Azkenik, etaparen arabera, DBHko lehen zikloan parte hartzeak beheranzko joera erakusten du. Adin tarte honetan kirolak harremanetan, integrazioan eta prebentzioan lagundu dezake. Gainera, jatorriaren araberako datuak eskuratzeko premia baloratzeaz gain, egoera desabantailatuan dauden familietako haur eta gazteen parte hartzean eragin dezaketen faktoreak (kultura, desberdinkeria, balio talkak…) ezagutu behar dira eta hori abiapuntu izanik eskaintza egokitu. Azkenik, Arrasateko aisialdiko eskaintza anitza aztertu eta herri mailako eskaintza bateratu bat artikulatzera igarotzeko premia dago.

*Arazoak/hutsuneak/beharrak*

Zehazki eskola kirolean ikusten diren araberako parte hartzean alde handiak ikusten dira **ikastetxeen** arabera.

> Eskola kirolean izena emandako ikasleen gehienak Ikastolan matrikulatutakoak dira, alde handiarekin (%72,89). Herri eskolan matrikulatutakoak %25,57 dira eta Institutukoak %1,53.

**Sexuaren** araberako aldeak ere nabariak direla ikusten da. Gizonezkoen parte hartzea altuagoa da eta goranzko joera erakusten du.

Eskola kiroleko parte-hartzaile kopuruak ez du gorabehera handirik izan azken 6 urteetan eta, azken 4 urteetako datuen arabera, askoz ere gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino: azken ikasturtean 424 gizonezko eta 229 emakumezko aritu dira eskola kirolean Arrasaten. Aldeak, gainera, goranzko joera erakusten du.

**Etaparen** arabera, LHkoak dira parte hartzaile ugarienak, batez ere LH 5-6. mailakoak. DBHn parte hartze datuak behera egiten dute.

LHko ikasleek hartzen dute parte eskola kirolean batez ere. 2022-2023 ikasturtean LH 5-6ko 417 ikasle, LH 3-4ko 372 ikasle eta LH 1-2ko 285 ikasle aritu ziren. Azken hiru urteei begiratuta, 2020-2021az geroztik gora egin dute partaideek eta azken urtean apur bat apaldu edo mantendu egin dira.

DBH 1-2ra igarotzean, kopuruak nabarmen egiten dute behera, azken hiru urteetan igoera txiki bat izan den arren. Aurreko ikasturtean 76 izan ziren eskola kirolean parte hartu zuten DBHko ikasleak.

Eskola kirolean **jatorri-herrialdearen** arabera parte hartzearen ezaugarriak ezagutzeko datuak eskuratzeko beharra dagoela ikusten da. Kirolaz aparte, zer beste eskaintza duten jakitea komeni da baloratzeko ea Arrasateko aisialdiko eskaintza pribilegio bat ote den edo ez. Arrazoi ekonomikoez gain, bestelako faktoreek ere parte hartzean eragiten dutenez, aukera berdintasuna eskaintzaren baitan artikulatzeko bidea egitea beharrezkoa dela ikusten da.

Jatorri atzerritarreko familietakoek parte-hartze gutxiago izan dezaketela ondorioztatu daiteke. Horren atzean dauden arrazoiak aztertzea interesgarria litzateke. Izan ere, udalak baditu bekak ekintza horretan parte hartzea laguntzeko (kostuaren %80ra arte estaltzeko aukera dago). Hortaz, ustea da, arrazoi ekonomikoez gain, badirela beste mota batzuetako arrazoiak ere parte hartze desoreka hori eragiten dutenak, hala nola, ohiturak, arrazoi kulturalak, eskaintzaren ezagutza falta, seme-alaba kopuru altuagoek dakarten lan-karga eta zaintza kontuak…

2022-2023 ikasturtean diru-laguntza jaso duten 39 familia egon dira. Familia horietatik 24k kuota orokorra ordaintzeko seme-alaba batentzako laguntza jaso dute, 12 familiek bi seme-alabentzakoa eta batek 3 seme-alabentzakoa. Horrez gain, 2 familiek kirol egokituaren kuota ordaintzeko seme-alaba banarentzako diru-laguntza jaso dute.

Aisialdian, **udako eskaintzan**, Txatxilipurdik eta ikastolak antolatutako udaleku irekien artean estaldurak edo bikoizketak ikusten dira. Ikastolako udalekuek Txatxilipurdikoekiko lehentasuna dute askotan, eta honek, ikastolakoen parte hartzean eragiten du. Herri kohesiora begira udako eskaintza bateratzeko aukerak aztertzea komeniko litzateke.

Udaleku irekiak:

- Askotariko umeek hartzen dute parte: bi ikastetxeetakoak eta jatorri anitzetakoak. Hala ere, askoren parte-hartzea diru-laguntzen araberakoa izan ohi da.
- Hiru gunetan eskaintzen da zerbitzua (erdigunea, San Andres eta Musakola) eta auzoko familietako haurrak joaten dira batik bat.
- Arizmendik antolatzen dituen udalekuen eragina sumatzen dute, bertako ikasleak udaleku horietara joaten baitira.

*Proposamenak*

- Eskola kirolean jatorri atzerritarreko familietako haur eta gazteen parte hartzea aztertu eta identifikatu egon daitezkeen faktore oztopatzaileak.
- Herri kohesiora begira udako eskaintza bateratzeko aukerak aztertu, eta bideragarri egitea.

### *4.3.2. Erronka: Haur eta gazteen babeserako prebentzioa eta tratu onak herriko bizikidetzarako palanka bihurtzeko erronka*

Arrasaten babesgabetasun egoeran aurki ditzakegun haur eta gazteak familien edo tutoreen axolagabekeriagatik da nagusiki. Horrek dituen ezaugarriak dira, esaterako: “behar psikikoekiko zabarkeria: elkarreragina eta afektua” eta tratu txarren barruan, “tratu txar emozionala” eta “gatazketan instrumentalizazioa” dira gehien errepikatzen direnak. “Adingabeen jokabidea kontrolatzeko ezintasuna” eta “estimulazio falta” ere oso presente daude esku-hartutako familietan.

Babesgabetasun egoeran dauden ikasleen kasuan, detekzioa berandu egiteak eragiten du igoera hori eta horretan arreta jartzea ezinbestekoa da. Izan ere, detekzio goiztiarra egiten ez bada, adingabeetan dakartzan ondorioak larriak dira.

Bestetik, berdinen arteko tratu txarrei dagokionez, Ebaluazio diagnostikoan argi ikusten da ISEK mailak baduela eragina datuetan. Ikastetxeek dituzten esku-hartze kopuruak esanguratsuak dira. Batetik, ikasleen arteko harremanetarako eta materialarekiko modu biolentoak dituzte. Bestetik, berdinen arteko biolentzia eta norbere buruarekiko biolentziak aipatzen dira, hala nola, erreakzio biolentoak dituzten haur eta nerabeak, autolesio kopuruen igoera, suizidio eta bullying protokoloen gero eta aktibazio goiztiarragoa… Arreta ematen duten gertakariak dira.

Azkenik, ikastetxeetan antzemateten diren zenbait errealitate identifikatzen dituzte (etxe tutelatuetako ikasleak, esku hartzeari uko egiten dioten familietako haur eta gazteak…) eta ikusten da Gizarte Zerbitzuetako eskumen banaketak gauzak konplexuago egiten dituela (GFA eta Udala).

*Arazoak/hutsuneak/beharrak*

Babesgabetasun egoerak ez dira auzo edo bizitoki jakin batean kokatzen eta familien jatorria Euskal Herrian edo espainiar estatuko beste komunitate batean kokatzen da.

- Familien %75en diru-sarrera bakarra euren kideen lanaren ondorio da. Diru-laguntzetatik soilik bizi diren familiak %7 dira.
- Babesgabetasun-egoerak ez daude auzo bakarrean, barreiatua dago Arrasaten. Portzentajeetan nabarmendu daitezke zentroa eta Santa Marina-Santa Teresa.
- Familietako helduen jatorriari dagokionez, gurasoen erdia gutxi gora behera Euskal Herrian eta espainiar estatuko komunitatea batean jaio dela. Beste erdiak migrazio prozesu bat bizi izan du, eta horietan ehuneko altuenak Hego Amerikarrak dira. Emakume migratu gehiago dago, portzentaia 11 puntu altuagoa delarik.
- Gehien detektatu diren babesgabetasun-egoerak axolagabekeria egoerak dira. Esaterako, “behar psikikoekiko zabarkeria: elkarreragina eta afektua” da gehien errepikatzen den babesgabetasun egoera, eta txostenaren arabera, 2021ean ere berdin gertatu zen. Txartu txarren barruan, “tratu txar emozionala” eta “gatazketan instrumentalizazioa” dira gehien errepikatzen direnak.
- Familien artean, gaur egun ohikoenak diren zailtasunak osasun mental arazoak, migrazio prozesuak, banaketa gatazkatsuak eta abandonu emozionala dira. Horrez gain, familia askoren artean zailtasunekiko kontzientzia maila mugatua arazo gehigarria da.

Prebentzioaren esparruan, familien eta gurasoen parte-hartzea eta inplikazioa ezinbestekoa da. Behar gehien duten familiak, oro har, ez dira Udaletik edo ikastetxetik antolatutako hitzaldi eta abarretara etortzen. Zailtasuna dago eremu honetan.  Nola egin daiteke prebentzioa eraginkorrago bihurtzeko?

- Esku hartuta dauden adin txikikoen %69 nerabeak dira. 12-17 adin tartea 1-17 adinaren herena da, baina esku hartze gehien ikusten den populazioa da. Aurreko urtearekin alderatuta, nerabeen portzentaia 14 puntu igo da, %55etik %69ra. Detekzio goiztiarragoa egiteko beharra nabarmen agerian uzten dute datuek.
- Adingabeen sorlekuari dagokionez, %62a espainiar estatuan jaioa da eta %4 estatu espainiarreko beste komunitate batean. Haur eta nerabeen ia %34ak migrazio internazional baten prozesua bizi izan du lehenengo pertsonan.

Ikastetxeetan, antzematen dituzten sintoma nagusiak nerabe eta gazteetan: Mutilen artean ohikoagoa da agresibitatea (fisikoa zein ahozkoa). Gero eta biolentzia gehiago dago. Nesken artean ohikoagoak dira auto exigentzia, depresioa eta autolesioak (norberarekiko biolentzia). LHn suizidio protokoloak gero eta goizago aktibatu behar izan dituzte. Azkenik, bullying kasuak ere ugaritzen ari dira. Gizarte Zerbitzuetatik, babesgabetasun egoeren ondorioz, adingabeek honako sintomak erakusten dituzte.

- Adin txikikoetan ohikoenak diren lau sintomak arreta arazoak, antsietatea/depresioa, isolamendua eta arazo sozialak dira. Sexuaren arabera, mutiletan jokabide agresiboa presenteago dago, jokabide delinkuentearekin batera.

Berdinen arteko tratu txarrei dagokionez, Ebaluazio diagnostikoan argi ikusten da aldagai ezberdinen araberako datuetan baduela eragina datuetan. Ikastetxeek ere berresten dituzte egiten diren esku-hartze kopuruak esanguratsuak kontuan izanik.

Arrasateko portzentajea EAEkoaren gainetik dago soilik 2015ean, (7,2 puntu). 2019an, %33,9ak tratu txarrak izan ditu. Beherakada apala ikusten da Arrasateko kasuan.
**Arrasateko LHko** ikastetxeetako tratu txar portzentajeetan aldagai ezberdinen arabera, honako hau ikusten da:

- Sexuaren arabera, bi kasuetan bariazioak izan ondoren, 2019an, neskak, 12,1 puntu jaitsi dute eta mutilek, 10,1 puntu igo.
- Ikasle errepikatzaileen tratu txar portzentajeak, hiru ediziotan zehar, beherakada nabarmena izan du, 41,7 puntu. Ez-errepikatzaileen kasuan, 2019an, 6,5 puntuko igoera izan du.
- Etxeko-hizkuntza euskara duten kasuan, tratu txar portzentajea 2017an nabarmen jaisten da (32,4 puntu. Beste hizkuntza bat dutenen kasuan, edizioz edizio, igoera apala dauka (5,9 puntu).
- Hiru urte bete arteko hizkuntza euskara duten kasuan, tratu txar portzentajea 2017an nabarmen jaisten da (16,3 puntu). Beste hizkuntza bat dutenen kasuan, edizioz edizio, jaitsiera apala dauka (1,4 puntu).

**DBH2-ko** tratu txarren ehunekoari begiratuta, Arrasateko eta EAEko portzentajeak antzekoak dira 2015ean izan ezik. Edizio horretan 10 puntu goitik ageri da Arrasateko tratu txarren portzentajea. Hiru edizioen buruan beherakada txikia ikusten da, %5ekoa.
Arrasateko ikastetxeetako tratu txar portzentajeetan aldagai ezberdinen arabera, honako hau ikusten da:

- Sarearen arabera, nesken kasuan oso ehuneko baxuak izan arren, 12,2 puntuko igoera dago hiru edizioren buruan. Mutilen kasuan, %40 izatetik, %23,5 izatera pasa da (16,5 puntu behera).
- Errepikatzaileen eta ez-errepikatzaileen kasuan tratu txar portzentajean gorabeherak izan dira. 2019an, errepikatzaileen kasuan, 18 puntuko igoera dago eta ez-errepikatzaileen kasuan, aldiz, 10 puntu igo.
- Etxeko-hizkuntza euskara dutenen kasuan, tratu txarren portzentajea, 2019an, 13,5 puntu igo da. Beste hizkuntza bat dutenen kasuan, 2019an, 8 puntu igotzen da.
- Hiru urte bete arteko hizkuntza euskara dutenen kasuan eta ez dutenen kasuan, igoera dago: euskara dutenen kasuan 4 puntu, eta beste hizkuntza bat dutenen kasuan, 14 puntu.

### *Proposamenak*

- Diagnostikoan jasotzen ez diren beste hainbat egora zaurgarri ere identifikatzea eta jasotzea ondo legoke.
- Nerabezaroan ageri daitezkeen arazo ohikoen prebentzio mekanismoak eta laguntzarako baliabideak jartzea Udalaren aldetik proposatzen da.
    - Ikastetxeetatik antzematen diren egoerak identifikatu eta jaso: etxe tutelatuetan bizi eta etengabe mugimenduan dauden ikasleen egoerak eta beharrak zein Gizarte Zerbitzuen laguntzari uko egiten dioten familiak…4.4. Bizikidetza eta herri-kohesioa

## 4.4. Estrategikotzat jo diren ekintzak

Atal hori amaiera emateko, prozesuaren helburuei lotuta, euskara, inklusioa eta bizikidetza eta herri-kohesioa ardatzen baitan dauden erronken azken lanketaren emaitza jaso da. Lanketarekin irudikatu nahi izan da ardatzen artean dagoen lotura eta sortzen diren elkarguneak.

Jarraian ikusten den 1 irudiaren helburua da, hiru ardatzen artean dauden elkarguneak eta horiek izan dezaketen izaera estrategikoa aditzera ematea. Hezkuntza Eragileen Languneak dokumentuaren eta irudiaren azterketaren ondotik, honako ekarpenak egin ditu:

**1. Irudia.**

*Erronken elkarguneak*




Lanketan azpimarratu da badirela erronka batzuk ez daudenak bi ardatzen artean kokatuta, baizik eta dena elikatzen dutenak. Baloratu da, erronka ezberdinak elikatzen dituzten elkarguneak asko erraztu dezaketela erronkei aurre egitea. Ekintza hauetan jarri da arreta:

- **Hezkuntza-komunitateen elkar ezagutza**: hartzen du inklusiotik, bizikidetzatik eta euskaratik. Euskararako hurbilpena erraztuko luke elkar ezagutza eta elkarren aitortzak.
- **Aisialdia**: urteetan ikusi da oso joskera ona duela, aberatsa. Gero eta gehiago aisialditik kontutan hartzen da. Ezagutza berria ematen du, sozializaziorako espazioa, ohiturak aldatzeko aukera. zein garrantzitsua den. Nerabeei ere eskaintza zabaltzeko bidea egin behar da komunitateko agente aktibo direla konturatzea eta horretarako plaza eskaintzea. Eskolaz Kanpoko Ekintzetan beka-sistema bat artikulatu, kirol-jarduerez gain beste jarduera batzuetara hedatuz.

- **Harrera-protokoloa**: ez da soilik bizikidetzari begirakoa, euskarak eta aisialdiak ere behar dute. Herrirako harrera-protokoloa orokorra izan behar da eta, hainbat eremutan protokolo zehatzak izan behar dira, hezkuntzan kasu. Azpimarratu behar da harremanak egitearen garrantzia, sareak eraiki, euskara oinarri hartuta.
- **Errefortzua**: Euskaratik bakarrik ikusten da, baina horrek, nolabait, elkarbizitza eta herri-kohesioa ere elikatzen ditu. Dagoeneko herritar jubilatuekin lanketa egiteko saiakera abiatu da.
- **Akonpainamendu programak**: Duten interesagatik eta garai batean egin zen saiakera ere ikusita, erdigunean egon behar du.
- Hezkuntza-komunitateko (ikastetxeak, gurasoak, ikasleak, HHE, euskaltegia, herriko eragileak...) **eragileen arteko kohesioa, elkarkidetza eta elkarlana**. Horrek guzti horri forma ematen lagunduko lioke.

Ardatz bakoitzari begira, beren beregi zera zehaztu da:

- **Euskara**: bi alderdi daude, batetik, ikastetxeetako familiek dioten eran, beraien seme-alabak elkarrekin daudenean euskaraz hitz egitea lortu behar da, eta hau bizikidetzatik ere ulertu behar da. Bestetik, gazte eta helduei begira, ezagutza sustatu behar da erabileran eragiteko. Euskararen beharra eta motibazioan eragin asmoz, aniztasun gehien duten aisialdiko ekintzak identifikatu eta esku hartu, berariazko hizkuntza-politikak sortuz.
- **Bizikidetza** ardatzean, haur eta gazteen babesa eta tratu onei dagokionez, hau jaso da:
    - **Haur eta gazteen babesa eta prebentzio eraginkorra**: ikastetxeak dira detekzio iturri nagusi. Herrian, eskura egon daitezkeen agente/eragile denak baliatu behar dira: gizarte zerbitzuak, euskaltegiak, bolondresak... Guztien arteko koordinazioa da beharrezkoa. geratzen diren egoerak zergatik gertatzen diren ez da ulertzen eta, hori jakitea eta ulertzea, laguntzeko ezinbestekoa da.
    - **Tratu onak**: berdinen arteko tratu txarrak kontuan hartuta, askotan ikusi da jazarpen protokoloak aktibatzen direnean, gertakari asko eskola-eremutik kanpo gertatzen direla, hezkuntza ez-formaleko eragileen jarduaretan. Horrek eragina izaten du ikastetxean eta batzuetan gurasoak ikastetxera etorri ohi dira konponbideak eskatzera (gelan gertatzen ez dena nola gertatzen den han jakiteko). Gai honen inguruko koordinazioa, formazioa... beharrezkoa da.

Planteamendu hauetan lehentasunak ere ikusi ahal izan dira:

- **Antolaketa-egitura bat behar da**: lan-espazioa bat edo mahai bat; hasieran udal hezkuntza kontseilua planteatu da. Kontseiluekin esperientzia ez da ona izan, orduan herrikoiagoa izan behar da. Herriak hezi behar duen ideia bildu behar du. Aurrera begira, Arrasatek hezi dokumentuak hartu ditugu eta nahia da uztartzea diagnositik abiatutakoari forma ematea.
- **Aisialdia eta sentsibilizazioak garrantzia maila altu dauka**. Sare bat sortu behar da irisgarritasunerako, zailtasunak dituztenentzako, hizkuntza-politika eta baita jazarpena eta protokoloen gaiak. Hezkuntza formal eta ez-formalaren arteko koordinazioa bultzatu behar da jazarpen protokoloak bideratzeko. Sentsibilizazioaren gaia ere oso garrantzitsua da, banaketak eta segregazioak ez gertatzeko aurrerantzean.

- **Harrera-protokoloa** eta horren baitan espezifikoak diren alderdien harrera-antolaketa. Hori dena euskaratik egin behar da. Harrera eta inklusiorako aukera landu behar dugu. Zailtasuna da hizkuntza ikastea, baina ez hurbiltzeko edo elkarbizitzarako.
- **Euskara eta euskaratik**: euskaratik egin behar da, euskara bera izan dadila tresna.
- **Herrira begirako komunikazioa**: Herriak jakin behar du zer den eta zelan lan egin den elkarrekin.
- **Estrategia**: abiapuntuak egingarria izan behar du, frustrazio handirik eragingo ez duena. Beste ‘satelite’ batzuk bateratuko dituen erronka bat hartu behar da abiapuntutzat, bestelako ekintzak eta erronkak antolatzen lagunduko duena.

# 5. AZKEN GOGOETAK

## 5.1. Euskara

Euskararen normalizazioa izan da diagnostiko honen ondorioetan eta etorkizuneko erronketan nabarmendu den ardatz nagusietako bat. Hain zuzen, identifikatutako erronkak gogora ekarrita, fokua jarri da gazteek eskola eremutik haratago euskara erabiltzeko testuinguru seguru, erakargarri eta biziak sortzean; euskara ikasteko aukerak zabaldu eta irisgarri egitean; eta matrikulazio garaietan euskal hiztunek bestelako hiztunekin nahasteko dituzten mugak gainditu eta desorekak ekiditean. Ondorioztatutako puntu hauek guztiz bat datoz ikerketa-lanek agerian jarri dituzten euskararen normalizaziorako erronka eta korapiloekin, jarraian azalduko den moduan.

Hizkuntzen biziraupena bermatzeko hiztunak behar direla esan beharrik ez dago, eta, Txepetxen arabera, hizkuntzen ikasketa-prozesuan oinarrizko hiru faktorek eragiten dute: ezagutza, erabilera eta motibazioa (Sánchez Carrión, 1987). Hala, hizkuntzaren ikasketa naturala denean (haurtzaroan gertatzen dena), berezko erabilera, ezagutza eta motibazioa garatzen dira, inguruan entzuten diren hizkuntzetan. Aldiz, ikasketa beranduago gertatzen denean, prozesu kulturala ematen da, eta induzituak izaten dira motibazioa, ezagutza eta erabilera. Era berean, hiru faktoreak elkarren osagarri eta elkarren menpeko dira. “Sus relaciones se asemejan a la de los vasos comunicantes” (Sánchez Carrión, 1987: 35).

Hortaz, etxetik euskaldunak direnen kasuan, berezkoa izango da euskara ikasteko prozesua, baina beharrezkoa izango da motibazioari eustea hizkuntza erabiltzen eta garatzen jarraitzeko. Berriz, etxetik euskaldunak ez direnentzako ezinbestekoa izango da euskara ikasten hasteko eta jarraitzeko motibazio iturriak topatzea. Motibazio iturri hauek barnekoak edo kanpokoak izan daitezke (Amorrortu et al., 2009): lehenaren barruan sartzen dira nahi pertsonalak edo identitate zein integrazio arrazoiek eragindakoak; bigarrenean, aldiz, arrazoi instrumentalagoak dira nagusi, baita gizarte presioagatik sortutako integraziorako arrazoiak ere.

Egungo euskara ezagutza eta erabileraren egoerari erreparatuta, aski zabaldua da bidegurutzean gaudela dioen ideia, inoiz baino ezagutza datu hobeak izanda ere, ezagutzaren eta erabileraren arteko tartea gero eta zabalagoa baita (Amonarriz & Martinez de Lagos, 2017). Hain zuzen ere, Soziolinguistika Klusterrak 2021ean egindako hizkuntzen erabileraren kale neurketaren arabera, euskal hiztun profila aldatzen ari da, eta “orain askoz ugariagoak dira euskara jakin arren erdaraz (frantsesez edo gaztelaniaz) hobeto moldatzen direnak” (Soziolinguistika Klusterra, 2022: 8).

Hari beretik, Iñaki Iurrebasok (2023) euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko aldeak aztertu ditu, ezagutza mailak kontuan hartuta. Ikerlan horretan, intuizio askoren kontrara, zera ondorioztatu du: dagoen euskararen gaitasun mailarako, erabilera datuak oso onak direla. Izan ere, euskararen erabileraz eta ezagutzaz hitz egiterakoan, ezin dira datu orokorretan oinarritutako ondorioak atera. Ezinbestean kontuan izan behar da euskara jakinda ere, gutxiengoa sentitzen dela euskaraz erosoago (hiztunen %8,2) eta euskara erabiltzeko aukerak ere mugatuak direla, solaskideak euskaraz dakien kasuetan soilik erabili baitaiteke (Euskal Herriko hiztunen arteko harremanen %17,8an egin daiteke euskaraz, gehienez). Hori jakinda, euskararen erabilera nahiko altua dela ondorioztatu daiteke, erabilera aitortua %14,9 izanda, erabilera erosoaren gainetik eta gehienezko erabileratik gertu kokatzen baita. Datu horiei begiratuta, euskaldunok euskara erabiltzen jarraitzeko motibazio-iturri sendoak ditugula esan daiteke, baina, ezagutzan eta erabileran eragin nahi bada, euskaraz eroso sentitzen diren hiztunak eta euskara erabiltzeko nahia edota premia sortu behar dira.

Hezkuntza eta haur-gazteen eremura etorrita, Zalbideren (2016: 122) hitzetan, “hizkuntzaren jardungune formal-jasoetan egiten ari garen aurrerabide ukaezina ez da gai, jardungune informal-intimoetako atzerabide hori frenatzeko”. Eskolak eremu formalean eta euskararen ezagutzan egin dituen aurrerapausoak ikaragarriak izan badira ere, eskolatik kanpo hizkuntza erabiltzeko aukerarik eta beharrik sortu gabe zaila izango da oinarrizko gaitasun horiek garatu eta euskaraz eroso aritzen diren hiztunak sortzea. Hala, “eskolaz kanpoko erabilera ardatz izango duen lehentasun-eskema berria eratu beharra”-z hitz egiten du Zalbidek (2016: 127). Eskolaren egiteko eta erronka dira etxetik euskaldunak direnen gaitasunak zabaldu eta aberastea; baita, etxetik euskararik jasotzen ez dutenek euskararen oinarrizko maila bat eskuratzea ere, baina hori ez da nahikoa eta eskola eremuak gainditu eta familia, guraso-elkarte eta inguruko kultura-, kirol- eta aisialdi-elkarteak kontuan hartzen dituzten hizkuntza-proiektuak garatu beharra dago (Aztiker, 2021).

Bestetik, Iurrebaso (2023) eta Zalbidek (2016) bat egiten dute arnasguneak babesteko beharraren ideian. Izan ere, euskal nagusitasunezko hiztunak ekoizten dituzten inguruneak izanda, horien galerak hiztun-komunitate osoan eragiten du, euskarari eutsiko dioten eta euskaraz aritzera bultzatzen duten testuinguruak baitira. Gainera, aurrez aipatu diren jardungune informal-intimoak hutsetik sortzea baino funtsezkoagoa da bizirik dauden gune euskaldunetan nagusitasun hori sendotzea eta zabaltzea. Hala, hurbilpen honek norbanakoen euskalduntze prozesuetatik testuinguruen euskalduntze/erdalduntze terminoetan pentsatzera garamatza, banakako dimentsioaz gain, inguruan ere arreta jarriz. Bada, hizkuntza erabiltzeko ezagutza nahikoa dagoen kasuetan, harremanetarako hizkuntzaren aukeraketan arau sozialek zeresan handia dute eta, ohartu gabe, norbanakoak indarrean dagoen arau sozialak ezarritakoaren arabera hautatzen du harremanetarako hizkuntza (Martinez de Luna, 1996). Hortaz, euskara erabiltzeko norbanakoaren dimentsioaz gain (gaitasuna eta motibazioa), kontuan hartu beharko dira dimentsio mikrosoziala (gizarte egoerak eta gizarte-sareak) eta dimentsio makrosoziala (gizartearen babesa, lege-estatusa eta hizkuntza-politika eraginkorra) (Martinez de Luna, 2012).

Orain arte esandakoekin guztiz bat datoz Arrasaterako identifikatutako erronkak. Alde batetik, euskara ikasteko aukerak bermatu nahi dira, etxetik euskaldun ez direnek oinarrizko ezagutza eskuratu dezaten. Bestetik, ezagutza zabaldu eta sakontzeko eskolaz kanpoko testuinguruak eskaini nahi dira, euskara erabiltzeko espazio seguru eta erakargarriak sortu eta euskaraz eroso aritzen diren hiztunak sortzeko. Halaber, euskal hiztunak bestelako hiztunekin nahasteko erronka tentuz egin beharreko ariketa da, begi kolpe batean kontrajarriak diruditen bi arretagune ukitzen baititu: euskal hiztun komunitate trinkoak babestu beharra eta euskarara datozen hiztunei solasgune naturalak eskaini beharra.

Hori horrela delarik, berebiziko garrantzia hartzen du hiztun komunitate ezberdinen arteko harremanetan euskara zentroan jartzeak. Mugimendu hau eremu formal zein ez-formaletan egin beharra dago, aurrez aipatu diren erronkei eutsiko bazaie. Alde batetik, euskal eskolak euskararen biziberritzea eta gizarteko talde guztien integrazioa bermatzea izan behar luke helburu (Garaio, 2022); eta, bestetik, Altunak (2023) dio eskolaren eta kalearen artean dagoen eremu ez-formala hizkuntzaren hirugarren espazio aproposa izan daiteke, euskararen babesgune gisa antolatuta, euskararen erabilera eroso baterako baldintzak sortu eta garatzeko.

Azkenik, ondorengo ataletan aipatuko den moduan, ez da ahaztu behar euskara nahikotasunez ikastea gizarte-kohesiorako eta integraziorako gako direla gure gizartean. Migrazio tasen gorakadak aurreikusten diren garai honetan, estrategikoa izango da euskara ikasteko eta erabiltzeko eremuak sortzea, bai hizkuntzaren biziraupenaren ikuspegitik, baita bizikidetzarenetik ere.

## 5.2. Inklusioa

### 5.2.1. Inklusioa eta ekitatea: aniztasuna balioan jarri eta hedatu

Hezkuntza-inklusioa prozesu gisa ulertzea indargune nagusi bat da. Aniztasunari erantzuteko etengabeko bilaketa eta hobekuntza dakar ulerkera horrek (Ainscow, 2009), politika, praktika eta balore aldaketari bidea irekitzen baitio. Norabide horretan, beharrezkoa da inklusioak zer esan nahi duen eta zein ekintza egin behar diren hausnartzea eta politika eta praktika inklusiboagoak inplikatzen duena argitzea.

Etengabeko prozesu edo bidaia horrek alderdi ezberdinak (Opertti, Walker eta Zhang, 2014) kontuan hartzea dakar: giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta, talde baztertuei erantzuna eta hezkuntza-sistemaren eraldaketa. Inklusioa eraldaketa prozesu gisa ikusterakoan, hezkuntzatik bazterketa-prozesuak eta arraza, egoera ekonomikoa, gizarte-klasea, sexu-orientazioa, etnia, erlijioa, generoa, hizkuntzari dagokionez aniztasunarekiko jarrera edo erantzun negatiboak ezabatzea azpimarratu nahi da (UNESCO 2009).

Aldaketa prozesuetan, begirada eskolan, eskolen artean eta komunitatean jarri beharra dago (Escudero, 2016). Gure testuinguruan bi gai dira nabarmentzekoak: ohiko epez kanpoko eskola-matrikulazioak eta ikasgeletako kultura-aniztasuna. Bi alderdiak funtsezkoak dira etorkizunari begira, alde batetik, bidegabekeriak eragin ditzaketen egoerak identifikatzeko; eta, bestetik, ikasgeletako aniztasuna gero eta handiago izango dela aurreikusten denez, (Moreno, 2017) honekiko erantzun osoagoak pentsatzeko. Bai jatorriagatik, bai maila sozioekonomikoagatik ikastetxe batzuetan dagoen segregazio egoerari tokiko hezkuntza sareei(Mujis et all, 2011) erantzuna pentsatzea eta elkarlan aukerak bideratzea dagokie. Eskola-segregazioak, justizia sozialerako aukerak gutxitzeaz gain, harrera-herri inklusibo eta komunitario kolektiboak eraikitzeko zubiak ixten ditu, besteak beste, migratuen seme-alaben eta autoktonoen seme-alaben arteko hartu-emana galarazten duelarik (Fullaondo, 2017).

Hori kontuan izanik, ezkuntzan ekitatea (Harris, Carrington eta Ainscow, 2017) hobetzeko urratsakhiru eremutan arreta jarri eta elkarren arteko beharraz jabetzera garamatza inklusio eta ekitatearen norabidean urratsak ematerako orduan:

- **Eskolako faktoreak:** hezkuntza-komunitatearen ahotsetan ageri direnak. Gogoetarako espazio eta denborak irekitzea, lanbidearekiko gogoetak egitea eta ikasleei ere ahotsa ematea. Horretaz gain, elkarlaneko sareak sortzeko aukerak baloratzea aberasgarria izan daiteke.
- **Eskolen arteko faktoreak**: beste eskoletako ikaskideen ahotsean ardaztuak. Inklusio eta ekitatearen lorpenean eskolen arteko elkarlan kultura eraiki behar da. Elkarlan horrek laguntzen du ikastetxeen arteko lehia mugatzen eta aniztasunari egokiago erantzuten (Ainscow, 2010; Chapman y Hadfield, 2010; Mujis et all, 2011).
- **Eskolez haragoko faktoreak**: tokiko agintari, erakunde eta eragileen ahotsetan zentratuak. Eskola aldaketak ezin du eskolen gain soilik geratu, aldaketa estuki lotuta dago bai barruko zein kanpoko faktore eta partaideekin (Ainscow, Dyson, Goldrick, eta West, 2012). Horrek esan nahi du eskolen erronkak ez direla ikastetxearenak, baizik eta ikastetxeen, erakunde publikoen eta komunitatearen arteko sinergien emaitza dela bai ekitatea, baita herritartzea ere. Erronka garrantzitsua eta beharrezkoa da komunitateko eragileen eta erakunde publikoen konpromisoa (Di Napoli, Dolce, eta Arcidiacono, 2019).

### 5.2.2. Harrera-herriaren erronka: migrazioa-prozesuak, dolua eta harrera.

Migrazio-prozesuak dimentsio askotarikoa duten fenomenoak dira, eta hainbat alderdi sozial, ekonomiko, kultural eta politiko hartzen dituzte barnean. Jatorri atzerritarreko familiek erronka askori aurre egin behar diote harrera-herrira heltzean. Familiek inklusio prozesuan alderdi sozioekonomikoek, familia-egiturak edo herritartzeko moduek eta balioek eragin zuzena izaten dute (Portes, Fernández-Kelly eta Haller, 2006).

Migrazio-prozesuek sor ditzaketen erronkei herri-ikuspegitik erantzun behar zaie. Askotariko dimentsioetan aurki ditzakegu erronkak (García eta González, 2022):

- Pertsona migratuek zailtasunak izaten dituzte harrera-kulturan eta ohituretara egokitu, eta horrek gatazka eta tentsio sozialak sor ditzake.
- Migratzaileak beren jatorri etnikoan, nazionalitatean edo hizkuntzan oinarritutako diskriminazioaren eta aurreiritzien biktima dira askotan, eta hori oztopo larria da harrera abegikorrak gauzatzerakoan.
- Oinarrizko zerbitzuetarako sarbideari dagokionez, oztopoak izan ditzakete oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko, hala nola, arreta medikoa, hezkuntza eta etxebizitza harrera-herrialdean; oztopo linguistiko, administratibo edo diskriminatzaileak direla eta.
- Lan-esplotazioa: Migratzaileak lan-esplotazioaren, lan-prekarizazioaren eta harrera-herrian gizarte-babesik gabe egonik, kalteberagoak dira eta horrek eragina izan dezake haien giza eskubideen babesean, osasunean eta ongizatean, besteak beste.
- Familiatik aldentzea: Migrazio-prozesuek familiak eta maiteak diren pertsonengandik banatzea ekar dezakete, eta horrek eragin negatiboa izan dezake migratzaileen osasun emozionalean eta ongizatean.

Erronka horiei aurre egiteko, tokiko migrazio-politika eta estrategia inklusiboak, migratzaileen giza eskubideak errespetatzea eta harrera-herriko aniztasunaren eta kulturartekotasunaren sentsibilizazio eta sustapen handiagoa behar dira. Giza eskubideen urraketa eta esplotazioa salatzeaz gain, arreta berezia eskatzen dute migrazio-dolua haurtzaroan eta nerabezaroan bizi dutenek. Prozesu konplexua da, haurrek eta gazteek beren errealitate berrira modu osasungarrian egokitzeko eta bidean sor daitezkeen zailtasun emozionalak gainditzeko arreta eta laguntza behar dute (Marzana, Alfieri eta Marta, 2016).

Haurtzaroko eta nerabezaroko migrazio-doluak prozesu emozional eta psikologikoa da, eta jatorrizko herrialdea utzi eta beste leku batera bizitzera behartuta dauden haur eta gazteek jasaten dute. Dolu hori hainbat modutan ager daiteke, hala nola, tristura, nostalgia, antsietatea, amorrua, nahasmena, besteak beste (Villaverde, 2015). Haur eta nerabeentzat, migrazio-dolua maneiatzea bereziki zaila izan daiteke, nortasunak eta kidetasunak funtsezko papera betetzen duten garapen-etapa batean baitaude. Familiaren, lagunen, eskolaren eta jatorrizko kulturaren galerak nabarmen eragin diezaioke haien ongizate emozionalari eta ingurune berrira egokitzeari.

Garrantzitsua da komunitate begiradatik, gurasoek, eskolek, zaintzaileek eta osasun mentaleko profesionalek haur eta nerabeen migrazio-doluaren seinaleei adi egotea, eta emozioak modu osasungarrian prozesatu ahal izateko beharrezko laguntza ematea. Horren barruan sar daitezke

banakako edo familiako terapian parte hartzea, gizarteratzea sustatzen duten jolas-jarduerak, eta haien sustrai kulturalekiko lotura sustatzea.

Jatorri atzerritarreko familietako haur eta gazteen migrazio prozesuek duten eragina kontuan izanda, inklusio prozesuak bi norabidetan (Klarenbeek, 2021) izan behar dela jabetzen gara. Alde batetik, barrukoek edo jada barne daudenek kanpokoaren inklusioan eragiten dute; bestetik, kanpokoek barrukoen inklusioan eragin dezakete; eta azkenik, barrukoak eta kanpokoak elkarren artean inklusioan eragiten dute. Begirada honek, integrazio prozesuaren norabide bakarreko integrazio-ikuskeratik urruntzen lagun gaitzakete.

Orain arte esandakoak kontuan hartzekoak dira pertsona migratuen harrera-plana egiterako orduan. Bai begirada komunitarioa eta inklusio-prozesuan beharrezkoa den bi norabidetako eragina, harrera gertuagokoa eta abegitsuagoa izateko. Alde batetik, herritarrek pertsona migratuen harrera unean parte hartzeko eta aniztasuna balioan jartzeko, sentsibilizatu eta aniztasunaren balioa hedatu behar da. Herritarren prestakuntzak gizarte-kohesioan tresna gisa lagundu dezake. Hezkuntza prozesu gisa ere, kontzientzia kolektiboa sortzeko, herritartasun aktiboa ikasteko eta garapen pertsonal eta sozialerako. Gizartearen heziketa komunitarioak, beraz, herritartasun aktiboa bultza dezake, ikaskuntza eta parte-hartzea sustatuz. Herritarren parte-hartzeak politika publikoen kalitatea hobetzen, gizarte-adostasunak sortzen eta herritarren ezagutza hobea eta prestakuntza politikoa sustatzen laguntzen du.

## 5.3. Bizikidetza eta herri-kohesioa

### 5.3.1. Aisialdi inklusiboa, bizikidetza eta herri-kohesiorako

Haur eta nerabeen garapen integralerako esperientzien egokitasuna ingurunearekin eta jaiotzen direnetik egunero beraiekin bizi diren pertsonen aniztasunarekin dituen elkarrekintzen emaitza da. Familia, lagunak, bizilagunak, eskola, kultura-guneak, kirol- eta aisialdi-zerbitzuak eta abar, hezkuntzan funtzioak dituzten gizarte-eragileak dira, eta, bakoitzaren ezaugarriak eta rolak desberdinak izan arren, guztiak dira garrantzitsuak hezkuntza-prozesuan (Longás et. al, 2022).

Jakina da eragina biderkatu egiten dela hezkuntza-eragileen arteko harremanak sinergikoak direnean (helburu partekatuak lortzeko koordinatu eta lagundu egiten direnean), harreman osagarriak direnean (bakoitzak funtzio sozial espezifikoa du) eta interferentzia-harremanak saihesten direnean (bakoitzak helburu desberdinak ditu, eta helburu horiek norabide berezitua dute). Hori dela eta, hezkuntzaren ikuspegi komunitarioa normalizatzen duen eszenatoki baterantz aurrera-urratsak egin behar dira, zeregin komunitarioan ardura duten pertsonen eta eragileen aintzatespen soziala, politikoa eta instituzionala lortuz (Longás et. al, 2022).

Migratu duten pertsonen seme-alabek zenbait zailtasun eta erronken aurrean kokatu eta aurre egin beharra izaten dute harrera-herrialdeko hezkuntza-sisteman eta gizartean. Oraindik ere, bai eskolan, baita eskolatik kanpo ere, egiturazko desabantailek ezberdintasun egoerak erreproduzitzen jarraitzen dituzte. Rodriguez-Izquierdo eta Antolínez-Dominguezek (2023) dioten bezala, harreman asimetrikoen erreprodukzio sistemikoa gertatzen da, haur eta nerabeen berehalako etorkizunean eragina duena. Izan ere, kultura-ezberdintasunak, errealitate linguistikoak edota, zenbait kasutan, kanpokoarekiko mesfidantzak sozializazio eta herritartze prozesuak oztopatu, eta batzuetan, galarazten dituzte.

Eskolaz-kanpoko jardueren parte-hartzea hezkuntza aukera berdintasunaren ikuspegitik lantzen duten azterlanetan (Enguita, 2016) bi alderdi garrantzitsu azpimarratzen dira, besteak beste. Bata, eskolaz kanpoko jardueren merkantilizazioak oztopo argia direla baliabide gutxien dituzten edo desabantaila egoeran dauden familientzako. Bestea, eskolaz-kanpoko jarduerak haur eta gazteen eskubide gisa aitortzeko beharrak duen garrantzia. Biak hala biak, funtsean inbertsio publikoa eta hezkuntza ez-arautua eskubide gisa aitortzea dakarte. Aipatutakoaz gain, kontuan izan behar da aipatu oztopoek eskolaz-kanpoko jardueretako sarbide-baldintza ekonomikoak ondorio segregatzaileak eragin ditzaketela eta, balio inklusiboak zalantzan jarri. Azkenik, aisialdiko espazioak zein baliabideak eskuratzeko oztopoak ere kontuan hartzeko egoerak izan ohi dira, aisialdiko baliabideen eta eskaintzari buruzko informazioren irisgarritasuna eta eskaintzaren ezagutza ezagatik edo hirien kokapen eta banaketa espazial estratifikatuagatik (Roman, Alonso eta Berasategi, 2018).

Komunitate inklusibo batek herritarren beharrei erantzuteko gai izan beharko luke eta, beraz, beharrezkoa da pertsonen parte-hartzea sustatzea eta esku-hartzea bideratzea. Hori dela eta, tokian tokiko gizartearen ikuspegi demokratikoak, komunitate zentzua garatzea, pertsona guztien beharrak kontuan izatea edo perspektiba instituzional batetik ere lan egitea, besteak beste (Berasategi et al., 2017) funtsezkoak dira.

Esandakoak esan, kontuan izan behar da pertsona migratuen, gutxiengo etnikoen eta jatorri atzerritarreko pertsonen herritartzeari buruzko lanek (Stodolska, 2015; Morata, Alonso, Palasí eta Berasategi, 2023), aisialdi eta jarduera sozio-kulturalek **onura** ugari eskaintzen dutela diotela. Horien artean, taldeen artean harremanak sortzea, kulturen arteko elkarreragina, harrera-herriko

hizkuntzaren ikaskuntza, komunitate-sareak indartzea edo pertsonen osasun fisikoa zein mentala hobetzea (Stodolska, 2015) ekar dezakeela baieztatzen da. Are gehiago, **gizarte-kohesiorako gakoa da** harremanen-sarea, ongizatea areagotu eta helburu pertsonalak lortzera laguntzen duela. Pertsona baten bizitzan harreman-ehunak babes eta laguntza gisa jarduten du aldi berean. Elkarrekintza sozialek berez duten baliotik abiatuta, ikusten da handitu egiten dela komunitate bateko kide izatearen sentimendua, elkarbizitzarako moldeak, hizkuntza eta balio komunak partekatzen direnean, profil heterogeneoak dituzten pertsonen arteko talkak geratzen direnean eta konfiantza-loturak eraikitzen direnean. Zehazki, euskal gizarteko errealitateak bere berezitasunak ditu hizkuntza, kultura eta integrazioari dagokionez. Euskara jakitea pertsona migratuentzat funtsezkoa izan arren, egoera konplexua bihurtzen da beraientzako euskarazko testuinguruetan sarbidea izan eta parte hartzeko. Alde batetik, bi hizkuntza eta bi kultura elkarreraginean daude eta biak jakin eta erabiltzea beharrezkoa litzatekeelako integrazioa garatzeko (Barquin eta Ruiz, 2009). Beste aldetik, gazteen identitatearen eraketan hizkuntzak har dezakeen lekua edo papera kontuan hartzea funtsezkoa delako eta baita hizkuntzarekiko zein hiztun-komunitatearekiko izan dezakeen jarreran era eragina izan dezakeelako (Giles eta Johnson, 1987)

Komunitatean eta komunitatetik herritar guztientzako pentsatu eta diseinatutako aisialdiko hezkuntza-prozesu eta esperientziak sortzea funtsezkoa da harreman-sarea (Ozamiz, Jimenez eta Picaza, 2019) eta hizkuntza eta kultura norbereganatzeko, eta komunitatearen gizarte-kohesiorako (Iglesias eta Espona, 2017). Oinarri komunitarioa duen aisialdiak hezkuntza testuinguru estrategiko gisa ulertu behar da gizarte-kohesiorako. Oinarri komunitario horrek, tokian tokiko aisialdiko eskaintza estrategikoki pentsatu eta garatu behar du, bere inguruneko aniztasunarekiko sentsibilizazioa, elkarrekintza sustatzeko ikastetxeekin elkarlanean (Iglesias-Vidal, eta Espona-Barcons, 2017).

Oinarri komunitarioa eta inklusiboa duen aisialdi eskaintzari erreparatuz, amaitzeko, Iglesias eta Esponak (2017, 150-155 orr.) egindako ikerketan proposatzen dutenari erreparatuz, zera da kontuan hartzekoa:

Eskaintzaren antolaketari dagokionez:

- Eskaintzaren izaeratik hezkuntza-inklusioa garatzea eta inguruneko aniztasun soziokulturala islatzea parte-hartzaileen bidez.
- Parte hartzearen begirada zabal eta aktiboa: familien eta haur eta gazteen parte hartzea.
- Aisialdi eskaintzaren aitortza soziala: udalerriko zerbitzu eta erakundeetatik aisialdiko eskaintzari buruzko orientazioa eta balorazio positiboa egiten da.
- Kuotetarako ordainketa-baliabideak: laguntza ekonomikorako sistema bat aplikatzea familia-zailtasunen aurrean.
- Aniztasun soziokulturalaren isla aisialdi eskaintzaren antolaketarako taldean: hezitzaileen artean komunitatean dauden talde soziokulturaletako kideak integratzea. Antolamendu-erabaki honek testuinguru kulturaniztuneko egoerak ulertzea eta ingurunearekin komunikatzeko estrategia berriak eskuratzea dakar.
- Aisialdiko eskaintza ikastetxeei aurkeztea: irakasleen aisialdiko jardueren hezkuntza-zentzua ezagutzea lortzen da eta ikasleen interesa piztu.
- Espazio publikoetan ikusaraztea: helburua da, egun espezifikoetan, parte-hartzaileen kopurua handitzea komunitatearentzat esanguratsuak diren espazio publikoetan hezkuntza-jarduerak garatuz.

- Aisialdi eskaintzako parte hartzaileen balorazioak egitea: gertutasuna, konfiantza eta segurtasuna gakoak izatea balorazioetan.

Eskaintzaren izaera komunitarioari dagokionez:

- Dimentsio komunitarioa indartzea: aisialdiko hezkuntza-prozesu eta esperientziak dimentsio komunitarioa dutela aitortu eta horiek diseinatzeko arduradunek begirada komunitarioa lantzea eta integratzea. Begirada komunitariotik garapenerako eta prebentziorako esperientziak izan behar dira. Norabide horretan, inguruko komunitatearen etengabeko irakurketa kolektiboa egitea komeni da Udala, ikastetxeak, eragileak edo familiak parte hartuz.
- Gogoeta: ikastetxeetako eta hauen gertuko inguruneko aniztasun soziokulturalaren presentziari eta harremanei buruz hausnartzea. Komeni da identifikatzea kontzentrazio eta bereizketa prozesuek dituzten ondorioak ere bai.
- Ikastetxeak eta aisialdiko eskaintza kultur-komunitate jakinekin lotzen dituzten bide-komunikatzaileak identifikatzea, eta horiek sorrarazten dituzten irudi sozialak eta espektatibak ezagutzea.
- Familiek aisialdiarekiko egiten dituzten loturak ezagutzea, zein balio eta hezkuntza-zentzu eraikitzen duten. Aisialdiaren alderdi propioak eta gehitu daitezkeenak aintzat hartzea komeni da, alegia harrera-kulturaren eta jatorrizko kulturaren eta balioen arteko presentzia eta zubiak eraikitzen lagundu dezake.

Azken ondorio gisa, gomendagarria da antolamendu- eta komunitate-eremuetako alderdiak uztartzen dituzten proposamenak egitea hezkuntza-kontzentrazio eta -segregazio prozesuak gainditzen lagundu eta bizikidetza sustatzeko. Hala, gizarte-kohesioaren ikuspegitik, aniztasunari arreta emateko talde komunitarioak eratzea proposatzen da, administrazio eta hezkuntza-erakundeak elkarlanean. Horregatik guztiagatik, aisialdi hezitzaile eta kalitatezkoa lortzea inbertsio publikoa behar da, ongizate eta ekitate maila areagotzeko (Longás et. al, 2022).

Herriko bizikidetzarako palanka haur eta gazteen babesa eta tratu onak bihurtzeko asmoari erreparatu behar zaio azkenik.

Haurtzaroan eta nerabezaroan tratu ona ematea eta jasotzea funtsezkoa da gure gizartearen ongizaterako. Haur eta nerabeen babesean, babesgabetasun- edo gatazka-kasuetan arreta jarri behar da, baina baita prebentzio-ekintzak ere sustatu behar dira. Familia, komunitatea, ikastetxea, osasun-zentroa edo gizarte-zerbitzuak dira haurrak eta gazteak artatzeko protagonistak.

Haurtzaroan ongizatea sustatzeko ekintzek esku hartzeko hainbat baliabide eskatzen dituzte. Oro har, haurren garapen kognitiboan, emozionalean eta sozialean haurren oinarrizko premiak betetzen direla bermatzeko politikak kontuan hartu behar dira.

Arreta emateko, lankidetzan eta koordinatuta lan egin behar da, ikuspegi partekatu batetik, haurren ongizate integralari laguntzeko (Martínez eta Azcona, 2020). Sarean lan egiteko metodologiak ibilbide luzea du haur eta nerabeekiko esku-hartzean, baina nola sustatu? Nork gidatu behar du? Zer eduki landu? Nola finkatu?

Haurren arretaren esparruan, lurralde jakin batean biztanleria horrekin lan egiten duten eragileak biltzen dituzten lan-sareak beharrezkoak dira. Sare horretako esku-hartzea, eremu ezberdinetako alderdiak aztertzeko osagaiak eskaintzen ditu. Koordinazio-egitura batek, lan-talde bat eskatzen du,

profesionalek eta beste parte-hartzaile batzuek osatutakoa. Lurralde komun batean, biztanleria jakin batekin lan egiten duten hainbat zerbitzutako profesionalen arteko elkargune eta elkarlanerako gune gisa ulertu behar da egitura saretua. Modu koordinatuan, lankidetzan eta taldean aritu den egiturak, funtzionatzeko molda bateratu bat eta dauden premia-egoera erantzun bateratua ematera bideratzen dena. Azkenik, haur eta nerabeen beharrizanak identifikatu eta modu integralean asetzeko jarduerak aurrera eramateko proposamenak bideratzeko funtzioa izan behar du komunitatearekin eta bertako zerbitzuen laguntzarekin. Ikuspegi horrek berekin eraman behar du haur eta nerabeekiko herri atseginagoa izateko estrategia (Martínez eta Azcona, 2020).

## 6. BIBLIOGRAFIA


Ainscow, M. (2005) Developing inclusive education systems: What are the levers for change. *Journal of Educational Change 6(2),* doi: 10.1007/s10833-005-1298-4

Ainscow, M. (2010). Achieving excellence and equity: reflections on the development of practices in one local district over 10 years. *School Effectiveness and School Improvement, 21 (1)*, 75-91.

Ainscow, M., Dyson, A. Goldrick, S. eta West, M. (2012). Developing equitable education systems. Routledge.

Altuna Ramírez, J. (2023). *Hizkuntzaren funanbulistak. Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta*. [Doktorego Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. https://addi.ehu.es/handle/10810/62640

Amonarriz, K., & Martinez de Lagos, I. (2017/). Bidegurutzetik ateratzeko palankak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 103*(2), 27–38.

Amorrortu, E.; Ortega, A.; Idiazabal, I. eta Barreña, A. (2009). Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Azorín, C. eta Ainscow, M. (2018). Guiding schools on their journey towards inclusion, *International Journal of Inclusive Education, 24 (1)*, 58-76. doi: 10.1080/13603116.2018.1450900

Aztiker Ikergunea (2021). *Euskalduntzerako hezkuntza akordio bat*. https://aztiker.eus/wp-%20content/uploads/2021/12/AZTIKER_EUSKALDUNTZERAKO-HEZKUNTZA-AKORDIO-BAT-%202.pdf

Barquín, A., eta Ruiz, U. (2009). Hizkuntzen kudeaketa eskolan. *Tantak. EHUko Hezkuntza Aldizkaria., 21(1),* 7-15. doi: https://doi.org/10.1387/tantak.2894

Berasategi, N., Arribas, A., Alonso, I. eta Alonso, H. (2017). Aisialdia, jarduera soziokulturala eta inklusio soziala: Abusuko kasua. *Uztaro, Giza eta gizarte zientzien aldizkaria, 103,* 27-39. doi: 10.26876/uztaro.103.2017.2

Berasategi, N., Larrañaga, N., Garcia, I. eta Azurmendi, M.J. (2016). Kulturarteko harremanak bigarren Hezkuntzan: ikasle etorkin eta bertakoen akulturazio-orientazioak. *Tantak, 28 (2)*, 61-83. doi: 10.1387/tantak.17481

Chapman, C. eta Hadfield, M. (2010). School-based networking for educational change. In Hargreaves, A., Lieberman, A., Fullan, M. eta Hopkins, D. (Eds). Second Handbook of Educational Change. Springer765-780 orr.

Di Napoli, I., Dolce, P., eta Arcidiacono, C. (2019). Community trust: A social indicator related to community engagement. *Social Indicators Research, 145*, 551-579.

Escudero, J.M. (2016). Inclusión y exclusión educativa: realidades, miradas y propuestas. Nau Llibres.

Fullaondo, A. (2017). Hurbilketa teorikoa eta kontzeptuala. In J.A. Olariaga (arg.), *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak.* Ikuspegi-UPV/EHU.

Garaio Mendizabal, B. (2022) *Euskara eleaniztasunean irakasten duten eskolak aztergai. D ereduko Gasteizko bi eskolen indarguneak identifikatzen*. [Doktorego Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. https://addi.ehu.es/handle/10810/57442

García, S. eta González, T. (2022). Análisis de la inmigración en el sistema educativo español. Una propuesta intercultural para facilitar el duelo migratorio y la inclusión. *RES, Revista de Educación Social Número 34*, urtarrila-ekaina.

Giles, H. eta Johnson, P. (1987). Ethnolinguistic identity theory: a social psycho-logical approach to language maintenance. *International Journal of the Socio-logy of Language, 68*, 69-99.

Harris, J., Carrington, S. eta Ainscow, M. (2017). *Promoting Equity in Schools: Collaboration, Inquiry and Ethical Leadership*. Routledge.

Iglesias-Vidal, E., eta Espona-Barcons, B. (2017). Propuestas para el desarrollo de la interculturalidad en la educación en el tiempo libre de base comunitaria en Catalunya. Pedagogía Social. *Revista Interuniversitaria, 30,* 145-157. doi: 10.7179/PSRI_2017.30.10

Iurrebaso Biteri, I. (2023). *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa*. [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. https://addi.ehu.es/handle/10810/60061

Klarenbeek, L. M. (2021). Reconceptualising ‘integration as a two-way process’. *Migration studies, 9(3)*, 902-921.

Longás,, J., Vilar, J., Torralbo, M., González-Saavedra, C. eta Vilas, M. (2022). Ocio y tiempo libre. Espacios para la educación del futuro. La Caixa Fundazioa.

Martínez, L., eta Azcona, A. (2020). Trabajo en red como metodología de intervención con la infancia y adolescencia: claves para su consolidación. *Revista sobre la Infancia y la Adolescencia, 18*, 37-59.

Martinez de Luna, I. (1995). Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 18*(1), 39–52.

Martinez de Luna, I. (2012). Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 84*(3), 121–137.

Marzana, D., Alfieri, S., eta Marta, E. (2016). The multidimensional nature of young immigrants’ well-being. *Rivista internazionale di scienze sociali, 1(1)*, 21-40.

Morata, T., Alonso, I., Palasí, E., eta Berasategi, N. (2023). Ocio educativo y acción sociocultural, promotores de participación y cohesión social. *Bordón. Revista de Pedagogía, 75(2)*, 67-86.

Moreno, G. (2017). Adituen ikuspegia. In J.A. Olariaga (arg.), *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak*. Ikuspegi-UPV/EHU.

Muijs, D., Ainscow, M., Chapman, C. eta West, M. (2011). *Collaboration and Networking in Education*. Springer.

Opertti, R., Walker, Z. eta Zhang, Y. 2014. “Inclusive Education: From Targeting Groups and Schools to Achieving Quality Education as the Core of EFA.” In The SAGE Handbook of Special Education. 2nd Revised ed., 149–169. Sage.

Ozamiz, N., Jiménez, E. eta Picaza, M. (2019). Grupos de ocio para adolescentes: educando las habilidades sociales para la promoción de la salud mental positiva. *Educació social. Revista d'intervenció socioeducativa, (73)*, 97-116. doi: https://doi.org/10.48102/rlee.2022.52.2.396

Rodríguez-Izquierdo, R. eta Antolínez-Domínguez, I. (2023). Barreras y estrategias del alumnado inmigrante en su experiencia escolar. *Revista Mexicana de Sociología, 85(2),* 339-369. doi: http://dx.doi.org/10.22201/iis.01882503p.2023.2.60562

Sánchez Carrión, J. M. “txepetx”. (1987). Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas. Donostia-San Sebastián.

Soziolinguistika Klusterra (2022) *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Euskal Herria, 2021.* *https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021/*

UNESCO. 2009. *Policy Guidelines on Inclusion in Education*. UNESCO.

Villaverde, M.J. (2015). La construcción de identidades en adolescentes de origen extranjero y los discursos sobre duelo migratorio. Implicaciones en educación intercultural. [Doktore Tesia, Oviedoko Unibertsitatea]. https://digibuo.uniovi.es/dspace/bitstream/handle/10651/36730/TD_MariaJoseVillaverdeAguilera.pdf?sequence=6

Zalbide, M. (2016/). Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, *100*(3), 11–190.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

elhuyar



2024ko edizioa